

Euskarazko prentsa eta Azpeitia

berria

Udalbiltzako 21 kide auzipetu ditu
Garzonek, ETAkoak izatea egotzita

uztarria

hnt

AZPEITIKO KULTUR KOORDINADORA

Uztarriaren liburuak

- ▶ Joxe Takolo. Kontrarioz gabeko gizona
- ▶ Angel Otaegi. Frankismoak sinbolo bihurtu zuen abertzalea
- ▶ Imanol Elias. Herria maitatzeko era asko daudelako
- ▶ Patxi Altuna. Nolanahi ere, maisu
- ▶ Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar
- ▶ Azpeitiko mendi gida. Gure inguruak ezagutzen
- ▶ Euskarazko prentsa eta Azpeitia





EUSKARAZKO PRENTSA ETA AZPEITIA

herri eraikuntzarako zutabea

uztarria



AZPEITIKO KULTUR KOORDINADORA

© **Egilea.** Uztarria Kultur Koordinadora

2004ko urria

Azala. Hitzeko Euskara eta Komunikazio Zerbitzuak (Azpeitia)

Diseinua eta maketazioa. Hitzeko Euskara eta Komunikazio Zerbitzuak (Azpeitia)

I.S.B.N. 84-609-2669-9

Lege gordailua. SS-1228/04

Inprimaketa. Leitzaran Grafikak (Andoain)

Uztarria Kultur Koordinadora.

Helbidea ▶ Julian Elorza Hiribidea 4, behea eskubia. Azpeitia (Gipuzkoa), 20730

Posta kutxa ▶ 227, Azpeitia

Telefono zenbakia ▶ 943 15 03 58

Fax zenbakia ▶ 943 15 03 58

Posta elektronikoa ▶ uztarria@topagunea.com

Web orrialdea ▶ www.uztarria.com



AURKIBIDEA

1. Historia: Azpeitia, Euskal Herria	7-29
2. Pentsako kioskoen egoera	31-37
3. Uztarria aldizkariaren sorrera	39-71
4. 'Egunkaria': erantzuna Azpeitian	73-125
5. Azpeitiarrok hitza, egunero	127-149
6. Konpromisoa, irudietan	151-172

1 HISTORIA: AZPEITIA, EUSKAL HERRIA

Azkeneko mendearen lekuko azpeitiarrak

Gaur egun behin ere baino indar eta presentzia handiagoa du euskarazko prentsak Azpeitian, egunero banatzen delako 'Urola-Kostako Hitza' egunkaria, hileru Uztarría aldizkaria, kazetari azpeitiar asko dagoelako... baina herritarrek prentsan aspalditik egon izan dira. Iazko mende hasieran dagoeneko bazen mugimendurik. Azkeneko gizaldiaren laburpena da ondorengoa.

Oihana Elduainen (kazetaria; 2004-urria, 'Euskara prentsa eta Azpeitia' libururako egindako erreportaia)

Azpeitiarrak leku guztietan daude". Hala dio Iñaki Goenaga Sistiya, 99 urte dituen azpeitiarrak. Horregatik izango da, agian, munduan gertatzen denaren berri emateko azpeitiarrek duten joera. Kazetaritzaren historiari erreparatuz gero, zutarrí gehienetan aurki daiteke herritarren baten aztarna. Herri ertaina izateko (13.500 biztanle pasatxo gaur egun), kazetari ugariaren harrobia izan da Azpeitia. Ama hizkuntzaren izena agerian, euskaraz egin dute, gainera, beraien lana gehienek.

Garai desberdin ugari bizi izan diren arren, kazetaritza lan hori euskaraz egitea ez da erraza izan inoiz. Zentsuratik hasi eta egunkariak ixterainoko neurriak ezagutu ditu euskal kazetaritzak. Azpeitiarrak horren lekuko izan dira, eta lekukotasuna utzi dute.

Garai beretsukoak ziren Iñaki Azpiazu (1910-1988), Ildefonso Gurrutxaga (1902-1974), Jose Artetxe (1906-1971), Iñaki Goenaga (1904) eta Julian Elorza (1878-1964), eta zentsura, gerra eta erbestea beraien larruan bizi izan zituzten. Hala ere, garaiak eskaintzen zizkien euskal komunikabideei heldu, eta lan asko egin zuten haiek, hobetzen eta gidatzen. Haien aurretik ere izan edo egin zen zerbait Azpeitian euskara idatziaren alorrean. Adibidez, 1893. urtean Antoine d'Abbadie zientzialari eta euskaltzale zuberotarrak sortu eta antolatutako Euskal Jaiak ospatu ziren eta, besteak beste, literatur lehiaketak egin ziren. 1901. urtean, berriz, Euskal Festen XX. edizioa herrian izan zen, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta, eta edozein probintziko euskal hizkeran idatzitako lanak saritu ziren, gipuzkeraz idatzitakoak ere bai... Euskara idatzia, beraz.

Azpiazu, Gurrutxaga eta haien garaira itzuliz, haietako askoren izenak ageri dira 1923ko San Inazio egunean argitaratu zen *Urola* aldizkariaren 1. zenbakian. Eskualdeko aldizkaria zen –batik bat, Azpeitiko berri zekarren–, eta honako asmoa zuen: "*En la modesta esfera de nuestras pretensiones, carecemos de ideario político; en nuestras convencionales salidas defenderemos lo que todo vascongado ha de defender por exigirlo así sus antecedentes históricos y su peculiar forma de ser; la religión y la moral más estricta encontrarán en nosotros defensores a carta cabal. En los otros aspectos de la vida social, nuestra norma será estimular todo factor positivo en la lucha del vivir individual y colectivo, siempre que sean compatibles con la anterior afirmación*".

Aldizkari hartan orrialde bakarra zegoen euskaraz, eta bertan euskaraz idazteko esku-bidea aldarrikatu zuen *Euzkaldun Sendagilea* izenean sinatu zuen batek, *Euzkerarako zale-tazuna* izenburuko artikuluan hain zuzen: "Azpeitiko e'riyan, geure jayote'riyan, aldizkingi edo e'rebista' bat ateratzera emen dijuaz gazte bula'rtzu batzuek. ¿Badaukagu ez kubide-

rik aldizkingi o'retarako o'ri edo ingietan ezkatzeko tokitxo labu'r bat, bazta'rtxo bat, euzkeraz azaltzeko euzkerarentzako zaletazuna? Baietz uzte degu, eta beragaz ja'rduntxo bat guaz gure izkuntza biotzeko onetan, geure amak mintzatu edo itz egin zigun euzkera onetan egitera”.

Inguruko publizitatea diru iturri bezala ibili zuten orduan, orain egiten den bezala. Diru iturri oparoa zen, inondik ere: *Urola* aldizkariaren 1. zenbakian argitaratu ziren orrialdeen erdia inguru publizitatea zen, alajaina! Azpeitiko iragarkiak, aberats famari kalerik egin gabe, nagusi: orrialde erdiko 11 modulo, orrialde hereneko 12, laurdeneko 3 eta zortzireneko 18.

1931n, berriz, *Azpeitia sus costumbres y sus fiestas izenarekin* beste agerkari bat argitaratu zuten. Izenak berak dioen bezala, herriko festen eta ohituren inguruan egindako agerkaria zen. 44 orrialdeetatik, bat eta erdi euskaraz. San Inazio bigarrenez egiten den prozesioaren kronika antzeko bat egin zuen Oitz'dar Xabier'ek, orrialde batean, euskaraz. Beste orrialde erdian, *Azpeiti 'E'renak'* ikusita goiburupean, pasadizo bat kontatu zuten, batere sinadurarik gabe.

► **Iñaki Goenaga, aitzindari.** Kazetari lanak egiten lehendabizietako azpeitiarra Iñaki Goenaga *Sistiya* bera izango zen. Izan ere, kazetari lan ugari egindakoa da Sistiya. Garai hartan, prentsa abertzale jeltzalea eta erlijiosoa ziren nagusi, eta Goenagak horietantxe aurkitu zuen txokoa. “Filosofia ikasten ari nintzela, ia-ia neuk bakarrik egiten nuen *Jesus'en Biotzaren Deya* aldizkaria”. Gaur egun, ezizenarekin sinatzea debekatuta dago idatzizko kazeta askotan, norberak bere lanaren erantzule izan behar duela argudiatuta. Sistiya gus-tura asko onartzen du orain berak egindako lana; orduan, ordea, ez zuen bere izenarekin sinatzen. Idazteko zuen gaiaren arabera izen desberdin ugari erabiltzen zuen: *Ormaetxe*, *Sistiya*, *Oñatz-Mendi*, *Niso*...

1917an sortu zen *Jesus'en Biotzaren Deya*. Jesuiten prentsa bezala definitzen du Javier Diaz Nocik euskarazko prentsari buruz egina duen liburuan (*Euskal kazetaritzaren historia*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1999, <http://www.eusko-ikaskuntza.org/ephtml/>). Hizkuntzaren arloan, aldizkari erlijiosoen garrantzi handia eduki zuten garai hartan, euskararen alde lan asko egin zutelako.

El Dia egunkarian ere jardun zuen Goenagak, Espainiako gerra zibilaren aurretik. Egunkari hura 1930ean sortu zen, eta gerra garaira arte iraun zuen, 1936a arte. *El Dia*-k elebitasunaren aldeko apustua egin zuen (gaztelania eta euskara). Izan ere, garai hartan euskarazko prentsa idatziaren eta honen finantzazioaren eztabaida gori-gorian zegoen. Ricardo Leizaola (1921etik argitaratzen zen *Argia* Donostiako aldizkariaren inprimatzailea zen. *Argia* hori ez nahastu *Zeruko Argia*-rekin; hau 1919an sortu zuten Iruñeko kaputxinoek, eta gerra ondoren berriro argitaratzeari ekin zioten, gaur egungo *Argia* bihurtzeraino; 1921ean sortu zen *Argia*, berriz, 1936an betiko desagertu zen), Jose Ariztimuño *Aitzol*-ek, Pio Montoiak eta abarrek ez zuten euskarazko produktu bat posible ikusten, diruagatik, eta horrexagatik egin zuten *El Dia* elebidunaren aldeko hautua. *El Dia*-ren sorrerarekin, *Argia*-k tirada jaitsi egin behar izan zuen. Elebiduna izateaz gain, prentsa independentea egiten hasi ziren, Aitzolek hala erabakita, partidukoa (EAJkoa) izango ez zen egunkaria.

Hala ere, politika gaiak ideologia abertzale nabarmenarekin jorratzen ziren. Han zebilen Iñaki Goenaga loiolatar gaztea; Aitzolek berak esanda joan zen *El Dia*-ra lanera.

El Dia-ren elebitasunerako hautua ez zitzaien asko gustatu garai hartan euskal prentsaren aldeko zirenei. “Baina *El Dia*-rena *Argia* donostiarrekin alderatuz atzerapausoa baino ez da. *El Dia*-k ez du euskararentzako formula berririk eta are guttiago eraginkorrik asmatzen. Eta aldiz, etsipenerako bidean jarri zituen euskaldunak”, dio Jexuxmari Zalakainek bere liburuan (*Joxemiren uzta. Euskal prentsa herri proiektua da*).

Donostiarrek 1921ean sortutako *Argia*-k bere garrantzia eduki zuen arlo batzuetan. Adibidez, gizartean eragiten; besteak beste, Azpeitikoan. Espainiako II. Errepublika garaian (1931ko apirilaren 14an aldarrikatu zen), *Argia* Eusko Nekazarien Bazkunaren bozeramaile bihurtu zen. “Komunisten eta sozialisten ahaleginek bultzatuta –komunista asko euskaldunak ziren–, *Argia* ingurukoek erabaki zuten nekazaritza-sindikatuak sortzea. 1933ko otsailaren 12an sortu zen, Zumarragan”, dio Diaz Nocik bere liburuan. Eta sorrera horretaz informatuta zeuden azpeitiarrak. “Dirudienez, [sindikatuak sortzeko] lan egin zuten herriak Zarautz, Azkoitia eta Azpeitia izan ziren, han non *Argia* ere gehien irakurtzen zen”. Azpeitian sindikatuak kooperatiba bat eduki zuen.

Argia euskarazko aldizkaria Azpeitian irakurtzen zela, beraz. Hori dela eta, hortaz, Xabier Lizardi euskal idazle ezagunaren gogoeten berri bazuten azpeitiarrek. Hau da, Lizardi 1929an, *Argia*-n idatziz, euskarazko egunkari bat sortu behar zela esaten hasi zen, eta gaia serio hartzen hasi ziren. Baina dirua jarriko zuten harpidedunik ez eta ezin izan zuen aurrera egin.

Sistiyarengana itzuliz, *El Dia* utzi zuen, egunkaria itxi egin zelako, baina ez zen han bukatu haren kazetari lana. Espainiako gerra zibilaren lekuko izan zen, eta gerra kronikak egiten zituen, *Euzkadi* egunkarian –Bilbon argitaratzen zen–, bai euskaraz eta bai gazteleraz. *Euzkadi*, egunkari jeltzalea zen; 1913-1937ra bitartean erabaki zuen EAJk egunkari hura argitaratzea (gero atzerrian hainbat lekutan atera zen). Arrakasta handia izan zuen kazetak.

► **Ildefonso Gurrutxaga, Karmelo Etxegarai, Iñaki Azpiazu...** Sistiyak gerratik kronikak idazten zituen bitartean, beste zenbait azpeitiar ihesean ibili ziren. Ildefonso Gurrutxagak, esaterako, ihesari eman zion 1936ko uztailaren 18an Espainiako gerra hasi zenean (Mola jeneralaren tropak herrian sartu aurretikoan alde egin zuen Azpeititik hark, Eusko Jaurlaritzako fiskal lana betetzeko Bilbo galdu arte, eta Espainian ibili zen Errepublikarentzat lanean gerra amaitu arte. Gainera, Azpeitiko Gerra Batzordeko buru izan zen), eta Buenos Aireseraino iritsi zen 1942an, Argentinara. Erbestean zegoela, *Euzko Deya*-n (1943an hasi izen lanean), *Tierra Vasca*-n (*Saski Naski* zen idazten zuen sailaren izena), *Galeuzka*-n eta *Euskaltzaleak*-en idatzi izan zuen, *Bidasoa* edo *Iñigo de Uranga* ezizenekin. Edizioa itxi eta gero bidaltzen omen zituen beti bere lanak. Atzerrian euskaraz idazteko aukera asko zegoen orduan, Euskal Herrian ez bezala.

Hori baino lehenago ere astindu zuen luma Gurrutxagak. Deustuko Unibertsitatean ikasi zuen, eta 1927an dagoeneko Azpeitiko teniente alkatea zen, eta EAJn egon zen 1930 ingurutik. Ordurako *Jakintza*-n eta *Revista Internacional de Estudios Vascos*-en idazten

zuen. 1907an sortu zuen *Revista Internacional de Estudios Vascos* Julio Urkixok. 1922an Eusko Ikaskuntzaren esku geratu zen, eta artikulua zientifikoak ateratzen ziren, batez ere. Han idazten zuela, gerra tarteko jarri zitzaion Gurrutxagari, eta lan hori utzi egin behar izan zuen. Kazetaritaz gain, beste lan mardulagoak ere egin zituen. 1974an, hil zenean, Loiolara pasatu zen haren artxiboa: *Fontes Vasconiae, Las Guerras Carlistas del Siglo XIX y sus significacion en la historia vasca...*

Karmelo Etxegaraik (1865-1925) ere idatzi zuen *Revista Internacional de Estudios Vascos*-en. Historialaria eta idazlea zen Etxegarai. Batik bat gazteleraz idatzi bazuen ere, *Euskalerrria*, *Euskaltzale* eta *Euskal Esnalea* aldizkarietan euskaraz idatzi zuen. 1911n sortu zuten *Euskalerrriaren alde*-ren sortzaileetako ere izan zen, Domingo Agirre, Arturo Campión eta Julio Urkixorekin batera. Zuzendari, Gregorio Mujika izan zuten. Aldizkari hartan ikerketa eta dibulgazioa bateratzen ziren. 1923an euskaltzain oso izendatu zuten Etxegarai, eta Espainiako Historiako Erret Akademiako kide ere izan zen.

lñaki Azpiazu (1910-1988) apaizari ere erdiz erdi moztu zion ibilbidea Espainiako gerrak. Azpiazu *detenido fusilable* izendatu zuten. Leporatzen ziotena zera zen: euskal langileen elkartasunaren alde lan egitea. Langileen eta euskararen alde gehiegi hitz egiten zuela iritzi zion alkateak, "gizon bikaina" zen arren. Ihes egitea lortu zuen. Zientzia Politiko eta Sozialak ikasi zituen Azpiazuk, Lilleko (Frantzia) unibertsitatean. 1934an, handik Euskal Herrira etorri zenean, Gesaltza Añanan (Araba) Solidaridad de Trabajadores Vascos-en hasi zen lanean.

1936ko irailaren 17an, Espainiako Gobernuako Gerra Batzordeak bandoa argitaratu zuen, "*tropas sublevadas*" zirelakoak herrira sartzear zeudela eta errepresaliak izan zitzakeenak herritik hanka egiteko iragarritz. Herritik ez alde egitea erabaki zuen Azpiazuk, *detenido fusilable* izendatu zuten arte. Orduan egin zuen Azpiazuk bere lan aipagarrienetako bat: *Siete meses y siete días en la España de Franco*.

Frantziara joan zen lehenengo, eta gero, Ildefonso Gurrutxaga bezala: Buenos Airesera. Ez ziren urruti ibiliko. Azpiazuk *Euskaltzaleak* zuzendu zuen bolada batean: 1954tik 1960ra. Bi *Euskaltzaleak* zeuden orduan Buenos Airesen: bat bi-hilabetekaria zen, eta euskaraz argitaratzen zuten; bestea, berriz, hilabetekaria zen, eta euskaraz eta gazteleraz argitaratzen zen.

Idazle lan handiak ere egin zituen Azpiazuk, *Anayak* (1939an Espainiako gerra amaitu zenean sortu zuten erbesteratutako euskal apaizek, Parisen), *Eusko Deya* (1936an Eusko Jaurlarizak Parisen sortua; frantsesez, euskaraz eta gazteleraz egiten zen, atzerrian propaganda eta informazioa zabaltzearen helburuarekin), *Gernika* eta *Gure Herria* aldizkarietan. Lehen aipatutako *Siete meses y siete días en la España de Franco*, eta *El caso del clero vasco* dira haren lanik ezagunenak. Kazetari bezala egin zituen lanak: Israelen *El Correo de La Tarde*-ko berriemaile moduan aritu zen Adol Eichmann-en epaiketan, eta II. Vatikanoko Kontzilioan ere bai. Egunkari ugaritan kolaboratu zuen.

Atzerrira joan ez zen azpeitiarrik ere bazen, ordea. Esaterako, Jose Artetxe (1906-1971). Bestiak atzerrian zeuden bitartean, hemen gelditu zirenek *Egan*-en idazten zuten. Artetxe ere aritu zen, 1951tik aurrera. *Egan*-en literatur sorkuntzako lanak egin zituen,

euskaraz. Agerkari hori elebiduna zen, eta atzerrian ez zeuden euskal kulturako izen garrantzitsuek idatzi zuten bertan.

Azeptian jaiogatik ere, Donostian egin zuen bere biziaren zatirik handiena Jose Artetxek. Etxeko diru faltak bultzatuta goiz hasi zen lanean. 21 urterekin hasi zen kazetaritzan, eta lan eskerga egin zuen. Gaztelera prentsari lotu zitzaion batik bat, baina euskaraz ere egin zituen aipatzeko moduko lanak. *Zeruko Argia*-n (1919an sortu zen aldizkari erlijioso) ehun artikulutik gora idatzi zituen. Astero zutabea egiten zuen han. Zentsuraren aurkako adierazpen ugari egin zituen. 1950ean, *Un vasco en la postguerra* bere lanean, euskara "hizkuntza subertsiboa" zela adierazi zuen, artikulua baten erdian euskaraz jarritako bertso bat zentsuratu egin ziotela salatuz. 1953an ere agertu zen zentsura salatzen.

1953an hasi ziren *Egan* euskara hutsean argitaratzen. *Egan* 1948an sortu zuen Real Sociedad Vascongada Amigos del Pais-ek. Hasieran elebiduna zen, eta 1953an euskara hutsean argitaratzen hasi ziren. Garai hartan, mugak handiak ziren euskarazko prentsarentzat, baina muga haien barruan gauza txukunak egitea posible zela azaldu zuen Gurutz Ansola azeptiarrak. *Egan*-en zine eta antzerki kritika mamitsuak egiten hasi zen hura, kazetaritzaren modernitateari bidea irekiz. 1953tik 1987ra bitartean argitaratu zituen bere lanak.

Ez zen hura izan Ansolak euskarazko kazetaritzari egin zion ekarpen bakarra. 1963an *Zeruko Argia* berriaren lehen lan taldean egon zen Ansola. Aldizkariaren buru Agustín Ezeiza zen eta zenbait euskaltzalerengana jo zuen aldizkariaren nondik norakoetan laguntzeko. Ansolaz gain, Karlos Santamaria, Joxemi Zumalabe, Jose Arregi, Jose Mari Lasarte, Pedro Arre eta Aingeru Irigarai ere baziren talde hartan, besteak beste.

Jakin Sorta-n ere argitaratu izan ditu artikulua Ansolak: 1973an *Euskal kooperatibismoa aro berri baten atondoan*, 1992an *Maastricht eta Europar Batasuna*, 1992an *Europako ekonomi eta moneta-batasuna*, 1998an *Europar Banku Zentrala eta moneta-politika bakarra*.

Aurreko haiena bezala, frankismoaren bukaerako historia izan zen Leopoldo Etxeberriarena (1942-1981) ere. *Anatsan* ezizenarekin, iritzi artikulua sorta ederra idatzi zuen Leo Etxeberriak. Haren alargun Inaxita Bereziartuak dioenez, "beti euskaraz idazten zuen, dudarik gabe, euskara landuz", eta aspalditik izan zuen gogo hori. "Leo 12-14 urterekin hasi zen lanean. Gero, batez ere, langile mugimenduaren inguruan aritu zen, eta hor jardun zuen, taldeak-eta sortuz, ELAren inguruan. Hor bazegoen interes bat kulturarekin, batik bat sindikalismoarekiko, eta, dudarik gabe, politika eta euskal egoerarekiko kezka. Leok eta beste batzuek uste zuten azeptiarrak euskaraz alfabetatu egin behar zutela, eta gau eskola antolatu zuten. Gero, aditzak ikasten, eta egiten, eta... zer lan! Ondoren, horren inguruan zerbait idatzi egin behar zela iritzi zion, eta *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* aldizkarietan idatzi zuen; beste aldizkariaren batean artikuluren bat ere bai".

Garaiko gaiei buruz ematen zuen iritzia Etxeberriak: sindikalismoaz, euskara batuaz... *Zeruko Argia*-n jardun zuen batik bat, ia astero-astero idatziz. Idazteaz gain, antolaketan ere hartu zuen parte: *Zeruko Argia*-ren barne antolamendua berri zutenean, 1972 inguruan, idaz-elkartean sartu zen, eta astero joaten zen Donostiara. Franco hil (1975) eta gero, 1977an *Deia* egunkari ia erabat erdarazkoa sortu zenean, han ere jardun zuen lanean.

► **Loiola Irratiaren ekarpena euskarari.** 1961ean sortu zen Loiola Herri Irratia. Euskararen normalizazioan ekarpen handia egin zuen, Azpeitian. Autofinantzatutako irratia izan zen Loiolakoa. Auzo lanari esker egindakoa dela esan daiteke, Vatikanoko irratiko nazioarteko zerbitzu informatiboan zuzendari Inazio Arregik oñatiarrak *Berria*-ko *Igandea* gehigarrian 2004ko maiatzaren 9an esan bezala: "Loiola Herri Irratia komunikabideen munduan benetan gogoan hartu beharreko eredia izan da, egoerari adre handiz aurre egin ziolako. Aparatuak erosi, antenak bilatu, jarri, guri hilerok diru apur bat emango ziguten harpidedunak lortu".

Ez zen lan erraza izan Herri Irratiaren sorrera. Horretan ari zirela batu zitzaizkien Joxe Mari Iriondo azpeitiarra ere. Uztarria Azpeitiko aldizkariaren 42. zenbakian gogoratu zuen bezala, lan desberdin ugari egin zituen Iriondok Loiolan: "Kontabilitatea ematen eta fonotekan zer zegoen eta zerrenda bat egiten hasi nintzen, lehenengo. Gero, gidioak egiten, erredakzio lanak egiten. Azkenean, bertan 22 urte egin nituen".

Abiada hartu samarra zutenean, eta irratia trikimailuak ezagutzen hasi zirenean, irratia errentzat lehen kolpea etorri zen, Iriondok Uztarrian esan bezala, Fraga Iribarne Espainiako Gobernu frankistako Informazio saileko ministroak jarritako lege baten ondorioz. Nonbait, behin, kotxean zihoala, Fragak irratia batean iragarkiak euskaraz entzun zituen eta...; Loiola Irratia zen kate hura, eta Donostiako irratietatik-eta akusazioak egin zituzten, lehia desleiala zela esanez. "Fragak jarritako lege berriak zioen Espainia osoko probintzia bakoitzean kate bakoitzeko irratia bakarrak egon behar zuela. Gipuzkoan bi zeuden, Donostiako Herri Irratia eta Loiolakoa, eta bietatik bat itxi egin behar zen: Loiolakoa". 1965eko uztailaren 12a zen. Ixterakoan promesa bat egin zuten: FMn aterako zirela. Langabezia zeuden bitartean gestioak egin, eta 1966ko uztailaren 21ean berriro emititzen hasi ziren. Orduan bost mila bazkidetik gora lortu zituzten, eta sintonizatazaileak jartzera joan ziren etxetik etxe. Iriondo bera ere lantegi horretan ibili zen. Estudio eta zentro emisore berriarekin hasi ziren lanean.

Geroago, berriz, atentatua egin zioten Loiolako Herri Irratiari. 1977ko ekainaren 11n Batallón Vasco Español-ek irratia zentro emisorea suntsitu zuen, Elosukoa. Irratiak herri-tarrek zeukan lotura agerian gelditu zen orduan ere, eta 15 egun geroago berriro airean gotea lortu zuten. Garai gogorak ziren.

Inazio Arregik ondo gogoan du frankismoaren garaian irratian jasan zuten zentsura: "Guri aurretik eskatzen ziguten albiste moduan esan behar genuena aurkezteko. Hori ezinezkoa zen. Baina diskoak ere debekatuta zeuden. Horiek ziren gure mugak. Informazio aldetik ahal genuena egiten genuen; lege aldetik denak mugak ziren".

"Euskara normalizatzeko saiakera egin nahi zen", dio Iriondok, "baseritarrentzat, kaletarrentzat euskara normal erabil zitekeela adierazteko. Eta nik uste dut Loiola Irratiak lortu duen gauzarik onena hori izan dela".

Irratian sekulako esperientzia bildu ostean, telebistarako bidea egin zuen Iriondok. Espainiako Telebistaren *Telenorte* albistegi saiora joan zen lehenik. Han egin ziren, berak egiten zuen *Euskalerrria* saioan, "Hego Euskal Herrian euskaraz egin ziren lehenengo esperimentuak". Iriondo gero ETBra joan zen kate hori sortu eta laster, 1983ko apirilean.

Imanol Eliasek ere jardun zuen Loiola Herri Irratian. Esatariak behar zituztela, eta bera

eta Azpeitiko Institutu Laboralean lankide zuen Karmelo Otaegik eta biek han muturra sartzearabaki zuten. Herri Irratiaren lehen emankizunean zorian agurrak eman zituen Eliasek, euskaraz. Hura izan zen irratiaren lehen euskaraz egin zen lehen saioa. Ez zen, ordea, gustura sentitzen lan horretan, eta azkenean, egun batetik bestera, irratiara gehiago ez agertzea erabaki zuen.

Momentuan hala egin zuen, baina bueltan joan zen berriz ere, hurrengo urtean zehazki (1962an). Ez, ordea, esatari lanetara. Oraingoan *skech*-ak idaztera joan zen, *Andre Gizonak* irratsaiorako. Urte haren bukaeran, utzi egin zion *skech* horiek egiteari, eta berriro esatari moduan agertu zen, Azpeitiko eta Azkoitiko berriemaile lanetan. Imanol Eliasek 1986az geroztik Arrate Irratiaren jardun du, Azpeitiko eta inguruko berriak emanez, asteazkenero. Horretan dihardu.

Prentsan, berriz, 1968tik aurrera argitaratu zituen lanak. *Zeruko Argia*-n hasi zen, *Gaiztoa* ezizenarekin, *Mundu biribilla* izenburuko atalean. Astero zutabeak egiten zituen, aktualitateari buruz. Hala dio berak, Uztarriak argitaratu zuen bere biografian (2002): "Egunkarietan atentzioa ematen zidaten berriak hartzen nituen eta horien inguruko komentarioak eginez, ondoren berriarekin lotutako olerki bat eransten nion azpian".

Gero, *La Voz de España* egunkarian hasi zen idazten, kolaborazioak. *El Diario Vasco* egunkarian ere bai. 1968tik aurrera kazeta horietara bidaltzen zituen artikulu gehienek Azpeitiko gaiekin zuten lotura, 1969an eta 1970ean *La Voz de España*-n argitaratu zizkiontenak kenduta. Inork ez zion eskatzen artikuluak bidaltzeko, bere ekimenez idazten zituen, biografian esaten duen bezala: "Nik bidali egiten nituen. Lehenengoa bidali nuen eta atera egin zidaten, hurrengoa bidali eta hura ere atera egin zidaten, eta igual orrialde oso-oso, gainera... Beno, bidaltzen segitu nuen". Izena dena gazteleraz idazten zuen, baina zati bat euskaraz bidaltzen saiatzen zen, gazteleraz idatzitakoaren laburpen gisa. "Lehenengotik uste dut erdaraz soilik egiten hasi nintzela, baina gero euskaraz ere pusketak jartzen hasi nintzen, eta dena argitaratzen, dena ateratzen zidatenez, ba segitu. Behin zuloa harrapatuta koan...".

Imanol Eliasek bi aro izan zituen *El Diario Vasco* gaztelerazko egunkarian: hasieran, 1970. hamarkadatik 1990era bitartean, saninazioetako gehigarrietan idazten zuen, batik bat gazteleraz –normalean, artikulu bera *La Voz de España*-n ere ateratzen zioten–; 1989tik aurrera, berriz, *Hitz apurrak* sailean idazten zuen, astero, era guztietako gaiak landuz, euskaraz. "Ni euskara idatzia neure kasa ikasita nengoen, eta euskara batuaren aldaketa etorri zenean kostatu egin zitzaidan hartara jartzea". 1993an utzi egin zuen lantegi hori, 173 artikulu idatzi ondoren. 2000ko martxoan, Uztarria Azpeitiko euskarazko herri aldizkarian hasi zen idazten (1999ko azaroan sortu zen Uztarria aldizkaria), hilero, herriko historiari buruz, eta oraindik segitzen du.

Idatzi ez ezik, komunikabide bat ere sortu du Imanol Eliasek. 1983-1987 legealdirako Azpeitiko alkate aukeratu zuten, eta alkatetzan zegoela (1984ko abenduan utzi egin zuen, Euskal Herrian EAJ barruan zeuden liskarrak zirela medio), komunikazio proiektu bat jarri zuen abian: *Azpeitian zer?* udal aldizkaria. Hasieran ez zen erabat euskaraz. Oraindik ere segitzen du Udalaren aldizkariak, eta sortu zenetik, bi aldiz eraberritu dute.

Laxaro Azkune ere irрати gizona izan da. Beti euskalgintzan ibili izan da. 1975ean Loiolan Karmelo Etxegarai Ikastolan irakasle hasi zen, eta han egon zen 1983a arte, “denetik egiten”. Ikastolatik Loiola Herri Irratira joan zen, “lehen aldiz kazetari lanak egitera”. Euskaraz aritu izan da. 2000. urtean zuzendaritzako kide izendatu zuten. 2004ko urri hasiera arte egon da han. Prentsa idatzian ere egin ditu “kolaborazio txiki puntual batzuk”. *Euskaldunon Egunkaria*-n azken orrialde batzuk egin zituen, eta baita bertsolaritzari lotutako artikulu batzuk ere, “txapelketa garaian batez ere”. *Argia*-n ere antzeko lanak egin izan ditu, eta *Bertsolari* aldizkarian ere egin izan ditu zenbait lan. Aldizkari horren sortzaile taldean egon zen Laxaro Azkune. 2003ko azarotik Uztarria Kultur Koordinadorako lehendakaria da.

Irratiarekin bukatzeko, Iñaki Elorza Euskadi Irratiaren hasieratik dabil (1982), euskaraz egiten kazetaritza, batik bat kirol kontuak. Txetxu Urbietak ere urteak daramatza irрати kate berean (1990etik), honek ere kiroletan. Axun Arozena ia hasieratik dago han...

► **Loraldia frankismoaren ondoren.** Frankismoa amaituta, euskarazko prentsaren loraldia hasi zen Euskal Herrian, eta azpeitiarrak, horren lekuko zuten. 1977an *Egin* eta *Deia* egunkari abertzale ia erabat erdarazkoak sortu ziren, eta aldizkariak gorpuztu egin ziren. 1976an *Zeruko Argia* aldizkariak aldaketa errenkada hasi zuen, 1980an *Argia* izatera pasatu zen arte. Orduan azpeitiar bat zegoen aldizkari hartako idazle nagusien artean: Donato Unanue. Gainera, Mikel Atxaga eta Luis Alberto Aranberri *Amatiño*-rekin batera aldizkaria kudeatzen jardun zuten.

Garai hartan, izenean bakarrik ez zen izan aldaketa, edukietan ere izan zen. Egunerokotasunean gori-gorian zeuden gaiak lantzen hasi ziren. Euskarazko kazetaritza sendoa osatzeari ekitea erabaki zuten, aurrera egiteko halaxe egitea beharrezkoa zela iritzi baitzioten. Beraz, Euskal Herrian ere beste lekuetan bezalako prentsa ereduak egiten hasi ziren, euskaraz. Donato Unanue horren lekuko. Gero, *Egin*-era joan zen hura.

Joxean Agirre oñaztarra ere orduan hasi zen kazetaritzan. *Egin* sortu zenean, Anjel Lertxundik deitu zion, eta itzultzaile lan egingo ote zuen galdetu. Halaxe hasi zen, eta gero, batzuk mahaietara pasatu ziren. “Ni Donostiako lokalera joan nintzen lehenik, eta gero, segituan, Kultura sailera”. Orduetik orain arte kultur gaietan aritu izan da, batik bat, Agirre. Espainiako Estatuak 1998ko uztailan, indarrez, *Egin* itxi zuenetik, *Gara* egunkarian dihardu (1999ko urtarrilean sortu zen).

Egin-en zegoela, euskarazko egunkaria sortzeko “asmo ilun bat sortu zen Eusko Jaurlaritzaren aldetik”, Joxean Agirrek dioenez. Hain zuzen, Diaz Nociren liburuan ageri den moduan, 1986an Eusko Jaurlaritzak urte batzuk lehenago proposatutako egitasmoak berriro hartu zituen kontuan, “eta pauso batzuk eman zituen: euskal merkatuari buruzko ikerketa bat egitea eta euskal egunkari bat, edo batzuk, kaleratzeko esperimenduak bultzatzeko diru laguntzak ematea. Asmoa ez zen euskara hutsezko egunkariak ateratzea, baizik eta astero egunkari itxura eduki behar zuen aldizkari bat ateratzea”. Gogoan du ekimen hura Joxean Agirrek: “Ez zuten asmatzen nola egin, eta deialdia egin zuten, astebeteko gehigarri bat ateratzeko diru laguntzak emateko. Orduan *Eguna* atera zuen *Deia*-k, gerra garaiko egunkari haren izena hartuz eta numerazioa segituz; Amatiñok hartu zuen koordinatzaile

ardura. Guk, *Egin-en* Orain enpresak, *Hemen* sortu genuen". *Hemen* 1986ko irailaren 26an jaio zen, *Eguna* 1986ko urriaren 5ean. Euskarazkoak ziren, egunkari formatokoak, eta astean behin argitaratzen ziren: *Hemen* ostiraletan, *Eguna* ostegunetan. *Hemen-ek* 3.500 bat ale argitaratzen zituen 1989an; *Eguna-k*, berriz, 2.500 bat ale saltzen omen zituen 1989an.

Joxean Agirre bera izan zen *Hemen-en* zuzendaria, eta harekin batera jardun zuten lanean Jabotxa Fernandez, Eguzki Arrizabalaga, Andres Gostin azkoitiarrak, Xabier Garcia Argüello, Joseba Alvarez eta Sergio Basurkok. "Hibrido bat zen *Hemen*. Ostegunari garrantzia ematen genion. Erdi egunkari, erdi astekari bat zen. Horren helburua entrenamendu moduko bat egitea zen, gero euskarazko egunkaria sortzeko, baina ondoren beste leku batetik sortu zen *Egunkaria*". Oroitzapen polita dauka Agirrek. "Asko gozatu nuen, gazte koadrila batean egiten genuelako lana". Orduan *Argia-k* elkarrizketa egin zion (1986-10-5ean) eta helburua egunkari normal bat egitea zela esan zuen: "Gure helbururik idealena zera izango hukek: jendeak *Hemen* irakutzen duenean, egunkari normal bat irakurtzen ari dela sentsazioa edukitzea, osorik euskaraz idatzita dagoela ere ez ohartzea". Ez zirudien, ordea, euren helburu hori betetzea erraza zutenik: "Euskaraz hizkuntza informatibo soil sortzeko zagok oraingoz –zioen elkarrizketa hartan–, eta horixe duk neurri batean behintzat gure apustua. Garai batean, euskal prentsa Iritzia sailak betetzen zuen, beste ezeren gainetik. Orain lortu da elkarrizketak eta erreportaiak ere hizkuntza normala izatea euskal kazetaritzan, baina berri soilak eskaintzeko hizkuntza periodistikoa oso gutxi landu da orain arte, eta tradizio falta horren ordezkia sortzen hasi nahi genikek geure saio honetatik".

Hemen bukatu zen, eta euskarazko egunkaria beste leku batetik sortu zen; ez *Egin-etik* eta *Deia-tik*, baizik eta *Argia* aldizkariaren taldetik, batik bat. 1990eko irailaren 28a arte iraun zuen *Hemen-ek*. *Eguna-ren* azken zenbakia egun bat lehenago atera zen: 1990eko irailaren 27an.

Geroago, eszedentzia hartu zuen Agirrek, orain 12 bat urte. "Gipuzkoako bertsolaritzaren tomo bat egin behar nuen. Sendoa argitaletxearen asmoa zen; gero kiebra jo zuen. Eszedentzia aprobe txatu nuen, buruan bueltaka nebillkien asmo bat aurrera ateratzeko". Hau da: *Bertsolari* aldizkaria sortu zuen. "Garai horretan euskaraz ere aldizkari tematiko edo espezializatuak egin behar zirela uste zen". Gauza hurbilak egiteko asmo sendoarekin sortu zen *Bertsolari*. "Elkarrizketa hurbilak egiten genituen, pertsonaiaren alderdi ezkutua azaltzen saiatu ginen. Hori izan zen *Bertsolari*". Orain *Ikastola* aldizkariarekin ere badabil.

Joxean Agirrek, euskarazko prentsan egindako lanaren aitoren gisa, 1990ean Andoaingo Udalak banatzen duen Rikardo Arregi Sari garrantzitsua irabazi zuen, prentsa idatzian, *Bertsolari txapelketa* lanagatik (*Egin*, 1989-12-17). *Argia* Saria ere bai behin, 1990ean bertan.

► **Pako Aristiren hasiera.** Pako Aristi urrestildarra ere *Egin-en* hasi zen lehen kazetaritza lanak egiten, Agirreren antzera. 1982an, 19 urterekin, Kazetaritzako bigarren urtea egiten ari zela. "Astean behin lau orrialdeko gehigarri antzeko bat ateratzen zuen *Egin-ek*. Hor hasi

nintzen, astero-astero elkarrizketak egiten". Urtebete pasatu zuen elkarrizketa horiek egiten. Handik, *La Voz de Euskadi*-ra pasatu zen. "Hasieran Azpeitiko eta Azkoitiko berriemaile egiten nuen lan, eta gero bertara joan nintzen, beraiek eskatuta, eta euskarazko orrialde bat ateratzen nuen, egunero". Batik bat, kultura lantzen zuen arren, kirolei eta abarri buruz ere idatzi izan zuen. Egunkari hark kiebra jo zuen, eta kobratu gabe lana egiten hasi zirenean, Aristik utzi egin zion han idazteari.

Hurrengo urratsa *El Diario Vasco*-ra egin zuen. "1985ean zutabeak egiten hasi nintzen, asteen bitan. Dena euskaraz. 1985etik 1989ra arte egon nintzen han", dio. Kazetaritzako bere "lehen etapa" hor amaitu zela dio Aristik, eta Galiziara egin zuen salto. "Denboraldi bat han pasatzera joan nintzen, eta bizpahiru urtean ez nuen egin egunkarietarako lanik".

Bigarren etapa, handik bueltatutakoan hasi zen urrestildarrentzat. "1992an-edo berriro hasi nintzen *El Diario Vasco*-n, zutabeak egiten, 1992tik 1995era". Bi aldietan *DV*-n egin zituen urte haietan (hasieran lau eta gero hiru) zutabeek aparte, *Zabalik* euskarazko gehigarrian ere egin zituen elkarrizketak eta, batik bat, erreportaiak, astero. *Zabalik*, egunkariaren barruan egiten zen hasieran, gero aldizkari bezala ateratzen hasi baziren ere. Pako Aristik idazten zuenean, barruan egiten zen, eta 12 orrialdekoa zen. "Han elkarrizketak eta, batez ere, erreportaiak egiten nituen". Erreportai horiek zirela-eta bi urtean segidan Rikardo Arregi Saria eman zioten: 1992an (*Klik baten ondorenak* lanagatik) eta 1993an (*Selma Husley* lanagatik). Baina 1995ean *El Diario Vasco*-rekin zituen harremanak hautsi egin zituen. "Harreman periodistikoa ez ezik, pertsonala ere bai. Hausketa egon zen. 1995ean ez nengoen konforme haien ideologiarekin, eta urrundu egin ginen. Eta kanpora".

1996an *Egin*-era itzuli zen. "Neuk nahi nuenean idazten nuen, hilean behin, edo bitan, edo... Zerbait bururatzen zitzaidanean, egin egiten nuen". 1998an *Egin* itxi zuten, eta 1999an *Gara* sortu zen, hau ere hein handi batean gazteleraz. Aristi *Gara*-n zutabegile hasi zen, hamabostero. "*Gara*-ren 1. zenbakian nire zutabea atera zen han, euskaraz". 1999ko urtarrilaren 30a zen. Han lau urte egin zituen, iaz arte (2003).

Hortik aurrera egindakoak gauza sueltoak izan direla dio Aristik. "Uztarrarian aritu izan naiz bi urtean, hileroko, eta tiraka hasiz gero, gehiago ere aterako lirateke. Artikulu asko eta asko izan dira, eta erreportaiak ere bai. Folio asko dira".

Aristi bere ibilbidea egiten ari zen bitartean, euskarazko egunkaria sortu zen: 1990eko abenduaren 6an ikusi zuen argia *Euskaldunon Egunkaria*-k. Herritarrek emandako diruarekin sortu ere. Han ere hainbat azpeitiar ibili zen, Aristi bera tartean. 2003ko otsailaren 20an, Espainiako Auzitegi Nazionalako Juan del Olmo epailearen aginduz, Guardia Zibilak *Euskaldunon Egunkaria* itxi egin zuen, eta Aristi, lau urte lehenagotik, egunkaria itxi arteko abuztuetan, egunero iritzi artikulua idazten aritu zen. Aurtengo abuztuan *Berria*-n egin du artikulua klase hori (2003ko ekainean sortu zen *Berria*).

Bere artikulua bilduz, bi liburu argitaratu ditu urrestildarrak: *Bezperan entregatu nituenak* (1989) eta *Euskaldunon abe'ria* (1994). Azken hamar urteetakoak biltzeko daude.

Pako Aristik, artikuluez gain, liburu asko ere baditu euskaraz, literaturan sartu-sartuta dagoelako: *Kcappo*, *Krisalida*, *Auto-stopeko ipuinak*, *Castletown*, *Urregilearen orduak*, *Libreta horiko poemak*... Hura izango da, azpeitiarren artean, kazetaritzaz gain, literatura

euskaraz gehien idatzi duena. Joxean Agirrek ere pixka bat bai. "16 urterekin ez nuela idazle izan behar erabaki nuen, une hartan eskakizun politiko batzuk zeudelako, Gizarte Zientzia, Soziologia, Historia edota Kazetaritza –geroago egin nuena– ikastea, eta bide honetatik joatea erabaki nuen", zioen Agirrek berak *Argia*-n 2002ko abenduaren 15eko zenbakian (1880.a), Juan Luis Zabala eta Arantxa Iturbe idazle eta kazetariekin izandako mahainguru batean. "Gizarteak sekulako buelta emango zuelakoan, aldaketak gertu eta berehalakoak izango zirelakoan prestatu behar genuela pentsatu genuen. Gero, halako desengainu politikoaren ondoren, itzuli nintzen ni literaturara, eta bi jarduerak oso bereiziak ditut. Azken bolada honetan *Jaka beka*-rekin nobela bat bukatzen ari naizenez gero, egunero bizpahiru orduz idazten dut goizean goizik, beste guztia bigarren mailakoa dela pentsatuz ateratzen naiz etxetik, kazetaritzak ez duela horrenbeste neke merezi, ez diodala inolako ahaleginik eskaini behar pentsatuz. 'Kazetaritza ez dut maite', esaten dut askotan. Ordea, lehen prentsaurrekoan sartzen naiz, emozionatzen naiz eta egun osoa horretan ahalgintzen naiz. Baina niretzat izugarri ezberdina da goizeko ariketa literarioa eta egun osoko beste jarduera".

Joxean Agirrereren ustez, lanerako garaian desberdinak dira literatura eta kazetaritza. "Labur esanda –dio *Argia*-ko mahainguruan–, literatura errepresentazioaren arloari dago kio, artearen arloari, eta kazetaritza, aldiz, komunikazioarenari. Literaturan sorkuntzak ez du mugarik. Kazetaritzan, aldiz, sorkuntzak oso muga estuak ditu eta ideologiaren zama askoz ere nabariagoa da, erakunde edo talde batentzat egiten baita lana. Hor nitasunak apenas duen pisurik, genero jakin batzuetan ez bada". Baditu liburu batzuk hark: *Hitza hitz. Txillardegirekin solasean, Joxe Agirre: mozketaren maisua* (Jexux Muruarekin batera), *Lehen triptikoa, Gizon bat bilutsik pasiloan barrena, Elgeta, Romain zen bere izena...*

► **'Egunkaria', azpeitiar askoren bilgune.** 1990ean uztailaren 15ean banatu zen *Euskaldunon Egunkaria*-ren zero zenbakia, eta hura egiten azpeitiar bat egon zen erredakzioan: Joxe Luis Aizpuru; Gizartea sailean. *Argia* aldizkaritik joan zen *Egunkaria*-ra. Leioan, Euskal Herriko Unibertsitatean, Akerlanda izeneko Euskara Taldera gerturatu zen, "eta *Argia* inguruan mugitzen zen taldea zen". Handik *Argia*-ko bileretara joaten hasi zen Aizpuru, 1989 inguruan. Lehenengo artikulua *Argia*-n argitaratu zizkieten, eta baita *A ze astelehena!* gehigarrian ere (*Egin*-ek astelehenetan ateratzen zuen).

1990 hasieran *Egunkaria*-ren proiektua sortu zen, "batik bat, *Argia*-ko jendearen eskutik", dio orain Aizpuruk. *Argia* aldizkarian zeudenei galdetu egin zieten egunerokoan edo astekarian jardun nahi zuten. Aizpuruk esan zuen *Egunkaria*-n lana egin nahi zuela, eta prestatzen hasi ziren. "Zero zenbakian parte hartu nuen, kolaboratzaile bezala". Gero, uda etorri zen, eta ikastaroak-eta egiten egon ziren, Donostian, Egia auzoan. "Irailean egunkarirako hartu egin nindutela esan zidaten, eta orain dela bi urte eta erdira arte hantxe, *Egunkaria*-n egon nintzen, Iritzia sailean, Gehigarrietan...".

Zero zenbaki haren argazkia gogoan du Aizpuruk: "Sanferminetako entzierro bateko argazkia zuen". Zero zenbaki ia osoa eguneko notiziekin egin zuten. Eta Marino Lejarretak bezperan beharrean uztailaren 15 hartan Frantziako Tourreko etapa irabazi ez zuelako

penatan zeuden; euskaldun batek etapa irabazi zuela kontatuko zuten, bestela, lehen orrialde hartan. Egunkaria Sortzen kanpaina eta Kulturako orrialde batzuk salbu, dena egunean bertan egin zuten. Aizpurren saileko buru, Gizartean, Iñaki Uria zegoen, eta hura izan zen orrialdeak zuzendu gabe bidaltzea erabaki zuenetako bat; Gaizka Aranguren zen Gizartea saileko beste kide bat. Egun batean hori dena egiten ohitzeke zeuden, eta lana pilatu egin zitzairen. Josu Landa ibili zen lan taldea koordinatzen. “Egoskorkeriagatik” lortu zutela dio Landak. Ordenagailu sarea behin baino gehiagotan blokeatu zitzairen, argazkiak aukeratzera *Egin*-era joan ziren bi langile... Berandu, baina bukatu zuten.

Egunkaria-n orain dela bi urte eta erdi inguru eszedentzia hartu zuen Aizpuruk, eta Gure Irratira joan zen, Ipar Euskal Herriko irratora. Ez zen itzuli, ordea. Hendaian bizi da. “Guardia Zibila joan zen *Egunkaria*-ra, eta akabo”.

Bi liburu ere idatzi ditu Aizpuruk, biak euskaraz. Lagun Onak Azpeitiko Mendi Bazkunaren 25. urteurrenekoa, Enekoitz Esnaola kazetari azpeitiarrarekin batera; eta Nekane Larrañagarekin Itsasi Azpeitiko dantza taldearen 25. urteurrenekoa. Aizpuruk Uztarría aldizkarian ere jardun zuen iritzi artikulua egiten.

Ana Unanue da *Euskaldunon Egunkaria*-n aritutako beste azpeitiar bat. *Egunkaria*-ren hasieran hasi zen, Iruñean. Opusen unibertsitatean ikasten ari zen bitartean, “bigarren edo hirugarren mailan” *Egunkaria* Sortzen proiektua abiatu zen. “Nonbait zailtasunak zituzten Iruñea aldean jendea aurkitzeko. *Egunkaria*-rekin hasi baino pare bat hilabete lehenago *Argia*-ra bidali nuen elkarrizketa bat Alemaniatarik, eta hortik lortu zuten nire berri. Deitu egin zidaten, eta horrelaxe sartu nintzen *Egunkaria*-ren proiektuan. Zortzi bat urte egin nituen Iruñean, politika gaietan idazten. *Egunkaria* oso proiektu kuttuna nuen. Kazetaritzaz dakidan apurra hantxe ikasi nuen; eskola ona izan zen”.

Nekatu egin zen, ordea; politika egiten nekatu. “Eguneko kazetaritzak morrontza handia dauka niretzat. Ez duzu garrantzitsuena jarraitzen, premiazoena baizik. Hori oso nekagarria egin zitzaidan. Utzi egin nuen, eszedentzia batekin, eta ez nintzen bueltatu. Guardia Zibila joan zen ni baino lehenago”.

Guardia Zibilak atea jo aurretik ere okupatua zebilen, ordea, Unanue. “AEKn hasi nintzen, ikastaroetan, eta AEKren aldizkarian bukatu nuen: *Aizu*-n. Gai lasaiagoak dira, eta guztiz desberdinak. Ordu gutxiagotan egiten dut lan, hilabetekaria da, eta inoiz ez zara geratzen bazkaldu gabe ez dakit zergatik”. Gainera, “inolako dudarik gabe”, nahiago du oraingoa. “Artzain bati ez dakit nongo gaztagatik badakit zer erreportaia egiterakoan, adibidez, askotan esaten dut ‘artzain honek Miguel Sanzek baino kategori handiagoa dauka eta askoz gusturago nago berarekin’”. *Aizu*-ren ardura dauka eta kritikak idazten ditu.

Amagoia Iban ere *Argia*-tik bueltan joan zen *Euskaldunon Egunkaria*-ra. Matxinbentarra da bera. “Txikitatik gustatzen zitzaidan idaztea. Gaztetan Urruzuno Saria irabazi nuen, eta oso argi neukan idatzi egin nahi nuela. Beraz, ikasketarik egokiena Kazetaritza izango zela pentsatu nuen”.

Bigarrenengo urtea egiten ari zela, *Egin*-en hasi zen Zarauzko kronikak egiten –han bizi-tzen hasi zen–. “Euskaraz egiten nituen, nik hala erabaki nuelako”. Kronikak egiten ari zela, *Argia*-tik deitu zioten; “hutsune bat sortu zela eta probatuko ote nuen, eta halaxe hasi nin-

zen". Orduan, ikasteari utzi egin zion. *Argia*-n 1994a arte-edo egon zen. Astekaria utzi eta eguneroko prentsara egin zuen. "Hura utzi nuen, eta *Egunkaria*-rako gauzak egiten hasi nintzen, ordezkapen batzuk pixkanaka-pixkanaka, eta gero lana eskaini zidaten". Besteak beste, *Begia* kultur gehigarriaren arduradun izan zen, eta telebistako kritikak ere egiten zituen. *Egunkaria* itxi zutenean, *Egunero*-n aritu zen, eta orain *Berria*-n dabil; adibidez, egunero iritzi artikulu labur bat egiten.

► **Batean eta bestean.** Bitarte horretan, han eta hemen euskarazko prentsan edo bestelako prentsan euskaraz idatziz ekarpenak egiten ibili diren azpeitiarrak ugari dira. Ramon Etxezarreta urrestildarrak, esaterako, artikulu asko argitaratu ditu prentsan, euskaraz. 1979tik 1987ra bitartean Azpeitian zinegotzi izan zen Etxezarreta, EETik. Orduan ere saiatu zen euskarazko prentsaren alde. "Euskarazko aldizkari bat sortu genuen, *Herri Hotsa*, egunkari formatoan, Udaleko aurrekontuak-eta azalduz. Ez zidaten utzi 2.a ateratzen".

La Voz-en makina bat artikulu idatzitakoa da Etxezarreta, eta *Oh! Euzkadi*-ren sorreraren lekuko izana. 1980an sortu zen aldizkari hori, eta aurretik, *Zeruko Argia*-ren aldizkari gehigarri bezala argitaratzen zen. Etxezarreta partaideen artean zegoen, Jokin Ansorena, Gotzon Egia, Koldo Izagirre, Anjel Lertxundi, Josetxo Lizartza, Joxean Muñoz, Lurdes Oñederra, Ramon Saizarbitoria, Ibon Sarasola, Arantxa Urretabizkaia eta Juanba Berasategirekin batera. Egunkari eta aldizkari gehienetan azaldu da urrestildarraren sinadura, iritzi-emaile bezala.

Herrigintzatik *Euskaldunon Egunkaria* sortu zenean (1990ko abenduaren 6an), eztabaida egon zen jatorriaz eta nolakotasunaz-eta, Eusko Jaurlaritzak ere azaldu zuelako bere asmoa egunkaria ateratzeko. Nolakoa behar zuen egunkariak? Pribatua? Publikoa? Etxezarretak bota zuen bere iritzia. "Egunkari publikoa da alternatiba; euskarazko egunkari pribatua beste enpresa pribatuak bezala tratatu behar da. Euskarari gainbalio bat ematearekin ados nago, baina galera guztiak ordaintzearekin ez", esan zuen ETB1en *Astelehen buruzuri* saioan, 1990eko urtarrilaren 15ean, *Egunkaria* sortu baino ia urtebete lehenago. Ordurako hiru azpeitiar lanean ari ziren Egunkaria Sortzen taldean: Imanol Lazkano, Xebaxtian Lizaso eta Pako Aristi (ikus 86, 87 eta 88. orrialdeak).

Patxi Altunak ere lan ugari argitaratu izan du 1956tik gaur egun arte. Haietako gehienak, gainera, euskarari lotuak, Euskaltzaindian. Altunak 1953an Filosofia ikasketak bukatu zituen Oñan (Burgos, Espainia), eta 1956an euskarari buruzko bere lehen artikuluak idatzi zuen, *Euskera I.* aldizkarian. Enrike Zurutuzak ere idatzi izan du euskaraz prentsan: "*Zeruko Argia*-n, Arantzazuko aldizkarian... *Izarraitz* ezizenarekin maiz. Eta euskara zaharrean".

Miel Anjel Elustondok ere jardun du prentsan, saltsan. "Ez naiz kazetaria, baina idazteko dudan amorrugatik artikuluak argitaratu dizkidate, han eta hemen". *Egin*-en, *Argia*-n, *Euskaldunon Egunkaria*-n, *Gara*-n eta *Uztarrin* agertu izan dira haren lanak, euskaraz; batez ere, Reno eta Idaho aldean (Ameriketako Estatu Batuak) bizi diren euskaldunen erreportaiak. ETBrako ere egin izan du lanik.

Haiez gain, azpeitiar asko aritu dira prentsan iritziak idazten, euskaraz: Jose Luis Iriarte, Iñaki Zubizarreta, Pako Garmendia, Jose Luis Otamendi, Iñaki Segurola, Xabier Euzkitze...

► **Herri komunikazioaren garrantzia.** 1980. hamarkadaren bukaera aldera herri aldizkariak sortzen hasi ziren Euskal Herrian, euskarazkoak. Azpeitian berandu samar sortu zen herri komunikazioaren aroa. Baina, sortu, sortu zen. 1999ko azaroan sortu zen Uztarria herri aldizkaria eta 2002ko urtarrilean www.uztarria.com. Aldizkari hori Uztarria Azpeitiko Kultur Koordinadorak sortu zuen, eta aldizkaria bera egiten garai hartan *Egunkaria*-n lana egiten zutenak zeuden batik bat. Haien artean, Enekoitz Esnaola. “Beti gogoratzen dut zein egunetan hasi ginen Uztarriaren oinarriak jartzen: 1997ko urriaren 18an. Uda aurretik, Azpeitiko Euskal Herrian Euskarazek sustatuta, herriko euskara eta kultur beharren eta arazoen berri jakiteko, galdetegia egin genuen, eta emaitzak kezkarriak zirela ikusita, bilera zabala egitea erabaki genuen. Urriaren 18 hartan egin genuen lehen bilera euskara eta kultur taldeekin, eta euskara, komunikazioa eta kultur arloetan zebiltzan norbanakoekin, Sanjuandegin, parrokiaren lokaletan, larunbat arratsalde, eta 25 bat lagun bildu ginen. Eta, esan bezala, egunaz beti gogoratzen naiz; izan ere, Euskal Herrian nahikoa egun seinalatua izan zen hura, egun hartan inauguratu zutelako Guggenheim eta egun hartan egin zuelako ELA sindikatuek Gernikan manifestazio sonatua (EAEko “Estatutuaren bidea bukatu da”, esan zuten). Uztarria ere orduantxe hasi zen ba sortzen”, dio Esnaolak.

Aurretik egindako galdetegian “garbi” geratu zen Azpeitian behar zela herriko informazioa modu zabalean jorratuko zuen aldizkariarik, baina lehen bilera haren helburua ez zen hain justu hori izan. Beste bilera bat ere egin zuten hilabetera. Sustraiak Aisialdi Taldea, Azpeitiko Argazki Elkarte, Antxieta Antzerki Taldea, Antxieta Arkeologia Taldea, Hegoaz Blai, Sahatsa Dantza Taldea, Itsasi Dantza Taldea, AEK, Bertso Eskola, Kitarrista Taldea, Euskal Herrian Euskaraz, Orkatx Kultur Elkarte, Urrestillako rock taldeak, Zubi-zaharreko rock taldeak, Azpeitian Gazteok Zer?!, Gazte Asanblada, Azkoitiko Matadero, Jose Luis Otamendi eta Xabier Alday idazleak, eta Laxaro Azkune kazetaria egon ziren batzar haietan –Xebaxtian Lizaso bertsolariak ere egin zituen ekarpenak–, “eta egoera hartan zergatik geunden jakitea edo horri buruz gogoeta egitea zen helburua”, esaten du Esnaolak. “Parte-hartzeari buruz, eta Udala eta herriko taldeen elkarlanaz eta taldeen beraien arteko elkarlanaz egin genuen gogoeta. Akordatzen naiz lehen bilera hasi eta Joxe Ramon Larrañaga Argazki Elkarteak segituan nola esan zuen Azkoitian bazutela ordurako herri aldizkaria –*Maxixatzen*– eta Azpeitian zergatik ez genuen. Jakina, behar hori bazegoen, baina nahiago izan genuen sakontzea, arazo nagusiak zein ziren ikustea, eta gero ematea eman beharreko pausoak. Besteak beste, nola egituratu Azpeitiko euskara eta kultur mugimendua, zein ardatzi heldu eta zer proiektuekin abiatu”.

Euskara, kultura eta informazioa-komunikazioa ardatzei heltzea erabaki zuten, eta Uztarria Kultur Koordinadora sortzea; herriko taldeen koordinadora, talde eragile batekin. 1998ko martxoaren 3an sortu zen Uztarria. Honatx zer zioen sorrerako idatziak: “Blokeo eta noraez egoeran geundela iruditzen zitzaigun, eta fase berri batean sartu beharra dagoela ere bai. Horretarako mugitu beharra dago, eta, lehen urratsak emateko, gogoeta eta auto-kritika egin beharra. Eta saihestezina zen autokritika egitea, urteetan oso handia izan baita Azpeitiko euskara eta kultur taldeen arteko koordinazio eza. Artxipelagoaren tankera zeukan gure herriko kultur taldeon egoerak: talde bakoitza irla bat zen, eta irlatik irlara ez zego-

en zubirik, eta, gainera, ez zegoen txalupa txikirik ere irla batetik bestera joateko. Koordinazio ezak arazoak sortu izan ditu urteetan Azpeitian, eta hori bukatu beharra dagoela erabaki genuen guztion artean". Herritarrak eta Udala ere kritikatu zituen, "egoera hori hobetzeko aurrerapauso handirik ez dutelako egin. Pasibitate handi samarra erakusten dute kulturarekiko". Baina "Uztarrria Kultur Koordinadora hasiera honetan kritiko azaldu den arren, ez doa inoren kontra, kritikak eraikitzaileak baitira. Euskara eta (euskal) kulturaren aldeko proiektua da, eta Udala, herritarrak eta talde guztiak dira ezinbesteko".

Herrian kultur etxea izateko proposamena lantzea izan zen lehen lana, baita hileroko herriko buzoia guztietan kultur agenda banatzea ere. Eta lehen esan bezala, 1999ko azaroan sortu zen Uztarrria herri aldizkaria.

Enekoitz Esnaola bera 1992ko martxoan hasi zen *Euskaldunon Egunkaria*-n lanean. Haren lehen lana lehenago argitaratu zuten, ordea. *Egunkaria*-ren 1. urteurreneko egunean (1991-12-06), azkeneko orrialdean, Joxe Urbietak *Takolo* mendizaleari buruzko erreportaia. Eta anekdota gisa, zera: Esnaolarena izan zen *Egunkaria*-k sailetan argitaratu zuen aurreneko analisia. "Saskibaloari buruz egin nuen. Ordu arte, Iritzia atalekoak ez ziren sailetako analisiak egiteko beti beste komunikabideetako kazetariengana jotzen genuen, eta nik ez nuen ulertzen, *Egunkaria*-n oso baleko kazetariak zeudelako. Horregatik egin nuen neuk analisia, batik bat geure jendea animatzeko".

Egunkari nazionalen ez ezik, herri komunikazioan ere murgilduta ibili da, eta dabil, Esnaola. Hasieratik "garbi" izan du "herri komunikazioaren garrantzia". *Egunkaria* sortu zenean, bere baliabideak urriak ziren. Orduan egunkaria bera egitea zen helburua, hurrengo egunean irtetea. Ezin izan zion herri informazioari heldu. Gainera, egunkari nazionala izanik, edizio asko beharko lituzke eta... Horretaz gain, orduantxe hasi ziren euskarazko lehen herri aldizkariak sortzen, eta, beraz, elkarlanerako aukera handirik ere ez zegoen".

Lanaren poderioz, *Egunkaria* indartzen joan zen, eta herri informazioari eusteko aukerak bazirela ikusi zuten. Beraz, nola egin pentsatzen hasi ziren. *Egunkaria*-k leku bakoitzerako edizioak atera beharko lituzke, eta orduan ere hori ezin zuenez, tokian tokikoak ateratzea pentsatzen hasi ziren, egunkaritik aparte. "Eta ateratzekotan, egunerokoak, ez aldizkakoak. Batetik, euskararen normalizazioan eragin handiagoa lortzeko. Eta, bestetik, informazioaren erreferentzialtasuna ere lortzeko egunerokoarekin". Horrela abiatu zuten bidea, "pixkanaka".

Esperientzia horretan sartu zen Esnaola. "Formula logikoena hauxe zen: euskarazko egunkari nazional bakarra, tokian tokiko euskarazko herri aldizkariekin elkarlanean aritzea, bien artean egunero toki horretako informazioa egunkari formatoan emateko". Proiektuak leku horretako gizarte eragileen parte-hartze zuzena ere behar zuela ikusi zuten.

Tolosaldean probatu zuten lehendabizi. 2001eko abenduaren 18an argitaratu zuten *Tolosaldean Egunero* egunkariaren 1. zenbakia. Enpresak hiru zutabe zituen: Galtzaundi Tolosaldeko aldizkariaren euskara elkarteak, *Egunkaria*, eta eskualdeko gizarte eragileak.

"Esperientzia berria zen Euskal Herrian. Hernanin bazuten orduan egunkari bat, astean bost aldiz ateratzen zena: *Kronika*. Eta orrialde batekoa. *Egunero*, berriz, zortzi orrialdekoa zen, eta astean sei aldiz ateratzen zen. Lan taldea ere ia erabat berria, ia denak egunkaritan jardun gabeak. Banaketa ereduak, oso ausarta: egunero harpidedunei etxera (segituan

lortu ziren 7.000 harpidedun); Orexako, Berastegiko... puntara-eta banatzen genuen egunero, baserrietara...".

Politikoki ere "gogorra" izan zen, EAJ eta EA kontra azaldu zirelako hasieran. "Euskarazko prentsan gabiltzanok lan bat baino gehiago egiten dugu: kazetaritzaz gain (eta hor, gainera, maiz itzultzaile lana ere egiten dugu, faxak, teletipoak... gaztelaniaz daudelako ia erabat), herrigintzatik sortutako prentsa aurrera ateratzeko kanpainak-eta egin behar izaten ditugu. Baina independenteak, pluralak, baterakoiak, parte-hartzaileak... izatea da gure filosofia, eta hori ez gustatzen nonbait zenbaiti. Baina guk *Egunero*-ren aldeko giroa sortu genuen, ez inoren kontrakoa, harpidedunek diru asko jarri zuten, komertzialki ere goraka gindoazen, egunkaria gero eta zabalduagoa zen, gero eta erreferentzialagoa zen, eta azkenean, elkarriketaren bidez, akordiora iritsi ginen han EAJrekin; Sozialista Abertzaleak ere, aurretik bezala, alde zegoenez, proiektua ekonomikoki ere sendotzea lortu genuen".

► **Azpeitiarron 'Hitza'**. Espainiako Estatuak *Egunkaria* itxi zuenean (2003-02-20), *Egunero*-ren mantxeta hartu zuen nazio mailako euskarazko egunkariak, *Galtzaundi*-rena Tolosaldekoak, eta 2003ko martxotik *Tolosaldeko Hitza* izena du hango egunkariak. 2003ko ekainean sortu zen bigarren *Hitza*: Oarsoaldekoa. Horren enpresako bazkide bat Euskarazko Komunikazio Taldeko Bertako Hedabideak S.L. da (*Berria* egunkaria ere EKTren parte da), eta hemen sorreratik dabil, Enekoitz Esnaolarekin batera, beste azpeitiar bat: Iban Arregi. Honek ere lehen *Egunkaria*-n jardun zuen, eta Uztarran sorreratik dago (bera izan zen 1998tik 2003ko arazoa bitartean koordinadorako lehendakaria). "Eskualdeetara joan, euskara elkarteei *Hitza*-ren proiektua aurkeztu, haiekin adostu, udalekin eta eragileekin egon, eskualdean aurkeztu, kazetariei ikastaroak eman (kazetaritza, maketazioa, diseinua), enpresako kontuak eraman, *Hitza* berriak aurreikusi... hori da Bertako Hedabideetakoon lana. Eta gustura gaude, euskarazko prentsarentzat oso proiektu garrantzitsua delako". Gaur egun bost *Hitza* daude.

Prentsan euskaraz idazten azpeitiar kazetari gehiago ere izan dira eta badira. Lehenik *Egin*-en, gero Uztarran eta orain *Urola-Kostako Hitza*-n Nerea Uranga; lehen *Euskaldunon Egunkaria*-n eta orain *Berria*-n Estitxu Elduaen; lehen Joxemi Benitez *Gara*-n Azpeitiko kartan eta Jon Olaizola *Egin*-ekoan; Mailo Oiarzabal *El Diario Vasco*-n urte askoan dabil Azpeitiko kartan euskaraz asko egiten; Ihintza Agirretxe eta Kepa Urbieta Uztarran dabilta; Leire Aramendi eta Asier Legarda-ereño *Berria*-n; Ion Aranburu *Urola-Kostako Hitza*-n; Arritxu Zelaia *Argia*-n ibili zen; Ainitze Oruesagasti Uztarran eta *Urola-Kostako Hitza*-n kolaboratzen dabil; lehen Nerea Aranburu Uztarran... Era berean, euskarazko prentsaren aldeko lanean ari dira Mikel Azkune –*Berria*-rentzat eta Hitzentzat Iragarri publizitate enpresan–, Kike Zurutuza –*Berria*-n sustapenean–, Mikel Arregi –EKTn administrazioan–, Xebastian Lizaso –*Egunkaria*-ren publizitate sailean ibilia–, Eneko Etxeberria –*Egunkaria* S.A.ko lege ordezkaria izana–...

"Azpeitiarrak leku guztietan daude", dio, bai, Iñaki Goenagak. Euskarazko prentsan bai, behintzat. Askok. Aspalditik. Gaur egun, inoiz baino gehiago eta inoiz baino hedabide gehiagotan. Beti, euskarazko prentsa indartze aldera. ◀

Egunkaria, euskarazkoa

'Egunkaria' itxi zutenean, hango langile azpeitiarrek hitzaldia eskaini zuten herrian, egoera zein zen azaltzeko, zer laguntza behar zuten esateko... Eta Enekoitz Esnaola kazetariak euskarazko egunkariaren beharra ere azaldu zuen, historiari gainbegiratu bat emanez: 1930. hamarkada, 'Egunkaria'-ren sorrera eta honen oinarriak... Hona hemen hitzaldia.

Enekoitz Esnaola (2003-03-19, 'Egunkaria'-ko azpeitiar langileen izenean; uztarria.com-en argitaratua)

Oraintxe dela hilabete, otsailaren 19an, hementxe (Aitonena I-eko aretoan) egon zen hitzaldia ematen Martxelo Otamendi, *Euskaldunon Egunkaria*-ko zuzendaria, eta gero hemen kanpoan, atarian, *lagun* batzuk bazeuden, eta atzetik jarraitu zioten Tolosaraino, eta han beste *lagun* batzuk bazituen, eta gero Madrilera eraman zuten, eta harekin batera beste bederatzi. Hamar euskaltzale atxilotu zituzten eta gaur egun [2003-03-19an], hiru daude kartzelan oraindik: Xabier Alegria, Xabier Oleaga eta Iñaki Uria. Eta haiek askatzea eskatzen dugu guk.

Behin hori esanda, nik zera azalduko dut: noraino iritsi garen *Egunkaria* bezala, zergatik iritsi garen *Egunkaria* bezala iritsi garen tokiraino eta zergatik, gure ustez behintzat, Espainiako Estatuak *Egunkaria* jo duen.

Euskaldunon Egunkaria orain dela 13 urte sortu zen, baina hartu zituen printzipioak ez zituen berak asmatu egun batetik bestera; euskarazko prentsa urte batzuk lehenagotik bazetorren, ez eguneroko egunkari formatoan, aldizkari formatoan baizik, *Argia*-rekin batez ere. Baina aurretik ere bazeuden euskarazko prentsaren funtzionamendurako oinarrien aipamenak eta aldarrikapenak. Orain dela 13 urte *Euskaldunon Egunkaria* oinarri batzuen inguruan sortu zen; 11 oinarriren inguruan. Jakina, horiek oinarrizkoak izan dira *Egunkaria*-ren biziraupenerako eta *Egunkaria*-ren nolabaiteko arrakastarako. Eta horregatik jo dute bere kontra.

► **Aurreko mendean lehen aldarrikapenak (1917).** Aurreko mende hasieran dagoeneko euskarazko prentsaren beharra aipatzen zuten garai hartako euskaltzaleek. Aita Arbelaitez esaten zuen oso beharrezkoa zela euskarazko egunkaria sortzea eta sortu egin behar zela. Zeinen artean sortu behar zen galdetzen zuen, zenbat diru beharko zen... Kalkulu batzuk ere egin zituen, mila edo bi mila ale salduta iraungo zukeela esanez. Eta halako batean esan zuen: "Bildurrak bota egin behar ditugu, denok batu eta sortu egin behar dugu egunkari bat, euskarazko egunkari bat". 1917. urtea zen.

► **1929-1930: Lizardiren asmoa eta oinarriak.** Gero beste bolada bat etorri zen euskarazko prentsaren aldekoa, 1929-1930ean. Xabier Lizardi idazlea izan zen akuilua hartu zuena, eta hura izan zen eragile nagusietakoa eta euskarazko prentsa aldarrikatu zuena. Garai hartan bazegoen egunkari nazionalista bat, abertzale bat, *Euzkadi* izenekoa, baina gazteleraz zen. Lizardik esaten zuen gogoeta egin beharko zela euskarazko prentsaren aldeko eragilean

artean, euskarazko baratza hezi eta hazi egin behar zela, eta, azken batean, euskarazko egunkaria sortu behar zela. Gainera, esaten zuen ez zuela nolanhiko egunkaria izan behar, baizik eta erdarazko egunkariekin lehiatzeko modukoa. Horrez gain, esaten zuen ez zuela ezohiko egunkari bat izan behar, baizik eta egunkari estandarra, eta kalitatearen bila joan behar zuela. Hala, egunkariaren oinarrien artean –eta garai hartan dagoeneko oinarri batzuk jartzen hasi ziren–, kristaua izan behar zuela esaten zuen Lizardik, baina beste bi oinarri ere aipatu zituen, gaur egun hor daudenak hain zuzen: batetik, euskaltzalea izan behar zuela. eta bestetik, alderdi politiko gabekoa, independentea alderdi politikoetatik. Proiektu bat lantzen hasi zen, eta izena eta guzti jarri zion euskarazko balizko egunkariari: *Bai*. Elkarte bat ere osatzen hasi zen.

Baina garai hartan elebitasunaren aldeko mugimendua ere bazegoen (gaztelera-euskara), eta Lizardiren proiektua bertan behera erori zen. Diru falta ere nabarmena zen.

Baina dagoeneko jendea hasi zen ikusten euskarazko prentsaren beharra, eta oinarriak ere jartzen hasiak ziren.

► **1937: ‘Eguna’, EAJrena.** 1937an egon zen euskarazko egunkariaren hurrengo mugimendu interesgarria, urte hartan sortu zelako *Eguna* euskarazko egunkaria; sei hilabete iraun zuen. Garai hartan izugarrizko meritua zen euskarazko egunkari bat ateratzea sei hilabete-tan. Baina ez zen izan alderdi politikoetatik independentea, EAJren hedabidea zelako. Agustin Zubikarai egunkariko zuzendariordeak esan zuen bezala, jabetza EAJk zeukan eta dirua jartzen zuena Eusko Jaurlaritza zen. Beraz, alderdi politiko baten tresna zen. Eta ez zuen funtzionatu. Horrek ere garrantzia dauka gaur egungo planteamendu batzuk kontuan hartzen baldin badira.

► **1980ko hamarkada: ‘Eguna’ eta ‘Hemen’.** Beste aro interesgarri bat 1980ko hamarkadan egon zen. Izan ere, *astegunkari* batzuk sortu ziren, astean behin ateratzen ziren euskarazko egunkari formatoko batzuk: *Hemen* eta *Eguna*. *Eguna*, EAJren ingurukoa zen, *Deia* erdarazko egunkariaren enpresa argitaratzaile Iparragirre S.A.k argitaratzen zuena. *Hemen*, berriz, *Egin* erdarazko egunkariaren enpresa argitaratzaile Orain S.A.k ateratzen zuen. Beraz, saio hartan ez zen euskarazko egunerokorik atera eta ezta erdarazko komunikabideetatik independenterik ere.

Sasoi hartan zegoen euskarazko aldizkari berriemaile bakarra *Argia* zen. Independentea. Baina Eusko Jaurlaritzak benetan *Argia* bultzatu eta lagundu beharrean, *Hemen* eta *Eguna* bultzatu zituen. Datu bat ematearren: 1987an *Argia*-ri zortzi milioi pezeta eman zizkion, eta *Eguna*-ri 26 milioi eta *Hemen*-i 23. Hortaz, Eusko Jaurlaritzak euskarazko aldizkari independente bakarra bultzatu beharrean, erdarazko komunikabideetatik independente ez ziren beste biak bultzatu zituen. Garai hartan *Argia* bera kexu zen, eta zera esaten zuen: besteen aldean bikoitza saldu arren eta irakurle kopurua ere bikoitza izan arren, Eusko Jaurlaritzatik diru laguntza gutxiago jasotzen zituela.

Argia-k oraindik segitzen du, eta *Hemen*-ek eta *Eguna*-k ez; horiek 1986an sortu ziren eta 1990ean desagertu.

► **1989: urte erabakigarria euskarazko prentsarentzat. Egunkaria Sortzen sortu zen.**

1989ra iristen gara. Urte erabakigarria da euskarazko prentsan, Egunkaria Sortzen-en lehen bilera egin zelako azaroaren 1ean. Deialdi publiko eta zabala egin zuten, eta hor sortu zen talde eragilea, eta gerora hiru batzorde eratu ziren. Helburua: euskarazko egunkaria sortzea.

Garai hartan Eusko Jaurlaritza beste proiektu bat zeukala esanez hasi zen, eta orduan eztabaida hori sortzen hasi zen: batetik, egunkari pribatua –herri ekimenetik sortutakoa ikusten zen Egunkaria Sortzenetik–, eta bestetik, egunkari publikoa –hori ikusten zen Eusko Jaurlaritzaren eta beste batzuen aldetik–.

Beraz, orduan Euskal Herrian bazeuden egunkari publikoarekin sinesten zutenak. Ia hamarkada bat lehenago EITB sortu zen (1982), euskarazko telebista eta irrati publikoak zeuden hor, eta egunkari bat ere hor barruan ikusten zuten sektore batzuek. Egunkaria Sortzenetik, aldiz, ikusten zen egunkariarena desberdina dela, egunkari batek askoz ere pluralagoa izan behar duela, eta herriaren eskuetan egon behar duela.

Orduan eztabaida hori oso garrantzitsua izan zen, eta gero ikusi zen zeinek zeukan, gure ustez behintzat, arrazoia. Eta gaur egun ere, nonbait, eztabaida hori planteatu nahian dabil-tza batzuk. Horregatik egingo dut garai hartako laburpen bat ere.

Batzuek ez zuten horrenbeste sinesten herri ekimenetik sortutako egunkari batean, ezta egunkari estandar batean ere. Horrelako intseguritate bat bazeukaten produktuarekiko, esanez balizko porrota –hau da, “gutxi saltzen bada, irakurle gutxi baditu”...– azken batean euskararentzat berarentzat izango zela; horixe zioen, adibidez, Mari Karmen Garmendiak. Aldiz, Pello Zubiria Egunkaria Sortzen taldeko kideak, adibidez, esaten zuen apustu kontua ere bazela hura, eta bitarteko ekonomiko gutxi batzuk jarrita ere apustu horrek funtzionatzeko aukerak zeuzkala; azken batean, ekimena militantzian ere oinarritu behar zela zioen Zubiriak.

Egunkari berriaren ildo ideologikoa zen beste eztabaidetako bat. Egunkaria Sortzenek 11 puntu jarri zituen 1989an (gero azalduko ditut). Eusko Jaurlaritzak eta bere ingurukoek beste ildo bateko egunkaria nahi zuten, ordea. Hala, garai hartan oso ezaguna izan zen Joseba Arregi Eusko Jaurlaritzako orduko Kultura sailburuak esan zuena; hau da, orduan Ajuria Eneako hitzarmena indarrean zegoen, eta Arregik behin elkarrizketa batean zioen Egunkaria Sortzeneko batek galdetu izan balio Eusko Jaurlaritzaren ustez egunkari berri horrek “Ajuria Eneako markoaren barruan” egon beharko al lukeen, berak “jakina baietz” erantzungo liokeela, horrela behar zuela. Beraz, bistan da Eusko Jaurlaritzakoentzat-eta egunkariaren aniztasunak zertan oinarrituta egon behar zuen.

Aldiz, Egunkaria Sortzenetik esaten zen erabat zabala izan behar zuela egunkariak, alderdi politikoan eta erakundeetan menpe ez zegoena, eta erdal komunikabideetatik ere independente izanik. Eztabaida latza izan zen. Lehen esan bezala, ordea, Egunkaria Sortzenek 11 puntuak aurkeztuak zituen 1989an, Durangoko Azokan, eta esan ere bai egunkaria sortzera zihoazela.

Eusko Jaurlaritzak ere esaten zuen bera ere sortzera zihoala bat, eta, hain zuzen, 1990eko abenduaren 3an bere egunkariaren prototipoa aurkeztu zuen (*Egunkaria* sortu

baino hiru egun lehenago), eta kasualitatea da baina *Egunero* izena zuen, orain, *Egunkaria*-ren itxieran ondoren, nazio mailako egunkaria erabiltzen ari den mantxeta eta 2001eko abendutik Tolosaldeko egunkariak erabili duena. Baina, hala ere, Eusko Jaurilaritzaren *Egunero* ez zen sortu. *Euskaldunon Egunkaria* bai, 1990eko abenduaren 6an.

Beraz, errealitate bat bazegoen. Eta batzuk errealitate horri trabak jartzen saiatu ziren. 13 urte pasatu dira eta orain orduko antzeko gauzak entzuten ari gara beste leku batzuetatik. Hau da, 13 urte pasatu dira eta ezin da ahaztu orain dela 13 urte nola interpretatzen ziren gauza batzuk; adibidez, ETBtik. Eta ezin da ahaztu agintari politiko batzuek zer esaten zituzten *Egunkaria*-ko lehen zuzendariari buruz (Pello Zubiria zen), ETAK jarritakoa zela eta abar. ETB aipatu dudanez, horra adibide bat: *Egunkaria*-ren kasuan orain aipatu diren paper famoso horien inguruan, Espainiako Estatuko epaile batek horien interpretazioa egin du, ETAK *Egunkaria*-ren sorreran zerikusia izan zuela esanez eta 'epaia' emanez, baina 1991ko uztailean ETBk berak albiste batean zer esan zuen esango dizuet: "*Egunkaria*-ren zuzendariaren izendapena ETAKo buruzagien oniritziz egin omen zela uler daiteke Frantzia atxilotutako etakideei harrapatutako dokumentazioan". Hitz horiek berriro entzutea garrantzitsua dela uste dut, orain batzuen aldetik berriz ere akats berak ez egiteko, azken batean interpretazio horien arabera sufritzen dutenak orain sufritzen ari direnak direlako.

Eta lehen esan dut orain dela hilabete hemen Martxelo Otamendi egon zela eta harekin batera bederatzia euskaltzale atxilotu zituztela, torturatuak izan direla eta hiruk oraindik kartzelan segitzen dutela, ezer ere egin gabe. Baina zein hasi zen mamuak zabaltzen? Eta zergatik hasi ziren zabaltzen? Egunkari bat sortzeko beraien ezintasunagatik? Herri ekimenetik *Egunkaria* sortu zelako?... Uste dut oroimen hori izatea garrantzitsua dela; ez dira horrelako esaldiak-eta askotan errepikatu behar, baina berriro diot oroimen hori izatea garrantzitsua dela.

Hitzaldiaren hasieran egindako erreferentziak kontuan hartuta, ikusi dugu 1990 aurretik zeinek funtzionatu zuen eta zeinek ez, zer oinarri jartzen ziren batzuen aldetik eta zer beskeen aldetik. Garai haietan ere bazeuden, beraz, kontzepzio desberdinak: egunkariak pribatua edo independentea behar zuen, edo publikoa edota beste enpresa edo alderdi batekiko dependentea izan behar zuen? Kazetaritza ikuspegitik, berriz, egunkari estandarra izan behar zuen edo zerbaiten osagarri eta ez-estandar izan behar zuen?...

Azken puntu horri helduz, 1980ko hamarkadan, esate baterako, erakunde batzuetatik eta planteatzen zen gaztelerazko egunkarien osagarri izan behar zuela euskarazkoak, eta abuztuan ez zela argitaratu behar, doanekoa izan behar zuela... Aldiz, CIES erakundeak egindako azterketa baten arabera, ikusten zen egunkari estandar bat izan behar zuela, beste egunkari normal bat, eta beste komunikabideekin lehiatzen jo behar zuela. Hori ikusten zen *Egunkaria* Sortzenetik ere, eta horrela jarri zen martxan *Egunkaria* 1990. urte bukaeran. Hasieran 32 orrialdekoa zen, nola-halako produktua egiten zen, egunero ateratzea zelako helburu orduan, baina behintzat, egunkari estandarra zen.

► **'Egunkaria'-ren 11 oinarriak.** Urtebete atzera egingo dut berriro, 1989ra. Orduan jarri ziren *Egunkaria*-ren 11 oinarriak, fundazionalak. Aipatu egingo ditut:

▶ 1. "Euskaltzalea". Ez politikagintzan oinarritutakoa, baizik eta hizkuntzan eta kulturgingintzan. Euskaltzaletasuna da "lehen eta funtsezko oinarria".

▶ 2. "Nazionala". Hori ere klabea da. Orduan ere zatiketa administratiboa zegoen Euskal Herrian, eta *Egunkaria*-k zatiketaren gainerik funtzionatu behar zuela esaten zen, euskarazko produktu bat zelako eta zazpi lurraldeetan euskara hitz egiten delako.

▶ 3. "Baterakoa". Euskalgintzako indar guztiak batu ahal izateko ahalegina egin behar da.

▶ 4. "Zabala". Produktu aldetik ere zabala, euskaldun irakurle guztiengana iristeko moduko egunkaria.

▶ 5. "Independentea erakunde politikoetatik". Gaur egun ere gauza bera diogu. Lizardik bere garaian esaten zuen egunkariak ez zuela sortu behar "inoren babesean", baina bai orduko egunkarietan edo aldizkarietan oinarrituta. Eta zioen *Argia* aldizkarian oinarrituta sortu behar zuela. Guk zera diogu: *Egunkaria* itxi ostean, egunkari berriak *Egunkaria*-n oinarrituta sortu behar du.

▶ 6. "Independentea erdarazko komunikabideetatik".

▶ 7. "Ez-instituzionala". Horrek ez du esan nahi, ordea, anti-instituzionala izatea. Erakundeek euren diru laguntzaren araberako diru kontrolak egin ahal izango dituzte, baina bestelako kontrolik ez dute izan behar.

▶ 8. "Diruz lagundua". Erakunde publikoek diruz lagundu behar dute egunkaria, euskarazko hedabideak erdarazkoekin lehiatu ahal izateko.

▶ 9. "Militantea". Euskarak militantzia eskatzen duelako (gaur egun ere bai, jakina).

▶ 10. "Profesionala". Kalitateko produktua egiteko, langile profesionalak behar dira.

▶ 11. "Berria". Saioa berria da, eta proiektu berriak edukiko ditu.

Horiek izan ziren 11 puntuak, eta *Egunkaria*-k ez ditu 11 puntu horiek behin ere hautsi. Eta gure ustez, horregatik iraun izan du *Egunkaria*-k, eta proiektu berriak 11 puntu horietan oinarrituta segitu behar du, bestela etorkizunik ez du izango.

Egunkaria 1990eko abenduaren 6an sortu zen eta 13 urte egin ditu. Lehendabiziko lau urteetan boikota jaso zuen instituzioetatik; ez zen laguntzen, eta, gainera, esaten zen halakok izendatutako zuzendaria zela... Lau urtean, behintzat, ahal zuen moduan iraun zuen *Egunkaria*-k, oso egoera latzean; langileek garai hartan 80.000 pezetako soldata kobratzen zuten, baina 11 puntuetako bat militantzia zenez, ezta?...

1994an Eusko Jaurlaritzarekin akordioa egin zen, artean Joseba Arregi zela Kulturako sailburu. Eta harrezkero *Egunkaria* sendotzen joan da. Gaur egun 60.000 irakurle inguru zeuzkan. Egunero 56-60 orrialde ateratzen zituen; horiez gain, umeentzako, gazteentzako, mendi-abenturako, ekonomiako, igandeko, unibertsitateko, eta literaturako gehigarriak zeuzkan. 2002an diru kontuak nahiko ondo zeuzkan. Iaz Interneten ingeleseko bertsioa martxan jarri zuen. Herri informazioa lantzen hasi zen 2001eko bukaeran, *Tolosaldean Egunero* eginez lankidetzan. Bizkaian egunero lurraldeko gehigarria ateratzen hasi zen 2000. urtean. Martin Ugalde Kultur Parkeko bazkideetako bat zen, Lizarra Grafikak eta Elkarlanean-ekin batera. Estilo liburu eredugarriak eta aitzindariak aterata dauzka. Liburu batzuk argitaratu ditu. Lau mila iragarle zeuzkan, eta gero eta publizitate gehiago zeukan.

Eusko Jaurlaritzatik 1'65 milioi euro jasotzen zituen urtero –*Egunkaria*-ren aurrekontuaren %22 inguru–. Orain dela urte batzuk Kontseilua sortzeko eragile garrantzitsuetakoa izan zen. Eta abar. Beraz, azken batean, esan daiteke *Egunkaria* ez zela egunkaria bakarrik, baizik eta euskalgintzako enpresa handiena izateaz gainera, euskalgintzako ardatza. 13 urtean beti 11 puntu horiek oinarri izanda. Eta baten batek esaten badu inoiz hautsi izan dituela, froga dezala.

Orduan, iritsi gara 2003ra eta *Egunkaria* itxi egin dute, armaz, indarrez eta arrazoirik gabe. Guk uste dugu egunkari berri bat sortu behar dela; ez gara gora begira egongo. Beste batzuk ere hasi dira gora begira ez egoten, Eusko Jaurlaritzak hor parte hartu behar lukeela-eta esanez. Tira, orain dela 13 urteko eztabaida batzuk behintzat ez daude, irabazita daude. Garai hartan esaten zen euskarazko egunkaria ez zela bideragarria, eta gaur egun bideragarritasun hori ez da ezbaian jartzen. Gaur egun, batzuen ustez, eztabaida kazetaren pluraltasun kontua da. Baina *Egunkaria* plurala ez zela dioenari esango nioke esateko zein egunkari den pluralagoa. Aste hauetan Espainiatik eta Frantziatik, eta azken batean Europako beste leku batzuetatik ere bai, atxikimenduak eta artikuluak iritsi zaizkigu, eta batzuek diote Europan ez dagoela *Egunkaria* bezain egunkari pluralagorik. Beraz, hemen batzuk esaten ari direnean aniztasun handiagoko egunkari bat sortu behar dela, zer ari dira esaten? Zertan oinarritzen dira hori esateko? Aurrekoan Joan Mari Torrealdaik esaten zuena: orain ez dagoena [*Egunkaria* zena] kritikatzan ari dira eta ez dagoena [beraiek buruan daukatena] laudatzen; honenak denak birtuteak dira. Horien ustez, orain itxi dutena ez zen plurala, edo ez zen beraiek nahi bezain plurala. Baina, zera: lehendabizi esan zergatik ez zen plurala, eta gero egin kritika eraikitzaileak, pluralagoa nola egin litekeen esanez.

► **Errespetua eskatzen dugu.** Guk, langile bezala, errespetua eskatzen dugu. Errespetua, 13 urteko lan profesionalagatik eta 13 urteko militantziagatik. Errespetua, 13 urteko ibilbideagatik, *Egunkaria* ez delako izan ez alderdikoa, ez instituzionala, inoren menpe ez delako egon. Errespetua, bide bat zabaldu dugulako 13 urtean. Errespetua, *Egunkaria* 13 urte eta gero errealitatea eta erreferentzia bihurtu delako. Eta errespetua, *Egunkaria*-k pluraltasuna izan duelako, eta hori ezbaian ez jartzeko esaten dugu; kritikak egin daitezke, baina hori ezbaian ez jartzeko eskatzen dugu behintzat.

Berriz ere egunkari bat egongo da, 11 puntu horietan oinarrituta egongo da, eta, bukatzeko, Joxemi Zumalabe zenak esaten zuena gogoratuko dut, gaur egunera egokituta: sortuko den euskarazko egunkari berriak inoiz ahazten badu herri mugimendutik sortu dela, akabo, horrelako egunkari baten berme bakarra hori garbi izatea delako eta 11 puntu horiek kontuan hartzea.

Aste hauetan Azpeitian ere jende asko mugitu da *Egunkaria*-ren alde, baina zera azpimarratuko nuke: gauza bat da *Egunkaria*-ren alde egotea eta beste bat *Egunkaria*-ren alde egitea. Guk *Egunkaria*-ren alde egitea ere eskatzen dugu; eta *Egunkaria*-ren alde egiteak esan nahi du euskarazko egunkaria laguntzea erosteko eta irakurtzeko garaian. ◀

2 PRENTSAKO KIOSKOEN EGOERA

Euskal Herriko prentsa kioskoak

Baite Azpeitiko Euskara Elkarteak —orain Uztarriarekin bat eginda dago— antolatuta, Martxelo Otamendi 'Egunkaria'-ko zuzendaria herrira etorri zen, prentsako kioskoen egoeraz hitzaldia ematera. 2003ko otsailaren 19a zen. Handik ordu gutxira, Guardia Zibilak Tolosan atxilotu egin zuen, eta 'Egunkaria' itxi egin zuten. Hona hemen Otamendiren hitzaldi hura.

Martxelo Otamendi ('Egunkaria'-ko zuzendaria orduan; 2003-02-19, 'Baite' eta uztarria.com, laburrago)

Euskarazko prentsaren egoera zein den azaldu nahi dut hitzaldi honetan, eta egin die-zaiogun errepasso bat kiosko bati, eta egin dezagun ariketa bat. Ez dizkizuet eskatuko aldizkari mantxetak —*Egunkaria*, *El Correo* eta horiek dira mantxetak—, baina bai aldizkari generoak, kiosko horretan zer aurki dezakegun esateko. Adibidez, bihotzeko aldizkariena da eremu bat: *Hola*, *Lecturas*, *Qué me dices*, *Semana*... Beste eremu bat aldizkari ekonomikoena da: *5 Días*, *Expansión*... Kirolena beste bat: *Mundo Deportivo*, *AS*, *Marca*, *Sport*, *NBA*, *Gigantes*, *Basket*, *Ciclismo a Fondo*, *Todo Bici*, 1 Formularen badaude batzuk —bereziki ingelesez egiten den bat badago, eta dagoeneko espainolez dago itzulita—, bela aldizkariak daude, motordun ontzienak —joango bagina leku espezialista batera, egon litezke 20 aldizkari desberdin itsas kirolekoak—, urpekariaren aldizkari bat badago...; kirolekoak horiek denak, eta hemen atera genitzake exageratu gabe 200 bat aldizkari desberdin. Beste sail bat da informatika aldizkariena, orain asko entzuten ari direnak. Badago bikote bereiztuentzako aldizkari bat ere: parranda non egin... Beste sail bat, dekorazioa: *Hogar*, *Hogar y Moda*, *Mueble*... Eta badaude etxea norberak egiteko aldizkariak ere...

Hasiko bagina, luza genezake ariketa eta ikaragarriko unibertsoa sortuko genuke; gazteleraz gaur egun dagoen unibertsoa. Euskal Herriko prentsa kioskoek ari naiz azterketa egiten, ez Madrilgoek. Euskal Herria oso leku ona da aldizkari espezializatuak saltzeko. Kontua da kiosko horretan dagoen eskaintza hori ez dela beti egon; esaterako, duela 25 urte igual Londresera buelta bat ematera joaten ginenean, horrelako kioskoak ikusten genituen eta gure artean esaten genuen, "bueno, eskaintza hau ez da sekula Espainiara iritsiko, eta Euskal Herrira zer esanik ez". 25 urte pasatu dira eta ingeleseko kioskotik gaztelerazko kioskorako aldea gaur oso txikia da, eta garai baten ikaragarria zen.

Espainiak modernizatu egin du bere eskaintza, dibertsifikatu egin du eskaintza. Izan ere, espainierazko espainolizazio prozesua eman da; Espainian beti jakin dute gazteleraz, eta Hego Ameriketara azkeneko 400, 500 urteetan jendeak badaki gazteleraz. Orduan, espainolek aukera ona izan dute eskaintza modernizatzeko. Gu, berriz, lehen geunden bezala gelditu gara.

Eta, beraz, egin dezagun ariketa: nola zegoen gure kiosko hori duela 25 urte? Orain dela 25 urte zer geneukan? Esate baterako, nola deitzen da Euskal Herrian euskaraz argitaratzen den eta normalean hezkuntza, kultur, euskalgintza gaietan gogoeta egiten duen aldizkaria? *Jakin*. Eta nola deitzen da zientzia lantzen duen euskarazko aldizkaria? *Elhuyar*. Eta posible al da hemengo askok Euskal Herrian euskaraz egiten den kultur gogoetarako

aldizkari baten izena jakitea eta ez jakitea gaztelerazkoarena? Eta posible al da gutako askok jakitea zientzia eta teknologiari buruzko euskarazko aldizkari baten izena eta ez jakitea gaztelerazkoarena? Harrigarria da, baina ez horrenbeste, ikusiko dugun bezala. Eta, egia esan, Euskal Herrira etorritako erdaldun batek segituan esango luke egoera pixka bat ezagututa: “*¿Estos vascos tienen revistas para la reflexión y propuestas en temas culturales, sociología y educación? Nosotros no tenemos. ¿Y tienen revistas de ciencia y tecnología? Vas a una charla, pregunta el que da la charla el nombre de la revista, y le responden 20: Elhuyar*”...

► **Zer sortu da?** Orduan esaten duzu ez dela posible, ez dela normala, zeozer badaukagu arraroa herri honetan, denek dakitelako badagoela zientzia eta teknologia aldizkari bat, eta kultur gogoetari buruzkoa dagoela ere ezagutzen dute. Baina berriro diot: zer zegoen orain dela 25 urte kiosko horretan? Gaztelerazko kioskoa orain 25 urte hor bukatuko zen, ez zegoen gehiago, lehenago aipatu ditudan aldizkari espezialista horietako bakarren bat egongo zen, baina ez gehiago. Eta orain, 25 urtera, nolakoa da gaztelerazko eskaintza? Lehen bota ditugu adibideak. Eta euskarazkoa? *Anaitasuna, Argia, Goiz Argi, Jakin* eta *Elhuyar* bazeuden orduan, baina geroztik, zer sortu da eta zer dago kioskoetan? *Euskaldunon Egunkaria, Zabaliak, Gaztetxulo, Entzun, Kili-kili, Ikasi, Ipurbeltz, Putz* ere bai... askoz gehiago ez, eta ia denak, gainera, ez daude kioskoetan, eta batzuk desagertu ere egin dira.

Egia da, kioskoetan ez dagoen fenomemo bat badugu, eta aipatzea merezi du: euskarazko herri aldizkariak. Garrantzitsuak dira, milaka euskaldun euskaraz irakurtzen jarri dituztelako. Formatoa desberdina da haiena, hilean behingoak dira, edo hamabostean behingoak, edo batzuk astekariak dira, informazioa oso lokala da... baina oso fenomeno garrantzitsua da. Dendak publizitatea kontratatzen ere jarri dituzte, horien artean denda erdaldunak. Beste gauza bat da herri aldizkarien hurrengo pausoa zein izan litekeen, baina aitortu behar da milaka euskaldun jarri dituztela euskaraz irakurtzen. Aldizkarietako irakurketa hori ez da beti sakona, denek ez dute dena leitzen, batzuek begiratu egiten dute, baina hori egunkarietan ere gertatzen da.

Baina lehengora itzuliz, kontua da 25 urte hauetan kioskoan euskarazko eskaintza oso oso gutxi hazi dela, eta gaztelerazkoa ikaragarri, orain igual 20 aldiz handiagoa baita hauen eskaintza. Ingelesezkoa ez da askoz gehiago handitu, ezin duelako handitu, oso zaila delako gehiago handitzea. Gaztelerazkoek, berriz, unibertso oso hori deskubritu dute eta orduan asteroide bakoitzari jarri diote bere aldizkaria. Guk unibertso bat deskubritu gabe segitzen dugu.

Are gehiago, azkeneko urteetan kiosko askotan gehienez ere topa daitekeena *Euskaldunon Egunkaria* da, eta, gainera, kiosko batzuetan hori ere ez. Oso zaila da, zoritarrez, kioskoetan *Argia* astekaria topatzea, zeren eta *Argia*-k salmenta handiena harpidetzaren bidez dauka, etxera bidalitakoa. Oso zaila da, ia ezinezkoa, *Elhuyar* kioskoan topatzea; *Elhuyar* topa liteke igual Donostian, Askatasunaren Etorbideko kiosko handi batean, edo Boulevarrean dagoen beste batean, edo denda zehatz batean, dendariaren jarrera

halakoa delako eta *Elhuyar* batzuk eskatu dituelako saltzeko, ea jendea animatzen den erostera; baina, bestela, ez dago haren presentziarik. *Zabalik* astekaria, berriz, topa liteke, Donostia aldean gehixeago. *Gaztetxulo* kioskoetan oso gutxi, batez ere etxera banatzen delako; eta kalean gehiago topatzen da leku berezietan, denda berezietan, eta batik bat hiriburukoetan, eta horien artean, Donostian gehien. *Entzun* asko ikusten da alternatibo puntu hori daukaten denda batzuetan.

Zerbait handitu da euskarazko kabezeren kopurua, baina presentzia ez da handitu. Gaur egun *Euskaldunon Egunkaria*-k dauka presentziarik handiena, eta berea ere ez da handia. Euskarazko prentsak ez du presentzia handirik, ez daukalako salmenta nahikorik, ezta nahiko masa kritikorik ere saltzeko. Editatzen duenari ere ez dio merezi 3.000 ale gehiago inprimatzea astero edo hilabetero, gero Euskal Herriko ez dakit zenbat kioskotan zabaldu, sekulako dirutza ordaindu horregatik, prezioaren ia erdia banatzaileari eta kiosko-koari ordaindu eta nahikoa ez saltzeko. Galtzen irteten du horrela. Produktu bat merkatuan jartzen ari zara, salduko ez duzuna... Beraz, ez duzu eurorik jasoko, eta sekulako dirua gatzatzen ari zara produktu hori merkatuan jarrita. Hori da egoera.

Beraz, uste dut garrantzitsua dela egoera zein den ikustea euskarazko prentsari buruz ari garenean.

► **Eztabaida.** Eta gero, hitzaldiaren hasieran bota dudana: zergatik ezagutzen dugu zientzia eta teknologia aldizkaria, euskarazkoa? Hau errespetu guztiarekin esango dut: zergatik daukagu zientzia eta teknologia aldizkari bat, ez baldin badugu ezagutzen zientzia eta teknologia gazteleraz? Espainian ez dute horrelako aldizkaririk, edo baldin badago, oso minoritarioa delako edo oso zientifikoentzako delako. Beste modu batera galdetuta, zergatik 'ahalegintzen' gara buru-belarri euskaraz irakurtzen dutenak zientzia eta teknologia irakur dezaten? Nire maitasun guztia *Elhuyar*-i, baina hau da nik hitzaldi honetara ekarri nahi dudana gogoeta: normala al da egiten ari garen eskaintza?

Gure irakurleen masa kritikoa oso txikia dela kontuan hartuta, ez al guke egin behariko gogoeta denon artean, erabakitzeko euskarazko kiosko normalizatu batek gutxieneko zer elementu eskaini? Oso zaila da *Jakin*-ek asko saltzea. Edo poesia asko dakarren aldizkariak ere ez du askorik salduko. Horra datu batzuk: Euskal Herrian poesiaz botatzen dira edizioak 400, 500, 600 alekoak dira, eta hori goi samarretik jota, baina Espainian poesia, poeta normal batek egindako liburu bat, 1.500 aleko tiradakoa da, eta oso-oso ezagunaren kasuan gehienez ere 5.000 aleko tirada du liburu horrek. Euskal Herrian 25 ale ezin direnez bota, ba orduan 400 bat ale inprimitzen dira, behin inprimitzen hasita. Behin eta berriro buru-belarri saiaturik ere euskaldun guztiek poesia irakur dezaten, hala ere ez guke poesiarik salduko, poesia ez delako irakurketa masibokoa. Baina badirudi bide horretatik segitu nahi dugula euskaldunok, arlo minoritarioak jorratzen baino ez ia. Eta kezkatuta nago. Uste baldin badugu merkatua handituko dugula kultur gogoetarako aldizkari bat salduz, letraz betetako 150 orrialdeko aldizkariarekin, eta, gainera, horietatik 40 orrialde euskarazko unibertsitatearen ingurukoak izanik, ba oso zaila izango da aldizkari horrek salmenta masiboa izatea.

► **Pentsatzen hasi behar.** Era horietako aldizkariak baztertu gabe, euskarazko zer beste produktu atera pentsatzen hasi behar dugu, kontsumo normalekoak izango direnak, gizar-te normalizatu batek dituenak. Horrelakoak jarri behar ditugu merkatuan. Lehentasun batzuk markatu behar ditugu. Filatelia aldizkari bat egin nahi duenak, egin dezala, baina oso zaila izango da euskarazko filatelia aldizkari bat masiboa izatea. Beste planteamendu bat egin beharko genuke. Gutxienezko alorrak jorratu beharko genituzke euskarazko komunikabideetan, eta definitu zein diren alor horiek. Uste dut akordio batera iritsi behar dugula, eta akordio horretara iritsi eta gero, dirua daukanarekin hori lantzen saiatu. Ez dezala inork gaizki interpretatu, ni ez naiz gutxiesten ari ez *Jakin*-en lana, ez *Elhuyar*-en lana, ez *Euskaldunon Egunkaria*-ren lana, ez inoren lana, baina gure kioskoak gizarte normalizatuen kiosko itxura handiagoa hartu behar du.

Seguraski, bidaiei buruzko aldizkari batzuk egin beharko direla pentsatzen hasi beharko dugu. Edo ez dakit, kirol aldetik ere zeozer egin beharko dugu, kirolak kontsumo masiboa daukalako Euskal Herrian, bai kirolak ikuskizun moduan, bai prentsan...; jende asko joaten da San Mamesera, Euskal Herriko Itzuliak jarraipen handia du... Gaztelerazko komunikabideek ere kirol informazio asko sartzten dute.

Parametro ez normaletan ari gara, ez normalizatuetan, eta nik uste dut elementu horiek zuzendu beharko liratekeela. *Jakin*-ek segitu behar al du bere lanean? Bai. *Elhuyar*-ek ere segitu behar du bere lanean, baina niri kostatu egiten zait pentsatzea euskarazko kioskoa handitu litekeenik horrelako eskaintza espezializatua eginda. Pixka bat berplanteatu egin behar dugu dena, bestela ez dudalako ikusten alde horretatik soluziorik.

Euskarazko komunikabideen beste ezaugarri oso nabarmen bat zera da: defizitarioak direla. Gaur egun ez dago euskarazko komunikabide bat, bakar bat ere ez, hedatu samarrekoa ere ez, ekonomikoki bere buruaren jabe denik. Denak gara defizitarioak, batzuk gutxiago, besteak gehiago. Guk *Egunkaria*-n, azkeneko urtean, 1.200 milioi pezetako aurrekontua dugu, eta horietatik 275 milioi Eusko Jaurlaritzak emandakoak dira diru laguntza bezala, eta gainontzekoak salmentarekin eta publizitatearekin lortzen ditugu. Beraz, gure finantzazioa ez dago gaizki: diru iturrien %22 inguru erakunde publikoaren diru laguntza bidezkoa da eta %78 propioa. Ez gabiltza, beraz, autofinantziazio maila txikian. Baina defizitarioak gara. Euskarazko komunikabide denak bezala. Ondorioz, inork ez du lortu oraindik biziraupen ekonomikoa emango dion masa kritiko bat.

► **Kataluniako kasua.** Katalunian, aldiz, katalanezko herri prentsa, herri irratia eta herri telebista oso normalak dira. Denera, katalanezko 11 egunkari daude. Ezagunenak, *Avui* eta *El Punt* dira. Orain *Periódico de Cataluña*-k jokaldi bat egin du, ez dakit ezagutzen duzuen. Zeta komunikazio talde indartsuaren argitalpena da *Periódico de Cataluña*, egunkari bat da, Antonio Francok zuzendua, eta azkeneko hiru urte hauetan oso esperientzi polita egiten ari dira bertan: zu joaten zara kiosko batera eta eros dezakezu *Periódico de Cataluña* espainolez edo horren klon bat katalanez, edo, jakina, biak eros ditzakezu. Zenbat lagunek erosten duten *Periódico*-ren katalanezko bertsioa? Askok; egunkari horren erosleek %40k.

Galizian badago beste esperientziarik: *O Correo Galego*, han, *El Correo Gallego*-ren galizierazko bertsioa da, baina orrialde batzuk aldatuta dauzka. *O Correo Galego* *El Correo Gallego* baina galiziarra da, eta, beraz, gaztelera-ko bertsioan jorratzen ez diren gai batzuk –kulturan inguruko gaiak eta– *O Correo Galego*-n modu zabalean jorratzen dituzte. Beraz, *O Correo Galego* ez da bestearen klonikoa, %90ean da berdina eta %10 dauka berezkoa, baina betiere berezko hori ez da Iraki buruzko informazioa, baizik eta Galiziar buruzkoa. Ondorioz, ez da gauza bera *Periódico de Cataluña*-k egiten duena.

Gainera, *Periódico de Cataluña*-ren kasuan, itzulpena ez dute itzultzaile profesionalak egiten. Ez. Itzulpena ordenagailu batek egiten du, ez dakit zenbat diru balio duen programa baten bidez. Hango egunkariko kazetariak gaztelera-ko idazten du, beti gaztelera-ko idatzi behar du lehendabizi, bukatzen dute egunkaria, eta ordenagailu batetik pasatzen dute. Katalana eta gaztelera hizkuntza lehengusuak dira, erromanikoak, latina, eta, beraz, erraza da katalana entzutea, ulertzea eta ikastea. Itzultzea ere bai makinarentzat. Izan ere, segituan itzultzen du ordenagailu horrek: hiru minutu behar ditu *Periódico de Cataluña*-ren orrialde bakoitza itzultzeko, eta, gainera, orrialde bat baino gehiago batera egiten ditu. Are gehiago, denborarekin beste bide bati helduko diote: hango kazetariak aukeratuko du zer hizkuntzatan egingo duen albistea, eta gero makinak itzuliko du katalanetik espainolera, edo espainoletik katalanera.

El Punt ere hor dago, eta honekin gertatzen dena oso garrantzitsua da. Hain zuzen ere, Gironako lurraldean gehien saltzen den egunkaria ez da espainolez eginkoa, eta hori 'Espainia handian' han baino ez da gertatzen. *El Punt* da salduena Gironan. Bada zer bait. Euskal Herrian, berriz...

Beraz, *Periódico de Cataluña*-ren katalanezko bertsioa, Gironako kasua... Bistan da Katalunian gure aldean aurreratuta daudela.

► **Dirua atzean.** Katalunian horrelako egunkari gehienek atzean enpresa pribatu bat daukate, ez dira gureak bezalako egunkariak sortzen. Pentsa, *Euskaldunon Egunkaria* bere garaian 75 kultur eragilarekin sortu zen, Egunkaria Sortzen taldea osatzen zuten haiek, eta barkatu hau esatea baina haietako ia denek ez zekiten egunkari bat egiten, eta egin zuten laguntza izan zen, animoak ematea, norabidea markatzea pixka bat, baina dirurik ez zuten, euskal kulturaren dabiren jendeak normalean ez duelako diru asko izaten.

Katalunian enpresak daude katalanezko egunkarien atzean, egunkari horiek negozio ere badirelako. Izan ere, han masa kritiko handi samarra dago katalanez irakurtzeko modukoa. Baina proiektuak abiatzean, diruarekin abiatzen dira, ekimen pribatua dagoelako atzean, dirua daukan jendea, burgesia katalanista deitzen dena, esaten duena "bueno, ba ni prest nago butifarrak salduz lortzen dudana etekinaren zati bat katalanezko produktioen sustapenean inbertitzeko". Alegia, dirua inbertitu, gero etekinak lortzeko; ikuspegi progresibo batetik inbertitzen dute dirua Kataluniako komunikabideetan.

Euskal Herrian, aldiz, ekonomikoki gure buruaren jabe ez garela da gaur egun komunikabideetan daukagun zoritxarrik handiena. Horrela, beti, euskarazko gainontzeko produktuak bezala, halako menpekotasuna dugu Eusko Jaurlaritzarengan. Ez dut esango presioa

daukagunik, ez daukagu-eta horrelakorik, baina bai daukagula halako prebentzio bat, *Egunkaria*-ren kasuan aurrekontuaren %20 jasotzen dugulako Eusko Jaurlaritzatik, eta orduan elementu batzuk ere zaindu behar dira. Beraz, oraindik enpresa defizitarioak dira euskarazko komunikabideak, eta horren barruan, euskarazko prentsa: egunkariak, aldizkariak...

25 urte pasatu dira gure prentsa kiosko horren orduko itxuratik hona, eta nik uste egoera kezkatzekoa dela: presentzia aldetik ez da ia hazkunderik izan, ez ditugu kontsumo masiboko produktu berezituak egiten, euskarazko prentsako proiektuek atzean ez dute ekimen pribatu dirudunik, eta ekonomikoki oraindik ez gara gure buruaren jabe –ez dugulako nahiko publizitate, nahiko erosle, nahiko harpidedun–.

Gauzak berriro planteatzeko garaia da. ◀

3 UZTARRIA ALDIZKARIAREN SORRERA

Herri aldizkaria sortzeko proiektua

1998ko martxoan sortu zen Uztarría Kultur Koordinadora, herriko euskara eta kulturako elkarte eta norbanako askoren artean, eta hiru ardatz jarri zituen lanerako: euskara, kultura eta komunikazioa. Azken horren barruan, herri aldizkaria sortzeko asmoa zegoen. Aurretik, hileroko kultur agenda banatu zuen Uztarríak, eta aldizkariko proiektua landu zuen bitartean.

Uztarría Kultur Koordinadora (1999-urria, herrian aurkeztua)

1. Sarrera.

► **1.1. Informazio lokala Euskal Herrian.** Azken 20-25 urteotan herri komunikabideak asko ugaritu dira, mundu osoan gainera. Herri informazioaren edo informazio lokalaren loraldi hori bete-betean somatu dugu Euskal Herrian; baina beste horrenbeste gertatu da beste herri batzuetan ere (Katalunian eta Europako beste tokietan, adibidez).

Izan ere, oso fenomeno zabaldua da; hau da, gizakiok betidanik kezkatu gaitu gehiago etxetik gertu gertatu den ezbehar tamalgarri batek (hildakorik gabeko autobus istripu batek, adibidez), gugandik urruti izan den uholde ikaragarri batek baino (nahiz eta ehundaka hildako izan). Eta ez da axolagabekeriaren ondorio, ez. Joera guztiz naturala da hori, gizakiok ingurukoengan bilatzen baitugu beti geure lehenengo erreferentzia, eta ez gure mugez gaindi gertatzen diren kontuetan.

Hala, guztiontzat dira interesgarri, ezbehar tamalgarriez gain, gure herrian gertatzen diren hainbat eta hainbat gertakizun, erabaki, eztabaida eta ika-mika. Guztiok jakin nahi dugu, lehen eskutik gainera, ondoko ikastetxean dituzten arazoak zertan diren; Himalayara joan berri diren herritarren orain arteko kirol ibilbidea zein izan den; Udalak, alderdi politiko eta bestelako gizarte eragileek zer erronka eta egitasmo dituzten epe labur edota ertainean; eta beste hainbat gai (herriko agenda, bitxikeriak, pertsonaia famatuen xehetasunak...).

1975etik hona informazio lokalak izugarriko hazkundea izan du. Gorakada hori, gainera, nabarmenagoa izan da azken hamar urteotan. Ikus dezagun Carl N. Warren, kazetaritza alorrean adituak, gai horren inguruan dioena (*Géneros periodísticos informativos*, Ate, Bartzelona, 1975): Warrenek albistegarritasunaren inguruko azterketa egin zuenean, aktualitatearen eta hurbiltasunaren baloreak azpimarratu zituen beste guztien gainera. Bide horretatik mintzatzen dira, halaber, Jose Luis Martínez Albertos eta Emil Dovifat kazetariak. Bi horiek, adibidez, herriko informazioak hartzailearentzat izan lezakeen erabilgarritasun praktikoa azpimarratu dute. Beraz, hurkotasuna lehen mailako balorea da hartzailearentzat. Zita horiek, informazio lokalak herritarrentzat duen garrantziaren adibide dira.

► **1.2. Herri aldizkarien fenomeno ahalbidetu duten faktoreak.** Herri aldizkarien loraldia, baina, ez da besterik gabe eman. Hainbat faktorek eragin dute. Horratx Diaz de Tuesta euskara teknikariak aipatzen dituen faktoreak:

► Erakunde publikoen laguntza. Euskarazko herri aldizkariak hasiera-hasieratik izan dute

erakunde publikoen babesa, bai diru laguntza aldetik, baita azpiegitura teknikoaren aldetik ere. Egia da, halaber, laguntza hori oso aldakorra dela, baina, oro har, aldizkari horiek erakunde publikoen begirunea jaso dutela esan daiteke.

Aldizkari horiek gehienak Udaletik kanpo egiten dira, eta hori ezinbesteko baldintza da Uztarría Kultur Koordinadoraren iritziz behintzat. Herri aldizkariak benetako izaera zabalazango bada, era eta taxu guztietako gaiak landuko baditu, alderdi politikoaren jardueratik independentea eta inpartziala izango bada, beharrezkoa du Udaletik kanpo egotea.

Erakunde publikoen laguntza oso-oso garrantzitsua da herri aldizkari gehienentzat; gaur egun aldizkari horien diru sarreratan erakunde publikoen laguntzek atal handia betetzen dute, horiek gabe ez baita erraza kalean izatea. Dena den, erakunde publikoek daramaten diru laguntza sistema nahikoa kritikatu izan da azken urteotan.

► Teknologia berrien eragina. Autoedizioaren sorrerak erraztu egin du herri aldizkariaren ibilbidea. Teknologia berriek merketu egin dute argitalpenen edizioa. Teknologia zenbat eta gehiago aurreratu, inbertsio txikiagoak egin behar dira herri aldizkari bat egiteko.

► Euskara batuaren sendotze prozesua. *Arrasate Press* sortu zenean, euskara batuak 20 urteko ibilbidea zuen. Orain, 30 urte baino luzeagoa den iragana du bere atzean euskara batuak. Zalantza eremu asko eta asko argitzeke daude oraindik. Hala ere, ezin uka daitezke azken urteotan euskara batuak egin dituen urratsak. Sendotze prozesu hori ere lagungarri gertatu zaio herri aldizkariaren fenomenoari. Izan ere, duda-mudak argitzen joan diren neurrian, gero eta talde gehiago animatu dira euren produktuak argitaratzera. Irakaskuntzan gertatu den bezala, komunikaziogintzan ere aurrerapauso nabarmenak gertatu dira azkeneko urte hauetan. Eta euskara batuari ere mesede egin dio horrek.

► Herriko informazioak euskaraz informatzeko zuen (eta duen) beharra. Herri aldizkariak mezubide erraldoiek eta nazionalak ezin ase duten errealitatea bete dute: tokian tokiko informazioa luze eta zabal eskaintzea eta, gainera, euskaraz. Behar bezala garatu gabe zegoen espazioa (informazio lokalarena, alegia) euskarak bete zuen, eta ez gaztelerak edo frantsesak. Azpeitiari dagokionez, alde horretatik ere gabezia nabarmena dugu. Izan ere, herriko gaiei buruzko informazio gutxi zabaltzen da, eta informazio hori, hein handi batean, gazteleraz eskaintzen da (*El Diario Vasco*-ren Azpeitiko kartan).

► Kazetari euskaldunen plazaratze masiboa. Leioako Kazetaritza ikasketak 1976an jarri ziren abian, Bartzelonako Informazio Zientzien Fakultateko unitate delegatu modura. Gerora etorri zen fakultate bihurtu izana eta euskal lerroen indartzea. 1980ko hamarkadaren bigarren zatian plazaratzen hasi ziren lehenengo kazetari euskaldunak. Gehientsuenen helburua garbi zegoen: euskarazko prentsa. Horren adierazle dira *Euskaldunon Egunkaria*, *Argia* eta herri aldizkari askotako erredakzioak.

► Banaketa sistema erraza. Herri aldizkariaren fenomeno honek bere alde duen beste faktore bat, aldizkariaren banaketa sistemarena da. Gehienak harpidetza bidez banatzen dira, herritarren postontziraino zuzen-zuzenean, gainera. Banaketa, normalean, herritarrek eurek egiten dute; herri aldizkariarekin berarekin zuzenean edo zeharka harremana duten ikasleek edota gazteek.

► **1.3. Herri aldizkarien ezaugarri bereziak.** Ikusi ahal denez, herri aldizkariak ezaugarri bereziak dituzte, gainontzeko komunikabideekin alderatzen baditugu behintzat. Hona hemen ezaugarri berezi horietarik garrantzitsuenak:

► Doanekoak izatea. Euskarazko herri prentsa doan banatzen da. Horrek abantaila izugarria dakar, herritar askorengana iristeko bide ematen duelako, baita harpidetza bidezko banaketa hori pertsonalizatzeko ere. Irakurle eremua handia izaki, publizitatea eta erakunde publikoen diru laguntzak ere errazago etor daitezke.

► Finantziario sistema berezia. Herri aldizkarien diru iturri nagusiak erakunde publikoen laguntzak eta publizitate bidez datozenak dira. Arlo horretan aldaketa handiak daude aldizkari batetik bestera. Esaterako, *Arrasate Press* aldizkariak dituen sarreraren %43 iragarkien bidez lortzen du. Beste aldizkari batzuetan zati hori txikiagoa da. Gainontzekoaren parte handia erakunde publikoen bizkar joan ohi da.

Azpimarratzekoa da, alabaina, herri aldizkari zenbaitek bazkideen kuoten bidez eta tar-teka-marteka antolatzen dituzten kontzertu eta halakoen bidez ere diru sorta polita lortzen dutela. Esan bezala, ordea, zutabe nagusiak publizitatea eta diru laguntza publikoa dira.

► Herrigintzan oinarrituta. Herri aldizkarien sorburua euskara edota kultur taldeetan dago. Horrek eman zien bizitasuna eta herrigintzan aritzeko behar den kemena eta indarra. Fenomeno hau beheko oinarririk gabe ezinezkoa zatekeen. Esan nahi baita, kultur espresio herritar askoren moduan, behetik gora sortu direla herri aldizkariak, ez alderantziz. Gainera, herrigintzan aritze hori abiapuntu ireki eta zabaletatik bideratu da, alderdikierietan erori gabe; euskararen (eta euskal kulturaren) unibertsoak bere baitan duen pluraltasuna aldizkarien orrietan islatuz, alegia.

Zentzu horretan, behar-beharrezkoa da erakunde publikoek talde horien lana eta ahalegina errekonozitzea. Herrigintzan ari diren taldeek ez dute probetxu propioa bilatzen, baizik eta herriarentzat komenigarria dena egiten dute. Hori erakunde publikoek onartzea ezinbestekoa da.

2. Azpeitia eta herri aldizkaria.

► **2.1. Azpeitia eta herri aldizkariaren beharra.** Uztarria Kultur Koordinadorak hasiera-hasieratik, 1998ko martxoan sortu zenetik, buruan darabilki herri aldizkari plural baten sorrera. Orainoko lerrootan aipatu dugunez, informazio lokalak izugarritzko garrantzia dauka herritarrentzat. Azpeitiko informazioak izugarritzko garrantzia dauka azpeitiarrentzat, herrian gertatzen diren gauzen berri jakiteko irrikitan egoten baitira. Eta hor kokatu behar da, besteak beste, herri aldizkari gehienen sorreraren funtsa. Hor kokatu behar da, beste arrazoi batzuen tartean, Azpeitian ere herri aldizkari bat sortzeko hartutako erabakia.

Eta lehen aipatu dugunez, herri aldizkari batek beste maila bateko prentsak betetzen ez duen hutsunea betetzen du. *El Diario Vasco* egunkariko Azpeitiko kartak, *Azpeitian zer?* udal aldizkariak eta 1998ko martxotik 1999ko martxora bitartean Uztarriaren agendak eskainitako informazioa, garrantzitsua izanik ere, ez da nahikoa herritarren informazio gosea asetzeko. HBren *Azpeitia eginez*-ek ere ez du informazio zabaltasuna bermatzen.

Norbaitek esan dezake herritarrek herrian gertatutakoaren berri badutela. Baina praktikak oso bestelako norabidea erakutsi digu. Uztarriak herri osoan banatutako inkesten emaitzen arabera, herritarrek informazio gabezia somatzen dute herrian. Jendeak herrian gertatu diren gertaeren inguruan edota hartu diren erabakien inguruan jakin nahi du. Eta horretarako eskubidea du, gainera. Informazioa sakratua da. Hortxe kokatzen da herri aldizkarien helburu nagusia: alegia, alde guztietako informazioa zabaltzean, herritarrek gero horren inguruan gogoeta eta hausnarketa egiteko aukera izatea. Azpeitian herri aldizkari zabalaren alde hasi dugun ekimenaren helburu nagusia ere hortxe kokatzen da, ezbairik gabe. Hurrengo puntuan ikusiko dugu herritarrek gaiaren inguruan duten iritzia, betiere 1999ko urtarrilean Uztarriak egindako inkestaren arabera.

► **2.2. Herri aldizkariari buruzko inkestaren emaitzak.** Uztarriak, lehenago esan bezala, betidanik buruan izan du herri aldizkari bat. Baina benetako herri aldizkari bat sortu behar bada, herriak aldizkariaren beharra duelako sortu behar da. Aldizkariak ezin du talde baten kapritxoa izan.

Kultur Koordinadoraren baitan talde eta jende ugari biltzen den arren, handik kanpo ere azpeitiar asko eta asko dago jakina. Horrek bultzatu zuen Uztarria herri osoan inkestak banatzera, azpeitiarren iritzia jasotzera behartuta zegoelako. 1998ko azaroaren bukaeran hiru mila inkesta inguru banatu zituen. Inkestak jasotzeko ahal zen biderik errazena eta lasterrena ezarri genuen: posta kutxa bat jarri genuen eta tabernatan buzoiak. Hona hemen orduan egin ziren galderak, eta jasotako erantzunetan oinarrituz Uztarriak emandako emaitza eta ondorioak:

► Herri aldizkariaren beharra eta zergatia. Hasierako galderari erantzunez, inkestak erantzun dituztenen gehiengoak beharrezkotzat jo du herri aldizkari bat. Hain zuzen ere, %97,17k. Azpeitiak, beste hainbat herriren moduan, herri aldizkari baten beharra duela uste du herritarren gehiengoak, betiere inkestei kasu egiten bazaie. Zergatiei dagokionez (erantzuna irekia zen), guztiek bide beretik jo dute. Alegia, Azpeitian informazio falta nabaria dagoela uste dute gehienek: %73,3k. Izan dira, horretaz gain, aldizkaria herriko kultura bultzatzeko garrantzitsua litzatekeela aipatu dutenak ere. Bestalde, hainbat eta hainbat erantzunetan aipatu izanenez, *Azpeitian zer?* udal aldizkaria ez da nahikoa herritarren informazio gosea asetzeko.

► Herrikoa ala eskualdekoa? Kontu horri dagokionez, gehienek herri mailako aldizkari baten aldeko apustua egin dute: %71,4k. Izan ere, eskualdeko informazioa garrantzitsua dela irizten dioten arren, betiere herriko informazioari ematen diote lehentasuna. "Herri bakoitzak bere nortasuna du", "informazio zehatzagoa eta hobeto landutakoa bilduko luke"... eta horrelakoak aipatu dira erantzun hori arrazoitzeko orduan.

► Parte-hartzea. Benetan harrigarria eta era berean pozgarria da inkestako puntu horretan jasotako erantzuna. Izan ere, herri aldizkarian parte hartzeko prest ez dagoen jende dezente agertu den arren (nahikoa normalizat jotzen dugu hori), gehiengoak parte hartuko lukeela erantzun du: % 57,28k, hain zuzen. Horrek garbi erakusten du jendeak horrelako proiektuak aurrera ateratzeko duen gogoia. Horretarako, Uztarriak beharrezko jotzen du,

behin eta berriro dienez, aldizkari bat proiektu zabal batetik sortzea. Era horretara bakarrik identifikatuko dira herritar guztiak.

► Oro har, herriko informazioaren berri ba al dugu? %97,1ek ezetz diote. Herritarrak zenbait gertaeren berri duen arren, oro har ez du jakiten erabaki desberdinak, eztabaidak eta bestelakoak nondik nora doazen, ez duelako herriko gora-beheraz informatzeko papezko euskarri egokirik. *El Diario Vasco*-ren Azpeitiko karta nahikoa motz geratzen da, nahiz eta ahal duen heinean bere funtzioa betetzen duen. Bestalde, eta lehen aipatu bezala, *Azpeitian zer?* udal aldizkaria ere eskas geratzen da; hura udal aldizkaria den momentutik, eta politiko jakin batzuen menpe dagoen momentutik (agintean dagoena dagoela), informazio guztia ez plazaratzeko arriskua dago.

► Udal aldizkaria ala autonomoa? Azpeitiarrek argi dute aldizkariak ez duela Udalaren menpe egon behar. Erantzunen arabera, herritarrek izan behar dute aldizkariaren nondik norakoak finkatuko dituztenak, betiere Udalari bizkarrik eman gabe. Herritarren %87,7k egin dute herri aldizkari autonomo baten alde. Hala, hainbatek eta hainbatek esan duten moduan, aldizkariko taldearen eta Udalaren arteko halako elkarlan bat litzateke egokiena, eta aldizkaria herri osoarena izango den momentutik, "Udalak hura finantzatzeko lagundu beharko luke". Bide horretatik, ia guztiek aldizkariaren harpidedun izango direla esan dute (harpidetza doan izan ohi da herri aldizkarietan).

► Zergatik ez dago herri aldizkaririk Azpeitian? Horren erantzule herritar guztiak direla ondoriozta daiteke inkestak irakurriz gero. Halakoetan ohikoena eta errazena erantzukizuna Udalari leporatzea da. Oraingoan ere Udalak izan du kritikarik, asko izan baitira egoeraren ardura egotzi diotenak (%38,8k Udalaren borondate eza aipatu dute). Baina ezin esan herritarrak frogatik onik irten direnik, erantzunen gehiengoak "herritarren ekimen falta" aipatu duelako arrazoi moduan (erantzunen %50,6 da iritzi hori duena).

► Helburuak? Herri aldizkariaren helburuak aipatzerakoan, denetariko erantzunak izan dira. Baina, batik bat, herriko informazioa objektiboki zabaltzea eta hainbat arazoren inguruko gogoeta bultzatzea aipatu dituzte. Askok eta askok garrantzitsutzat jo dute, bestalde, herritarrek hitza izatea, *Zuzendariari gutunak* eta horrelakoen bidez (...).

3. Azpeitiko azterketa sozio-ekonomikoa.

► **3.1. Sarrera.** Euskal Herrian, batik bat Gipuzkoan, herri aldizkari ugari daude. Azpeitia baino baldintza sozio-ekonomiko okerragoak dituzten herri ugari badute herri aldizkaririk. Ondorengo azterketaren bidez, gure herrian aldizkaria sortzeko baldintzak onak direla erakutsi nahi du Uztariak. Azpeitian aldizkaria sortzeko baldintza ezin hobeak daude euskara, egoera sozio-ekonomikoa, merkataritza eta industriaren indarra... kontuan hartuta (...).

► **3.4. Euskara.** Azpeitia herri euskalduna da, zalantzarik gabe, baina ez da herri euskaltzalea. Herri aldizkari batek, dinamizatzaile gisa izugarrizko lana egin dezake alor horretan. Datuei begiratzea besterik ez dago. Euskaldunak eta alfabetatuak gure herrian lagineko besteetan baino askoz gehiago dira, eta ia Gipuzkoakoaren batez bestekoaren bikoitza da.

Datu horiek, bestalde, hasieran gure herriko biztanlegoaren gaztetasunaz genioena baieztatzen dute. Alfabetatu eta ez-alfabetatuen artean, Azpeitian %87 euskaldunak dira (+ %7 ia euskaldunak). Beraz, egundoko potentzialitatea duen herria da. Gure herriko gabezia historikoen akatsa, ordea, hurrengo estatistikan nabarmentzen da: %87ren ama hizkuntza euskara da, baina etxean %76k hitz egiten dute euskaraz. Datu horrek agerian uzten du gure herrian, orain dela gutxi arte, euskararen alorrean lanik ez egiteko beharrak ekarri duen kaltea.

4. Herri aldizkariaren ezaugarriak.

▶ **4.1. Nortasunari dagozkion ezaugarriak.** Herri aldizkaria benetan herritarra izango bada, garrantzitsua da izaeraren inguruan hitz egitea. Uztarriaren iritiz, behar-beharrezkoa da aldizkari horrek izaera zabala izatea. Mota guztietako herritarren partaidetza izan behar du. Horrek emango dio zabaltasun hori. Bide horretatik, gainontzeko herri aldizkarien historiari kasu egiten badiogu, gehientsuenak, denak ez esatearren, euskara edota herri elkarteetatik sortu dira. Funtzionamendu aldetik autonomo samarrak dira Euskal Herriko herri aldizkariak. Eta horrek ematen die izaera zabal hori. Izan ere, aldizkari bat alderdi politikoren baten edo Udalaren mendean edota eraginpean baldin badago, herriko informazio guztia ez da agertuko; beti interes partidistak nagusituko dira. Garrantzitsua da, horrenbestez, herri aldizkarian era eta kolore guztietako informazioa agertzea. Irizpide orokorrak betiere interes propioen gaitetik egon behar du. Informazioa sakratua baita, beti esaten dugun moduan. Eta guztiok informatzeko eskubidea eta informatuak izateko eskubidea baitugu (...).

▶ 4.4. Aldizkariaren helburuak.

▶ 4.4.1. Euskara eta euskal kultura bultzatu. Azpeitia herri euskalduna da, baina ez euskaltzalea. Ondorioz, Uztarriaren iritiz hainbat gabezia somatzen dira. Aldizkariak akuilu lana egingo du euskararen alde, Euskal Herrian herri eredugarria izan gaitzeko eta. Bestalde, herri aldizkariaren sustraietako bat kultura da, euskal kultura. Herri aldizkariarentzat euskal kultura garrantzitsua da oso, informazio iturri nagusia.

▶ 4.4.2. Informazioa zabaldu. Sorrera-sorreratik informazio gabezia nabarmendu du Uztarriak. Inkestetan ere, herrian hartzen diren erabakien berri, irekita dauden eztabaida-prozesuen berri... ez dutela adierazi dute herritarrek. Hori dela eta, herri aldizkariaren beste helburuetako bat informazioa zabaltzea da, ahalik eta informazio gehien. Herrian gertatzen den eta eztabaidagai den guztia herritarrei helaraztea. Informatzea eskubidea delako. Baita informatua izatea ere.

▶ 4.4.3. Herriaren egituraketa. Udala-herritar, herritar-elkarte, elkarte-Udala arteko harremanak bultzatu behar ditu herri aldizkariak. Guztien informazioa kaleratuz, guztien iritzi eta eskariak publiko eginez, gaur egungo harremana hobetu egin nahi du. Beharrezkoa da elkarren arteko harremana bultzatzea, eta horretan zeresan handia izango du herri aldizkariak. Herria ahal den gehien integratzeko helburua du Uztarriak. ◀

Kalean da azpeitiar guztion aldizkaria

...eta euskarazko herri aldizkaria sortu zuen Uztarría Kultur Koordinadorak. 1999ko azaroan. Orain dela bost urte. Hasieratik harrera ona eduki zuen, azpeitiarrak segituan hasi zirelako harpidedun egiten, haietako asko bazkide egiten, aldizkariak kolaboratzaile ugari ere lortu zuen eta abar. Aldizkariaren aurreneko bi urteetako iritziak-eta dira ondorengoak.

Iban Arregi (Uztarriako lehendakaria orduan; 1999-azaroa, Uztarría aldizkariaren 1. zenbakia)

Oraindik buruan dut Uztarría Kultur Koordinadora martxan jarri genuen eguna. laz zen. Azpeitiko kulturarekiko eta euskararekiko kezka genuen hainbat lagun bildu ginen, gogoeta egin, proposamenak aztertu... Handik aurrera egin beharreko bidea argi genuen. Eta argi dugu. Kultura aldetik gabeziak somatzen genituen orduan, eta somatzen jarraitzen dugu orain ere. Hala, behar handienak detektatu eta behar horiei eman beharreko konponbideak aztertzeari ekin genion. Kultur etxea, euskara eta herri aldizkaria, horra hor letraz azpimarratu genituen beharrak.

► **Egin duguna...** Beharrak konponbidea eskatzen du, eta, hala, Udalak Euskara Patronatoa sortu du aurten, eta euskara teknikari figura sortu ere bai. Orain Uztarría Kultur Koordinadorak herri aldizkaria sortu du. Egin dugu aldizkaria, 'herri' horrek esan nahi duen guztiarekin: zabala, herritar guztiena, herritarrok sortua... Hainbat adjektibo gehitu dakizkioke. Helburu haiek genituen buruan proiektuaren sortzeari ekin genionean. Eta horretan jarraituko dugu, orain aldizkaria kalean dagoela. Irizpide haiei ez diegu bizkarrik emango.

Horretarako osatu dugu sentsibilitate desberdinak biltzen dituen proiektua. Eta horregatik egon gara harremanetan herriko elkarte gehientsuenekin. Horregatik lortutako atxikimendu zerrenda zabala, edo herriko hiru alderdi politikoeekin egindako bilerak.

Hala ere, ez dezagun pentsa egin duguna izugarria denik. Garrantzitsua da, bai, herri aldizkari bat izatea. Baina ez da hain harrizkeoa ere. Euskal Herrian hainbat herri aldizkari daude; batez ere, Gipuzkoan. Azpeitia bezalako herri euskaldun batean orain arte herri aldizkaririk ez edukitzea, horixe bai zela harrizkeoa.

Eta horren erantzukizuna guztionganaino heltzen da. Udaletik hasi eta Uztarría osatzen dugunonganaino. Hala zioten 1999 hasieran Uztarriaren inkestaren emaitzek. Alegia, Udalak ez ezik, herritarrok ere erruaren parte handia geurekin daramagula, herri aldizkaririk egiteko ezer ez dugulako egin. Orain arte.

► **...eta egiteko duguna.** Aldizkaria atera dugu, bai. Baina oraindik badugu egitekorik. Izan ere, aldizkaria ateratzea da gauza bat; eta behin atera eta gero, gauzak ondo egitea, bestea. Hasiera batean –aurreneko urtean edo–, aldizkaria hilabetero kaleratuko dugu, aurrea begirako asmoa hamabostekaria ateratzea bada ere. Herritarrekiko gertutasuna lortzeko, gaien tratamendua ez ezik, maiztasuna ere garrantzitsua delako: zenbat eta sarriago iritsi etxeetara, orduan eta hobeto.

(...) Azpeitiari eta azpeitiarrei zerbitzu bat eskaintzera gatoz, zerbitzu komunikatibo zabal eta serio bat. Hau sortzeko erabili dugun urtebete luzean beharrezkoa izan da herritarren partaidetza eta aportazioa. Eta gero ere beharrezkoa izango da, aldizkariak 'herri aldizkari' izaten jarraituko badu, aldizkariak herritar guztiena izaten jarraituko badu. ◀

Bi bertso sorreran

Beñat Lizaso (bertsolaria; 1999-azaroa, Uztarría aldizkariaren 1. zenbakia)

Asko kostata baina lortu da
emaitza izugarria
biak batera uztartu dira
kultura eta herria.
Hau da gure artera heldu
den aldizkari berria,
herria eta kultura biak
lotzen ditun uztarría.

Aldizkari hau dela-ta denok
pozez beterikan gaude
talde bikain bat egin delako
talde guztien zutabe.
Herritar denok saia gaitezen
gogor Uztarrían alde;
beti aurrera segi dezagun
uztarririk hautsi gabe. ◀

Jaso buruak eta: enbido!

Fernando Morillo (idazlea; 1999-azaroa, Uztarría aldizkariaren 1. zenbakia)

Guztia alda dezagun, guztiak berean iraun dezan". Hori esan zuen behin norbaitek, eta ezin uka logika apurra bazuenik. Oso harira dator horixe. Begiak pixka bat zabalduz gero, edonor ohar baitaiteke aldaketa garaietan buru-belarri murgildurik gaudela. Eta jolas-teko ordua iritsi dela. Egin zuen apustuak, jaun-andreok, jokia hastera doa eta!

Aldaketak, arriskutsuak ere badira, noski. Txinatarrentzat, adibidez, madarikazio latza da horrelako aro batean bizitzea. Eta txinatarrek ez dira batere inozoak gero. Hala eta guztiz

ere, hori dena baino askoz garbiagoa zera da: mututzen ez dena, hilik dagoela. Kito. Hor ez dago besterik. Ez dugu, besteak beste, Azpeitia hil dadin nahi, ezta? Orain arte egin –ahal izan?– ez dugun dena eraikitzeke uneak datoz. Gogorrak. Baina halabeharrezkoak, aizue. Aldizkari berri bat! Hau hasi da mugitzen, hara. Erronka berriak egiteko –eta onartzeko!– garaia da, azpeitiarrok. Zer demontre, jaso ditzagun buruak: enbido! ◀

Mingaina dantzatzeaz gain...

Fernando Morillo (idazlea; 1999-abendua, Uztarría aldizkariaren 2. zenbakia)

Azpeitiak baino dezente euskaldun gutxiago duten hainbat herritan, askoz hobeto salutzen omen da *Euskaldunon Egunkaria*. Anekdotak horrek, azterketa txiki bat merezi du nire ustez.

Beharbada, hemen, gure herrian, euskaraz hitz egiten denez, horrekin nahikoa dela pentsatzen dugu. Kasu! Konformismoaren abizena, zabarkeria koldarra delako.

Hizkuntza bat eikitzeko, ez da nahikoa hitz egitearekin. Kexatzea, jokaera errazegia dateke. Lan egin behar da! Hurrengoan, euskararen alde hitz egitean, pentsa dezagun berehala, horretaz gain, besterik egiten dugun. Uztarría herri aldizkari jaioberriak hitz onak baizik ez ditu jasotzen. Hitzak baino ez. Zerbait lortuko badugu, jarrera aktiboagoa izan beharko dugu. Den-denok, ordea. Denborak esango du herri euskalduna izatea merezi ote dugun. Azpeitia, non zagok/n hire harrotasuna! ◀

Kolonialismo kulturalen aurka

Xabier Alday (idazlea; 1999-12-01, 'Egunkaria')

(...) Begiak zabaldu behar, ordea, euskal herritarroei zuzendutako zenbait prentsa ardura-dunei geratuko zitzaient tonto aurpegia apreziatzeko Correo Taldeak atera duen euskarazko astekaria dela eta [Zabalik]. Paradoxa: euskaraz, baina ez horregatik euskaldunontzako. *El Correo* eta *DV*-ren orrietan euskaldunoi zer-nolako ideologia eta ikuspegitik mintzo zaigun ikusirik, Inozente Eguna hilabete beranduago dela erantzutea besterik ez dugu.

Bien bitartean, hamahiru urtez *El Diario Vasco*-n jardun duen kazetariak ez du aukerarik galdu zeharka bada ere bere burua dominaz jantzi eta, besteak beste, astekari berriak euskarazko publizitateak duen balioa aldarrikatzen lagun dezakeela aldarrikatzeko.

Batzuek kultur homologazioaren baitan onetsiko dute kultura bidezko kolonialismo saikera hau; aspalditik behar lukete eduki artilez jantzitako atzerriko prentsak gure beharrak asetzen ez eta Euskal Herri osoan sortu eta zabaltzen ari diren herri aldizkari berri. ◀

Euskarazko prentsari buruz

Patxi Azpillaga (EHUko irakaslea; 2000-apirila, Uztarría aldizkariaren 6. zenbakia)

Euskarazko prentsak funtzio garrantzitsua betetzen du hizkuntz komunitatean. Euskal Herri mailako hedapena eta lotura mantentzen duen elementu apurretako bat da. Bestetik, euskaraz bizitzea posible egiten duen ezinbesteko elementua da". Hala zioen duela lau bat urte Jon Sarasuak Euskalkom jardunaldietarako prestatu zuen txostenean; eta hala onartu zen jardunaldi haietako ondorioetan.

Egun, esanahi guztia mantentzen du baieztapen hark. Irrati eta telebistetan egindako bidea gutxietsi gabe, euskarazko prentsa izan baita, dudarik gabe, azken urteotan euskararen gorputze, modernizatzeko eta eguneroko beharretara moldatzeari mesederik handiena egin dion medioa. Baita Internetek eta teknologia berriek euskarari ekartzen dizkieten erronken kontzientzia hartu eta horiei aurre egiteko oinarriak jartzen hasteko orduan ere.

Eta hala eta guztiz ere, laguntza eta babes publiko txikiena jaso duen komunikazio arloa izan da urteetan. Egun, gauzek hobera egin badute ere, oraindik arazo larriak bizi ditu euskarazko prentsak bere azpiegitura indartu eta gizarte presentzia hazteko. "Hazi nahi, hazi behar eta hazi ezin. Irits litekeenera iritsi ezina da egoeraren laburpena", jarraitzen zuen Sarasuak aipatutako lanean. Eta ordutik hona hazi, hazi egin bada ere, hazkunde horren oinarriak ahulak dira oraindik.

Gaur nazio mailako euskarazko egunkari bat, informazio orokorreko bi astekari eta publiko eta behar mota desberdinei zuzendutako gai eta maiztasun zenbaiteko aldizkari gutxi batzuk ditugu eskura (haurrentzakoak, dibulgaziokoak, akademiko-pentsamenduzkoak...). *Egunkaria*-k 13.000 ale saltzen ditu egunero eta 30.000 irakurle inguru ditu; besteak kopuru horietatik oso behera daude.

Horien ondoan, Asier Aranguren duela urte batzuk bildutako datuen arabera, euskarazko 46 aldizkari lokal daude (Uztarriarekin 47): 28 Gipuzkoan, 11 Bizkaian, 6 Nafarroan eta 2 Araban. Guztira 122.000 ale bota eta 427.000 irakurle izango lituzkete; alegia, hiru euskaldunetik bik euskarazko aldizkari lokalen bat irakurriko lukete.

Ikus daitekeenez, aldea ikaragarria da. Prentsa lokala izugarritzko tresna eraginkorra izan da euskaldungoa idatzitako euskarara erakartzeko, euskaraz irakurtzeko ohitura minimo batzuk sortzen laguntzeko. Are gehiago: euskarak bere egin du, telebistan ez bezala, bertako, eremu lokaleko informazioaren mundua, aurrea hartuz, modu nabarmenean gainera, gaztelari. Eta ez edozein modutan, gainera, baizik eta gehienetan, Uztarriaren kasuan bezala, prentsa eta komunikazio eredu aurreratu, ausart, bizi eta modernoarekin. Baina eremu lokal horretatik haratago amildegia dago.

► **Irakurleak behar.** Irakurleak behar ditu euskarazko prentsak, baina ez ditu horiek eremu lokaletik kanpo aurkitzen. Bai Euskarariren *Prentsa idatzia* txostenean gazteak aldagai garrantzitsutzat jotzen dira kopuruei bultzada bat emateko, eurak baitira prestakuntzarik

handiena dutenak euskaraz irakurtzeko. Baina, era berean, onartzen da publiko mota horren irakurtzeko joera eskasa dela, baita horiengan eragiteko zailtasuna ere.

Azkenean iritsiko da euskal prentsa izan daitekeena izatera. Baina luze joango da hori, eta bien bitartean produktuak egokitzen, hobetzen eta dibertsifikatzen jarraitu behar da, jai dugu bestela. Horretarako, argi da, derrigorrezkoa da baliabide gehiago inbertitzea, eta horiek une honetan, publizitatearen merkatua eta beste motako sarrera komertzialen lan-
tzea ahaztu gabe, ogasun publikoan daude: udaletan, foru aldundietan, Eusko Jaurlaritzan.

“Gu, 100.000 pezeta kobratzen duen gizagaixo banda gara”, zioen duela urte batzuk Luis Fernandezek prentsako euskal kazetarien egoera deskribatzeko, eta *Egunkaria*-k Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako akordioak egoera hobetzen lagunduko bazuen ere, asko eta asko ez dira, oraindik, kopuru horretatik oso urrun ibiliko. Zer esanik ez prentsa lokalean. Baina, aurrera egingo bada, hemen ere lantaldeek profesionalak izan behar dute. “Onenak bertan egoteko, lan baldintza duinak eskaini behar dira”, zioen Asier Arangurenek bere tesian. “Enpresa egitura landu behar da lehiakortasunean aritzeko. Borondatezko lanak ezinbesteko lagungarri behar du, baina ez proiektuen bizkarrezurra”. Astindu ba poltsikoa, euskarak merezi du-eta euskarazko prentsa (eta azpeitiarrok ere bai). ◀

Proiektu berriua herriari

2002. urtea garrantzitsua izan zen Uztarriarentzat, aldizkaria berriua egin zuelako edukiz eta diseinuz, webgunearekin hasi zelako, eta Urola-Kostan egunkari bat sortzeko lehen bilerak egiten hasi zelako ‘Egunkaria’-rekin eta eskualdeko beste euskara elkarteekin.

Uztarrria Kultur Koordinadora (2002-urtarrila, Uztarrria aldizkariaren 25. zenbakiaren gehigarri berezia)

Uztarrria Kultur Koordinadora 1998. urteko martxoan sortu zen; hain zuzen, herriko eus-
kara eta kultur eragileek sortu zuten. Eratu aurreko hilabeteetan asko eztabaidatu eta hausnartu genuen Azpeitiko egoeraz, partaidetzaz, elkarlanaz, eta orduan finkatu ziren ardatzak: euskara, kultura eta informazioa-komunikazioa. Gehigarri honetan komunikazioa eta kultura daude jorrotuta, horiei buruzko proiektuak daude azalduta; Uztarriak euskararen gaia Baite Azpeitiko Euskara Elkartearen kontu utzia du –bertako kide aktiboa da–.

► **Komunikazio proiektua.** Informazioa-komunikazioari dagokionez, lehen urtean hilero Uztarrria agenda argitaratu ondoren, 1999ko azaroan Uztarrria herri aldizkaria sortu zuen koordinadorak, hilabetekaria. Harrezkero aldizkaria zabalduz, sendotuz eta indartuz joan da; batetik, herritarrek bikain hartu dute, dagoeneko 500 bazkide pasa dituelako –oso kopuru handia da– eta 1.100 harpidedun; bestetik, publizitatea goraka doa etengabe. Azpeitiko Udalarekin hitzarmena sinatu zuen 2000an –bi urtekoa–, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak ere lortzen ditu. Ez da seinale txarra hori guztia.

▶ Egitasmo osoago bat. Informazioa-komunikazioa arloa, baina, ez da herri aldizkarian soilik gelditzen, arlo horrek adar asko dituelako. Hori kontuan hartuta, Uztarriak komunikazio proiektu osoagoa landu du, eta hiru esparruri heldu: herri aldizkariari berari, webguneari eta liburu biografikoei. Arlo honetan badaude beste esparru batzuk (eguneroko informazioa, herri telebista, irratia...), baina Uztarriak berak lehen aipatutako alor haiek landu ditu eta haiek jorratuko; horrek ez du esan nahi beste proiekturik ez duenik aurrera begira, ezta herrian sor daitezkeen edo hel daitezkeen proiektuei lagunduko ez dienik ere.

▶ Hiru adarrak. Uztarriak orain aldizkaria, webgunea eta biografiak ditu eskuartean, eta gehigarri honetan daude horiek bultzatzeko arrazoiak eta bakoitzaren ezaugarriak.

▶ **Aldizkaria. Helburu zehatzak.**

▶ Diseinua. Ikusgarriagoa izango da, erakargarriagoa, apainduagoa.

▶ Edukia. Oso kontuan hartu behar da hilabetekaria dela Uztarria. Komunikabide orok aktualitatean oinarritutakoa izan behar du, baina bakoitzak izan behar ditu bere ezaugarriak. Uztarriak, nahitaez, gaien hautaketan selektiboa izan behar du –albiste txikiek ere euren lekua izango duten arren–. Horretarako, informazio propioa gehiago sartuko dugu eta gaiak hobeto landu, betiere, jakina, aniztasuna bilatuz eta modu errazean idatziz.

▶ Iritzia eta atal historikoa. Indartu egingo dira iritziaren atala eta atal historikoarena. Herritarrek euren iritzia ematea nahi dugu, konplexurik gabe, edonorentzat aberasgarria delako. Historiaren arloa indartzea ere aberasgarri da, ondare.

▶ Zerbitzuak. Askotarikoak eta asko izango dira. Komunikabide batek zerbitzu funtzioa ere bete egin behar du. Uztarria herri aldizkariak orain arte eskaini izan du zerbitzurik (agenda, telefono zenbakiak, autobusen ordutegiak, farmaziak gauzez irekita, erakunde eta toki publikoak...), baina aurrera begira badu zer hobetu, eta saiatuko da hobetzen. Horrekin guztiarekin Azpeitian dagoen hutsune bat beteko du –zerbitzuarena–, eta erreferentzialtasunean irabaziko du herri aldizkariak.

▶ **Weba.** www.uztarria.com; horixe da Uztarriaren web orrialde berriko helbidea. Urtarrilaren hasieratik bertatik martxan dagoena. Helburu nagusia, Azpeitiko herritarren komunikaziorako tresna dinamikoa sortzea da. Izan ere, teknologia berriek baliabide eta aukera ugari eskaintzen dute, goitik beherako informazioaz haratago, komunikazio forma horizontalagoak sortzeko; eta hor, herritarra informazioaren hartzaile izateaz gain, informazio igorle eta iritzi sortzaile ere izan daiteke, orain arte eta ohiko komunikabideetan baino modu errazagoan. Helburu zehatzak:

▶ Informazioa leku bakarrean. Azpeitiko informazio interesgarriena, egunekoa eta eguneratua leku bakarrean biltzea, erraz aurkitzeko moduan.

▶ Aukera gizarte eragileei. Herriko kultur taldeei, erakunde ofizialei, enpresei, ikastetxei... albisteak plazaratzeko modu erraz, azkar eta efektiboa eskaintzea.

▶ Herritarren parte-hartzea. Herritar guztiei informazioaren alorrean parte-hartze zuzena izateko aukera eskaintzea, bai informazioa sortu eta lantzerakoan, baita iritzia plazaratzeko orduan ere.

- ▶ Herria Interneten. Azpeitiak, herri bezala, teknologia berrietan eta, zehazki, Interneten duen presentzia indartzea.
 - ▶ Taldeak Interneten. Azpeitiarrak eta, bereziki, herriko kultur eta irabazi asmorik gabeko gainerako eragileek Interneten duten presentzia indartzea.
 - ▶ Euskara Interneten. Teknologia berrietan euskararen presentzia indartzea.
 - ▶ Lokalismoa gaur egun. Globalizazioaren aroan herriko informazioa zabaltzeko Internet baliagarria dela erakustea.
- Webgunearen ezaugarriak:
- ▶ Dinamikotasuna. Egunean eguneko informazioa gehituko da webgunera, eta sarrerako orritik bertatik azkeneko berriei emango zaie lehentasuna.
 - ▶ Horizontala. Erabiltzaileak, ahal duen neurrian, orrien osaketan bertan ere parte har dezake, egoki irizten badio.
 - ▶ Erabiltzeko erraza. Webgunearen diseinuan, erabiltzailearen erosotasuna eta erabilgarritasuna bilatu dira, batik bat.
 - ▶ Eguneroko jarraipena. Uztarriak egunero egingo dio webguneari jarraipena, asteburuetan, jai egunetan edo bestelako jaietan eta oporretan izan ezik. ◀

Komunikabideen arloa, estrategikoa

Nahiz eta Uztarriaren komunikazio proiektua hazten eta sendotzen zihoan, elkarteak 2002. urte bukaeran Azpeitiko Udalarekin hitzarmen berria sinatu gabe segitzen zuen, Uztarriak behin eta berriro aurkeztu arren proposamena. Bi aldeek iritziak idatzi zituzten horri buruz.

Uztarrria Kultur Koordinadora (2002-abendua, Uztarrria aldizkariaren 35. zenbakia)

Asko luzatu da Uztarriaren udal diru laguntzen kontua, Udalak berak urrian eman zuelako erantzuna, baina azkeneko asteetan bi parteok hitz egiten aritu gara eta akordioa lortu dugu [ahoz, sinatu, 2004an sinatu delako]. Berri ona da hori, beraz, herriarentzat, Uztarrria Kultur Koordinadoraren komunikazio proiektua (herri aldizkaria, uztarrria.com eta biografiak) azpeitiarrentzako tresna informatiboak direlako azken batean. Dena den, Uztarriak, udal diru laguntzen zenbatekoari baino gehiago, oinarrizko irizpideei begiratzen die, eta gure ustez, Udalak ez du behar bezala jokatu aurrean, horrelako proiektu bat ezin delako zalantzan jarri hasieran eta gero kolokan.

Izan ere, oso kontuan hartu behar da herriko euskara eta kultur taldeek sortutako proiektua dela Uztarrria Kultur Koordinadora (1998an sortu zen), hiru ardatzetan finkatua: euskara, kultura eta informazioa-komunikazioa. Betiere lehen zegoen egoera hobetzeko sortu zen, ez inoren kontra. Eta hobetu da Azpeitiko egoera azkeneko lau urte hauetan; ez, jakina, Uztarriaren lanagatik bakarrik. Uztarriari dagokionez, informazioaren alorrean, esaterako, herri aldizkaria sortu dugu, uztarrria.com, liburu biografikoak... Beraz, uste dugu Udalak

errekonoizitu eta baloratu egin behar duela hori. Baina, azken batean, ez Uztarriaren lana bakarrik, baizik eta herrigintzan diharduten herriko taldeek egiten duten lana ere bai, eta babestu. Zoritxarrez, ez dira guztiak behar bezala errekonozitzen, eta horren adibide da hainbat talderen egoera larria.

► **Informazioaren gizartean.** Euskara eta kultura herri honen zutabe nagusi badira, euskarazko komunikabideen arloa estrategikoa da. Batetik, euskararen hedapena eta normalizazioa laguntzen duelako; eta, bestetik, herriko informazioan herritarren erreferentzia informatiboak euskarazko hedabideak izateak esan nahi duen guztiagatik, noiz eta gaur egun, informazioaren gizartean komunikabideek duten garrantziarekin eta eraginarekin.

Uztarrria euskarazko komunikabideak eta tresna informatiboak sortzen ari da Azpeitian: lehen esan bezala, Uztarrria herri aldizkaria, uztarrria.com eta herritarrei buruzko liburuxka biografikoak. Herriak onartu eta babestu egin ditu tresna informatibo horiek (Uztarriak, esaterako, oraintxe bertan 608 bazkide ditu). Euskarari egindako ekarpenaz gain eta herritarren erreferentzia informatibo garrantzitsua euskarazko hedabideak izateaz gain, herritarrei zerbitzua ematen zaie komunikabide horien bidez. Eta zerbitzu hori ere errekonozitu egin behar da. Hiru errekonozimendu mota, beraz: euskararen normalizazioaren aldeko lana, erreferentzia euskarazko hedabideak izatea, eta herritarrei egindako zerbitzu lana. Herriak komunikazio proiektu bat eduki behar du, euskarazkoa eta herritarra, eta Uztarrria ari da lan-tzen eta garatzen proiektu hori, oinarri sendo batekin. Eta oraingo tresnez gain, beste proiektu batzuk ere baditugu biharko egunerako. Hala, kontuan hartzen ari gara herriko informazioa euskaraz ez dela egunero jorratzen (uztarrria.com-en, salbu), eta hor pauso handiak emateko borondatea eta asmoa du Uztarriak. Horretaz gain, literatura arloa ere landuko dugu datorren urtetik aurrera, eta beste asmo batzuk ere baditugu.

► **Hitzarmena.** Oso garbi baitugu: arlo hau, euskarazko komunikabideena, estrategikoa da Azpeitian eta, oro har, Euskal Herrian. Horregatik, berak izaera herritarra izateaz gain, proiektu honek erakunde publikoekin hitzarmen sendoa eta iraunkorra izatea eskatzen du. Ezin dugu urtero aurten bezala ibili, euroak gora-behera. Kontua ez da ekonomikoa (soilik), irizpide eta jokabide garbi batzuk daude honen oinarrian. Eta apustua estrategikoa da, azken batean. Uztarriren komunikazio proiektuak azpeitiarren babesa eta konfiantza badue-la uste dugu, eta orain hitzarmen iraunkorra eta sendoa nahi dugu Udalarekin. ◀

Uztarriaren diru laguntzak direla eta

Azpeitiko Udala (2002-abendua, Uztarrria aldizkariaren 35. zenbakia)

Azpeitiko Udala eta Uztarrria Kultur Koordinadoraren komunikazio proiektua. 2002ko diru laguntzak.

- ▶ Azpeitiko Udalak 2002an oso berandu eman dio erantzuna Uztariari. 2003an gertatuko ez den konpromisoa azaltzen du.
- ▶ Uztariaren komunikazio proiektuaren aurrekontua 2001etik 2002ra bikoiztu egin da.
- ▶ Uztarriak hasieratik izan du Udalaren eta erakunde publikoen (Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza) babesa.
- ▶ Udalak diru dezente eman dio Uztariari hasieratik eta kopuru hori goraka doa. 2002an Uztariaren komunikazio proiektuaren %28 subentzionatuko du.
- ▶ Azpeitiko Udalak betetzen du martxan jarri duen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak dioena: "Azpeitian euskararen zabalkundea arlo guztietan erabatekoa izan dadin behar adina baliabide eta tresna sortu eta garatuko ditu".
- ▶ Azpeitiko Udalak ez du ito Uztarria (dirua, lokala...) eta euskara.
- ▶ Azpeitiko Udalak errespetatzen du Uztarria.
- ▶ Azpeitiko Udalak errekonozitzen du Uztariaren lana euskararen normalizazioan.
- ▶ Uztarriak euskara eta euskal kultura bultzatzea eta herriko informazioa zabaltzea ditu helburu. Azpeitiko Udalaren iritziz, Uztarria autonomia den unetik eta herrikoa nahi badu izan, zabaltasuna eta inpartzialtasuna bermatu behar ditu. ◀

Jauntxoaren boterea mugatu beharra

Azpeitian %87 euskaldunak gara baina ia guztiok erdarazko prentsa erosten eta irakurtzen dugu. posible al da? Uztarriak aldizkarian gogoeta saila zabaldu zuen horren inguruan.

Patxi Azpillaga (EHUko irakaslea; 2002-urtarrila, Uztarria aldizkariaren 25. zenbakia)

Gaur egun ezagutzen ari garen informazioaren operatasunak eta komunikabideen ugartzeak ez dituzte beraiekin herritar informatuagoak eta gizarte demokratikoagoak ekarri. Geroago eta zabalagoak dira komunikazioaren inguruan antolatzen ditugun gure bizitzaren atalak: politika, ekonomia, elkarrekiko harremanak, aisialdia... Baina, aldi berean, hiperkomunikazioaren garai hauean, inoiz ez bezalako uztartzea gertatzen ari da botere ekonomiko eta informatiboaren artean, antolamendu politiko demokratikoa bera ere kolokan jarritz.

Informazioa eta komunikazioa negozio dira aspalditik, merkatuaren eta errentagarritasunaren esanetara antolatuak. Baina azkenaldi honetan kontzentrazio prozesu ikaragarriak ari dira gertatzen, enpresa gutxi batzuen eskuetan uzten dituztenak kultura, informazioa eta komunikazioa produzitu, antolatu, argitaratu eta herritarrengana helarazteko ahalmena.

Ikusi, bestela, zer gertatzen den Espainian, non hiru multimedia talde eratu diren urte gutxitan, hango –baina baita hemengo– benetako komunikazioaren jauntxo bilakatu dire-

nak: Correo, Telefonía-Admira eta Prisa. Azken mugimendua, hain zuzen ere, Bilboko Correo komunikazio taldeak, besteak beste Azpeitian gehien irakurtzen den egunkariaren –*El Diario Vasco*– jabe denak, eman du duela pare bat hilabete, Madrilgo ABC egunkaria argitaratzen duen Prensa Española taldea erostean. Dagoeneko, ezer gutxi geratzen da Espainiako komunikazioaren munduan enpresa horien kontroletik kanpo, berdin estatu mailan zein eremu lokalean.

Zuzenean edo zeharka hiru talde horiek Espainian egunero zabaltzen diren egunkari-ale guztien erditik gora kontrolatzen dituzte. %20tik gora Correo Taldeak, menpe dituen 18-23 egunkariak medio. %20tik gertu Telefónicak (nahiz eta zeharka, Recoletos-Pearsonen bitartez; eta azken zurrumurruek Correoren eskuetan jartzen dituzte egunkari horiek: *El Mundo*, *Marca*, *Expansión*; pentsa orduan noraino helduko litzakeen Correoren indarra). Eta, hirugarrenik, %15 inguru Prisak (behinik behin, *El País* eta AS-ekin). Haienak dira telebista pribatuak (Tele 5, Antena 3 eta Canal Plus, hurrenez hurren) eta sateliteko plataformak ere (Via Digital Telefónicak eta Canal Satélite Digital Prisak). Eta haiena da, era berean, irratia: gutxieneko parte-hartzea du Correok COPEn (%8), Telefónica Onda Ceroren jabe da, eta Prisa SER-Unión Radiorena; guztira, irratia entzuleriaren erditik gora. Gainera, albiste-agentziak (Correok Colpisa), asteburuetak gehigarriak (*Suplemento Semanal Correok*, *EPS* eta *La mirada El País*-ek), Interneteko zerbitzariak, argitaletxeak, ikus-entzunezko produktio etxeak eta abar luzea menderatzen dituzte.

Egitura horrek isla zuzena du, nola ez, Hego Euskal Herrian ere, are maila larriagoan oraindik. Prentsan Correo Taldeak EAEn banatzen diren egunkari-aleen %65-70 bitartean menderatzen baititu eta *Diario de Navarra*-k Nafarroako merkatuaren %70etik gora hartzen baitu. Eta irratan eta telebistan EITBren presentziak kontzentrazio mailak leundu egiten baditu ere, nabarmena da, halaber, talde haien eragina eta boterea SER eta COPE kateen bitartez. Begiratu, gainera, lau hiriburuetak telebista lokalekin gertatzen ari dena. Prisa Iruñean eta Donostian kokatu da zuzenean Pretesa-Localiaren bitartez (eta Bilbon eta Gasteizen ere bai, zeharka, Euskaltekin duen hitzarmena medio); Correo, berriz, Donostian eta Bilbon dago Teledonosti eta Bilbovisiónekin, eta arlo horretarako eratu duen filialarekin –Atlas– laster hedatu egingo ditu eraginak.

► **Zer egin?** Honako komunikabideen jabetza egiturak ez dio onik egiten gure herriko bizitza demokratikoari, are gutxiago lagundu dauzkagun arazoei taxuzko irtenbideak bilatzeari. Gogoratu, bestela, iazko maiatzeko hauteskundeetan gertatu zena. Alde honetatik, ez da oso ondo ulertzen EAJren estrategia, Prisan bilatuz, itxuraz, Correori aurre egiten lagunduko dion bazkidea. Ez da berriro ezer entzun Gipuzkoan zabaldu asmo zuten egunkari proiektuaz, baina indarrean daude oraindik EITB, Euskaltel eta Sogecableren (Prisaren ikus-entzunezko atala) arteko hitzarmenak. Arazoa ez baita komunikazioaren jauntxo bat edo bestearen artean aukera egitea, baizik eta jauntxo horien boterea mugatzeko arauak ezartzea eta betearaztea, zerbitzu publikoaren irizpideak sakondu eta garatzea, komunikazio eremu berriak zabaldu eta babestea multimedia taldeen eraginetik. Euskal Herriak, bakeak, demokraziak eta euskarak berak ere eskertuko lukete. ◀

Ez da normala azpeitiarrona

Iban Arregi (kazetaria; 2002-urtarrila, Uztarría aldizkariaren 25. zenbakia)

E*l Diario Vasco* 1.367 ale, *Gara* 197, *Egunkaria* 117, *Deia* 57. Azpeitiko igande bateko prentsa kontsumoaren datuak dira. Ikus daitekeenez, prentsa espainolista erosten da gehien, *El Diario Vasco* –lagun baten arabera, “Gipuzkoako ABC”–. Ez da normala. Zeozer ez da ondo egin.

Azpeitian boto abertzalea nagusi da. 1999ko udal hauteskundeetan %91k EAJri, EHri eta EARI eman zieten botoa. Baina Azpeitian, prentsa espainolista nagusi.

Baten batek galde dezake: “Eta zer zerikusi dauka batak bestearekin?”. Edota: “Datuok erakusten dute prentsak eragin politiko txikia daukala”. Bada horrela pentsatzen duenik. Nik kontrakoa uste dut: alegia, botoak eta etxean sartzan dugun egunkariak, ideologia aldetik, nahikoa antzekoak izan beharko luketela; eta bai, prentsak eragin politikoa badauka, handia gainera. Akaso botoa emateko orduan ez hainbeste, baina eragin politiko handia du.

Bestelakorik esatea gezurra esatea litzateke. Azpeitian aldearekin gehien saltzen den egunkariak badituelako helburu politikoak –helburu komertzialez gain–. Eta jendearengan erreferentzia politikoak, kulturalak eta lurraldeari dagozkionak sortzen dituelako, betiere helburu politiko horien arabera. Bestela, esan: azpeitiarrak zergatik esaten diogu “euska-frantsesa” baionar bati? Zergatik esaten diogu “Euskal Herria” Euskal Autonomia Erkidegoari? Ezagutzen al ditugu Koldo Izagirreraren edota Jose Luis Otamendiren liburuak eta jarduerak? Futboleak, zein da azpeitiarrontzako “*la selección*”? Euskal kultura, bertsolaritza, trikitixa, Atxaga eta antzerki topaketak baino zerbait gehiago dela ba al dakigu? Eusko Ikaskuntza zer den ba al dakigu? Eta Lizarra-Garaziren porrotean komunikabide espainolistek –‘Gipuzkoako ABC’-k ere bai– egundoko eragina izan zutela?

Eta ez, hori ez da prentsaren ondorioa bakarrik, jakina. Baina prentsaren ondorioa ere bada.

► **Saboteatzaile fina.** Komunitate abertzalea nagusi zen Lizarra-Garazi garaian Azpeitian ere; prozesu demokratiko horren alde geunden azpeitiar gehienok. Baina Lizarra-Garaziren saboteatzaile finenetako bat, orduan ere, fin-fin etxera eramaten genuen. Eta horretan dihardugu.

Komunitate abertzalea nagusi da orain ere Azpeitian. Teorian, zazpi herrialdeok gutxienez kultur komunitate (herri) bat osatzen dugula onartzen dugu ia denok. Euskara, hitzez, denok defenditzen dugu. Baina komunitate horren saboteatzaile finenetakoa, euskarari balio ofizialik errekonozitzen ez diona, gaur ere fin-fin etxera eramaten segitzen dugu.

Eta ez, hori ez da Azpeitiko egoera bakarrik, jakina. Baina Azpeitiko egoera ere bada.

Eta ez da normala. Eskelak? Azpeitiko karta? Reala? Hori bakarrik balitz... Bukatzeko, ohar bat: ez dut esan nahi egunkari bakarra irakurri behar dugunik, besteenak ezagutu behar ez ditugunik; baina egunero ordaintzen ditugun 0,75 euro horiekin zer munstro elikatzen ari garen ba al dakigu? ◀

Erosotasunaren eta ohituraren indarra

Laxaro Azkune (kazetaria; 2002-otsaila, Uztarrria aldizkariaren 26. zenbakia)

Herri euskalduna da Azpeitia, ez da esan beharrik, baina badu Euskal Herri guztiak duen Harazo bera Azpeitian bizi denak ere euskara komunikabideetan aukeratzekoan. Hasteko, idatzian aukera zabala eta egokia du, urte askotako eskarmentu eta diru eta marketing mailan alde handiarekin hemengo eta euskarazko komunikabideekiko. Zer esanik ez ikus-entzunezkoetara sartzen bagara. Telebista kate sorta bikaina dugu eta hori, gainera, antena parabolika eta horrelakoetara sartu gabe. Euskarazko komunikabideak muga asko ditu besteen lehian. Diru gutxi dugu eta, beraz, bitartekoak ere gutxiago, jende gutxiarentzat egiten da eta kostuak handiak dira. Irratien munduan sarturik ere antzera gabiltza, dila aukeraz beteta dago, batzuk diru publikoz bizi direnak batez ere, eta beste batzuk publizitateak, baina Euskal Herritik ari direnak oso gutxi dira baso horretan. Publizitatea bera ere, beste atalak bezalatsu, landu beharra dago. Bere produktua saldu nahi duenak interesa ikusi behar du euskaraz eginez bere salmentek gora egingo dutela.

Hori horrela izanik ere, urte askotako ohiturak, ezarketak, aurkako propagandak eta zapalaketak ditugu denak elkarrri eraginez. Azken gerra ondoko belaunaldian hainbesteko lanik ez da beharbada euskara gaitu eta trebatzeko egin izango. Aurrerapausoak eman dira eskolan, testu liburuetan, komunikabideetan, literaturan. Saiatu izan dira, edo gara, inoiz indarrez euskara inposatu nahirik, hori zelakoan bidea. Indarrak aurkako joerak indartzen ditu eta emaitza gutxi du, eta gutxiago, gainera, indar gutxi duenaren eskuetan. Frankismoak izan zuen indar guztiak ez baldin bazuen euskara desagertzerik lortu, pentsa lau buru berok zer lortuko duten alderantziz izanda ere. Ondo ari gabela sinetsi eta betiko eran bizitzen jarraitzeak ere ez garamatza bide onera. Pixkanaka itotzen, lur eremuak galtzen, geuregan sinesmena urritzen... Izan ere, onez aurrera egiteko ere ez ditugu indar guztiak geure alde.

Aurka daudenak asko dira eta indartsuak. Oraindik ez da agortu euskararen aurkakoen erasorako grina. Orain, gainera, badirudi eurek eta euren aldekoek hainbat urtean egin izan dutena euskaldungoari leporatzeko lotsa ere galdu dutela. Agintean jarri omen diren euskaldunek euskararen faboretan zertxobait egin duten orduko hor dira diskriminazio oihuak. Legeak ere ez daude hartzen diren erabakien alde, legeak beste nonbait erabakitzen dituzte eta. Dirua ere ez da, agian, beti zuzen erabili baina erabiltzen dena ere alferrikako gas-tua dela eta diskriminazio kontua sarri dago komunikabideetan, eta ez bereziki euskararen alde nabarmentzen direnetan.

Badira komunikabide indartsuak euskararen aurkako estrategia antolatua dutenak. Euskararen aurka agertzen ez diren komunikabideak, alde daudelako agian, badira euskarari toki txikiarik ematen ez diotenak. Herri honetan bizi diren euskaldunen interesak aintzat hartu gabe. Baina egia ote da interesak aintzat ez dituztela hartzen? Hori ez baita inorentzat oztopo, denok dakigu gaztelania eta, beraz, hor ez dugu arazorik. Audientzietan ez du inolako zigorrik. Gizarteak ez dio komunikabideari inolako presiorik eta derrigorrik eragiten,

ez du berak inolako eragozpenik hizkuntza erabilera horregatik, eta, beraz, lasai arraio jarrai dezake. Euskara erabiltzen duenak berak ere ez du argi gehiagora jo behar duen. Agian, entzuleak edo irakurleak ez ditu horregatik irabaziko. Dituen langileak, agian, gaituago ditu gainera, gaztelaniaz aritzeko eta euskaraz aritzean motelago ari dira, gutxiago ari direlako ere bai beharbada, euren lana ez dute horren ongi egiten euskaraz ari direnean. Eta komunikabide bat ari ote daiteke bere enpresaren kaltetan?

► **Euskararen desegituraketa.** Argi behar lukete, baina, euskara ez erabiltzeak esan beharrik ez eta herritarren proportzioz azpitik aritzean ez duela euskara indartzen. Bere lanak euskara desegituratzen laguntzen du. Baina euskararen desegituraketan partaide dira, erdal komunikabideak kontsumitu eta horiei euskara maila gora dezaten ezer egiten ez dutenak ere, entzule, ikusle, irakurle. Berdin esan daiteke liburu, disko edo elektronikako produktuekin ere, eta gure eguneroko ohitura askorekin.

Dei berezia egin nahi nioke heziketa euskaraz hartzeko zortea izan duen gazte jendea-ri. Haiek nahiko normaltasunez hartu dutena normaltasunetik oso urruti baitago oraindik eta aurreko belaunaldiek eragindako katea-mailak ondorengo belaunaldien eragina eskatzen duela. Ez diezaiotela bizkar eman.

Badu ba bakoitzak zertan ahalegindu eta denon zeregina da hori, bakoitzak du bere lekua eta denen ahaleginak batuz eragingo diogu gurdiari. Gurdi zuloa sakona eta lohitsu da eta hankak lokatzatan sartu beharra dago aterako bada. Albotik begira edo onenean animoak emanez ezer gutxi eragingo zaio. Hasteko, behintzat, dakigun neurrian euskara erabili gure eguneko zereginetan. Euskarazko produktuak kontsumitu, onak dira eta. Ezagutzen ez dena ez baita estimatzen. ◀

Ohitura ala masokismoa?

Xabier Aranbarri (ingeniarria; 2002-otsaila, Uztarría aldizkariaren 26. zenbakia)

Azpeitian, espezializatua ez den edota prentsa orokorraren %75 inguru *El Diario Vasco* egunkaria erosten da. Datua benetan ikaragarria eta ulergaitza da. Betidanik pentsatu izan dut prentsa dela demokrazia fiktizio edo estalitako diktadura berri honetako kapitain general moduko bat. Bere boterea ia mugaezina da. Gaur egun munduan dagoen arma motarik bortitzenetakoa da (begira, bestela, munduko azken gerratan eduki duen indarra), erabateko manipulazioaren bidez pertsonak pentsaeraz aldatu eta itsutzeko ahalmena duela, eta, gainera, norbera ohartu gabe.

Baina eguneroko prentsari dagokionez, badugu bere indarra neurtzeko aukera bat. Oraindik kioskora joan eta nahi dugun egunkaria erosteko aukera dugu. Francoren garaian bi edo hiru egunkari zeuden Azpeitian (*La Voz de España, Unidad...*), guztiak ideologikoki antzekoak. Orain, berriz aukera zabalagoa eduki arren –prentsa abertzale euskalduna bar-

ne– gure herrian lehenean jarraitzen da; hau da, Francoren garaiko egunkarien ondorengo da nagusi. Zergatik?

Nire inguruan askotan solasgai izan dugu prentsa eta bere eragin politiko eta soziala, baita Azpeitian eguneroko prentsarekin gertatzen dena ere. *DV* irakurtzen dutenek bota dizkidaten arrazoiak –kirola, eskelak, herriko karta, lan eta bestelako eskaintzak...– txikieria iruditzen zaizkit egoera honek izan ditzakeen ondorioekin alderatuz. Kirol munduko egunkari ugari dago, eskelak, lan eskaintzak eta abar egunkari batean edo bestean azaltzea gure esku dago, ordainduak izaten baitira, eta herriko kartak beste egunkarietan ere badaude eta ugaltzen joango lirateke eskaera handia izanez gero.

► **Zer ohitura?** Bada, ordea, eztabaida guztietan entzun ahal izan dudan beste arrazoi edo aitzakia bat: ohitura. Zer ohitura? Gazteleraz irakurtzeko ohitura? Euskaldunon eta euskararen aurkako iritzi eta berriak irakurtzeko ohitura? Berri guztiak ikuspegi espainiar batetik jakiteko ohitura? Gure hizkuntza eta kultur ekintzen berri ez jakiteko ohitura?...

Ez dut uste Azpeitia, eta azpeitiar gehienok, politikoki, sozialki eta kulturalki egunkari horren ideiekin bat egiten dugunik, eta, beraz, masokismo era honi aurre egiteko garaia dela deritzot. Bestela, globalizazio eta monopolizazio garai hauetan, egunkari abertzale euskaldunak desagertzeko zorian egongo lirateke, eta guk geuk burutuko guke Espainiako sasiepaile bat urteetan saiatzen ari den helburua. ◀

Euskaldun garenon egunkaria

Patxi Saez (Udaleko Hizkuntza Normalizazio teknikaria; 2002-martxoa, Uztarría aldizkariaren 27. zenbakia)

Euskaldunen artean, egunero irakurtzen duten egunkaria dela eta, galdezka hasiko bagina, gazteek batez ere, gurasoek erositakoa irakurtzen dutela erantzungo lukete. Izan ere, egunkaria erostearena eta irakurtzearena ez da gizabanakoari edo norbanakoari lotutako gora-behera, baizik eta, taldeari edo, zehatzago esanda, familiari dagokion aztergaia da.

Jaiotzen garenetik gizarte-sareak edo gizataldeak sortzen eta osatzen ari gara etengabe. Bizitzako lehen urteetan gizarte-sare askotako partaide izaten gara eta adinean aurrera egin ahala, geure sare propioak sortzen ditugu. Sare horietan izango dugun kokagunea (gure ekintzekin beste kideen jokamoldeetan eragiteko ahalmena) ezberdina izango da. Hala, geure bizitzan sortzen eta osatzen dugun gizarte-sarek iraunkorrena familiarena izan ohi da. Jaioberritan familia osatu egiten dugu eta, gerora, geuk sortzen dugu geure familia propioa. Familia da gizabanakoak izan ohi duen lehen taldea, lehen harreman-sarea eta, hain zuzen ere, gizabanakoaren lehen sozializazioa familian gertatzen da.

Gizabanakoaren jokamolde soziala ez dago bere gizarte-saretik, gizataldetik, isolatuta.

Gizarte-sareak edota gizataldeak bere baitako kideei, era batera edo bestera jokatzeko, aukerak emango dizkie batetik, eta mugak ezarriko dizkie bestetik. Beste era batera esanda, gizarte-sareak edota gizataldeak jokabide jakin batzuk baietsi eta bultzatuko ditu eta beste batzuk ezetsi eta galaraziko. Ohiko familiaren harreman-sarean gurasoek, euren kokagunea dela eta, gainerako kideen (seme-alaben) jokoeretan eragiteko duten ahalmena erabatekoa da. Hizkuntzari dagokionez, gurasoek erabakiko dute zein izango den familiako hizkuntza eta, era berean, seme-alaben ama hizkuntza. Ildo beretik, gurasoek erabakiko dute seme-alabak zein hizkuntzatan eskolaratuko diren (betiere, giza-inguruneak edo gizarteak aukera hori ematen badie). Eta, besteak beste, gurasoen baitan dago zein egunkari irakurriko duten etxean. Kontuak horrela, etxe batean gaztelerazko egunkaria bakarrik erosten bada, etxe horretako kide guztiei ez zaie aukerarik emango euskaraz irakurtzeko, edo beste era batera esanda, eguneroko berriak euskaraz irakurtzeko mugak eta trabak jarriko zaizkie, nahita edo nahi gabe.

► **Aukeraketan eragileak.** Ikus dezagun orain egunkariaren aukeraketan zein eragilek esku hartzen duten:

► Gurasoak euren familia propioa osatu aurretik beste familia banatako partaide ere izan dira eta badira. Familia horietan ere egunkari jakin bat erosteko eta irakurtzeko ohitura baldin badago, ohitura horrek eraginda, familia propioa osatzerakoan, egunkari bera erosten jarraitzeko joera dago (jabetuta edo jabetu gabe). Kasu horretan ere, gizarte-sareak (txikitako familiak) gizabanakoen (gurasoen) jokamoldean duen eragina nabarmen gelditzen da. Giza jokabidean ohiturak indar handia du. Hizkuntza kontuetan, esate baterako, familia osatu aurretik bikotekideek gazteleraz ezagutu badute elkar, familia osatu ondoren, (familia hizkuntza euskara izango dela finkatu arren, eta seme-alabekin euskaraz soilik egin arren) bikotekideen artean, askotan, gazteleraz egiteko joera nagusitzen da ohiturak eraginda.

► Familia osatzen duten kide guztiek euskaraz irakurtzeko gaitasuna izatea eragile garrantzitsua da. Norbaitek euskaraz ez badaki edota, euskal hitzuna izan arren, euskaraz irakurtzeko ezintasuna baldin badu, besteak beste alfabetatu gabe dagoelako, nekez egingo da euskarazko egunkariaren hautua.

► Euskaraz irakurtzeko erraztasunak ere badu eraginik euskarazko edo gaztelerazko egunkaria hautatzeko garaian. Ez dugu ahaztu behar erraztasuna gaitasunaren ondorengo maila dela. Gaur egun euskaldunez osatutako familietan seme-alabek gutxi-asko euskaraz irakurtzeko erraztasuna izan arren, guraso gehienek dezenteko ahalegina eginez irakurtzen dute euskaraz.

► Asetasun maila ere eragile garrantzitsua da. Kontsumo-gizartearen legea da: orain duzuna baino hobea aurkitzen baduzu, eros ezazu. Beraz, euskarazko egunkariak gaztelerazkoari tokia hartu nahi badio, irakurleari gehien interesatzen zaizkion informazio-arloetan sakondu behar du eta gaztelerazko egunkariak ematen diona baino gehiago eman behar dio.

► Euskararen aldeko interesa eta jarrera, edo bestela esanda, euskaltzaletasun maila,

kontuan hartzeko eragilea da euskarazko egunkariaren hautua egiten dutenen artean. Dena dela, ez da eragile erabakigarria izaten, eragile bat gehiago besterik ez da. Hala ere, eragile hori indartsua denean, euskarazko egunkaria eros dadila ahalbidetu dezake baina gaztelera egunkaria ordezkatu gabe; alegia, biak erosi ohi dira, eta irakurri, berriz, era ezberdinean irakurtzen dira.

► **Hiru ildo estrategiko.** Kontuak horrela, euskarazko prentsak normalizatorako bidean, hiru ildo estrategikoetan jardun beharko du: erabilera, transmisioan eta kalitatean.

► Erabilera. Lehenik eta behin, batez ere, gazteengana bideratua behar du izan, gazteak erakarri behar ditu eta gazteak asebate behar ditu; hala, guraso euskaldunek, euskararen aldeko jarrerak eraginda, beraiek irakurri ez arren, seme-alabentzat erosiko dute.

► Transmisioa. Gazteak euskarazko prentsa irakurtzen ohituz gero, gerora, beraien familia osatzen dutenean, euskarazko prentsa irakurtzeko ohiturari eutsiko diote eta, hala, euskarazko prentsaren transmisio katea sortuko da.

► Kalitatea. Euskarazko prentsak jorratutako edukiek gaztelera egunkariarenak baino asetasun maila handiagoa lortu behar dute informazioari dagokionez (herri informazioa, eskelak, jaiotzak, urtebetetzeak...); hala, motibazio instrumental horrek eraginda, poliki-poliki, informazio-atal jakin batzuk irakurtzeko ohiturak sortuko ditu (gurasoen artean ere bai). ◀

Zergatik erosten dut ‘El Diario Vasco’?

Azpeitiarrak (2002-martxo, Uztarría aldizkariaren 27. zenbakia)

E*l Diario Vasco* erosten duten azpeitiarrek atal honetara iritzirik bidali ez dutela eta, Uztarríari egokia iruditu zaio haien bila joatea egunkari hura zergatik erosten duten jakiteko. Lau iritzi jaso ditu Uztarría aldizkariak, eta ez ditugu haien izenak osorik jarri, nahi izan ez dutelako.

Ohituragatik soilik ez (M.E., enpresaria, 53 urte) ► “Esan ohi da ohituragatik erosten dugula azpeitiarrok *El Diario Vasco*, eta hein handi batean hala da, gutako asko eta askoren pentsaeraren kontrako egunkaria izan arren. Orain urte batzuk *Egin* berri zenean, hasi nintzen erosten, baina ez nintzen gustura sentitzen, eta atzera *DV*-ra itzuli beharra izan nuen. Izan ere, Azpeitiko karta, eskelak eta Reala begiratzen ditut batik bat, eta nik uste ondoen *DV*-k ematen dituela atal horiek. Beraz, ez dut ohituragatik soilik erosten”.

Realaz gehiago dakar (M.L., administraria, 55 urte) ► “*El Diario Vasco* ohituragatik erosten dut nik. Behin egunkari bat irakurtzen ohituz gero, besteak ez dituzu gustura irakurtzen. Baina ohituraz gain, Realaren inguruan berri gehien dakarren egunkaria da *DV*, eta

horregatik ere erosten dut. Besteek Athleticen eta euskal taldeen berri ere ekartzen dute, baina denena sartzean Realarentzat leku txikiagoa da, eta nik nahiago Real. Gainera, eskela gehien ere *DV*-n azaltzen dira, eta horiek ere begiratzea gustatzen zait”.

Betidanik erosi dugu (A.A.; etxekoandrea, 46 urte) ▶ “Ohituragatik erosten dut. Nire etxean beti erosi izan da *DV* eta azkenean ohitu egiten zara bere ataletara. Beste egunkari batzuk ere erosi izan ditut; *Gara* edo *Egunkaria*. Euskaraz leitzeko ohitura txikia dut eta niri *Egunkaria*-ko euskara ulertzeko zaila egiten zait. *DV* ondo antolatuturik dago, eta gehien irakurtzen eta gustatzen zaizkidan atalak Azpeitiko karta eta gizartekoak dira”.

Besteak orokorragoak dira (A.A.; ikaslea, 25 urte) ▶ “Nik uste *Gara*, *Egunkaria* eta *Deia* orokorregiak direla, nazionalegiak, eta nik nahiago dut gertuko kontuez jakitea. Beraz, egunkari abertzaleek hobetu egin beharko luketela uste dut”. ◀

Euskarazko prentsa erosteko arrazoiak

Enekoitz Esnaola (kazetaria; 2002-apirila, Uztarría aldizkariaren 28. zenbakia)

Azpeitiarren %87k badaki euskaraz. Azpeitiarren botoei esker, Udala abertzalea da oso osorik. Hala ere, azpeitiarren %80k egunkari Espainia-zale bat erosten du egunero. Horra hor datu batzuk sarrera gisa. Eta honatx zenbait arrazoi hori aldatzeko:

▶ **Koherentzia.** Azpeitian abertzale batek zergatik erosten du egunero-egunero egunkari Espainia-zale bat? Ohiturak eragindako ilogikaren logika? Garbi dagoena da hori ez dela jokabide koherentea. Eta koherentzia eza beti da kezkatzekoa, norberaren pentsamoldearen eta jokabidearen arteko koherentzia hain garrantzitsua denean, hori baita beste guztia-
ren giltza.

▶ **Militantzia.** Euskal Herrian abertzale gisa jokatzekak militantzia eskatzen du, eta helburuak lortu nahi badira, proiektu abertzaleak lehenetsi egin behar dira, proiektuon zenbait produktu oraindik, agian, besteak baino kaskarragoak izan arren. Baina zerbait nahi duenak zerbait utzi behar du. Adibide bat: orain dela 40 bat urte ikastolak sortu zirenean, oso baldintza eskasetan sortu ziren (irakaslerik ez apenas, ikasle gutxi, hezkuntza materiala urri, lokalak duinak ez...), baina, hala ere, abertzaleek ikastolen alde egin zuten –Azpeitian, adibidez–, eta proiektu horrek aurrera egin du. Horregatik dauka indarra euskal eta euskarazko hezkuntzak. Zergatik ez da gauza bera gertatzen egunkari abertzaleekin, egunkari horiek kalitatekoak direnean, gainera? Hezkuntza bezain garrantzitsua da informazioa; hain zuzen, gaur egun informazioaren gizartean bizi garela esaten da. Euskal Herriaren kasuan, helburuak eta proiektuak gauzatzeko militantzia erabakigarria den gizartean ere bizi gara.

► **Finantzazioa.** Komunikabide bat erosten denean, edo komunikabide batean eskela edo iragarki bat sartzen denean, informazioa jasotzeaz edo eskela edota iragarkia zabaltzeaz gain, jendea ohartzen al da zer finantzatzen duen? Azpeitiko datuek ikara sortzen dute. Adibide bat: azpeitiarrok egunero *El Diario Vasco*-ren 1.367 ale erosten ditugu; urtean 500.000 ale. Urtean, beraz, Azpeitiak 78 bat milioi pezeta ematen dizkio *DV*-ri egunkariagatik (470.000 euro); erosle bakoitzak urtean 55.000 pezeta. Eskelak eta publizitatea ere kontuan hartuta, Azpeitia bezalako herri abertzale batek *DV* bezalako komunikabide Espainia-zale bati (*ABC España una, grande y libre*-ren etxe berekoa da: Grupo Correo Prensa Española) urtean 110 bat milioi pezeta ematen dizkio. Ikara! Horixe da abertzaleak bere buruari harrika egitea!

► **Euskal Herriaren ikuspegia.** Euskal Herrian egunkari Espainia-zaleak eta Frantzia-zaleak egunero Euskal Herria espainiartzten edota frantziartzten ari dira, Espainiako edota Frantziako gertaerak, ikurrak, albisteak, erreferentziak, jendea, jendillajea, kultura, *Operación Triunfo*-ak, kirolariak, selekzioak... normal-normal emanez, gure parte balira bezala. Gure kasuan, adibidez, *DV* azpeitiar irakurleko abertzalea espainolizatzeko saioan ari da etengabe, irakurle abertzale horiek ohartu gabe. Horren ondorioz sortzen den adibide bat: ia azpeitiar guztiei Burgos familiarragoa zaie Hazparne baino, Azpeitia Hazparnerekin anaituta egon arren. *DV*-ren azpeitiar irakurle abertzaleak –salbuespenak albuespen–, *DV*-ri esker ez du behar bezala ikusten euskarak zer arazo eta eraso dituen, edo ez du ikusten Euskal Herriaren desegituraketaren larria, edo gizarte eragile abertzaleen informazioa eta proiektuak ez ditu modu zabalean eta taxuzkoan jasotzen, Espainia konstituzionalistaren aldeko mezu zuzenak eta subliminalak jasotzen ditu egunero... Azken batean, *DV*-ren irakurle azpeitiar abertzaleak ez dauka Euskal Herriaren behar bezalako ikuspegia, eta horrek euskal kontzientzia militantea hartzea eragozten dio. Txarrena da irakurle horrek uste duela *DV*-k ez diola eragiten edo ez duela baldintzatzen. Eta, jakina, kontzientzia jakin bat izan ezean, kezkarik ez, elkartasunik ez, ekarpenik ez, mugimendurik ez, laguntzarik ez. Giza-komunitate lokartua da hori. Horrelako gizarte abertzalea nahi dute egunkari ez-abertzaleek; adibidez, horrelako Azpeitia. Egunkari abertzaleek bestelako ikuspegia eskaintzen dute, eta oso garrantzitsua da perspektiba hori edukitzea, lagungarri izan daitekeelako pausoak emateko.

► **Bakea eta justizia.** Egunkari laboralista Erresuma Batuzaleek (zentro-ekzerrekoek) paper garrantzitsua jokatu dute azken urteetan Ipar Irlandako bake prozesuari begira, ez dutelako eduki konponbide politikoaren kontrako jarrerarik, eta prozesuak aurrera egin dezan lagundu dutelako. Ez da gauza bera gertatzen Euskal Herrian; Espainiako eta Frantziako estatuek –batik bat, aurrenak– gerra tresna gisa erabiltzen dituzte euren egunkari guztiak, tartean Euskal Herrian argitaratzen direnak. Euskal Herriak benetako bakea eta justizia izateko bidean ez dute ezer aportatzen egunkari ez-abertzaleek, ez daudelako Euskal Herria bere buruaren jabe izatearen alde. Adibide bat: Ameriketako Estatu Batuetan, Idahoko Legebiltzarrak, aho batez, hauxe eskatu berri du: “Euskal Herrian indarkeria guztiak geldit-

tzea, Euskal Herriak autodeterminazio eskubidea izatea, eta Euskal Herrian bake prozesua abiatzea". Ba, *DV*-k eta enparauek apenas eskaini dioten tarterik horri; egunkari abertzaleek bai, sakon eta zabal; Azpeitian ez da izango Idahoko berri handirik. Bestetik, ezin ahaztu *DV*-eta izan zirela Lizarra-Garaziren saboteatzailerik finenak. Gidaritza informatiboa eta komunikatiboa prentsa abertzaleak izango balu, euskal gizartearen konpromisoa handiagoa izango zen konponbide politikoari begira.

► **Geure esku.** Egunkari ez-abertzaleek ez gaituzte euren egunkariak erostera behartzen, guk geuk erosten ditugu, modu librean, haien aleak. Esandakoa: Azpeitian egunero *DV*-ren 1.397 ale erosten dira; egunkari abertzaleenak 350 inguru. Imajinatzen nolako Azpeitia genukeen kopuruak alderantzizkoak balira? Geuk daukagu hori aldatzeko giltza. Dena den, aldaketa erabakigarri horren bilakaerak –ahal den azkarren– euskarazko egunkari abertzalea(k) erostera eta irakurtzera jo beharko luke. Izan ere, berriro koherentzia aipatu behar: nola da posible irakurle abertzaleak hizkuntza espainola (edo frantsesa) zabaltzen, eta, beraz, legitimatzen eta bultzatzen duen euskal egunkaria finantzatzea? Utopia dena hori guztia? Horratx utopiari buruz idatzi izan dena: "Utopiaren eta progresoaren artean harremana dago, eta zentzuz betetako hitza da. Posible da utopia, bizitzaren motore da, eta errealtatea aldatzeko gogoia dago arrakastaren onarrian". ◀

'El Diario Vasco' dela eta

Jabier Altuna (irakaslea; 2002-apirila, Uztartia aldizkariaren 28. zenbakia)

E*l Diario Vasco*-ren jabeak zein diren eta zer alderdi politikoren inguruan dauden bada-kigu, baina ez dut *El Diario Vasco* anti-euskalduntzat hartzen; anti-abertzalea, baliteke. Euskararen aurka dagoenik ere ez dut uste; alde, izerdi handirik bota ez duela ere egia da eta egin duena (?) beharrak edo interesak bultzatuta.

Hala ere, Azpeitia bezalako herrietan gehien saltzen den egunkaria izateak zenbait gauza esan nahi ditu:

► *El Diario Vasco* egunkariaren "linea editorialari" kasurik ez diogula egiten (beharbada inor gutxik irakurtzen dituelako editorialak) eta, esan den bezala, Reala, Azpeitiko berriak, eskelak, ohitura... arrazoi horiengatik irakurtzen dugula.

► Benetan pentsatuko bagenu anti-euskalduna dela, askok ez lukete erosiko (ez zait iruditzen *ABC*-k daukan "linea editoriala" jarraituko lukeen egunkaririk salduko zenik).

► Ez zaizkit gehiegi gustatzen egunkari hori erostea kritikatzat erabiltzen diren arrazoiak; ea bada, zer esan nahi da? *Deia*, *Gara* edo *Euskaldunon Egunkaria* bakarrik irakurri behar genituzkeela? Eta gero zer: hor ere sailkapen bat egin behar al da zein den euskaldunagoa jakiteko? Eta beharbada, *El Diario Vasco* irakurri ezin badaiteke, TVE, Antena 3, Tele 5 eta beste hainbat irrati ikusi edo entzun ere ez. Ba al da norbait hori egiten duenik? Non dago

neurria? *Estudio Estadio* bai baina *Telediario* ez? Edo *Estudio Estadio* ere ez genuke ikusi behar? Gure herrian argi dago *El Diario Vasco* irakurtzen dela baina EAJ-PNVri, EAri eta Batasunari ematen zaiela botoa; nik, behintzat, neure euskalduntasuna ez dut zalantzan jartzen egunkari bat edo beste irakurtzeagatik. ◀

‘El Diario Vasco’ dela eta (erantzuna)

Iban Arregi (kazetaria; 2002-maiatza, Uztarría aldizkariaren 29. Zenbakia)

Gai honen inguruan sortu den eztabaidari zerbait gehiago eman nahian, eta aurreko iritzi batzuei punta atera nahian, honatx zehaztasun batzuk:

▶ *ABC*-ren lerro editoriala segitzen du *El Diario Vasco*-k, baina askoz era disimulatua-goan. Enpresa berekoak dira, eta bien azken helburua *España, una, grande y libre* da. Are gehiago: *El Diario Vasco* oso egunkari erreakzionarioa iruditzen zait: dela abertzaleen kontra, dela euskaltzaleen kontra, ekologisten kontra, homosexualen kontra...

▶ *El Diario Vasco* erosten duenak *El Diario Vasco* bakarrik erosten du, normalean. Tele 5 edo Antena 3 ikusten duenak ez du Tele 5 edo Antena 3 bakarrik ikusten, normalean. Bestalde, inork ez du idatzi *El Diario Vasco* irakurri behar ez denik. Egunkari abertzaleak erosteko arrazoiak ematen ziren; edo, nahi bada, *El Diario Vasco* ez erosteko arrazoiak.

Kontua ez da egunkari bat edo bestea irakurtzeagatik euskaldunago sentitzen garen edo ez. Kontua da, konturatu gabe, eta denborarekin, egunkari bat edo bestea irakurtzeak ere (ez horrek bakarrik, baina horrek ere bai, eta salbuespenak salbuespen) egiten gaituela (ez)euskaltzaleago, (ez)abertzaleago, (ez)konformistago, (ez)koherenteago, (ez)konszienteago, (ez)solidarioago. ◀

Basazabal edo Zelai Luze

Jabier Altuna (irakaslea; 2002-ekaina, Uztarría aldizkariaren 30. zenbakia)

Aurreko artikuluari Iban Arregik emandako erantzunak (ez nuke nahi polemika bihurtzerik) gogoeta hauek ekarri dizkit.

Haren azken esaldiak zioen egunkari bat edo bestea irakurtzeak ere (ez honek bakarrik) egiten gaituela euskaltzaleago, abertzaleago, konformistago, solidarioago... edo ez; ados orokorrean baina hutsune asko ditu.

▶ Azpeitiko udal hauteskundeetan alderdi abertzaleek jaso dituzte zinegotzi denak; kontuan izanik urtean 110 milioi pezeta jasotzen dituela *El Diario Vasco*-k hemendik, ez dirudi irakurle askoren abertzaletasuna asko ahuldu duenik.

▶ *DV* irakurtzen duten solidario asko ezagutzen dut; *Gara*, *Egunkaria* edo *Deia* irakurtzen dutenak ere bai, noski. *Gara* irakurri eta zezenak hiltzearen aurka mobilizatzen direnak baina zenbait pertsona hiltzen dituztenean kalean agertzen ez direnak ere badira; baita azken egunetan torturatuta izandako gaztearen argazki beldurgarriari begiratzea baino alboko eskaparateko jantziari kasu handiagoa egin eta *DV* irakurtzen dutenak ere.

▶ Zer da abertzaleago izatea? Zein da abertzaleago? Nola neurtu? Aberri Egunean ikurrina balkoian jartzen duena? Gabonetan Euskadik jokatzeko duenean aurpegia ikurrinaz marraztuta doana? Basazabal Elkartean ikurrina daukagu horman, Zelai Luzen ez; abertzaleago al da gure elkartea? Abertzaleago al da Azpeitia han ikurrina dagoelako?

▶ Aurkakoen ikuspuntua jakitea ere komenigarria da (nahiz eta ez izan azpeitiarrok *DV* irakurtzearen arrazoia; berriro diot, nork irakurtzen ditu editorialak?) Abertzale euskaldunek egunkari abertzaleak besterik ez badituzte irakurtzen (eta abertzale espainolek beraienak), langileek sindikatuena besterik ez badute irakurtzen... Gu bezala ikusten ez dutenek idazten edo esaten dutenaz ohartzen ez bagara, gure gizartea pobregoa izango da.

Gogoeta asko horri buruz, baina lekurik ez. ◀

Weba, komunikazio proiektuaren baitan

Uztarriaren apustu handia izan zen 2002 hasieran web orrialdea martxan jartzea, apustu berritzailea Azpeitian, eta baita euskal webguneetan ere, oso filosofia parte-hartzailekoa delako hasieratik bertatik. Arrakasta handia du. Josu Azpillaga Uztarriako kideak webguneaz hitzaldia eskaini zuen Eibarren, UEUK antolatuta, eta honatx han esandakoa.

Josu Azpillaga (Uztarriako kidea; 2002-abendua, Software Librearen II. Euskal Mintegia, Eibarren)

Uztarria.com, Azpeitiko Uztarria Kultur Koordinadoraren komunikazio adarreko proiektu bat da. Komunikazio adar horretan, urte hasierara arte, beste produktu batzuk genituen: herri aldizkaria (Uztarria) 1999tik, eta liburu biografikoak ateratzen hasi berriak ginen.

Baina hutsune nabarmena somatzen genuen egunerokotasunari lotutako informazioa lantzean. Beraz, galdera garbia zen: nola landu egunerokoari lotutako informazio hori?

Eta erantzuna, agian, konbentzimenduz baino gehiago eliminazioz egin genuen: irratia eta telebista oso garestiak dira, oraingo iritsiezinak guretzat. Papera ere, egunero-egunero ateraz gero, oso garesti ateratzen da. Beraz, zergatik ez sarean? Eragin txikiagoa izango du, jakina, baina saia gaitzen.

Zera erabaki genuen: ken diezaiogun aldizkariari egunerokotasun ukitu hori, egin dezagun 'aldizkariago', eta saia gaitzen hutsunea Interneten osatzen.

▶ **Sarean lan egin, sarea osatu eta aprobeztatu.** Baina, Interneten sartu behar bagenuen, Internetera egokitu behar genuen. Alegia, sarearen ezaugarriak geureganatu eta aprobe-

txatu behar genituen. Eta ezaugarriak behinena, guretzat behintzat, sarean lan egiteko ahalmena eskaintzea da. Jendeari bestelako parte-hartze mekanismoak ematea. Herri informazioan ere bai? Zergatik ez. Horrek ez du esan nahi Uztarriaren papera desagertzen zenik. Ez. Bestelako itxura hartzen zuela bai, dinamizatzailarena.

Alegia, Uztarriak dinamizatzailerik egin behar du, kuerda ematekoa. Eta gainerako taldeak, norbanakoak, interesatuak oro har, erakarri informazioa trukatzeko tresna honetara. Horrela lortuko dugu komunikazio tresna erakargarria izatea. Eta kuerda emateko moduak asko izan daitezke. Eta behar baino gutxiago egingo genituen, noski:

- ▶ Albisteak eta informazioa Uztarriak berak sartzeari (batik bat, besteek sortua ez denean, eta kasuala denean).

- ▶ Taldeekin eta jendearekin lana eginez, hitz eginez, aurkeztuz.

- ▶ Parte-hartzeak txalotuz, filosofia azalduz...

- ▶ Informazio sortzailea informazioa ematera gonbidatu nahi genuen, tresna bat eman nahi genien, gure 'beharrik' gabe informazioa zabaltzeko.

▶ **Dinamikoa, erabilerraza, arina, merkea; software librea, zope.** Baina nola lortu sarean lan egiteko tresna egokia? Zerbait dinamikoa, arina (instalazio aldetik, prestakuntza aldetik...), erabiltzeko erraza, merkea?

Kasualitatez, bagera.net ezagutu genuen orduan, eta hango zenbait funtzionalitate gustatu egin zitzaizkigun. Bagenekien beste mila modura gara zitezkeela, baina ez ginen ausartzen.

Bagerako orriari begira, zope, squishdot... ezagutu, aproba batzuk egin, eta aurrera. Gune errazak egitea, oso-oso erraza da, eta azkarra! Gainera, software librea...

▶ **Martxan jartzeko, zer?** Baina sarean lan egin... hori guztia nola lortu? Webgunea publikatuta bakarrik? Guk, alde horretatik, bagenuen abantaila txiki bat: Uztarria, kultur koordinadora da (heriko ia 20 kultur talde biltzen ditu) eta talde guztiei aurkeztu genien ataria publikatu aurretik, helburuak azalduz. Batzuek erabili dute; besteek ez.

Aldizkaritik publizitatea ere egin zaio, baina ez moduloak sartuz, ez. Webgunean sortzen zen informazioa egokitu eta aldizkarian sartu da askotan. Adibidez, eztabaida interesgarrien bat egon denean, hori aldizkarian jarri da. Alde horretatik, webgunea eta aldizkaria ez dira bi komunikabide aparteak, autoelikatzen direnak baizik [2004ko otsailetik *Urola-Kostako Hitza* egunkariak ere ematen du uztarria.com-en informazioa].

▶ **Ezaugarriak.** Labur-labur, webgunearen atalak deskribatuko dizkizuet, ondorioak eta geroko azterketa ulertzeko balioko baitute.

- ▶ Azken orduko albisteak. Ohiko weblog bat, herriko informazioarekin. Erantzunak emateko aukera –geroago jarri zen martxan–, parte-hartze handiarekin.

- ▶ Agenda. Herriko agenda partikularra. Egunean eguneko nabarmenduz.

- ▶ Eztabaida. Uztarriak gai bat planteatzen du, herrian pil-pilean dagoena, eta eztabaida edo foro normal bat da.

▶ Herriko taldeak. Talde bakoitzari orri bat eman diogu bere historia, deskribapena eta antzekoak sartzeko. Guk kudeatuta.

▶ Inkesta.

▶ Herri aldizkaria. Aldizkaria, oso-osorik sarean.

▶ Ziber-artxiboa. Uztarriako liburuxkak eta pixkanaka-pixkanaka bestelako materiala sartzeko joan gara.

▶ [2003ko abenduan berri egin genuen www.uztarria.com, eta ordutik atal hauek ere badaude: eguneko argazkia, euskara atala –besteak beste, komentarioak egiteko aukerarekin– eta herriko efemerideak –egunekoa azalean jarriz eta denak ere bai klikatuta–, eta Uztarriaren bazkietza kopuru eguneratua].

Baina, falta zaizkigu, noski.

▶ **Azterketa bat, gerora. Ondorioak.** Zenbat jende dabil? 2002ko azaroan 5.300 hits/eguneko, 670 bisita/eguneko [2004ko iraileko datuak hauek dira: 10.798 hits/eguneko, 1.031 bisita/eguneko]. Orri kopuruak kalkulatzeko arazo teknikoak ditugu.

Eta zenbat jende hartzen du parte?

▶ Lan eguneko, batez beste, bi-hiru albiste sartzeko dira. Horietatik %60 inguru Uztarriak berak sartutakoak dira.

▶ Erantzunak, 400 inguru; martxan jarri zenetik, egunean bi inguru [2004ko urri hasierako datuak hauek dira: erantzunak 3.201, eguneko 3,5].

▶ Eztabaidak, batzuek oso parte-hartze altua. Besteek, kale.

Zein atal dira bisitatuena? Ondorio argiak izanik ere, hona hemen:

▶ Dударik gabe, dinamikoak ikusten dira gehien. Albisteak, eztabaidak eta agenda. Jendeak saltsa nahi du: norbanakoen arteko eztabaidek jarraipen handia dute.

▶ Aldizkariak ere orri ugari ditu, eta bisitak ditu. Baina bisita kopurua baxuagoa da.

▶ Aldizkariak eta ziber-artxiboa albisteekin lotura egiteko erabiltzen dira askotan, kontsulta modura (artxibo funtzioa).

▶ Google oso garrantzitsua da, eta hortik sartzeko da jende asko orri estatikoagoetara.

▶ **Aurrera begirakoak.** Eta, hemendik aurrera zer?

▶ Esan dugu sarea osatzeari garrantzi handia ematen diogula. Beraz, hor lan handia dugu egiteko, eta ez webgunearen bidez bakarrik. Zenbait talde, jende eta abar erakarri behar ditugu oraindik atarira.

▶ Pixka bat ikusgarritasun gehiago izan. Argazkiak sartu.

▶ Interneten ezaugarriak aprobetxatu. Eta ezaugarri horietan, ez al da multimedia ezaugarria ere sartzeko? Zer egin dezakegu hor? Ahal dela, multimedia aplikazio txikiak sartu nahi ditugu albisteen osagarri.

▶ Iritzietan anonimoen kontua arautu, zuzendu. Nola? Konponbidea finkatu.

▶ Diru-iturri alternatiboak landu.

▶ **Agurra.** Nik gure esperientzia kontatu dizuet, bere xumean. Aprobata egiteko erabakia har-

tu genuen, artean guretzat nahikoa ezezaguna zen medio batean, esperimintatzekoa. Gauza batzuetan asmatu dugu, eta beste batzuetan hanka sartu ere bai. Gurea bezalako talde txiki batentzat ahalegin dezentea egin zen –eta egiten da– artean diru-iturriak finkatzeke genituela, langile bat egun erdiz aurreikusiz-eta horren aldeko apustua eginez.

Uztarriakook harrিতa gelditu gara gertuko informazioak sarean duen harreraz. Albokoaren berri Internet bidez jakitea kontraesankorra dela dirudi, baina modu egokian eginez gero, balekoa deritzogu. Eta modu egokia, Internetek berak erakusten digu: sarean, eta bizkor. ◀

Web onena, laguntzarik gabe

Luis Fernandez (Codesyntax enpresa, Eibar; 2003-urtarrila, Uztarría aldizkariaren 36. zenbakia)

Uztarría.com ondo pentsatutako produktua da. Diseinu xume eta funtzionalarekin, eta bizpahiru utilitate ondo pentsatukoekin. Teknologiaren aldetik sendoa, informazio eta interaktibitatean nabarmendu da. Euskarazko gune interaktiboena eta informatuena dira, dudarik gabe. Herri proiektu bat, herri txiki batekoa izanda, Azpeitíkoa.

Euskara hutsezko webguneen bisita kopurua eta trafikoa eskasia kontuan hartuta (Eustat-en, EAEko internauten ohituren estatistiketan, bi webgune euskaldun besterik ez dira ageri zerrenda luze batean: *Egunkaria* eta *Aurki*), Uztarría.com-ek lortu duen audientzia azpeitiarra da, seguru aski, euskarazko produktu batek Interneteko *share*-a lortzeko ahaleginean dagoen kasu positibo bakarra. Eta inpresioa daukat Uztarríaren trafikora hurbiltzeko gaitasunik daukan atari euskaldunik nekez egongo dela.

Hala ere, 2002an sortutako euskal webgunerik interesgarriena, diru laguntzarik gabe geratu da euskara sustatzeko [Jaurlaritzako] Kultura sailaren deialdian. Zentzugabekeria. ◀

Teknologia berriak hizkuntza txikien alde?

Gotzon Egia (Gipuzkoako Foru Aldundiko euskara teknikaria; 2002-maiatza, Uztarríaren 29. zenbakia)

Apirilaren 16tik 20ra bitartean hizkuntza politikari buruzko munduko biltzarra izan da Bartzelonan, Linguapax Institutuak antolatuta. Programaren barruan, lantegi bat izan da teknologia berriek demografia urriko hizkuntzetan duten eragina aztertzeko. Lantegi horretan parte izan nintzenez, kronika labur bat dator hurrengo lerrootan.

Teknologia berrien eraginez, ingelesaren aginte oro-ahaldunak beste hizkuntza handiak mendean hartzeko boterea baldin badu, hizkuntza txikiak oraindik menderatuago geldituko al dira hizkuntza handiekiko? Ala, teknologia berrion bitartez hizkuntza txikiek badute lehen

baino aukera errazagorik hizkuntza eta kultur baliabide zoli eta bizkorrak sortzeko? Horra, laburki, antolatzaileek lantegi horren hastapenean ezarri zizkiguten galderak.

Halako biltzar handietan, munduko bazter guztietatik etorritako jendea biltzen da eta pixka bat denetarik izan ohi da. Beraz, labur beharrez, bazter utziko ditut euskaldunon egoe-ratik urrun diren kontuak.

Lantegiaren ondorioetatik hasiko naiz:

▶ Teknologia berriak erraz eta merke erabil ditzakete, inoren mendekotasunik gabe, hizkuntza komunitate txikiek.

▶ Aski da trebetasun apur bat Interneteko komunitatearen elkar eragintza norberaren alde erabiltzeko, dela software librearen bidez, dela antzeko egoeran diren beste hizkuntza komunitateek egindako lanaren bidez.

▶ Bide tradizionaletan zail eta garesti dena, bide elektronikoan erraz eta merke(ago) izan daiteke: horra, adibidez, liburu edo aldizkariaren edizio elektronikoa.

Nire ponentzian, orain arte Eusko Jaurlaritzaren eraginez egin izan diren software komertzialen (Microsoften sistema eragile eta programen) itzulpen edo egokitzapenen ondorioak aztertu nituen. Nire ustez, bide horretatik ez dugu deus lortuko, besteren esku dagoen merkatuaren atzetik (berandu) ibili eta dirua erruz xahutzea baizik. Horren ordez, kode irekiko softwarearen bidea hautatu beharra azpimarratu nuen, baita erakutsi ere orain arte bide horretan landu diren proiektu onak (*Sustatu*, edo *Azpeitiko uztarria.com*). ◀

Uztarria, iritzien gunea

Alaitz Olaizola (idazlea; 2003-urtarrila, Uztarria aldizkariaren 36. zenbakia)

Baneukan gogoia urte berrian sartzeko! Banekien egun batetik besterako jauziarekin ez zela ezer berezirik jazoko, baina kito, zaharra atzean uztearen sentipena izatearekin konformatzen naiz. Geldoa, makal eta aspergarria izan den urte batetik, emozioz betetako batera salto egitea nahiko nuke, esnatze pertsonal eta kolektibo batera. Hori kontuan izanda, aldizkari honi buruzko iruzkin bat eginez hasi nahiko nuke nire aurtengo lehen idatzia.

Uztarriaren azken zenbakietan, diru laguntzak direla eta, Udalarekin izandako buru-hausteen berri izan dugu. Alegia, eskatutako diru laguntzei baiezkua eman zitzaizela hasieran, gero agindutakoa ezetz eta azkenean baietz. Hori, horrela, oso modu arinean esanda. Gehiago jakin nahi duenak, horri buruzko informazioa topatuko du aldizkariaren aurreko zenbakietan, baita *uztarria.com* webgunean ere.

Azken horretan, laguntzak direla eta, hainbat pertsonen iritziak irakurri ahal izan ditut eta inoiz neurea ematera tentatua egon banaiz ere, eztabaidetan sartzeko gero eta gogo txikiagoa daukadanez, behin eta bakarra emateko aukera izanik, hilero-hilero Uztarria aldizkaria azpeitiarren etxeetara heltzea ahalbidetzen dutenei, nire zorionik beroena eman nahi nieke.

Azpeitiko Udalaren portaera gutako askori ulertezina askotan egiten zaigu, hainbat arlotan noski. Kulturari dagokionez ere, bene-benetan jorratzen hasten direnean, herri mugimenduari jarraikiz, ekintzak bestelakoak izaten hasiko dira, eta ekintzetatik jasoko dira emaitzak.

Uztarría herri aldizkari eta web orriari lau sos emateko, eztabaida handiak sortu behar badira, *apaga y vamonos!*

Batzuren ahaleginari esker, Azpeitia eta azpeitiarron berri izatea gustuko dugunok, asko garela jakinda, ia-ia musutruk eskaintzen digutenari ere oztopoak jarri behar badizkiogu, ez daukagu benetan zertan denbora pasatu!

Asko dira laguntzak jaso beharrean dauden taldeak, eta hori ez dugu ahaztu behar, baina horrek ez du esan nahi, nire uste apalean behintzat, Uztarriaren kasuan konparaketetara eraman behar gaituenik, nahi izanez gero, denentzako iritsiko litzatekeelako.

Lanaren emaitza begibistakoa da eta eztabaida alferrek ez gaituzte inora eramango.

► **Jendearen partaidetza nabarmena.** Ez naiz kalean inkesta egiten aritu ea Uztarriara zenbat jende hurbiltzen den jakiteko. Aldizkarian jendearen partaidetza nabarmendu egiten da eta webgunean, berriz, sartzen naizen bakoitzean –eta hori ia egunero egiten dut– edozein gairen inguruko iritzi desberdinekin topo egiten dut, kaleko jendeak emandako iritziekin. Horrek harritu egiten nau, harridura atsegina sortzen dit. Hor bueltaka batzuren batzuk badabiltzala seinale da hori, modu batekoak edo besteakoak, gustukoak edo ez, baina hor.

Gaur egun, iritziak eman eta besteenak irakurtzeko gunee bat izatea ezinbestekoa da Azpeitia bezalako herri batean. Eta orain, aukera eskaintzen zaigunean, bizkarra emateko moduan al gaude? Zertan hobetu badagoenez, helburu horiei heltzea hobe.

Uztarría herri aldizkaria, kolektibo baten esnatzearen emaitza badela dirudi. Nik ez dut dudarik egiten eta gaitasuna badagoela ikusita, ekar ditzala urte berriak esnatze eta jaiotze berri oparoak! ◀

4 'EGUNKARIA': ERANTZUNA AZPEITIAN

Euskal komunikazio esparrua babestu

Joxe Luis Aizpuru, Iban Arregi, Mikel Azkune, Eneko Etxeberria, Xebastian Lizaso eta Kike

Zurutuza (‘Euskaldunon Egunkaria’-ko langile azpeitiarrak; 2001-uztaila, Uztarría aldizkariaren 20. zenbakia)

Ez ditugu une gozoak bizi euskal ikuspegiak dihardugun euskal komunikabideok. *Egin*, *Egin Irratia* eta *Ardi Beltza* itxita, Jon Abril kazetaria auzipetua, Euskalerría Irratia lizentzia legalik gabe, eta orain *Euskaldunon Egunkaria* eta *Gara*-ren kontrako eraso judiziala ezagutu ditugu. ETArí egindako elkarrizketa aitzaki, Euskal Herria bertatik informazioa lantzen dugun komunikabideon jardun profesionala jarri nahi dute auzitan. Martxelo Otamendi eta Mertxe Aizpurua eta horiek zuzentzen dituzten komunikabideen kontra Espainiako Entzutegi Nazionalen jarritako kereilak informazioa eman eta jasotzeko herritarrek duten eskubidea urratzen du –kereila oraindik artxibatzeke dagoela gogoan izan–.

Bizi dugun gatazkan ETArén ikuspegia ezagutzeak interes informatibo nabarmena dauka, eta horrela erakutsi dute Euskal Herrian zein erbestean berria zabal jaso duten ehundaka komunikabidek. Horrela erakutsi dute haren ondotik hainbat erreakzio izan dituzten instituzio eta alderdiek. Agerikoa denez, horrek ez du elkarrizketa argitaratu duten komunikabideen jarrera jakin bat azaltzen; irakurleak jakingo du esandakotik bere iritzi eta ondorioak ateratzen. Informazio egiazko eta objetiboa eskaintzea ez da delitua, irakurle eta komunikabideek legez aitortua duten eskubidea baizik.

Gertatutakoek, eta horren inguruan argitaratu diren hainbat iritzik, *Egunkaria* eta oro har euskal esparruko komunikazioa jotzeko eta isilarazteko asmoa erakusten dute, lehen beste komunikabide batzuekin edota euskalgintzan diharduten hainbat erakunderekin egin den modu berean. Azkenaldian, Espainiatik bideratutako iritzi bakarraren azpian lerratu dira komunikabide gehientsuenak, euskal gaiei dagokienean. Eta lerratze horretan, denak balio du, betiere euskalgintzaren eta euskal kutsua duen edozerren kontra eginez. Horregatik, guztion artean (euskalgintza eta erakunde publikoen artean) euskal komunikazio esparrua babestu eta indartzeko premia dugu; euskal komunikazio esparrua egiten joateko premia.

Euskalgintzaren ikuspegitik, Nafarroako Gobernuak euskararen kontra daraman ekinbidea edo Iruñeko Udalak *Egunkaria*-tik publizitate guztia erretiratzea ez dira kasu isolatuak, alde zurretik finkatutako jokabideak baizik. Komunikabide honi, irudi jakin batekin lotu izanagatik, bere ospean eta publizitate merkatuan kalte eragin nahi izana ez da zilegi. Gure hizkuntzak bizi duen egoeran *Egunkaria* zein euskalgintzan diharduten beste erakundeak amiltze bidean jartzeak euskarari eta Euskal Herriari kalte atzeraezinak eragin diezaizkieke. Gaur *Egunkaria* eta *Gara*-ren txanda izan da, bihar euskalgintzan zein herri komunikazioan dabilen beste edozeinena izan daiteke. Kereilak, diru laguntzak kenduta komunikabide bat itotze bidean jartzea... Euskalgintzaren aurka egiteko modu asko dago; eta Uztarría Azpeitiko herri aldizkaria ez dago testuinguru horretatik kanpo.

Garaiz gaude elkarlana bultzatu eta euskal komunikazio esparrua artikulatzeko, presarik gabe baina loak hartu gabe. Euskal komunikabideak ezinbestekoak ditugu. Irakur, entzun eta ikus itzazu. ◀

‘Euskaldunon Egunkaria’-ren adierazpena

‘Egunkaria’-ko langileak –haien artean, azpeitiarrak– (2003-02-20, www.uztarria.com)

Egoera hau sinestezina da. Amesgaizto bat dirudi. Baina erreal da, erabat injustua izan arren. Euskal gizartea beste zentzugabekeria judizial eta polizial bat jasaten ari da.

Egunkaria-ko Administrazio Kontseiluaren, zuzendaritzaren eta langileen izenean irmotasunez ezeztatu behar dugu Espainiako Auzitegi Nazionalako 6. Instrukzio epaitegiak eta Espainiako Barne Ministerioak atxilotetak eta miaketak justifikatzeko egiten dituen akusazioak. Gezurra da “estrategia terroristaren barruan” inolako instrumentalizatorik egon izana *Egunkaria*-ren partetik. *Egunkaria*-k ez dauka eta ez du inoiz izan zerikusirik horrelako akusazioekin. *Egunkaria*, bere sorreratik, komunikabide independente bat da, independentea edozein erakunde politotik, instituzionaletik edo bestelakotik. *Egunkaria*-k konpromiso bakarra du: euskararekin eta egiazko informazioarekin. Gauza jakina da, baina une hauetan gogoratu beharrekoa da.

Halaber, ozenki esan behar dugu atxilotutako *Egunkaria*-ko egungo eta lehenagoko arduradunek ere ez daukatela inolako loturarik inongo “estrategia terroristarekin”. Aitzitik, guztiek ibilbide pertsonal eta publiko luze eta eredugarria daukate kultura, komunikazio, hezkuntza eta euskalgintzaren esparruetan. Urteetako lan eskergea eskuzabala dute euren bizkar gainean. Ez du zentzurik haiek atxilotzea, erabat bidegabea da. Libre beharko luke, gure artean, eguneroko lanarekin jarraitzeko. Haien egoerari buruzko kezka agertu nahi dugu. Une hauetan, elkertasuna eta maitasuna helarazi nahi diegu haiei guztiei eta haien senide eta hurbilekoei *Egunkaria* osatzen dugun guztion izenean.

Bestalde, gogoeta xume bat egin nahi dugu *Egunkaria*-rekin azken ordu hauetan gertatutakoaz. *Egunkaria*-ko arduradun batzuek eta arduradun ohi batzuek eraso larri bat jaso dute, atxilotuta eta inkomunikatuta baitaude, *Egunkaria*-ko langileek eraso larri bat jaso dute, duintasun osoz betetzen ari ziren lana ebatsi zaielako. *Egunkaria*-ko erosle, irakurle eta iragarleek eraso larri bat jaso dute informazio eta adierazpen askatasunaren eskubidea gauzatzeko aukeratzen zuten komunikabidea itxi dutelako. Euskarari eta euskal hiztunei ere eraso egin diete, hizkuntza horretako komunikazio tresna nagusietako bat indargabetu nahi izan dutelako. Adierazpen askatasunak ere kolpe handia jaso du, ahots independente bat isilarazi nahi izan dutelako.

Horrez gain, esan nahi dugu euskal herritar guztien kontrako eraso bat izan dela, *Egunkaria* herri honetako ondare delako, herri honetako parte delako, herri honetako aniztasunari irekita dagoelako, eta euskaldunon guztien egunkaria izaten saiatu delako.

Azkenik, hamabi urteko ibilbideak jarraipena behar du. Ezin dugu kanpotik ezarritako etenik onartu. *Egunkaria*-ko langile, arduradun, laguntzaileen lanak emankor izaten segitu behar du. Harpidedunek eta irakurleek eskuartean behar dute *Egunkaria*. Euskal herritarrek *Egunkaria* bezalako egunkari bat behar dute esparru komunikatiboan. Guk, administrazio kontseiluko kide, arduradun eta langileok proiektu komunikatibo hau kaleratzeko konpromisoa berresten dugu. Ahaleginak egingo ditugu orain arteko eskaintza komunikatiboak jarrai-

pena izan dezan. Horretarako eragile, eta herritarren konpromisoa eta laguntza beharko da. Gure ateak zabalik daude elkarlanerako. Bai *Egunkaria*-ren egitasmoa aurrera ateratzeko, bai herri honen egoerari buelta emateko.

Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu une zail hauetan modu batean edo bestean guregana hurbildu eta elkartasuna erakutsi diguten guztioi, agintari, erakunde, politikari, elkarte, sindikatu zein herritarrei. Aurrera begira haiekin kontaktzen dugu. ◀

‘Egunkaria’ eta San Eleuterioren miraria

Pako Aristi (idazlea eta kazetaria; 2003-02-26, ‘Egunero’)

Zerbait idazteko eskatu didate, eta adjektibo bila hasi naiz berehala. Gure errealitateak adjektibo askorako ematen baitu. Hemen daukat alboan zerrenda idatzia. Baina ez ditut erabiliko. Erabili dituzte denak egunotan. Adjektibo katastrofistak, samindurazkoak, negartiak, izutiak, haserrezkoak, hitz handiz puztutako esaldiak, demokraziaren kalitatea salatzen duten *torpedo* linguistikoak, euskal nortasunaren defentsa egiten duten estandarte moduko hitz eder eta sutuak... nik ezingo nuke *artilleria* hori hobetu. Gainera, ez dut uste *Egunkaria*-rekin ondo lotzen direnik. Bere handitasunean, *Egunkaria* txikia zelako; bere edertasunean, pobrea; bere sendotasunean, oihartzun txikia sorrarazten zuena euskaldunen artean.

Nik bi hitzetara mugatu nahi nuke nire sentipena: ostegunean larritu egin nintzen benetan, egindako erasoaren tamaina ikusita; atxilotu gehienak ezagutzen ditut, eta gehienak maiteak ditut. “Txema Auzmendi atxilotu badute, gureak egin du”, pentsatu nuen, “atxilotuta imajinatuko nukeen azken pertsona eraman badute, neu ere edozein gauetan desagertuko naute etxetik”.

Baina ostiralean harritu egin nintzen benetan: egunkari berri eta probisionalak 50.000 ale saldu zituen. Lur eta zur, galdetu nion neure buruari: non egon dira irakurle horiek guztiak hamabi urteotan? Ze, *Egunkaria*-k 13.000 ale inguru saltzen zituen azken boladan, eta aurreko urteetan gutxiago. Ez al zekiten existitzen zenik? Ez al zekiten egunkari baten bizitza salmentekin ziurtatzen denik? Ez al zekiten euskal idazle eder askok han idazten zuenik? Ez al zekiten udan ipuinak argitaratzen zituenik?

Ba ez, ez zekiten. Eta esango dizuet zergatik: jende horrek, orain agertu den irakurle-plusbalia horrek, *Marca* irakurtzen zuelako, *El Diario Vasco* irakurtzen zuelako, *El Correo*, *Interviú*, *Lecturas*, *Integral* eta nahi duzuen, baina euskaraz ez zuen ezertxo ere irakurtzen. Zaila omen da, ohiturarik ez omen daukate, ez omen dute ulertzen lexikoa, irakurritakoa ez omen dute disfrutatzen. Horrela, nahiago dute *Galdu arte* bezalako nobela polit bat irakurri baino *El clan del oso cavernario* totxotzarra irakurtzea. Eta nahiago dute *El Diario Vasco* ko fatxakeriekin gosaldu Kirmen Uribek idatzitako artikulu samur batekin baino.

Egunkaria-k estilo liburu bikain bat argitaratu zuen, baina ez dute ezagutzen. *Egunkaria*-

ko kazetariak oso soldata kaskarrak zeuzkaten, oso gutxi ordaintzen zitzaaien kolaboratzaileei, baina hori ez zekiten. Gure umoristari onenek *Egunkaria*-n argitaratzen zuten egunero, baina hori ez zekiten. Elkarrizketa luze eta pluralistak egiten zitzaizkion jendeari *Egunkaria*-n, baina hori ez zekiten, nahiago zuten beste egunkari eta aldizkari gehientsuenetako elkarrizketa txoro, partidista eta errepikakorrak irakurtzea.

Egunkaria-n ateratako zerbaitek bereziari buruz nik ezin nuen hitz egin nire inguruko inorekin: ez zuelako inork irakurri, %90 euskaldun kopuru erraldoia duen Azpeitian *Egunkaria*-k ez zuelako ia batere saltzen. Nik egunero *Egunkaria*-n idazten nuenean, jendeak uste zuten ez nintzela lanean ari, oporretan nengoela. "Aspaldian gutxi agertzen haiz", esaten zidaten *Egunkaria*-n bi orrialde osoko elkarrizketa egiten zidaten egun berean.

Horrelakoa zen nire bizitza, *Egunkaria*-ren bizitza, ostegunera arte. Osteguneari, San Eleuteriok, miraria egin digu: mundua enteratu da euskarazko egunkari bat zegoela, eta euskaldunok enteratu gara gure iraupenarentzat oso garrantzitsua zela. Horregatik hasi da jendea protestaka, kalera ateraz eta *Egunero* erositik. Euskaldunok oso onak gara protesta egiten, baina oso txarrak gure hitzak betetzen. Euskararen beharra, euskararekiko maitasuna ez ditugu gure eguneroko bizitzan agertzen. Maitale faltsuak gara. Kontra datozkiguneari oldartzen gara, baina etxeko bakean ez gara gauza Iparraldeko baten artikulua lasai irakurtzeko: ba, ez dugu ulertzen idazkera xeble hori.

Egunero 50.000 ale salduko lituzkeen *Egunkaria*-k ez luke etorkizunaren beldurrik, ez subentzio faltaren ikararik. Langileek ondo kobratuko lukete, kolaboratzaileok tarteka Arzakari afari eder bat egiteko adina izango genuke, eta ederragoa litzateke dena, egunkaria bera ere bai. Kazetariak bidaiatu egingo lukete, *Egunkaria*-ren kontura, munduko erreportai interesgarriak idazteko.

Baina beldur naiz euskaldunok protesta egiteko baizik ez ote dugun balio, beldur naiz ez ote garen gauza gure asmo beroei, gure sentimentalkeria sutsuei egunero-egunero jarraipena emateko. Hor dago *Egunkaria*-ren arazoa, ez Madrilgo epaitegi batean. Ez gaitetzen okertu. ◀

‘Ad absurdum’

Iñaki Segurola (euskaltzain urgazlea; 2003-03-04, 'Egunero')

Nire lantoki den Euskaltzaindia ez zuen ETAK sortu, baina Euskaltzaindia, besteak beste eta nagusiki, Euskara Batua eratzeko sortu zen, eta Euskara Batua, egun beltz haue-tan ikusi dugun logika judizial berbera erabiliz, esan daiteke... barkatu, esan behar da ETAK sortu eta aitzinatu zuela, eta beraz, Euskara Batua "ideario terrorista" baten kimua edo umea dela. Ez naiz luzatuko xehetasunekin: ongi gogoan izango duzue ni baino zaharragoak zaretenok 1968 inguruan esan zirenak: Euskara Batua ETAK ezarria izan zela, hark sarra-razi zuela 'h' letra zorionekoa (grekoz 'eta' edo antzeko moduren batean irakurtzen zena,

gainera), eta hori dena gero Mitxelenak eta bestek irentsi zutela, edo amore eman, behintzat. 1968 inguruan eta gerotxo ere bai. Orduko "ETAren paperetan" nik ez dut dudarik egiten Euskara Batu 'h'-dunaren aldeko adierazpenak egingo zirela, eta, beraz, auto judizial eta autotxoke mediatikoen jardunaren argitan, esan behar da Euskara Batua ETA dela, eta, jakina, gizarte (ia) osoa dela, egunak joan eta urteak etorri, ETAren emaitza edo ekoizpen bat erabiltzen duena: norbanako, elkarte, erakunde, partidu eta abar azkengabe bat... Torturaren Ministerioa bera barne.

Arrazoi motz horretxek aski behar luke izan logika judizialaren eromena ikusten ez duenari ikusarazteko. Eta, badaezpada ere diot, ez diot nik opa Euskaltzaindiaren zuzendaritzari euskarazko egunkariko buruei nozitzea suertatu zaien tormentu eta zukurutzaren antzekorik deus ere. ◀

Esan beharrean gertatua

Ramon Etxezarreta (idazlea eta PSE-EEko kidea; 2003-03-07, 'Egunero')

Gutako zenbait esan balitzaigu orain ez dakit zenbait urte, *Egunkaria*-ren hasi aurretiko garai haietan hain justu, edo hasita gaurdainoko beste edozein egunetan, gauden honetan egingo genuela topo eta daukagun jarrera daukagula, ez genuen sinetsiko esaten ari zitzaigun hori burutik ez zegoenik. Bai zera!

Haserretu egin gaituzte, guztiz haserretu gaituzte, ezin irudika ahalako dorpezia politiko erabiliz eta gero eta nabarmenagoak susmatzen ziren asmo politikoak erabiliz. Haserre bat ahazteko, ez adiskidetzeko, beste haserre handiago bat piztea baino modu hoberik ez dagoela pentsatzen duen jendea instalatu zaigu gure gobernuetan eta nagusitu zaigu gure gizartean.

Eta ez da gauzak konpontzeko era haserreak eragindako itsumenez eta mendeku gogoz egitea. Ez biderik hoberena, behintzat.

Asko ginen –orain hori ezkutatzea koldarkeria litzateke, mesede baino kalte handiagoa egingo lukeen koldarkeria– komunikabide horrekin etengabeko haserrean bizi ginenok, bere orrialdeak irakurrita, geure giza komunitatetik bidaliak edo espulatsuak sentitzen ginenok. Eta isilarazi egin gaituzte. Aznarrek erabaki digu kritika hori debekatzea, euskal jendea entzungor bilakarazi du.

Asko ginen, hala ere, euskararen normalkuntzaren historia amaierarik gabekoan, euskal literaturan emandakoaz salbu, gertatu den pausorik nabarmenena, sendoena eta garrantzikoena dela esaten genuenak. Hori esatea ere debekatu egin digute. Atxikimendu susmagarriegia litzateke batetik, eta euskal jendeak hori baino gehiago ulertzeko arriskua legoke bestetik.

Asko ginen geure herritartasuna sendotzeko norbere ñabarduretan –askotan ez oso ondo ulertuetan– oinarrituta aritzen ginenok eta "ñanardurak kanpora" oihukatuz nahaspi-

latu egin gaituzte. Zer ikusirik izan nahi ez genuenok elkarrekin nahasarazi eta batu gaituzte. Iraindu egin gaituzte *Marca*, *AS*, eta *El Mundo Deportivo*-ko irakurleekin kalera irtenaraziz, bertsolaritza eta literatura konfundituz, telebistak eta errealitatea korapilatuz, euskara eta sentimentu politikoak elkarrekin urtuz, euskararen baitan klaseak eta kategoriak, pertsona ezberdinak azken batean, badaudela ukatuz, euskararen unibertsoak gaitzetsiz...

Asko ginen geure botere publikoen eta bera sostengatzen duten alderdien komunikabideen politika lotsagarria iruditzen zitzaigula pentsatu eta esan nahi genuenak, eta ez digute betarik eman horrretarako, denbora eta aukera kendu digute. Hor jarraituko dute euskarazko komunikabideekiko atxikimendua aho txikiarekin eskatuz eta erdarazko komunikabideen negozioetan esku handia sartuz.

Asko ginen nazionalismoaren jokaera gai hauetan eskizofrenikoa zela pentsatzen genuenok eta aitzakia bat eman diote lehentasunezko zeregin bat, zeregin guztiz justifikatua noski, eduki dezan. Lanera moteilak!

Demokraziagatik, euskaragatik, zer esanik daukagula uste dugun guztion duintasun pertsonalagatik, elkarbizitzaren gutxien-gutxieneko bategatik, orain bai *Euskaldunon Egunkaria* ezinbesteko dugula. Indarkeriarik gabe, torturarik gabe, noski.

Esan gabe neukan inoiz, esan beharrik ez neukan, esan ere ez nuen egin nahi. Beharrea gertatu naiz, jarri naute... ◀

Irabazi dugu!

Jose Luis Otamendi (idazlea; 2003-03-15, 'Egunero')

Jende askoren izerdi-nekeen gainean jasotzen dira ametsak. Hala diote, historiaren errota jendearen izerdi-odolek dantzatzen dutela, baina ez horrek bakarrik, baita jendearen adorea, elkartasunak eta adimenak ere. Bizipozak eta saminak. Ni ere horretan nago.

Pertsona askoren ametsa gauzagarria zela ikusi genuen, egina zela, goizaldera lagunak etxera lehen ale hura ekarri zigunean. Gurea zen egunkari hura, baina hasiera beretik gu eta beste asko kabitzen ziren 'gu' zabal eta eder hartan. Lortua genuen independentzia, garaiko politiko batzuen zikoizkeriaren gainetik jauzi eginda.

Urrea bezala gorde genituen aurreneko zenbaki haiek. Batzuek, laster batean kukuak oker joko zigulakoa eginda urtebeteko zenbaki guztiak bilduak ditugu oraindik kutxa zahar batean. Euskaldunak bazuen egunero bizitzeko eremu bat, non bizi, non hazi, non mundura, jakituria eta mentura bila. Ez zen, gainera, ez inork ez inondik emanda zetorren saria, euskaldungoak bere kabuz, lana beltz eginda eta hamaika traba gainditu eta gero irabazitakoa baizik.

1990eko uztailera zero zenbakia eta abenduko oldea hastapena izan zen. Ondoren zetorrena ere ederra bezain gogorra izan bide zen *Egunkaria*-rekin konprometituen zeudentzat, langileentzat eta enpresarentzat. Eguneroko agerraldia eskatzen baitu prentsak,

egin dugunaren neurria eta izan nahi dugunaren aurrerapena egunero ematea eta kalera-
tzea bere txikian. Erronka bital bat munduko enpresa gazteenarentzat.

Egunetik egunera aldatzen den leihoa eta pankarta ere bada *Egunkaria*. Esaterik ba al
dago hamarkadetako jardun politikoak baino areago egituratu duela euskal kulturak eta
prentsak euskaldungo ikasiaren gogoia. Horra esanda.

Asko zor diogu euskaldunok gure herriari begiratzeko moduan eta mundua ikusteko
eran. Ezbairik gabe, jasoago egin gaitu *Egunkaria*-k. *Estilo liburua*-k gure ideologiaren apa-
letan leku gailena hartu du. Informazioa, jendeak, gizonezko eta emakumezkoak, lurraldeak,
auzoak, herriak gizatasunez zelan tratatu ikasten ari izan gara dozena urtetik gora. Eta berri-
ki eskola hori itxi egin digute.

Euskaldunon Egunkaria itxita ere, ordea, gurea dugu ondare hori, eskola bat: profesio-
naltasuna eta independentzia ulertzeko eredia. Eta horixe da galtzera uzterik ez duguna,
lezio komunikatibo hori, hori kudeatu duen lan taldea eta hasieratik izan duen gizarte babe-
sa. Beste inon ez bezalako elkarbizitzarako plaza zigun jarria *Euskaldunon Egunkaria*-k.
Arma ikaragarri arriskutsua zenez, halako batean jabetu dira eta zezakeenak egin egin du.
Zarratu.

Hilabete beteko da laster eta bitarte honetan gure herrian gauzak asko ari dira aldatzen.
Atxilotuak torturatu egin dituzte batzuek, batzuk preso politikoen nomina gizontzera pasatu
dira, eta *Egunkaria*-rekin aurrera egiteko erronka Euskal Herriko gizarte eragile eta erakun-
de gehienen agendan tokia hartzen ari da indar geldiezinenez. Prentsaz haratago doan auzia
bilakatu da, noski. Masa kritiko itzelak eman dio babesa *Egunkaria*-ko zuzen-
daritza-langileek jaso duten lemari eta guztien artean itzaropena biziberritu zaio euskal jen-
deari.

Donostian izandako manifestazioak hemen politika egiteko erak durduzatu zituelakoan
nago. Langileen jardun profesionalak eta gizartearen etengabeko itzalak ez dio gaur-gaur-
koz *Egunkaria*-ren errautsen gainean bere neurriko baratzea osatzeko tentazioa izan zeza-
keen inori zirikiturik utzi (ez Jaurlaritzari, ez alderdiei, ez bestelako presio taldeei).
Martxoaren 13ko Elkartasun Egunak beste harri bat jarri du gizarte zibilaren garabidean
hemen. Aspaldi ez bezala elkargune bat aurkitu du euskaldunak eta su hori nahi dugu izio-
tuta eduki. Egunotan irabazi duguna defenditzeko teinkari eusten badugu lana. Duela
hamahiru urteko agintari haien oinordekoak iratzar ez daitezen, inork pentsa ez dezan
Egunkaria-ren independentzia enkantean dagoenik, sirena abesti horiek entzunda lilura ez
dadin inor. Langileek eta zuzendaritzak garbi erakutsi dute bitxirik kuttunena dutela.
Euskaldungoaren parte handi batek ere bai. Independentzia maite dugu.

Lot nakion ametsari berriro, horretara narama egunotan ikusitakoak. Dagoeneko ez
dago nostalgiarentzako lekurik, ekibokatu egin nintzen lehen urte osoko *Egunkaria*-ko zen-
bakiak xuhurkeriaz etxean gorde nituenean. Erronka bital bat berriro du munduko enpresa-
rik gazteenak.

"Bi urtez iraunez gero, irabazi dugu", esaten zuen Joxemi Zumalabek. Beraz, irabazi
dugu. Orain berriro irabaztea besterik ez dagokigu.

Herri batek egunero idazten dio gutun bat bere buruari. ◀

Udaleko bi mozioak

(2003-03-06, Azpeitiko udalbatzarra)

Egunkaria-ren itxiera zela-eta udalbatzarra egin zen 2003ko martxoaren 6an Azpeitiko udaletxean, eta bi mozio aurkeztu ziren: EAJ eta EArena, eta Sozialista Abertzaleena (SA; Kontseiluak Euskal Herriko udaletarako prestatu zuena, hain zuzen). Biak antzekoak ziren –ondoren ikus daitekeen bezala– baina elkarren aurka bozkatu zuten, bozketan Jose Mari Bastida udalburuak (EAJ, alkatea) ‘bai’ edo ‘ez’ aukerak baino ez zituelako eman.

Egun hartako udal aktan irakur daitekeenez, hauxe zen bi mozioen artean alde nagusia, geroko eztabaidaren arabera: SAK esaten zuen *Egunkaria*-ri “zuzenean” lagundu behar zitzaiola diruz, Udalak *Egunkaria*-ri dirua emanaz, “azpeitiar bakoitzeko euro bat”, Jose Luis Otamendi SAKo zinegotziak esan zuenez. Jose Mari Bastida udalburuak hartu zuen ondoren hitza, “esateko –dio aktak– orain diru kopuru bat aurreikustea baino hobe dela Udalaren aurrekontuan diru kopuru bat ezartzea helburu horretarako. Eta zuzenean edo Udalbiltzaren bidez laguntza bideratzea. Izan ere, beste udalek emandako laguntzak konparatzerik ez du Azpeitiko Udalak, eta, beraz, ez daki nolako laguntza ematen ari den proposatutako kantitate horrekin”. EA taldearen bozeramaile Javier Beobidek ere hartu zuen hitza, eta hauxe jartzen du aktan: “Esan du gaia alderdiak ari direla jorratzen eta laguntzak ezartzerakoan beste herriekin adostasuna lortzea beharrezkoa dela”.

Gero, handik urtebetera, Azpeitiko Udalak –dagoeneko udal talde berriak, 2003ko maiatzaren 25ean izan zirelako udal hauteskundeak– *Berria*-ren aldeko Azpeitiko batzordeari diru laguntza eman zion: 2.060 euro. Azpeitiko batzordeak, beste herrietakoek euren Udalari bezala, biztanleko euro bateko diru laguntza eskatua zion Udalari: 13.500 euro. Azpeitian batzordeak lortu zuen herrian bildu beharreko sos helburua –59.000 euro; 61.520 bildu zituen, gainera–, eta Udalaren dirua izan zen azkenekoa jasotzen.

EAJ eta EA (onartu zena) ▶ “Oinarrizko eskubideenganako konpromisotik, adierazpen askatasuna, informazio eskubidea eta atxilotutakoan errugabetasun presuntzio eskubidearen urraketa suposatzen duten Barne Ministerioaren eta Auzitegi Nazionalaren ekintza bateratu hauek salatzea.

Giza Eskubideen Nazioarteko adierazpenean jasotzen den eta Nazio Batuen Batzar Orokorrek 217 A (III) ebazpenean aldarrikatzen den ‘tortura, zigor edo tratu krudel, ezgizatiar edo degradanterik ez jasatzeko’ eskubidearen egunerokotasuna berrestea, eta hiritargosari eskubide horiek bermatzeko erakundeei euren konpromisoa eskatzea. Ikuspegi horretatik, gai honekin zerikusia duten atxiloteten ondorioz egon diren tortura eta tratu txarren salaketak azken muturreraino iker ditzatela, egon daitezkeen ardura penal eta politikoa zuzituz.

- ▶ *Euskaldunon Egunkaria*-ko zuzendaritza eta langileei elkartasuna adieraztea.
- ▶ Autoek egiaztatzen dute, neurriok helburu politikoa dutela:
 - Barne Ministerioaren menpeko den Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzua da,

Egunkaria SA enpresaren sarrera eta erregistroa hasi gabe, komunikabidearen itxiera eskatzen duena, eta Juan del Olmo epaile magistratuak eskaera bete baino ez du egiten.

– Barne Ministerioak eta Auzitegi Nazionalak elkarrekin sinatutako prentsa ohar-
rak agerian uzten du auto hauek guztiak erabaki politiko baten ondorio direla.

▶ Estatuko Gobernuak euskara eta euskal kultura indarkeriarekin etengabe lotu nahi izana salatzea.

▶ *Euskaldunon Egunkaria*-ren berehalako irekiera exijitzea.

▶ Euskarazko egunkaria/prentsa mantentzeko edo sortzeko konpromisoa adieraztea".

SA (onartu ez zena) ▶ "Otsailaren 20an Guardia Zibilak, Juan del Olmo epailearen aginduz, *Euskaldunon Egunkaria*-ren egoitzak itxi eta 10 lagun atxilotu zituen, euskaraz idatzitako egunkari bakarraren aurkako operazioan. *Argia* eta *Jakin* aldizkariak, Ikastolen Federazioa eta Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa ere miatu zituen operazio hartan.

Eraso horiek, eta euskalgintzako beste erakunde batzuen aurka lehenago izandako beste hainbat, euskararen normalizazioaren aurkako estrategia kalkulatu eta iraunkor baten barruan kokatzen ditu Kontseiluak. Egoera horren aurrean ondoko mozioa aurkezten du osoko udalbatzarrean eztabaidatu eta onartua izan dadin:

▶ Azpeitiko Udalak *Egunkaria*-ren itxiera eta bere arduradunen atxiloketa salatu nahi du, euskararen normalizazioaren eta adierazpen askatasunaren aurkako erasoak direlako.

▶ Erasoa hau euskararen aldeko jarduera oro susmopean jarri eta kriminalizatzeko saio bat gehiago delako eta euskararen normalizazio prozesua geldiaraztea helburu duelako tinto deitoratzen du udal honek.

▶ Udal honek bere elkartasuna adierazi nahi die operazio honetan atxilotutakoei eta kartzelaratuak berehalako askatasuna eskatzen du. *Euskaldunon Egunkaria*-ko langile, arduradun eta irakurleei ere elkartasuna adierazi nahi die, bai eta *Argia* eta *Jakin* aldizkari, Herri Irratia, Ikastolen Federazioa eta Euskalgintza Elkarlanean Fundazioko kide guztiei ere.

▶ Udal honek *Euskaldunon Egunkaria*-ren aurkako eraso amaitu eta kioskoetan berriro egon dadila exijitzen du.

▶ Udal honek *Euskaldunon Egunkaria* berrabiarazteko 13.500 euroko diru laguntza ematea erabakitzen du". ◀

Zuei

Enekoitz Esnaola (kazetaria; 2003-martxoan, Uztartaria aldizkariaren 38. zenbakia)

Aurrena hiri, Martxelo. 1996an, Espainiako hauteskundeetan atarian *Firin Faran*-en esan ahuen guretzat "gauza bera" dela gobernuan PSOE edo PP egotea. Ikusi duk ezetz. PPKoak dituk munduko politikorik koherentenak. Hala ere, arazoa ez duk PP.

Gero hiri, Iñaki (Uria). Orain dela hamar bat urte, *Egunkaria*-ren aldeko egun baten

ondoren esan huen “arnasa” hartu genuela euskaldunen babesagatik. Lehengo astean ere hartu genian. Bitartean, tuboen bidez arnasten diagu.

Hirugarrenzuei, *DV* –beraz, Espainia– finantzatzen duzuenoi. Lasai, zuenera ez dira joango. Ondo pasatu Inauteriak. Ah!, eskerrik asko egun bateko arnasa emateagatik.

Eta azkenik, Martxelo atxilotu baino ordu gutxi batzuk lehenago Azpeitian hura zaintzen ibili zineten eta etxeraino lagundu zenidatenoi, muxu bat. ◀

Konpromiso estrategikoak

Uztarría Kultur Koordinadora (2003-martxoa, Uztarría aldizkariaren 38. zenbakia)

Euskaldunon *Egunkaria*-ren itxieraren aurrean, bi kontu aipatu nahi ditu Uztarría Kultur Koordinadorak:

▶ Uztarría elkartasun osoa adierazten dio *Egunkaria*-ri, eta babes eta lan konpromiso pertsonal eta kolektibo osoa ere bai. Aurrera!

▶ Euskarazko prentsan sinesten dugunok, horretan konpromiso estrategikoak (hartu) behar ditugu. Esparru komunikatibo indartsua behar dugulako. ◀

Euskarazko prentsa aurrera!

Leire Aramendi, Ion Aranburu, Iban Arregi, Mikel Arregi, Mikel Azkune, Estitxu Elduaian, Oihana Elduaian, Enekoitz Esnaola, Eneko Etxeberria, Amagoia Iban, Asier Legarda-ereño, Xebaxtian Lizaso eta Kike Zurutuza (‘Egunkaria’-ko langile azpeitiarrak; 2003-martxoa, Uztarría aldizkariaren 38. zenbakia)

Itxi egin digute *Egunkaria*. Baina *Egunero* atera dugu. Eta *Egunero* ixten badigute, euskarazko beste egunkari bat aterako dugu. Ez dio inporta izenak, izanak baizik. Eta *Egunkaria*-ren izan horrek ematen dio min Espainiako Estatuari. Euskal Herriaren burujabetzarako ezinbesteko tresna delako euskarazko prentsa. ◀

Egunero gara oraindik

Manex Beristain (idazlea; 2003-apirila, Uztarría aldizkariaren 39. zenbakia)

E*gunkaria* itxi digute. Euskarazko komunikazio tresna nagusia lurperatu dute. Gure ahotsak itsutu dituzte eta begiradak mututu. Ez dakit horri guztiari buruz idatzi, kontatu

edota oihukatu gabeko ezer gelditzen den. Hemendik aurrera idatzitako guztia, beste idatzi guztiak bezala, ez da hain pertsonala izango, guztiona baizik, nirea, zurea, guztiona. Isiltasun behartu horri buruz izan da erreakziorik herrian, izan da malko isuririk begi gorrietan, izan da pozik, ilusiorik, aurrera jarraitzeko indarririk ere, guztion babesa ez da zure babesa bakarrik, guztiona da, eta ez da pena edo atsekabearen babesa, ilusioa eta sentimenduaren babesa baizik.

Egoera honen aurrean hiru hitz bururatzen zaizkit gogoaren baratzean erein beharrekoak: 'Egunero', 'Denbora' eta 'Gu'. Hitzak dantzan jartzea erraza da; hitzek gure barruan kiliak sortzea zailagoa, ordea.

Egunero iratzartzen naiz hortzak aireari eskainiz

Egunero begiak kiribiltzen zaizkit

zure hitzen esperoan.

Egunero nire ahotsak zure belarriak aurkitzen ditu

esaldi bat eta beste bat eta beste bat sortzeko asmotan.

Egunero nire behatzak zure gorputzean galtzen dira, eta

maitale kultural papera hartuz, negarrez pozten naiz.

Egunero irekiko ditut begiak

zure gorputza irakurtzeko

Egunero salatuko ditut

nire belarriak jasaten dituen tratu txarrak

Egunero isilduko naiz

nahi dudanean

eta ez behartzen nautenean

Egunero erabiliko dut

gure ama hizkuntza

Egunero moztuko dut mihia

gaztelaniaren aurrean

Egunero nire garrasiek belarri ez gaituak mututuko dituzte

minutu batez bada ere.

Denbora, elementu xeble hori

inork engainatu ezin duen ezul bat bezalakoa da Denbora,

Denbora, aurrera begiratu eta atzean segundoak

bide ertzean utzi dituzun sentrazioak harrapatzen zaitu.

Denbora, zaintiratu oro sendatzeko ukendu nekazezina

Denbora, irribarre herdoilduak hilko dira euri zaparradetan,

euskaldunen bihotzen zainekin itoko.

Denbora, askotan gure esku bakarrik ez dago

ahotsa mendi gainera altxatzea.

Ez naiz ni, gu gara

Guztiok behar gaitu une zail honetan,

ez dugu gure buruarekin konforme egon behar.

Ura bezala, faltan bota behar dugu une umel hauetan,
 eta beti eduki behar dugu egarria, zure egarria.
 Ezin dugu esku bakarrarekin aurrean dudan horma hori igo,
 zure laguntza, eta zurea, eta zurea... ez dira nahiko.
 Ados ez dagoen ororen eskuak behar ditugu
 horma hori gainditzeko.
 Egunero denbora hartu behar dutenak gu gara.
 Egunero egunkaria irakurriko dut
 Egunero irakurtzen dudan bezala.
 Ez inoiz isildu, ahotsak behar zaitu. ◀

Egunero, ‘Egunkaria’-ren alde

Leire Ostolaza (bertsolaria; 2003-apirila, Uztarría aldizkariaren 39. zenbakia)

Euskaldunon *Egunkaria* ixtea otsaileko kontua izan zen arren, *Egunkaria*-ren falta egunerokoa dugu. Orduan, martxoko artikulua idatzi eta bidalia nuen, eta arantza atera gabe ezin gera nintekeen.

Makina bat kexu entzun dut, han eta hemen, euskarazko egunkari bakarra itxi eta bertako langile zenbait atxilotu eta torturatuak izan direlako. Eta beste zenbait gehiegikerien aurrean kalera irteten ez duen jendea ere izan zelako Donostiako manifestazio erraldoi hartan.

Makina bat aldiz entzun dut azken hilabete honetan: “Ene! Zertaraino iritsi behar dugu? Laster ezingo dugu euskaraz hitz egin ere!”. Makina bat aldiz ikusi dugu okindegi edo kioskoetan *El Diario Vasco* mendi izugarri bat *Egunkaria*-ko lau aleren ondoan, eta gertatu dena gertatu ostean ere lehen mendia zenak mendi izaten jarraitzen du, hiztun euskaldunak gehiengo zabala garen herri honetan.

Makina batek azalduko du, berriz ere, *Egunkaria*-rekiko elkartasuna, baina ez da egunkari bat hitz hutsez bizirik mantenduko; beraz, euskararen eta euskal prentsaren alde zerbait egin nahi dugunok egin dezakegun onena egunero *Egunero* erosi eta irakurtzea da. ◀

Sindikatuaren adierazpenak

(2003-apirila, Uztarría aldizkariaren 39. zenbakia)

Iaz, martxoaren 13an, *Egunkaria*-ren aldeko ordubeteko lanuztea egin zen Euskal Herrian, eta jarraipen handikoa izan zen. Baita Azpeitian ere, eta herriko bi sindikatu nagusiek

–ELAk eta LABek– ekimen horren balorazio ona egin zuten, “arrakastatsua” eta “erantzun ona” izan zelako.

Azpeitiko ELA ▶ “Kontseiluak martxoaren 13rako *Egunkaria*-ren alde mobilizatzeko deitu zuen eguna arrakastatsua izan zela baloratzen du Azpeitiko ELA sindikatuak. Azpeitiko enpresa handi denak gelditu egin ziren: Marcial Ucin, Biele, Azkue, Sammic, Mallas, Pemec, udaletxea, Sarralle... eta baita enpresa txikiagoen gehiengoa ere. Arratsaldean, Bilbon Casillan ospatu zen ekitaldira ere Azpeitiko 30 bat ordezkari eta afiliatu hurbildu ziren. Enpresatan *Egunkaria*-ko harpidetzak bultzatzeko kanpaina ere martxan jarrita dago dagoeneko, eta, oraingoz, harpidedun egin diren enpresa batzordeen artean Biele, Mallas, Altuna-Uria... daude”.

Azpeitiko LAB ▶ “Oso erantzun egokia eman zuen Azpeitiko langilegoak *Egunkaria*-ren Elkartasun Egunean. LAB sindikatuak delegatuen batzarra egin zuen martxoaren 7an, *Egunkaria*-ren itxiera eta Euskal Herriaren aurkako erasoei buruz hausnartzeko, eta egoera honi eraikiz erantzuteko. Asanbladak egin ondoren, ordubeteko lanuztea egin zen lantoki guztietan, eta langile andana batek hartu zuen parte antolatutako kontzentrazioetan, Landetako errotondan, Bielen, Aceralian, Sammicen... LABeko ordezkari eta batzordeetara harpidetza orriak banatu dira, eta LABek bere ordezkari du *Euskaldunon Egunkaria* aurrera!-ren Azpeitiko herri batzordean ere, harpidetza eta bono laguntzen gaia lantzeko. LABeko delegatuak zoriondu egin behar dira eman duten erantzunagatik eta egiten ari diren lanagatik”. ◀

Hiru herritarren lekukotza zuzena sorreran

Enekoitz Esnaola (kazetaria; 2003-apirila, Uztarría aldizkariaren 39. zenbakia)

Orain, *Euskaldunon Egunkaria*-ren bortxazko itxiera dela eta, batzuk *Egunkaria*-ren sorreraren zabaltasuna eta produktuaren aniztasuna ezbaian jartzen ari diren honetan, Uztarriak *Egunkaria*-ren sorrera gertu-gertutik segitu zuten eta bertako protagonista izan ziren hiru azpeitiarrengana jo du: Imanol Lazkano eta Xebaxtian Lizaso bertsolariengana, eta Pako Aristi idazle eta kazetariarengana, hirurak ere *Egunkaria* Sortzen-eko (ES) kide izan zirelako, motor lana egin zuen taldeko kide.

1990eko hondarrean sortu zen *Egunkaria*, baina proiektua urtebete lehenago hasi zen mamitzen, ESren bitartez. Hain zuzen, 1989ko azaroaren 1ean eratu zen ES, Donostian egin zen deialdi zabal batean. Euskal Herriko hainbat norbanako ezagun bildu zen, eta lehen aipatutako hiru azpeitiarrak zeuden 75 laguneko zerrendan.

“Lehenengo kanpai hotsak jo zituztenak Joxemi Zumalabe, Joseba Jaka eta Joan Mari Torrealdai izan ziren, Martin Ugalderekin babesarekin. Euskarazko egunkari bat ateratzeko

proiektua egin behar zela zioten, eta sektore askotako ateak jo zituzten”, dio Xebaxtian Lizasok. Euskal Herriko Bertsolari Elkartearen izenean Imanol Lazkano, Jon Lopategi eta hirurok geunden taldean. Han bakoitzak bere lanak zituen, eta diru bila joatea izan zen niri hasieratik tokatu zitzaidan lana”.

Imanol Lazkanok eta Pako Aristik barrura begira ez zuten horrelako lanik egin. “Kanpotik egin genuen gehiago”, dio Aristik. “Neuk orduan *El Diario Vasco*-n jarduten nuen lanean, kolaboratzaile bezala, *Zabalik* euskarazko gehigarrian, eta astero elkarrizketak edota erreportaiak egiten nituen. ETB1en ere banengoen, *Babel* programan gidoilari, eta Martxelo Otamendi bera zen programako aurkezlea. Liburuekin ere banenbilen eta, beraz, ez neukan denbora askorik Egunkaria Sortzenen lan egiteko. Baina proiektuak halako babes soziala eta kulturala behar zuen, eta han izan ginen”.

Hiru azpeitiarrak ezagunak ziren orduan: Imanol Lazkano Euskal Herriko Bertsolari Elkarteke lehendakaria zen 1985etik, Xebaxtian Lizaso Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako txapeldun izana zen 1986an eta bigarren 1989an, eta Pako Aristik hainbat lan eginak zituen kazetaritzan eta liburugintzan (*Kcappo* nobela aterata zeukan ordurako, 1985ean). “Proiektuari zabaltasuna eman behar zitzaion, beharrezkoa zelako proiektua zabala izatea, eta ESko kide izatea proposatu zidatenean ez nuen dudarik egin baiezkoa emateko”, esaten du Lazkanok.

► **Bi proiektu.** Euskarazko egunkaria sortzea zuten helburu, proiektu handia, interesgarria, ilusio handia sortzen zuena, baina ez ziren garai errazak izan, arazo askorekin topatu zirelako sortzaileak. “Nolabait esanda, kultura bikoiztua zegoen garai haietan. AEK alfabetatze erakundea zegoen, HABE ere bai. *Hemen* euskarazko astegunkaria zegoen, *Eguna* ere bai. Eta *Egunkaria*-ren proiektua zegoen, eta Eusko Jaurlaritzaren proiektua ere bai. Hau da, batetik, ezkerreko jendearen kultur proiektuak zeuden, eta bestetik, erakunde publikoetako edo EAJ inguruko jendearen proiektuak. Euskarazko egunkariari dagokionez, niri, behintzat, amorrua ematen zidan egoera hark, baina *Egunkaria*-ren alde egin nuen”, dio Aristik.

Herrietan *Egunkaria*-ren aldeko 185 batzorde sortu ziren –Azpeitian haietako bat–, eta Lizasok dioenez, “garai beltz” haietan herri batzordeek, eta “baita enpresatako komiteek eta sindikatuek ere, asko lagundu zuten” dirua biltzeko orduan. “Beste lagun batzuk, batik bat enpresatan eta udaletan ibili ginen. Udaletan dirua biltzea oso-oso zaila zegoen, goitik agindu hau zutelako: ‘Guk beste egunkari bat sortuko dugu. Aurretik *Egunkaria* izenarekin beste bat jaiotzen bada, sei hilabete baino gehiago ez du iraungo, zuzendaritzan badakigu zein izango diren...’. Beraz, mantxadun famarekin sortu zen *Egunkaria*. Baina diru dezente bildu zen”. Lazkanoren iritziz, mamuak zabaltze hori “aitzakia besterik ez zen, gauzak erabaki, Egunkaria Sortzen taldean baino ez zirelako erabakitzen”.

Eta *Egunkaria* sortu zen. 1990eko abenduaren 6an. “Ikusmin handia zegoen”, oroitzen du Aristik. “Niri soldadutzarekin bezala gertatzen zitzaidan. Hau da, beti nengoen soldadutzaren kontra, beti egiten nuen amets bere amaierarekin, baina soldadutzarik ez zegoela ikusi arte ez nuen sinesten amaituko zenik. *Egunkaria*-rekin ere antzera: beti alde, beharra ikusten genuelako, baina 1. zenbakia kalean ikusi arte ez nuen sinesten sortuko zenik”.

► **Bi urte iraenez gero...** Joxemi Zumalabe zena izan zen proiektuaren bultzatzaile nagusietakoa, eta haren esaldi bat dakar gogora idazle eta kazetari urrestildarrak: “*Egunkaria* itxi dutenetik, komunikabideetan Zumalaberen esaldi bat behin baino gehiagotan azaldu da. Hauxe: ‘Bi urtez iraenez gero, irabazi dugu’. Nik uste esaldi horrek islatzen duela ES taldean pentsatzen zena”. Eta iraun zuen.

Egunkaria sortu eta urte batzuetara hasi ziren hasieran kontra –edo ez alde– zeuden enpresak eta erakundeak diruz laguntzen. Lizaso: “Orain hamar bat urte akzio zabaltze kanpaina egin zen eta udal batzuk busti egin ziren, eta beste batzuk pixkanaka hasi ziren begiak zabaltzen, mamuak egia ez zirela ikusten”. 1994an Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena sinatu zuen *Egunkaria*-k, Joseba Arregi zela Kultura sailburu. “Arregik han sinatu behar izan zuen, gerra galduaren aurrean errendizioa sinatzera doan generalak bezala”, dio Aristik.

Orain, euskarazko beste egunkari bat sortzeko pausoak ari dira ematen *Egunkaria*-ko langileak. “Nik garbi dut berriz ere nigana etortzen badira, ni hor izango naizela, laguntzen”, esaten du Lazkanok.

(Egunkaria Sortzen taldeko 75 kideak ► Karlos Santamaria, Martin Ugalde, Joan Mari Torrealdai, Julen Kaltzada, Joseba Jaka, Joxe Azurmendi, Joxerra Garzia, Iñaki Zabaleta, Luis Nuñez, Jean Louis Davant, Jakes Bortairu, Nerea Azurmendi, Xalbador Garmendia, Hasier Etxeberria, Imanol Murua Uria, Jon Basterra, Aingeru Epaltza, Jose Antonio Arana Martija, Alfontso Irigoien, Sagrario Aleman, Joxe Agustin Arrieta, Julia Berrojalbiz, Joxe Ramon Bilbao, Urtsa Errasti, Elene Lizarralde, Josu Landa, Xabier Arzelus, Inaki Irazabalbeitia, Jexux Mari Zalakain, Paulo Agirrebaltzategi, Jesus Mari Eizmendi, Baleren Bakaikoa, Eugenio Arraiza, Karmele Aierbe, Joxemari Ostolaza, Fernando Unsain, Iñaki Uria, Sabin Gaztañaga, Xabier Mendiguren Bereziartu, Pello Zubiria, Josu Muniozguren, Txema Auzmendi, Bernardo Atxaga, Joxemi Zumalabe, Andoni Sagarna, Pako Aristi, Koldo Izagirre, Iñaki Larrañaga, Joseba Intxausti, Daniel Landart, Edorta Kortadi, Fermin Lazkano, Henrie Duhau, Mikel Bujanda, Benito Lertxundi, Felipe Juaristi, Adolfo Arejita, Jon Lopategi, Patri Urkizu, Gexan Lantziri, Imanol Lazkano, Eusebio Osa, Roger Idiart, Juanjo Arkarazo, Joan Mari Lekuona, Anton Mari Aldekoa-Otalora, Jokin Aldazabal, Gotzon Garate, Pedro Ruiz Ulzurrun, Emile Larre, Luzien Etxezaharreta, Ramuntxo Kanblong, Luis Goia, Xebaxtian Lizaso eta Erramun Baxok) ◀

Lan bera, beste jende bat 13 urtean

Oihana Elduaen (kazetaria; 2003-maiatza, Uztarría aldizkariaren 40. zenbakia)

Helburua: euskal kazeta. Lanak: harpidetzak lortzea, bono eta akzioen salmenta, materialaren salmenta. Bi talde, bi garai. 13 urteko tarte ez da alferrik igaro, baina 1990ean eta 2003an lan bera egiteko sortutako bi taldeen lekukotza jaso du Azpeitiak,

Euskal Herriko beste herri askok bezala. Bederatzi bat lagun biltzen ziren duela 13 urte; aurten 15 bat lagun dira, guztiak berriak. Baina denek dute gauza bat amankomuna: euskarazko egunkari bat esku artean izateko nahia eta desira.

Aitor Larrañaga eta Jose Luis Otamendi duela 13 urte Egunkaria Sortzen-eko kide izan ziren. Artxibo txikian aurkitutako paper zaharrei hautsa kenduz, beraien lana zein zen gogoratu dute. Batzordeak sortzeko deia Euskal Herrian Euskaraz-etik (EHE) etorri zitzairen orduan. “Gu EHEn ibiltzen ginen eta handik etorri zen herrietan taldeak sortzeko mezua”, dio Aitor Larrañagak. Orain *Egunkaria*-tik bertatik iritsi da oihua, eta azpeitiar langileek hartu zuten ardura, hasieran. Bi batzordeek martxan jartzeko modu bera izan zuten: deialdi zabala. Mikel Azkunek poz ederra hartu zuen 1990ean Azpeitian kartelak ikusi zituenean: “Banekien beste herrietan batzordeak sortzen ari zirela, eta zain egon nintzen Azpeitian noiz sortuko. Euskal prentsa sortzeak izugarrizko ilusioa egiten zidan”. Ioritz Aizpuru ez da jabetu ere egingo duela 13 urte Azpeitian egindako lehen bilerekin, berak zazpi urte besterik ez baitzituen. Urteak ez dira alferrik pasatzen, eta aurtengo bilerak ez zaizkio oharkabeen pasatuko, bera parte-hartzaile baita. “*Egunkaria*-ren itxiera Euskal Herriaren kontrako beste eraso bat iruditu zait, eta zerbait egin beharra dago”.

► **Dirua biltzeko modu berberak.** Taldeak osatu ondoren, diru bilketa hasi zen bai 1990ean eta baita aurten ere. Zer diren kasualitateak: batzordeetako partaide bakoitzak hamarna bono saltzeko lana hartu zuten, 1990ean eta 2003an. 1990ean 100 mila pezeta inguru bildu zituzten bono laguntzekin. Aurten, gutxienez, 16 mila euro lortzeko asmoa zegoen bonoen bidez; 50 eta 300 eurotan zeuden salgai, eta eskuratzeko lau leku zeuden herrian: Luba aholkularitza, Urbistondo margoak, Sarea informatika eta Uztarria. Lehengo astean bukatu zen bonoen garaia, akzioenei heltzeko.

Akzioen salmenta da bi batzordeek egin beharreko beste lan bat. 1990ean bi eratako akzioak zeuden: bost mila pezetakoak eta 500 mila pezetakoak; orain, berriz, 50 eta 300 eurokoak daude, bonoak bezala. Merkeenetik 40 akzio saldu zituzten orduan; garestien kontua, ziurrenik egiteko errazagoa izango bazen ere, ez da jasotzen eskuizkribuz eginiko artxiboan. Aurten 59 mila euro lortzeko erroka dago.

Dena ez da berdina, ordea, aurtengo herri batzordeak ez duelako publizitate bila inora joan beharrik izan. 445 mila pezeta lortu zituzten publizitatearekin 1990ean; gero, Azpeitian ospatu zuten Egunkaria Egunean iragarkiekin eginiko hiru orri erraldoi erakutsi zituzten plazan. “Komertzio eta tabernalara joaten ginen, atez ate, *Egunkaria*-ren 1. zenbakirako publizitatea eskatzera”, gogoratzen du Mikel Azkunek.

► **Herrian jarrera ona.** Bi batzordeetako kideak herrian oso jarrera onarekin aurkitu zirela eta direla diote. 1990ean “jende gehienak jarrera ona erakutsi zuen”, Jose Luis Otamendi akordatzenez. “*Argia*-tik aurrelana ere egin zen, eta ez zen perretxiko bat izan”. Bazen, ordea, jarrera desberdinik: “Euskalgintza munduan ilusio handiarekin zegoen jendea, baina EAJtik errezelo ikaragarria nabari zen”, dio Aitor Larrañagak. Artxibo txikian baieztatu daiteke esandakoa, EAJK ez baitzion pezetarik eman Egunkaria Sortzeni.

Ander Bastida *Egunkaria*-ren aldeko egungo batzordean dago, eta haren hitzetan, "herrian jarrera ona dago, eta ez da oso zaila izan bonoak saltzea, baina zaila egiten zait jendeari dirua eskatzera joatea". Gainera, "materiala erraz saltzen da", loritz Aizpuruk dioenez. Hala ere, "udal erakundeetatik Liburutegia baino ez da egingo harpidedun", dio Sorkunde Urbistondok. Haren esanetan, "kalean dagoen *Egunkaria*-ren aldeko giroa harpidetzatan eta akzio salmentan antzeman beharko litzateke". ◀

Eneko Etxeberriari elkarrizketa

Iban Arregi (kazetaria; 2003-apirila, Uztartaria aldizkariaren 39. zenbakia)

Batetik bestera dabil Eneko Etxeberria Egunkaria S.A. enpresaren lege ordezkari azpeitiarra azken bolada dagoeneko luze samarrean, lanean, jo eta su, *Egunkaria*-ren itxiera dela eta. Orain Madrilera, hurrena bilera bat beste abokaturen batekin... Tartean badu Uztartariarekin egoteko astirik ere, elkarrizketa egiteko.

Hasteko, Eneko: erabakia "erabat politikotzat" jo denean, autoaz hitz egiteak bala du zentzurik?

Abokatu bezala esango dizut erabat harrিতa nagoela ni ere. Nik ezagutzen eta ikasi dudana Zuzenbidean behintzat, ez nuen inoiz horrelako egoerarik ezagutu. Ikusi dudana zera da: juridikoki ezintasun izugarria sentitzen dela.

Zer zentzutan?

Autoa irakurtzen baduzu, ez dago datu zehatz bat, ez dago egoera zehatz bat non esaten duen: hau eta hau gertatu da, halako erlazioa gertatu da... Dena da literatura, erabat modu zikinean eginiko literatura gainera, eta ikusten dena da horren atzetik intenzionalitate politikoak egon behar duela, derrigorrez. Bestela, ezin uler daiteke.

Autoa hankamotz al dago, beraz, arlo juridikotik begiratuta?

Autoak beti izan behar ditu datuak. Alegia: delako hark, egun hartan, ordu hartan, lotura bat egin zuen ez dakit zeinekin, eta hau, hau eta hau egin zuen... Baina auto hau hartzen badugu, ETari buruz hitz egiten du orokorrean, orokorkeria asko esaten ditu, baina datu zehatzik ez.

Eta zertan oinarritu da *Egunkaria* ixteko?

Bi oinarri ditu autoak: bata, oinarri ekonomikoa, eta horrek esaten du Egunkaria Sortzenen eta *Egunkaria*-ren oinarria diru zuriketa egitea dela. Dena dela, epaileak berak azkeneko autoan esaten du hori frogatu beharra dagoela; berak onartzen du, beraz, ez dakiela ezer, eta euskalgintza eta *Egunkaria* ezagutzen duenak badaki herriak jarritako diruarekin egin zela *Egunkaria* (herritarrek, ikastolek, udalek, taberneak, harpidedunek...). Guardia zibilek ezin zuten hori ulertu. "Yo no pondría ni un duro por el idioma español", esan zion batek atxilotuetako bati. Ezin dute ulertu jendeak euskararen alde dirua jartzea.

Eta zein da autoaren bigarren oinarria?

Oinarri mediatikoa. Alegia, *Egunkaria* ideologikoki ETAreneko estrategiaren barruan dagoela dioen oinarria. ETAreneko ideiak zabaltzeko dela *Egunkaria*, horixe da autoak dioena. Jakina, beraiek egiten duten analisia oso-oso sinplea da, eta hauxe da: ETA euskararen eta Euskal Herriaren independentziaren alde dago; beraz, helburu horiek dituen edozeinek ETArekin lotura dauka.

Zuzenbidez ezer ez dakienak ere badaki delituak pertsonak egiten dituztela. Nola uler daiteke Joan Mari Torrealdai Administrazio Kontseiluko presidentea, Txema Auzmendi idazkaria eta Martxelo Otamendi *Egunkaria*-ko zuzendaria kalean izatea, eta *Egunkaria*-k itxita segitzea?

Ikusten dena da logikaz kanpoko zerbaitez ari garela hitz egiten. Txema Auzmendiren kasua oso-oso argia da, esate baterako. Auto osoan behin baino ez da aipatzen haren izena. Eta oso-oso gauza orokorrak esaten dira atxilotuez. Haien atxilotetak ere ez du batere zentzurik, gainera. Haien adina eta bizimodua kontuan hartuta, edozein zitazioaren aurrean Espainiako Auzitegi Nazionalera beraien kasa aurkeztuko lirateke. Absurdoa da hau dena.

Asko aipatu izan da auto horrek oinarrizko eskubideak urratu egiten dituela, bate-re frogarik gabe (informazio eskubidea, besteak beste). Espainiak urteak daramatza enpresak ixten, komunikabideak ixten, abertzaleak atxilotzen, erakundeak ilegalizatzen... Horren aurrean ezer egin al dezake abokatu batek?

Espainiako Auzitegi Nazionalean ez dago ezer egiterik. Auzitegia bera fisikoki ikusita ere, bunker handi bat da, eta berehala ikusten da han ez dagoela ezer egiterik. Kasurik garbienen ere (duela urtebete Jon Abril kazetariarekin gertatu zena, adibidez), galtzeko beldurra dago. Lehen bazen gaineke auzitegiaren batera jotzeko aukerarik; baina gaineke auzitegiak ere erabat politizatuta daude Espainian (Auzitegi Gorena, Auzitegi Konstituzionala), eta ez dago botere banaketarik.

Eta Europan?

Europakoa izan daiteke aukera bakarra, baina Europako auzitegia ere ez da independentea, estatuek parte hartzen dutelako. Eta han zer gertatuko den, auskalo! Gainera, asko luza daiteke kasua.

Kanpotik begiratuta, botere banaketaren urraketa hori disimulatzen saiatu ere ez direla egiten ematen du, eta Espainiako Barne Ministerioak eta Juan del Olmo kasu honetako epaileak elkarrekin egin omen zuten ohar horretan egon daiteke adibiderik garbiena.

Ohar bateratu hori ikertzeko eskaera egin genuen, baina erantzun ere egiten dute: fiskalak epaitegiko faxa erabili zuela, deskuido bat izan zela, Espainiako Barne Ministerioak halako edo bestelako ulertu zuela... Ohar bateratu hori ez ikertzea erabaki dute. Kasu honetan gertatu den gauzarik asaldagarriena da, beharbada.

Zuk zeuk, gainontzean, nolako giroa sumatu zenuen Espainiako Auzitegi Nazionalean. Del Olmo epaileak nola tratatu zaitu?

Ni bi aldiz egon naiz Del Olmorekin, bietan *Egunkaria* S.A.ren lege ordezkari moduan. Lehenengo aldian, *Egunkaria*-rekin lotuta zer itxi zuten, zergatik itxi zuten, horrek zenbate-

rainoko eragina zuen... jakin nahi genuen. Zurrumurruak entzuten genituen: enbargoa, kontuen blokeoak... Baina autorik ez genuen, eta lege ordezkari moduan autoa eskatu nion Del Olmori. Baina erantzun zidana izan zen atxilotuei eman ziela ordurako, eta hauek bazutela errekurtsioa egiteko aukera. Atxilotuak, ordea, inkomunikatuta zeuden. Lehenengo aldi hura oso gogorra izan zen. Handik gutxira autoa eman zigun.

Eta bigarren aldia nola joan zen?

Gaizki. Hamar egunera-edo joan ginen Iñigo Iruin eta biok, bere aurrean agerraldi bat egi-tera. Ni enpresaren lege ordezkari moduan hitz egiten hasi nintzenez, Del Olmo jaiki egin zen eta alde egin zuen, "*porque tengo que hacer algunas gestiones...*". Iñigo Iruin ari zenean ere alde egin zuen, eta bukaeran zera eskatu zigun: "*¿Me pueden hacer ustedes un resumen?*". Oso jarrera prepotentea erakutsi du.

Azken urteotan Baltasar Garzon epaileak zuzendu ditu halako operazioak, eta Espainiako Polizia aritu da lanean; oraingo honetan, lehenengo aldiz Juan del Olmok zuzendu du operazioa, eta Guardia Zibila aritu da lanean. *Modus operandi* berri horrek zer bait esan nahi al du?

Ez dakit. Nik dakidana da Madrilen badirela gorputz polizial ezberdinen arteko haserreak, jeloskorkeria kontuak. Guardia Zibilak ez zuen halako operazio batean sekula parte hartu. Guardia Zibila txosten hau 2001etik ari zen prestatzen, eta Garzoni aurkeztu zionean, honek ez omen zuen onartu. Ondoren, Del Olmori aurkeztu zioten sekretupean dagoen txosten hori, eta honek bai onartu zuela, ederki ikusi dugun moduan. Beste adar baten aurrean egon gaitezke.

Eta nondik nora joan daiteke adar hori?

Auskalo! 14.000 orrialdeko txosten bati buruz ari gara. Galdeketatik jasotako datuek erakusten dutenez, "fronte mediatiko-kultural" hori ari da ikertzen Guardia Zibila. Orain, hortik nondik nora joko duten, hori zaila da esatea. Euskal kulturarekin eta komunikabideekin zerikusia duten denak, herri aldizkariak barne, ez dira ikerketatik urruti ibiliko.

Behin eta berriro ari gara esaten babeserako aukerarik ez dagoela, juridikoki behintzat. Maila politikoan erantzun behar al da, beraz?

Bai, honi maila politikoan eman behar zaio erantzuna, bestela alferrik ari gara. Nire ustez, euskal herritarrok zenbat eta garbiago izan denok batera erantzun behar dugula halakoaren aurrean, orduan eta hobeto. Eta erantzun ez ezik, eraiki ere egin behar da. Edo hasten gara benetan gure komunikabideak eraikitzen, gure komunikazio esparrua eraikitzen, prentsa lokala sustatzen, edo alfer-alferrik gabiltza. Eta politikoei esan behar zaie hori dela beraiek bultzatu behar dutena.

Bai, baina sortzen den hori nolabait blinda al daiteke gauden egoera honetan? Hala utopia batez ari gara?

Hori oso zaila da. Argi dagoena da *Egunkaria* bezalako enpresa bat horrela itxi dutenean, urtero auditatzen zen enpresa bat horrela itxi dutenean, bere kontuak urtero Eusko Jaurlaritzari aurkezten zizkion enpresa bat horrela itxi dutenean, horretarako gai direnean, beste edozer ixteko gai direla. Eta argi eta garbi esan behar da: Espainiako Auzitegi Nazionalaren azpian gauden bitartean, oso zaila daukagu.

Beste esparru baten beharraz ari al zara?

Argi baldin badago gaurko esparru honetan sortzen dugun edozer gauza arriskuan dagoela, beste egitura politiko bat behar da, Espainiako Auzitegi Nazionalaren kompetentziatik kanpo egongo dena, horrek denak esan nahi duenarekin. ◀

Txema Auzmendiri elkarrizketa

Nerea Uranga (kazetaria; 2003-apirila, Uztarrria aldizkariaren 39. zenbakia, eta 2003-03-16, 'Egunero'; bietatik hartutako elkarrizketak dira, moldatuta)

Hor al dago Txema, elkarrizketa egin nahi diogu eta?", galdetu genuen Donostiako Herri Irratian, Txema Auzmendik kartzelatik irten eta bi egunera. Han zegoela erantzun zigiten, baina bilduta zela, eta emateko telefono zenbakia, Txemak deituko zigula eta. Baita deitu ere. Horrelakoa baita. Auzmendi, bederatzi euskaltzalerekin batera atxilotu zuen Guardia Zibilak; bera, Egunkaria S.A.ko Administrazio Kontseiluko idazkaria izateagatik. Azpeitian, Iraurgi ikastetxean irakasle aritu zen hiru urtez (1985-1988).

Bermepean irten duzu kartzelatik. Gogorak izan al da dena, Txema?

Oso gogorra, batez ere lehen bost eguneko inkomunikazioa. Oso gaizki egon nintzen, nekatuta eta jota; baina barrutik ez, beti egon naiz oso tinko. Banekien non nengoen eta zertan aritu naizen, eta ez nuen barruko kezka edo ardurarik. Hura infernua da, inori ez diot opa. Txar-txarra, gizakia ez zarela pentsa dezakezu; nik ez dut pentsatu baina gauzak horretarako daude eginak. Beti burua makur eta begiak itxita, umiliatuta.

Hasieratik jakin al zenuen *Egunkaria*-rekin lotutako operazioa zela?

Bai, eta ni ETArekin lotuta nengoela kolaboratzaile gisa edo ETAkide gisa.

Harritu egingo zinen, ezta?

Guardia zibil batek esan zidan ea harrituta nengoen beraiek etorri zirelako. Nik esan nion harrituta ezetz, baizik eta harri eta zur geratu nintzela, inoiz ez nuela pentsatu halakorik gerta zitzaidakeenik, are gutxiago *Egunkaria*-ri buruzko zerbaitengatik.

Administrazio Kontseiluko idazkaria zara.

Hala da. Bileretan parte hartzen nuen eta aktak sinatzen nituen, notarioarengana joan...

Guardia Zibilak Madrilerera eraman zintuen.

Burua makurtu eta begiak itxeko esan zidaten. Madrilerera abiatu ginen. Eskuburdinak kendu zizkidaten orduan. Bide osoan itaunketa egin zidaten, baina ez Polizia etxeko itaunketen modukoa, aspaldian elkarren berri izan ez duten bi lagunen arteko elkarrizketaren moduan baizik. Ideologiaz, irratiaz, askapen teologiaz, Euskal Herriaz... hitz egin genuen, modu atseginean.

Madrilerera iritsi eta ziega batera sartu zintuzten.

Begiak itxita eta burua makurtuta egon behar genuen etengabe, hormaren kontra, baina horma ukitu gabe. Umiliazioa etengabea izan da. Ez dizute uzten burua altxatzen, aurpegi-

ra edo begietara begiratzen, zeu ere nor bazarela adierazten. Atea, burdinezkoa, beti zebilen dinbi-danba, kolpe izugarriak ematen zizkieten. Tentsioa etengabea zen, ziegatik ateratzen zintuztenean ez zenekien zertarako zen. Ez genuen lorik egiten eta erdi lotan geundela, atearen zarata. Nire kasuan tortura psikologikoa izan da, ez fisikoa. Ni ez naute jo eta pribilegioak nituela zioten. Esan nien nik ez niela pribilegiarik eskatu. Pentsatu izan dut josulaguna izateagatik gehiago errespetatu nautela, zerbait eginez gero presio handia jasoko zutela...

Ziegan Xabier Oleagarekin egon zinen.

Uste dut lehen egunean Pello Zubiriarekin egon nintzela, ahotsik entzun ez nion arren, baina bigarren egunetik bukatu arte Xabier Oleagarekin. Xabier konturatu zen ni nintzela eta galdetu zidan ea ondo nengoen. Baietz erantzun nion eta bera ere ondo zegoela esan zidan. Hori izan zen lau eguneko elkarrizketa bakarra. Ez genion elkarri begiraturik egin.

Ba al zenekien Pello Zubiriari zer gertatu zitzaion?

Guardia zibilak Pello Zubiriaz barre egiten entzun nituen eta oso mingarria zen. Pellok supositorioak hartu behar zituen, eta guardia zibilak trufatu egin ziren, gustatu egingo zitzaiola zioten.

Gainerako atxilotuei emandako tratua berri ba al zenuen?

Egun batean norbait entzun nuen, oihuka: "Ez dago barkamenik", "utz nazazue bakean, uzteko bakean", "badakit jipoitu egingo nauzuela, eta gero, kristo gutzia bezala, dena esatera"... Ez dakit nor zen, ez nuen ahotsa ezagutu. Hirugarren egunean norbait hil zela pentsatu nuen: ETak poliziaren bat hil zuela edo guardia zibilei atxiloturen bat hil zitzauela. Hasiera kolpeak-eta entzun ziren. Lasaigarriren bat eman eta isildu egin zen. Gero esnatu, beldurtu eta berriro oihuak, kolpeak eta zalaparta hasi ziren. "Eraman nazazue epailearen aurrera", zioen. Guardia zibil batek erantzun zion: "Zer uste duzu zuk, nahi duzunean joango zarela epailearen aurrera? Behar denean eramango zaitugu".

Zer moduz egin zenien aurre galdeketei?

Barrutik oso lasai nengoen, eta erantzuteko lasai. Galdeketa batean ezin nuen gehiago zutik egon eta erori egingo nintzela esan nien, baina luzamendu ariketa batzuk egiten utziz gero, zutik jarraituko nuela. Luzamendu ariketak egiteko baimena eman zidaten eta galdeketa jarraitu egin zuen. Neure buruaren jabe izan naiz uneoro.

Zeri buruz galdetzen zizuten?

la dena *Egunkaria*-ri buruz. *Egunkaria*-n omen zegoen ETaren ordezkariaren izena ematea nahi zuten. Esan nien nekiena esango niela, ez beraiek entzun nahi zutena: ez zegoela ETaren ordezkariarik, erabakiak geuk hartzen genituela, *Egunkaria* ezker abertzale ingurutik sortu arren, irekia eta zabala zela... Joxemi Zumalabe eta Joseba Jaka aipatu nizkien, eta esan zuten hildakoak bakean uzteko, bizirik zeudenen izenak nahi zituztela.

Epailearen aurrean deklaratzeari uko egin zenion.

Epaileari esan nion ez nuela deklaratu, ez nintzela beraz fidatzen, ez nintzela fidatzen animalia baten moduan eduki ninduen pertsona batez: inkomunitatuta, eskubiderik gabe, oinarritzko eskubideak zapalduta. Ez nuela deklaratu, baldin eta konfiantzako abokatua ez banuen. Esan zidan berak egin zuena zuzenbide estatu batean egin zuela, lege edo bide

demokratiko batzuk erabiliz. Nik erantzun nion ez zegoela eskubiderik guri egin ziguna egiteko.

Kartzelaldian euskara, alemana erakusten... aritu zara.

Euskaldun jator bati, Sendoa Gonzalez, euskara erakusten jardun nuen. Euskaraz mingaina askatzea behar zuen. Alemana ikasi nahi zutenak ere baziren eta haien irakasle hasi nintzen. Bizpahiru eguneko kontua izan zen.

Zer iritzi duzu operazioaz?

Operazio honek argi erakusten du haientzat euskal komunikabide bat kaltegarria dela, herri bat bere diferentziarako eskubidea sustatu eta sendotzen ari delako. Euskararen inguruan zutabe sendo eta finkoa dago, eta sendotzen den neurrian, Espainiako proiektuarentzat kaltegarria da. Operazioa politikoa da.

Kanpoko erreakzioen eta mugimenduen berri nola jakin zenuen kartzelan?

Espetxean irratian eta telebistan entzundako zertxobait jakin genuen. Espetxean euskaldunak zeuden eta guk baino zerbait gehiago zekiten, batek Euskadi Irratia entzutea lortzen baitzuen noizik behin. Prentsa iristen ere hasi zen; hiru edo lau eguneko atzerapenez iristen zitzaigun *Egunero* edo *Gara*.

Egunero jaso eta zer sentitu zenuen?

Poz handia. "Bere txikian errealitate sendoa zen proiektua aurrera doa, eta sendotu dute han daudenek", pentsatu nuen. Aspaldi jende asko bildu zen proiektuaren inguruan, baina orain gehiago.

Egunkaria-ren alde hainbeste jende mugitu izana nola hartu duzue?

Poz handiz. Epailaren aurrean Joxe Mari Elosua abokatua entzun nuenean Joan Mari Torrealdairen eta bion aldeko defentsa egiten, emozionatu egin nintzen. Gure alde ari zen, pertsona onak ginelakoan, ez gaizkileak eta ez dakit zer. Gero, kalean horrenbeste pertsona gure alde, *Egunkaria*-ren alde agertzea, izugarria da.

Madriletik euskararen kontra jo dutelako izan al da horrelako erreakzioa?

Hori garrantzitsua izan da. Zorionez, bazegoen *Egunkaria*-ren inguruan irakurlego sendoa, eta sendotzen joan dena: talde handia lanean, inplikazio handia... Euskarari eta herri honi begira *Egunkaria*-k pisua handia du. Pisua esan nahi dut: eragina, trinkotzen laguntzen duena hizkuntza, eta herri mailako, nazio mailako kontzientzia horri eutsi eta zabaltzen duena. Horrek bere erantzuna izan du. Atzean pertsonak daude: kazetariak, argazkilariak eta gu. Torrealdai bezalako pertsona bat egotea, euskal kulturaren erreferentzia dena; Martxelo Otamendi, ez da edonor; Pello Zubiria, *Argia*-ri lotua urteetan; ni beste esparru batzuetan ezaguna, irratia dela eta. Horrek ere zenbaiti eman dio zer pentsatua esateko: "Hauek ere harrapatzen badituzte, gauza badira... inkomunikatuta badituzte, gauza onik ez".

Nolakoak izan beharko luke euskarazko egunkari berriak?

Dagoen errealitatetik abiatu beharko da, talde profesionala dago, egunkaria egiten dakiela erakutsi duena. Hobetzea beti posible da, are dirua badago. Gauzak ere hobeto egin daitezke: aniztasunean, euskara hobetzeko orduan, zuzentzeko pertsona gehiago... Eta horren itzaropena badut, gaitasuna duen jendea badago. Betiere instituzioak, Eusko Jaurlaritza egunkariaren jabe izan gabe; bestela, kaltegarria litzateke.

Egunkari berrian zerbait aportatzeko asmorik edo gogorik ba al duzu?

Ni prest. Kartzelaldi eta inkomunikazioaldiak ez dit gogorik kendu; alderantziz. Beti izango naute gertu nire txikian ahal dudana emateko edo laguntzeko. ◀

Euzkitze, Amagoia eta Azpillaga mahaian

Iban Arregi (kazetaria; 2003-maiatza, Uztarría aldizkariaren 40. zenbakia)

Kostatutakoa izan da, baina azkenean mahai baten bueltan bildu ahal izan ditu Uztarríak hiru lagunak, Zarautzen, ia-ia beste modurik ez zegoelako. “Ez dela giro”, dio Amagoia Iban *Egunkaria*-ko kazetariak. Udalbiltzaren kontrako operazioaren berri izan berri dute, eta kafesne banari zurrupada emanez hasi dira euskal prentsez hizketan, patxadan, batere presarik gabe; Zarautzen. Azpeitian jaiok dira Xabier Euzkitze eta Patxi Azpillaga, eta Matxinbentan Amagoia Iban. Hirurak, baina, Azpeititik kanpo bizi dira: Zarautzen Euzkitze eta Gurrutxaga, eta Bilbon Azpillaga. Hala, Zarauzko Musika Plazan bildu genituen hirurak. Komunikabideetan eskarmentu handikoak dira Euzkitze (ETBn) eta Gurrutxaga (*Egunkaria*-n), eta aditua Azpillaga (EHUko irakaslea da eta Kazetaritzan klaseak ematen ditu; hainbat lan egin du komunikabideez). Mahainguru mamitsua izan zen.

Bi hilabete badira *Egunkaria* itxi zutela. Zer balorazio egiten duzue bi hilabeteoz? Erasoaren tamaina, erantzunaren tamaina...

Xabier Euzkitze. Erasoaren tamaina ikaragarria izan zen. Beharbada gauzak ondoren aztertzen hasita erraza da esatea “ikusten zen bazetorrela...”, baina nik uste dut inork ez zuela pentsatu ere egingo horretara ailegatuko zenik. Eta hori aurretik bazeudela aurrekariak: *Egin*-ena hor zegoen, hura ere oso asaldagarria eta beldurgarria izan zena, baina ez dut uste hura hain harrigarria izan zenik. Ondoren eman ziren zenbait pauso ere badaude, kontuan hartu beharrekoak: AEKren kontrako operazio guztia, Elkarlanean-en kontra izan dena... Orduan, ikusten da haiek gauzak asko sinplifikatzen dituztela, eta denok pakete berean sartzen gaituztela. Beraien etiketak jarriko dituzte igual, hau halako eta bestea halako, baina oso garbi dute denok zein paketetan goazen. Orduan, pakete hori dena da beraientzako oso molestoa eta desatsegina, eta ahal dela neurri legalen eta ez legalen bidez indargabetu egin nahi dute. Beraiek oso garbi dituzte gauzak, baina neuri hain kalkulazina egiten zitzaidan gertatu dena, operazio hau egin zitekeenik ez zitzaidan burutik pasatu ere egiten, eta benetan txoke ikaragarria izan zen. Gero, erasoaren tamaina hain handia izanda, erantzuna ere halakoxea eskatzen zuen. Pentsatzen dut lehenengo momentutik zegoen indignazioa, amorrazioa eta ulertu ezin hori oso garbi azaldu zela, eta eman den erantzuna momentuak eskatzen zuenaren arabera izan dela.

Patxi Azpillaga. Esaten denean ikusten zela bazetorrela, nik ez nuen ikusten. Gertatu zenean benetan harrিতa eta kezkatuta geratu nintzen. Dena biltzearen politika horrekin, Batasuna ETArekin lotzen duen politika horrekin, instituzioen ingurutik aldentuta dabilen

guztia da kontrakoa; eta dena ETArekin biltzen duen politika horrekin, *Egunkaria* bera itxeraino ailegatu den politika horrekin instituzionala ez den edozeren kontra jo dezakete.

Xabier Euzkitze. Dena dela, nik uste instituzional hori ere bereiztu egin behar dela. Beraien kontroletik aparte dauden instituzioak ere ez dira haientzat oso instituzional. Ni berez komunikabide instituzional bateko langilea naiz. Hala eta guztiz ere, ez dut uste haiek bereizketa hori oso garbi egiten dutenik. Esate baterako, Gil Roblesekin egin zuen bere txosten famatu hartan *Sorginen Laratza* gurutze handi batekin markatuta zetorren, eta berak esaten zuen saio hartan “terrorismoaren apologia” egiten dela; eta hori, ni izanda saio horren aurkezlea, eta indarkeriarekin markatu izan ditudan distantziak markatuta. Guk karikatuz egiten ditugu Espainiako erregea, Miguel Sanz Nafarroako presidentea eta haiek hartzen dituzten zenbait erabaki, eta saiatzen gara berez nahiko karga dramatikoak duten gaiei beste punta bat bilatzen, beste ertz bat bilatzen, eta pertsonaia horiei ere daukaten ertzik zulakorrena bilatzen. Eta haientzat horrek esan nahi du gu ere talde horretan sartuta gaudela. Eta zeinek esan behar zuen ETBko langileen artean, eta langileen batzordeetan ere kezka horrek egon behar zuenik, “hemen hurrena gu izango gara” esanez. Eta nik kezka hori sumatu dut. Orain dela bi urte zeinek esango zuen hori?

Amagoia Iban. Nik uste, hain zuzen, *Egunkaria*-ren aurkako operazioaren helburuetako bat hori zela: ‘*aviso a navegantes*’. Ez dago zentsura okerragorik norberak beldurratik bere buruari ezartzen diona baino. Eta hori da niretzat gakoetako bat. Erasoa ikaragarria izan dela diozuenean, erabat ados, baina ikaragarria hitzaren bi zentzuetan: hau da, handia, eta ikara ere sortzen duena. Hala, erantzuna ere bi mailatan sumatu da: handia izan da, baina ikara ere sortu du *Egunkaria*-renak. Bi hilabete hauetan eman den erantzuna polita izan da, baina aurrera begira, pertsona bezala eta gizarte bezala, aurrera heldutasuna zerak emango digu: paralizantea zaigun beldurra gainditzen eta kontrolatzen ikastea, pertsona bezala eta gizarte bezala hazten segitzeko. Hori da aurrera begira dugun erronka, ikaragari horrek ez izatea beldurraren zentzua, eta beldurrak ez lortzea gu kontrolatzea

Autozentsura aipatu du Amagoiak. Orain dela 13 urte bezala, zenbaitek *Egunkaria*-ren zabaltasunaren inguruko eztabaida jarri dute mahaiaren gainean. Zuek nola bizi izan duzue eztabaida hori, eta zer iritzi duzue?

Xabier Euzkitze. Momentu delikatu honek baldintzatzen du hori. Lehen aldiz hori aipatu zutenek aipatu zutenean, egin izan zitzaizen kritiketako bat hori izan zen: orain daukaguna defenditzeko garaia da eta ez kolokan jartzekoa. Orduan, momentuaren egokitasuna zalan-tzan jar daiteke, baina nik uste dut, funtsean, eztabaida interesgarria eta eman beharrekoa dela. Horrek zer esan nahi du? Zabaltasuna zenbaitek honela ulertzen du: “*Egunkaria*-k Jaurilaritzatik diru bat jasotzen badu, Jaurilaritzak haren gaineko nolabaiteko kontrola izan beharko du, ezta?”. Eta nik uste dut horri ihes egiten saiatzea interesgarria dela. Ni aniztasunaren aldekoa naiz erabat, eta uste dut lehen *Egunkaria*-k lortu duen zabaltasuna baino handiagoa lor daitekeela, eta interesgarria litzatekeela gainera, baina ez dute uste horrek kontrol tresna zorrotzagoak ekarri beharko lituzkeenik. Benetan garrantzitsuena barruan daudenen espiritua zabala izatea litzateke, eta aniztasunaren bila hortik saiatzea.

Patxi Azpillaga. Hor bi gauza daude. Batetik, egin behar den eztabaida: zenbat euska-

razko egunkarirentzat dago lekua, Euskal Herrian dugun merkatuarekin? Eta kontua bada batentzat bakarrik dagoela lekua, lortu behar dena da, eta ez bakarrik merkatu arrazoiengatik, baizik eta egunkari batek betetzen duen komunikazio funtzioagatik, zabala, oso zabala izan behar lukeela. Alde horretatik, eztabaida hori etengabe egin behar da, zabaltasunarena ez delako eztabaida abstrakto bat, etengabe egin beharrekoa baizik. Baina momentu honetan irten den bezala eztabaida, ia-ia *Egunkaria* ixtea justifikatzen duen argumentuak erabiliz... –“ikusten? Nahikoa zabala ez zenez, itxi egin dute, eta orain berria egin beharko dugunez, egin dezagun zabalago bat”–. Ez dut esan nahi itxiera justifikatu egiten denik, argumentuak halakoxeak izan direla baizik. Eta hori da ez zaidana egokia iruditzen. Kontuan hartuta egindako ibilbide guztia, hainbat urtetan finkatzen joan den egunkari bat, nire ustez kontua egindakoa babestea zen eta berriro zabaltzea, eta ondoren egingo dugu zabaltasunaren gaineko eztabaida, etengabe gainera.

Amagoia Iban. Ni erabat ados nago Patxirekin. Gainera, 13 urte hauetan etengabekoa izan da eztabaida hori *Egunkaria*-n. Eta izan da autokritikarik ere. Kezka hori beti izan da barruan, eta orain ematen du sekula ez dugula horretaz eztabaida. Gakoa *Euskaldunon Egunkaria*-ren 11 puntuetan dago. *Egunkaria*-k euskaldunen komunikateari erantzun behar dio, eta komunitate horretan oso kolore desberdinak daude, sentsibilitate asko. Zabaltasuna, hain justu, euskalgintzako arlo desberdinek plaza izatea da. Eztabaida artifiziala planteatu dute orain.

Patxi Azpillaga. Artifiziala edo bere onetik ateratakoa. Miren Azkaratek *Errautsak zimentari* artikuluan esandakoak, esaterako. Nik ez dakit nola esan. Bai, aprobeitza dezagun lehengo baina hobea egiteko, ados, baina ez gaitetzen hasi baldintzak jartzen hasi baino lehen. Kontua da lehen genuena eta ondo egituratzen ari zena babestea, eta gero eztabaida dezagun. Eta *Egunkaria*-k horretan beti jokatu izan du nahiko zintzo.

Xabier Euzkitze. Nik ere *Egunkaria* barrutik ezagutu izan dut neurri batean, igandeetako azken orrialdeko *Kate motzean* nik jarri nuelako martxan, eta *Seiko urrea*-n ere aritu nintzelako zutabegile. Eta ez dut sekula-sekula inolako oharpenik jaso egin ditudan komentarioei buruz, edota kate motzerako aukeratzen nituen pertsonaien egokitasunari buruz... Nik idazten nituenak zenbaiten gustuko ez izanagatik, inolako oztopo txikiarik ez dut sekula izan esan nahi izan dudana esateko eta aukeratu nahi izan dudana aukeratzeko.

Euzkitzek esan du instituzioen kontrola ez duela areagotu behar zabaltasunaren gaineko eztabaidak. Zer egiteko bete behar dute instituzioek eta, zehazki, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak prozesu honetan?

Amagoia Iban. Hasteko, argi eta garbi esan behar da gu ez garela egunkari publiko bat, baina zerbitzu sozial bat ematen dugula. Nahiz eta pribatua izan, funtzio publikoa betetzen dugu, hori hasteko. Hortik abiatuta, guk ere nahiko genuke diru laguntza beharrik ez izatea, baina tamalez beharrezkoa da, eta instituzioek lagundu egin behar dute halako egunkari bat. Gero, helburua autosufizientzia da, eta bide horretatik zihoan *Egunkaria*. Hau da, ez da kasualitatea *Egunkaria* orain itxi izana, urterik politena ixtera zihoalako: ekonomikoki begiratuta batetik, kultur parkea inauguratuta, proiektu berriak martxan...

Xabier Euzkitze. Oso kontuz aztertu beharreko kontua da diruz laguntzen duten erakun-

deek zer funtzio bete behar duten, zenbaterainoko kontrola eta zer eratakoa izan behar duten... Eztabaida hori mila aldiz sortu izan da gure artean; esaterako, gaztetxean kasuan, edo beste mila arlotan. Eta hori bai, gero eta autosufizienteagoa, orduan eta hobeto.

Patxi Azpillaga. Ados, baina eztabaida hau ezin da airearen gainean egin. Kontuan hartu behar da 13 urteko ibilbidea egin duela *Egunkaria*-k, eta ezin da eztabaida bat abiatu 13 urte horiek existitu ez balira bezala. Orain, azken urteotan *Egunkaria*-rik egon izan ez balitz, eta egunkari berri bat egitea erabaki izan balitz, orduan zilegi litzateke duela 13 urteko eztabaida abian jartzea, zentzua izango luke horrek. Baina kontua da ibilbide bat izan duela *Egunkaria*-k, eta talde horrek erakutsi du taxuzko komunikabide on bat egiteko ahalmena duela, eta denbora horretan guztian giza kapitala bildu du, egite jakite bat osatu du, azpiegitura teknikoa osatu du... Hau da, gauza asko bildu ditu *Egunkaria*-k, eta orain, prozesu judizial bat eman dela aprobetxatuta hori dena eztabaidan jartzea zentzugabea iruditzen zait niri. Kontua da badugula azpiegitura hori guztia, eta hori ezin da zaborrera bota. *Egunkaria* hor zegoen, eta *Egunkaria* hori berreskuratu behar dugu. Eta gero hori hobetu egin behar dugula, zabaldu egin behar dugula? Ados, baina *Egunkaria*-k betetzen zituen gaur egun euskarazko egunkari batek bete behar dituen funtzioak. Eta egunkari horrek egin zuen lana eta betetzen zuen funtzioa ikusita, babes publikoa merezi zuen, dudarik gabe. la mundu guztiak onartzen zuen diru laguntza publikoak justifikatuta zeudela. Eta are babes publiko handiagoa ere behar zuela esango nuke nik. Eta hor bada aipatu ez den beste kontu bat: 13 urte horietan *Egunkaria*-ko langileek oso baldintza txarretan egin dute lan, oso oso baldintza txarretan beste komunikabideekin alderatuta. Eta hori ere aitortu egin behar da. Hainbat urtetan erabat modu militantean jardun du lanean jendeak, eta oraindik ere jarduten zuen. Gogoan dut Joxerra Garziak gai horren inguruan argitaratu zuen artikulu pare, berriz ere kazetari militantearen figura aldarrikatuz. Kazetari profesionalaren aurrean, kazetari militantea gutxietsia geratu da azkeneko urteotan, baina ez da gutxietsi behar, baloratu egin behar da, eta une hauetan euskarazko egunkari batek hori ere eskatzen du, kazetari militantea. Alde horretatik, beraz, zeukana baino babes publiko handiagoa ere beharko luke euskarazko egunkari berriak, betetzen duen funtzioa ikusita, eta ikusita langileek zer baldintzatan lan egin izan zuten.

Xabier Euzkitze. 13 urte denbora asko da, eta, gainera, oso ondo aprobetxatutako 13 urte izan direla iruditzen zait niri; nik inpresio hori daukat irakurle moduan. Hori eztabaidan jar ez daitekeen gauza da, 13 urtean aurrerapauso handiak eman direlako. Duela 14 urte ez zegoen argi egunkari bakarria ala bi izango ziren, eta orain, 13 urte pasatutakoan, eztabaida hori bertan behera geratu da. Argi dago egunkari bat behar dugula, eta ahalik eta jende gehienak beretzat hartuko duena.

Patxi Azpillaga. Baina hori egina zegoen, eta orain eztabaida hori zentzugabea da.

Amagoia Iban. Orain arte *Egunkaria* itxi dutenetik eman diren irizietatik inork ez ditu zalantzan jarri *Egunkaria*-ren 11 puntuak, eta hori abiapuntu ona da.

Patxi Azpillaga. Baina ez 11 puntuak bakarrik, baita horren gainean eginiko ibilbidea, bildutako jendea, landutako azpiegitura dena ere. Hainbesteko bidea egin da, hori aitortu egin behar dela.

Xabier Euzkitze. Nik uste hor badela oreka bat. Batetik, ezer egin ez balitz bezala hutsetik abiatzea planteatzen duenak erabat gutxietsi egiten du orain arte egin den lana, meritu handiko lana dena, gainera. Neuk baino askoz baldintza txarragoetan lana egin duen jendea dago, eta proiektu horretan erabat sinetsita, gainera, proiektuan fede handia jarri duen jendearen lana izan delako. Bestetik, oinarri hori aitortuta eta errekonozituta, eta horren balioa inoiz zalantzan jarri gabe, hortik aurrera egin beharko litzateke. Eztabaidari ateak ixtea inoiz ez da ona, baina horrek ez du esan nahi hutsetik hasi behar denik.

Langileek iragarri dute egunkari berria laster izango dela kalean, eta badirudi hala izango dela. Baina nahikoa al da horrekin? Edo beste zerbait behar da halakorik berriro ez gertatzeko? Nola berma daiteke hori?

Amagoia Iban. Hor badago askotan aipatu izan den euskal komunikazio eremua, baina hori ez da defentsa neurri bat, hori sortu eta eraiki egin behar den zerbait da.

Xabier Euzkitze. Ikara hori hor dago, eta ezin da bermatu. Bihar martxan jarrita, zeinek esan dezake hilabete barru ez dutenik berriro itxiko?

Amagoia Iban. Eta bi urte barru, okerragoa dena.

Baina ezin al da ezer egin komunikabideen arloan, kazetarien arloan, euskal herritar moduan, halakoak egitea hain erraz ez izateko Espainiak?

Patxi Azpillaga. Instituzioen erantzukizuna da horrelakorik gerta ez dadin neurri batzuk ezartzea. *Egin* itxi zuten eta *Gara* zabaldu zuten; orain *Egunkaria* itxi dute eta beste bat zabalduko dute. Baina horrela ibili behar al dugu beti? Hori ez da modua, eta hori ez denez modua, instituzioek beste jarrera bat hartu behar dute, babesleagoa, Espainiako Estatuari berari esanez eta finkatuz mugak non dauden. Jaurlaritzak-eta argi erakutsi behar dute gauza batzuk ezin direla egin, instituzioek beraiek eta gizarteak ez dituztela gauza horiek onartzen. Bestela, gizarte mailan ezin da erantzun den moduan baino gogorrago erantzun. Instituzio mailan kokatu behar da erantzuna.

Xabier Euzkitze. Erantzuna oso indartsua izan da, erantzuna oso kolpekoa izan da, eta Donostiako manifestazioa ere benetan ikaragarria eta zirraragarria izan zen. Gainera, zabal-tasun handia ikusi zen manifestazio hartan, eta indignazioa eta amorrazioa erakusteko balio izan zuen. Hortik aurrera askoz maila sakonagoan hitz egin behar da. Apustuak ez dira maila legalean bukatu, eta batzar nagusietan eta udaletan mila aldiz galdetu diote EAJri eta EAri ea *Egunero* laguntzen segitu behar duten eta abar. Beraz, alde horretatik instituzioek eman duten erantzuna ere nahikoa tinkoa eta ona izan dela iruditzen zait niri, publizitatea sartzeari ere ez diotelako utzi *Egunero*-n.

Patxi Azpillaga. Baina kontua ez da bakarrik publizitateari eta halakoei eustea. Nire ustez, adierazpen nabarmenagoa egin behar zuten instituzioek, esanez honaino ailegatu gara, hemendik aurrera instituzio honek ez du horrelakorik gehiago onartuko. Hor gogorrago jokatu behar zuten instituzioek.

Euskal komunikazio eremua aipatu du lehen Amagoiak. Zenbaitek komentatu izan du egoera honetan inoiz baino beharrezkoagoa dela gure komunikabide propioak sortzea, euskal prentsa bultzatzea, elkarren arteko harremanak sendotzea, sarea osatzea. Egin beharreko lan handia al dago hor oraindik?

Patxi Azpillaga. Euskal komunikazio eremuak alderdi asko dauzka: hartzaila partetik, eskaintza aldetik, instituzionalizazio eta legedi aldetik, merkatu aldetik... begira daiteke. Eta hori dena egituratzea ez da lan erraza, eta urte askotako lana beharko da. Baina hemen gero eta gehiago ikusten ari dena da badagoela Euskal Herrian komunikabideen kontsumo berezko bat, ari dela egituratzen eskaintza propio bat, eta hortik modu batean edo beste-an eskaintzen den komunikazioa propioa dela. Eta horrek islatzen duena da badela Euskal Herrian iritzi publiko desberdina, Espainiakoaren desberdina dena. Dena dela, horrek badi-tu desoreka garrantzitsuak, batik bat bi: prentsan, batetik, Correo Taldea nagusi delako gurean; eta euskaran, bestetik, euskarak oso presentzia txikia duelako komunikabide ida-tzietan. Hori kontuan hartuta, bestelako egitura batzuk sortu beharko lirатеkeela? Komunikabide desberdinen arteko sinergiak bilatu beharko lirатеkeela, horrela hobeto eran-tzun ahal izateko hor dauden desorekei? Nik uste zentzuzkoa dela hori.

Amagoia Iban. Gaur egungo gure gizartea informazioaren gizartea dela esaten dugu, eta kontua da hemen jasotzen dugun informazio gehientsuena ez dagoela pentsatuta euskal-dunen komunitatetik euskaldunen komunitateari erantzuteko. Kontsumitzen dugun gehiena ez, behintzat. Eta horrek baldintzatu egiten du iritzi publikoa. Nik euskal komunikazio ere-mua honela ulertzen dut: euskaldunek elkarren berri izateko informazio sare bat, espaino-lek, frantsesek eta portugesez duten moduan, herri normalizatuek duten moduan. Baina hemen gertatzen dena da guk besteena kontsumitzen dugula.

Kontsumoaz ari garela, zergatik erosten da Azpeitia bezalako herri euskaldun eta abertzale batean hainbeste *El Diario Vasco*? Zer egin dugu 'gaizki'?

Xabier Euzkitze. Jon Sarasuak Azpeitiko Kiroldegian bota zuen duela urte mordoska bat: "Zuen artean zer gertatzen den mila aldiz dut ikusi, *Egunkaria* txalotu eta *El Diario Vasco* erosi". Eta hala da hori. Nik neuk ere *Egunkaria*-rekin bakarrik ez nuen nahikoa. Nire lana-ren ardatzetako bat kirola eta pilota da, eta alde horretatik, *Egunkaria*-k bazuen pausoak eman beharra. *Egunkaria*-k ez zuen pilotari buruzko primiziarik ia sekula jaso –*Egunkaria*-ren beraren gabeziaren bat egon daiteke tartean, baina, batik bat, pilotako enpresek Correo Taldeko kazetariekin askoz lotura handiagoa dutelako, interes zehatz batzuk dituz-telako—. Dena dela, arrazoi bategatik edo besteagatik *Egunero*-z gain *El Diario Vasco* eros-tera behartuta sentitzen banaiz, gutxienez *El Diario Vasco* ezkutuan eramaten dut etxera. Eta gero ikusten dut zenbait gauzatan ni baino sartuago dagoen jendea inolako konplexu-rik gabe *El Diario Vasco*-rekin bakarrik, lasai asko. Niretzat txoke handi samarra da hori. Zergatik dagoen hainbesteko desoreka euskaldun konprometituen eta euskarazko egun-kariaren erosleen artean? Ez daukat nik oso garbi.

Amagoia Iban. Jendeak jardun izan du esaten ohituragatik dela, baina duela gutxi Xipri Arbelbide kazetariak oso artikulu adierazgarria idatzi zuen. Esaten zuen Espainiako trantsi-zioa eta gero Correo Taldeko egunkariak hainbeste saltzen zutela, eta ondoren beste egun-kari batzuk ere sortu ziren, Correo Taldearen monopolioa hausten zutena. Baina orain askoz ere gehiago saltzen dute *El Diario Vasco*-k-eta.

Patxi Azpillaga. Nik ere irakurri nuen hori. Garai hartan *El Diario Vasco*-k 50.000 ale ingu-ru saltzen zituen eta orain 90.000 inguru saltzen ditu. Eta *Deia* batek, esaterako, orduko

erdia ere ez du saltzen. Ohitura kontua? Nik ez dakit, baina urte horietan Correo Taldeak asko handitu du bere difusioa eta prentsa abertzaleak behera egin du nabarmen.

Horrek ba al dauka eraginik euskal komunitatean? Zenbaiten ustez, ez.

Xabier Euzkitze. Hauteskunde emaitzetan ez da nabaritzen, behintzat.

Patxi Azpillaga. Zer esango dizut ba... Hor badago tesi bat esaten duena kontsumo mediatikoak ez duela eraginik norberaren aukera politikoan. Baina prozesu mediatikoak eta kulturalak oso epe luzekoak izaten dira askotan. Gero gertatzen dena da *El Diario Vasco*-ren hemengo irakurleak ETB ikusten duela eta Radio Euskadi entzun. Hau da, ez duela ildo bateko komunikabide bakarra kontsumitzen, kontrastatu egiten duelako beste komunikabideekin. Eta, bestalde, oso garrantzitsua da jasotzen den informazioaren kontrastea egiten dela lagunartean, bizitza sozialean, eta horrek beti balio izaten du.

Eta zertan eragiten du orduan?

Amagoia Iban. Erreferentzialtasunean ikaragarri eragiten du. Esaterako, hemen gehien kontsumitzen diren komunikabideetan euskarazko literaturak duen presentzia oso txikia da, oso txikia. Bernardo Atxaga, Anjel Lertxundi eta Ramon Saizarbitoria, eta hortik aparte zero. Azpeitian *El Diario Vasco* asko irakurtzen da, baina Azpeitiko ez dakit zenbat jendeak dakien, esate baterako, egundoko idazle bat badugula Azpeitian: Jose Luis Otamendi. Azpeitiar gehienek ez zuten sekula haren ezer irakurriko, eta zer liburu idatzi dituen ere ez dute jakingo. Baina hori bai, gero Gunter Grassek edota Muñoz Molinak argitaratutako azkeneko liburuaren titulua jakingo dute, baina Otamendik argitaratutako azkeneko liburuaren titulua ez. Eta hori, askotan enteratu ere ez direlako egiten gertatzen da, *El Diario Vasco*-n azaldu ere ez delako egiten. Ezagutzen ez duzuna ezin da maite.

Patxi Azpillaga. Hori da. Gaiak-eta zeinek ezartzen ditu? Jendeak ahoz aho erabiltzen dituen gaiak zeinek markatzen ditu? Komunikabideek. Eta *El Diario Vasco*-k markatzen ditu, berak ezartzen ditu erreferentziak. Eta horrek euskal kultura osoan dauka eragina.

Amagoia Iban. Hori egunorokoan ikusten da, gainera. "Gobernu zentrala" deitzen dio komunikabide batek Espainiako Gobernuari, baina nire 'gobernu zentrala' nola izango da ba Madrilgoa? Erreferentzialtasun guztiak beraiek ezartzen dizkigute, eta azkenean, hamai-kagarrenean zure 'gobernu zentrala' Madril izango da.

Xabier Euzkitze. Nik dudarik ez daukat komunikabideek badutela beren eragina, baita politikoki ere. Zorionez, hemen gure gatazka, gure miseriak, gure gora-beherak ezagutu egiten ditugu, eta badugu kontrastatzeko aukera ere. Zer gertatzen da Burgosen, zer gertatzen da Sevillan, zer gertatzen da Madrilan? Hemen gertatzen denari buruzko ikuspegi desberdina edukitzeko, zu zeu joan behar zara propio informazio horren bila, eta horren bila joaten direnak oso gutxi dira. Hemen ere eragiten du, baina beste leku batzuetan baino gutxiago. Gezurra mila aldiz errepikatzearen bidez, gainera, egiaren zantzuak hartzen ditu, eta hori gertatzen da Espainiako leku gehienetan.

Patxi Azpillaga. Kontuan hartu behar da, bestalde, prentsa oso merkatu berezia dela, ez dela irratia eta telebista bezala. Egunkari asko dauden tokietan egunkari batek edo batzuek bereganatzen dute merkatuaren parterik handiena, badago horretarako joera bat. Zaila da oso merkatu txikiak aurkitzea, non eskaintza desberdinak dauden eta parekoak diren.

Normalena da egunkarietako bat bihurtzea nagusi eta besteak bigarren mailan geratzea, eta hori nahiko ohikoa da. Hemen, gainera, enpresa bat sekulako baliabideekin dago, eta horrek aukera ematen dio oso eskaintza indartsua egiteko.

Eta horri nola egin aurre? Nola eman dakioko buelta merkatu egoera horri?

Patxi Azpillaga. Horixe da galdera. Nola egin aurre? Pareko eskaintza batekin? Ez duzu halako baliabide ekonomikorik, ez duzu halako sarrerik informazio bat jasotzeko, eta beti bigarren maila batean zaude. Eta berriro bueltatzen gara lehengo gaira. Europako hainbat lurraldetan babes sistemak daude prentsarentzat. Hau da, jakinda hori gertatzen dela, jakinda badela monopoliorako joera bat, lurralde gehienetan prentsa aniztasuna sustatzeko eta bultzatzeko babes neurriak daude: diru laguntzak (automatikoak, hainbat kostu murrizteko; gutxiago saltzen duzulako ematen direnak...)... Beraz, Europako lurralde ia gehienetan ematen zaio babes publikoa prentsari, prentsaren munduan aniztasun minimo bat babesteko. Kontua, beraz, ez da hainbeste prentsa abertzalea txarra dela. Izan ditu igual bere akatsak, prentsa abertzalea (*Egin, Deia, Gara*) markatuegia egon delako ideologikoki, eta horrek zabaltzeko aukerak murriztu dizkiolako. Baina, batik bat, merkatu egitura dago hor, merkatua horrelakoa da. Horregatik, gauzak horrela dira, eta ulertu ere egin behar da jendeak prentsa espainola erostea.

Xabier Euzkitze. Gainera, behin hizki mota batera ohitzen garenean, kolore batera ohitzen garenean, zaila da gure ohiturak aldatzea, eta hori bihurtzen da gure erreferentzia nagusia.

Amagoia Iban. Horretan herri aldizkariak egiteko garrantzitsua bete dute eta betetzen dute, herritarrak euskarazko prentsara erakarri dituztelako.

Patxi Azpillaga. Egia da hori, azken urteotan lan handia egin dute. Baina hori bai, aldizkariak ere badute aurrera egiteko garaia, urteotan metatu denari oraindik etekin handiagoa ateratzeko. Herri aldizkariak lortu dute presentzia eta errekonozimentua, eta orain bada aurrera egiteko momentua, eta aukera ona dago, gainera. ◀

Azpeitiarrak, “GAL mediatikoa” eta beste

Uztarría Kultur Koordinadora (2003-ekaina, Uztarría aldizkariaren 41. zenbakia)

Abertzale batek ez, baizik eta espainiar-zale batek bota zuen galdera ABC-ren orrialdeetan: “Euskal herritarrak –botoemaile abertzaleak barne– prentsaren kontsumitzaile handiak dira, baina zergatik egiten dute paso *Deia*-tik edo *Gara*-tik, beste egunkari batzuk erosteko?”. Eta zioen erantzuna “nabarmenegia” dela eta ez zuela idatziko artikuluan. Hain garbi al dago erantzuna? Azpeitian %90 abertzalea da, baina Espainiako Konstituzioaren aldeko prentsa da nagusi: *El Diario Vasco*. Zeinek dauka erantzuna? Azkeneko urteetan –batik bat, Lizarra-Garazi abian jarri zenetik– EAJ deseroso jartzen ari da zenbait egunkari ez-abertzalerekin, eta orain dela aste batzuk, ABC-ren ‘informazio’ baten ostean, Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariak berak “GAL mediatikoa” dagoela esan zuen.

► **Joseba Egibar eta 'iturriak'**. Maiatzean izan diren udal hauteskundeetan Lizartzan EAJren alkategai zen Joseba Egibar, bera andoaindarra izan eta Donostian bizi arren, eta azalpenak ematera joan zen lizartzarren aurrera, hauen kexengatik. Lizartzar batek DV-ko zerbait irakurri zion, eta hona Egibarren erantzuna: "Harritzen nauena da jendeak hainbeste DV irakurtzea, baina lehenengo eta behin esan behar dudana da nik ez erosi eta ez irakurri egiten dudala, eta nik DV-ri azkeneko lau urte eta erdiotan ez diot inolako adierazpenik egin, ez elkarrizketarik, ez zeharkako adierazpenik, hala erabakita dudalako". Eta ironiaz bukatu zuen azalpena: "Gero [DV-ren artikuluetan] 'fuentes' aipatzen da eta herri honetan dagoen gizonik garrantzitsuena señor 'Fuentes' da; 'Fuentes'-ek esaten ditu eta egiten ditu gauza guztiak". Eta 'Fuentes'-ek eragina du, baita gero boto abertzalea ematen bada ere. Azpeitian, esaterako. Baina Egibar gutxi izan gurean!; listinean, bost baino ez.

► **'DV': sorrera eta 1978. urtea.** Espainiako bigarren Errepublikako garaian hasi zen *El Diario Vasco* argitaratzen, Donostian. 1934a zen, eta Joxean Elozegi historiagilearen artikulua batean aipatzen den bezala, "Madrilgo agintari eskuindarrek, bihurritzen hasia zen euskal lurraldeko bihotzean" sortu zuten DV, "Espainia handia, bakarra eta santua zazpi zeruetara goitituko zuen matxinada faxista eraginkorra prestatzeko". 1936ko uztailaren 18an, "Gaur da eguna" esanez zabaldu zituen bere orriak. 1978a arte, ordea, ez zen oso egunkari handia izan. *La Voz de España* kazeta zuen lehiakide Gipuzkoan; hain zuzen, *La Voz* zen herrialdeko egunkaririk irakurriena. Baina Espainiako Gobernuari ez zitzaion askorik gustatzen eta oraingotxe sistema bera erabili zuen: Polizia bidali egunkaria ixtera; langileen artean "iraultzaile independentistak" zeudelako. DV-ri mesede ederra egin zion itxiera hark, 30.000 aleko tiradatik 60.000kora pasatu zelako, eta publizitate guztia ere eraman zuen. Azpeitiarrak ere DV-ren erreinuan 'sartu' ziren operazio 'demokratiko' haren ondoren. Alegia, nolabait esanda, zilegitasuna eman ziotela ixteko erabaki hari.

► **'ABC'-ren anaia lehengo urretik.** Correo Taldeko 19 egunkarietako bat da azpeitiarron kazeta –DV, alegia–, eta 2002ko urtarilaren 1etik ABC egunkariaren anaia, Correok eta ABC-ren enpresak bat egin zutelako. Zertarako? Negozioa egiten segitzeko –ABC-rekin Correo Taldeak egunkari nazionala bazuen jada–, "askatasun zibilei lotua, ezinbesteko zerbitzu publikoa" emateko, eta, nola ez, Espainiaren batasuna defenditzeko. Honatx zer zioen bat egitearen berri eman zuten eguneko DV-ren editorialak: "*Todos nuestros medios se han constituido en referencia y soporte del ordenamiento constitucional, en adalides de la conciliación de la gran y rica pluralidad autonómica con la unidad de España y en leales servidores de la Corona, verdadero símbolo y depósito de los valores morales en que se funda nuestra convivencia en paz*". Harrezkero, Correo Prensa Españolak –lehengo astetik, Vocento– 100 milioi euro inguruko irabaziak ditu urtean. Azpeitiarrei esker, besteak beste. Izan ere, azpeitiarrek urtean 470 mila euro ematen dizkiote ABC-ren anaia DV-ri (78 milioi pezeta), egunero *El Diario Vasco*-ren ia 1.400 ale saltzen direlako gure herrian.

► **Intentzionalitatez jokatzu (I).** Egunkari bakoitzak ere gizartearekiko bere ikuspegia du,

zilegi denez. Eta bakoitzak bere erara interpretatzen ditu albisteak eta gertaerak, intentzionalitatez jokatzuz. Batzuek “manipulazioa” ikusten dute hor. Horratx lehen adibidea. Orain dela hiru urte, Xabier Arzalluz EAJko EBBren presidentek ekitaldi publiko batean esan zuen, “1977an Francoren diktaduraren amaieran errepresioa” egon arren, indar politiko abertzaleek gehiengo osoa izan zutela EAEn, “eta inmigratio masiboa egon izan ez balitz nazionalismoaren indarra erabat izango zen nagusi”. *El Correo*-k hurrengo egunean argitaratu zuen Arzalluz etorkinen kontra bezala mintzatu zela ekitaldian, eta, hori argitaratu eta gero, egunkarietan-eta areagotu egin ziren Arzalluzen aurkako isekak. Arzalluzek orduan gutun irekia idatzi zion *El Correo*-ko zuzendariari, Angel Arnedori, bere hitzak “manipulatu” egin zituela esanez, eta gogor egin zion eskutitzaren bukaeran: “Zuk, militar gisa, badakizu zer den indarkeria armatua, denok gaitzesten duguna. Baina egunkariko zuzendari gisa, badirudi ez duzula erreparorik indarkeria mediatikoa erabiltzeko zure arerio politikoaren kontra. Niri eta nire alderdiari, mina ematen digu erasorik gogorrenak *El Correo Español* egunkariaren bidez etortzeak; izan ere, [*El Correo*-ren] lehen inprimaldia, gerra zibilean, EAJri *manu militari* lapurtutako errotatiba eta makinariarekin egin baitzen”.

► **Intentzionalitatez jokatzuz (II).** Orain dela bi urte, 2001eko abuztuaren 20an, leherketa arraro bat gertatu zen Donostian, parte zaharrea. Ume batek eta haren amonak auto-jostailu bat topatu zuten taberna bateko komunean, hartu egin zuten, baina taberna kanpora irten, euren autora sartu, jostailuarekin jolasean hasi eta honek eztanda egin zuen. Ondorioa: amona hil egin zen eta 16 hilabeteko haurrak oso zauri larriak izan zituen (itsu gelditu zen). Segituan hasi ziren zurrumurruak: batzuek ETAREN ekintza izan zitekeela, beste batzuek “kale borrokaren” ekintza zela... Pasatu ziren egunak eta hilabeteak, eta ezker abertzaleko politiko ezagunak hasi ziren esaten “gerra zikina” zela hura; ETAK ez zuen bere egin hilketa eta kale borrokakoen izenean inork ez zuen ezer esan (beti aitortzen dituzte beraiek egindako ekintzak). Urtebetera, DV-k orrialde osoko erreportaia eskaini zion gaiari. Eta artikulua enfokea gertaera kontatzea eta haurraren egoera azaltzea izan zen, hilketa kasualitatez gertatu izan balitz bezala. Ez zegoen ikerketa edo interpretazio berezirik.

► **Prentsaren Auzitegia eskatuz.** Xabier Arzalluzek berriro hautsak harrotu zituen 2001 ean, “komunikabideen gehiegikeriak bukatzeko” Prentsaren Auzitegia sortzea eskatu zuelako. PSOErentzat eskaera “lotsagarria” zen, PPrentzat “planteamendu faxista”. Eta Arzalluzek artikulua idatzi zuen *Deia*-n. “Guido Brunner enbaxadore alemaniarrek auzitegietan erabateko indefentsioa, eta presio eta jazarpen mediatikoa jaso zuen, batez ere Espainiako bi egunkari inmoralek aldetik, gobernu sozialistarekin eta Felipe Gonzalezekin zeukan harreman bikaina zela eta. Aldiz, *Stern*, Alemaniako astekari indartsuak Brunnerri buruz Espainian zer esaten zen jaso zuenean, Brunnerrek *Stern*-en kontra parte sartu zuen Hanburgeko Prentsa Delituen Salan. Salak hilabetera atera zuen epaia eta *Stern* zigortu egin zuen, jendaurrea hanka sartu zuela aitortzeko esanez, isuna ezarri, baita indemnizazioa ere. Auzitegi Gorenak berretsi egin zuen epaia. Niri orain urte batzuk hilketa baten ‘eragilea’

nintzela esan zidaten publikoki, eta behar morala eduki nuen parte sartzeko. Auzitegiak atzera bota zuen kereila, dialektika politikoan gehiegikeriak arraroak ez direla argudiatuz". Egunkarietan abertzaleei buruz gezurrak eta irainak idaztea libre da. Eta guk, erosi eta irakurri.

► **Bake edo "gerra" hedabideak.** Ipar Irlandan, IRAk 1994an su-etena eman baino lehen, gauza bitxi eta interesgarri bat gertatu zen: Ipar Irlandan nagusi diren eta ideologikoki aurrez aurre dauden bi egunkarik editorial bateratua argitaratu zuten egun berean, ados jarrita. *The Irish News* egunkari errepublikarra (144.000 irakurle) eta *News letter* unionista (133.000) dira bi egunkari horiek. Irakurleek ondo hartu zuten ekimena. Bakearen eta demokraziaren aldekoa zen. Badira urte batzuk Ipar Irlandan konponbide demokratikoaren bidean daudela. Euskal Herrian, berriz, egoera dagoen bezala dago. ETAren su-eten garaian izan zen aukerarik pausoak aurrera emateko, baina, Txema Ramirez EHUKo irakasleak orduan Bilboko jardunaldi batzuetan esan zuen bezala, "Euskal Herrian zabaltzen ari den bake prozesuaren aurrean komunikabideak oso jokaera ezkorra izaten ari dira, eta gatazka politikoa bideratu beharrean, oztopo bilakatu dira". Ez zen ari egunkari abertzaleez. Joxe Azurmendi filosofoa ere ildo berean aritu zen su-eten garaian: "Urte bat pasatuta [ETAk su-etena eman zuenetik], denok daukagu kezka handi bat: informazioarena; prentsa, irrati, telebisten manipulazioarena, edo treguarik gabeko gerra mediatiko etengabearena". Izan ere, Espainiaren batasuna "arriskuan" zen eta hori saihestu beharra zuten ABC-k eta.

► **'Egunkaria'-ren itxiera dela eta.** Otsailaren 22an egin zen Euskal Herriko aspaldiko manifestaziorik handienetakoa: Donostian, *Egunkaria*-ren itxiera zela eta. Hurrengo egunean DV-k editorialean esan zuen manifestaziora joan zirenek "jarrera biktimista" zutela. Ikusten da: biktimarena egiten zein eta egunkari baten itxiera salatzen ari zirenak! Halaber, Jaurilaritzari Espainiako Justizierekiko "errespetu" handiagoa izatea eskatzen zion DV-k. Beste bi data. 1: martxoaren 21ean argitaratu zen Euskal Herrian lan egiten duten komunikabideetako langileen *Egunkaria*-rekiko atxikimendu zerrenda, eta DV-tik 16renak baino ez zeuden. 2: maiatzaren 23an, *El Correo*-k bi egunkariaren itxiera salatu zuen editorialean; Marokon izandako itxieraz ari zen, ez *Egin*-ez eta *Egunkaria*-z...

► **Euskara eta 'Diario de Navarra'.** Aurten ari da betetzen bere sorreraren mendeurrena *Diario de Navarra*. Nafarroako egunkari nagusia da, baina ez da egunkaria soilik. 1936an Francoren altxamenduaren aldeko jarrera garbia eduki zuen. Nafarroan bertan milaka herritar xume erail zituzten orduan, eta *Diario de Navarra*-k ez zuen ezer informatzen. Hala iritzi ziolako bertako zuzendariak: Garcilasok... Francoren aldeko politikaria ere bai baitzenaldi berean: Bloque de Derechaseko diputatua. Orain ere oso-oso egunkari eskuindarra eta Espainia-zalea izaten segitzen du *Diario de Navarra*-k. Euskararen kontrako sutsua da. Baina UPNren gobernuak, 2002an *Egunkaria*-ri diru laguntza kendu zion bitartean, bere egunkariari dirua eman zion astean euskarazko orrialde bat egiteagatik, nahiz eta *Diario de Navarra*-k laguntza eskaera epez kanpo egin zuen.

► **'El Correo'-ri boikota eta kontraesanak.** Javier Atutxak 1996an gutun berezi bat bidali zien alderdiko afiliatuei, Bizkaiko EAJren lehendakaria zenean. Eskutitzeko agindua: “*El Correo Español* ez erosi, ez kolaboratu berak antolatutako ekitaldi edo programetan, ez sartu publizitatea, eta mezu hau helarazi gure boto-emaleei, horiek ere horrela joka dezaten”. Bistan da ez ziotela kasu handirik egin, *El Correo* baita nagusi, eta nola!, Bizkaian. Eta bistan da EAJk berak ere ez duela betetzen agindu hori. Izan ere, Bizkaiko Diputazioak bere iragarkiak Correo Taldeko agentzia baten bitartez bideratzen ditu; alegia, Correo Taldeari dirua ematen diola horrela.

► **Bi esaldi.** Juan Joxe Ibarretxe EAEko lehendakariak *Gara*-ren 1. zenbakiko iritzi artikuluan, izenburuan: “Egia baino ez da albistea”. Jose Antonio Zarzalejos, egun *ABC*-ren zuzendaria eta ETAK su-etena eman zuen urtean, 1998an, *DV*-n, artikulua batean, lord Northcliffe delako batek behin esan zuena gogoratuz: “Informazioa, norbaitek nonbaiten ezkutatu nahi duen zerbait da, beste dena propaganda da”.

► **Beste esaldi batzuk.** German Kortabarria (ELAren komunikazio burua): “Correo Taldea, indar politiko modura ari da jokatzeko” ► Josu Landa (idazlea eta kazetaria): “*DV* antiterrorismoan izan daiteke eredu; aniztasunetik urruti dago” ► Txutxi Ariznabarreta (LABen komunikazio burua): “Kriminalizazioa dago, kanpaina mediatiko izugarriaz lagundurik” ► Adolfo Perez Esquivel (Bakearen Nobel sariduna): “Hedabide batzuek batzuetan suari egur gehiago botatzen diote” ► Xabier Arzalluz (EBBren lehendakaria –orduan–): “Manipulazioa hainbesteraino heldu da, zenbait komunikabide arerio politiko direla esan daitekeela” ► Joseba Azkarraga (Eusko Jaurlaritzan kontseilaria eta EAKo kidea): “Komunikabideetan kanpaina orkestatua dago, dena ETA balitz bezala” ► Arnaldo Otegi (SAren legebiltzarkidea Gasteizen): “Eztabaida zuzentzen eta errealitatea itxuraldatzen dute” ► Txillardeggi (idazlea): “Correo Taldeak-eta egunero beste herri bat marraztu nahi dute”. ◀

Lau hilabeteko kronika

Enekoitz Esnaola (kazetaria; 2003-uztaila, Uztarría aldizkariaren 42. zenbakia)

Hemen zeozer pasatzen dek”. Horixe aipatzen zen otsailaren 19an Azpeitian. Izan ere, herrian ez zen oso ohikoa ezezagun batzuen presentzia handia. Gasolindegia txikian, Orkatz inguruan, plazan... zebiltzan ezezagun haiek. Eta Zaharretan ere bai. Hurrengo egunetan aurkitu zuen jendeak esplikazioa: Martxelo Otamendi *Egunkaria*-ko zuzendariak hitzaldia zeukan otsailaren 19 hartan Zaharretan, Baite Euskara Elkarteak antolatuta, eta hura zaintzera etorriak ziren gurera ezezagun haiek. Gero atxilotzeko, Tolosan. Esan daiteke, beraz, nolabait Azpeitian ere hasi zela operazio polizial eta juridiko hura. Lau hilabetera ateratu da euskarazko egunkari nazional berri estandarra –*Berria*–. Lau hilabete bizi izan dira.

Lau hilabete historiko. Eta egoera bereziak eta pasadizoak, hortaz, batzuk bai. Baina, batez ere, hasierakoak geratu dira iltzatuta hori bizi izan dutenen artean.

Otsailaren 20ko goizeko seirak. Gau hartan *Egunkaria*-ko azpeitiar batek propio piztuta utzi zuen telefono mugikorrera deia Tolosaldeetik. Martxeloren etxera sartu zela Guardia Zibila. Eta *Egunkaria* itxita zegoela. Ordubetera, Andoainen, AEKren egoitzan, dozena bat lagun zeuden bilduta; azpeitiarrak tartean. Zer egin? Nola hasi antolatzen? Nola hasi komunikatzen? Egoera beltza zen –hamar lagun atxilotuta eta *Egunkaria* itxita–, baina jendea ez zegoen nerbioak jota AEKren egoitzan, ez zegoen etsita. Lasai eseri, makinako kafesne triste bat hartu –zer ederki sartu zen, ordea...–, eta aurrera. “Goazen Tolosara. Bihar ere egunkaria atera behar dugu, eta han badago zeozer ateratzeko baliabiderik: *Tolosaldean Egunero* egunkariarenak –*Egunero*-ren enpresako bazkidea zen *Egunkaria*–”. Eta kanpaina hasteko leloa? Batek segituan: “Ba, kantukoa: *Egunkaria aurrera*”. Primerakoa zen leloa. Izan ere, bada garaia Euskal Herrian ‘gora’-tik ‘aurrera’-ra pasatzeko; ‘aurrera’ ez baita estatikoa, eta hemen, mugitu beharra dago. *Berria*-ren 1. zenbakian Iñaki Uribe, *Egunkaria*-ko kontseilari ordezkariak kartzelatik idatzi bezala, “aurrera eta batera”.

► **Tentsioa.** Tentsio eta emozio handiko uneak izan ziren Tolosako lehen egun hartakoak. *Tolosaldean Egunero*-ko lan taldea *Galtzaundi* eskualdeko aldizkariaren lokalera joan zen. Hala, *Tolosaldean Egunero*-k *Galtzaundi*-ren izena hartu zuen, eta *Egunkaria*-k *Egunero*-rena. Hori, segituan egin zen. Baina eskualdeko batzuei azaldu beharra zegoen aldaketa hori; hau da, *Tolosaldean Egunero*-n –orain *Tolosaldeko Hitz*a izena du– azkeneko orrialdean zorion agurrak daude eta jendea egoitzara joaten da senideen-eta argazkiekin, baina egun hartan haiei esaten zitzaien *Egunero*-n ez zeudela *Egunero*-koak, baizik eta *Egunkaria*-koak, baina *Egunero* egiteko, eta *Egunero*-koak *Galtzaundi*-n zeudela, baina ez *Egunero* egiteko, baizik eta *Galtzaundi*, baina ez hamabostero egiteko, baizik eta *egunero*. “Nola?”, jendeak. “Entzun duzuen bezala”. Ez zegoen beste esplikaziorik.

Ezta bromatarako girorik ere *Egunero* berriaren 1. zenbakia egitean. *Egunkaria* egiteko gogo handia zegoen, eta pizzak ugari. Eta Coca Colak. Eta zigarroak. Eta buila batzuk ere bai. Eta inprimategiarekin negoziazioak. Eta egoera zelebreak, ondorengo pasadizoak erakusten duen bezala. Hau da, 1. zenbakiaren *staff*-erako –arduradunen izenak joaten diren txokorako– *Galtzaundi*-ren eta *Tolosaldeko Egunero*-ren arduradunen sinadurak-eta behar ziren, haien izenean baitzioan, eta hori egiteko, *Egunero*-koak deitu egin zion *Galtzaundi*-koari: “Hi, *staff*-a egin behar dugula”. Laguna, kezkatuta zeharo: “Estafatu?! Hori ere bai?!”.

Hitz egiteko gogo handirik ez zegoen goizeko orduetako aldera. Imaginatu egoera: ordurako lau langile besterik ez egoitzan, zenbakia inprimategira bidaltzen Internetez, egoitzako –behe batean dago– ate ondotik autoren bat pasatzen ari zela entzun, arnasari eutsi eta... “lasai, ez da gelditu”. Guardia Zibila noiz etorriko beldurra zegoen lokalean.

► **Martxelori deia.** Martxelok kartzelatik irten zuenean hari telefonoz elkarrizketa egiteko beldurra ez zegoen, baina ezohiko egoera gertatu zen Tolosako erredakzioan. Asteartea zen, otsailaren 25a, gaueko bederatzia inguru. Deia Madrileran, *Egunero*-k han zuen kaze-

tariari, ea Martxelo harrapatuko al zuen kartzelatik irten bezain azkar, Tolosatik pare bat galdera egiteko, egunkariak 21:30erako Iruñean behar zuela eta. Iritsi ziren 21:15ak eta Martxelo kartzelatik atera zen. Baita *Egunero*-ren kazetariak azkar harrapatu ere. “Hemen daukazue Martxelo. Aizak, Martxelo, Tolosatik hotsegiten ditek. Benga”. Eta Tolosan telefonoren ondoan dozena bat kazetari, baina inork ez nahi telefona hartzerik! “Hartu baten batek!”, bota zuen batek. Ezta hala ere. Bost segundo luze izan ziren. Azkenean gazteenetakoak hartu zuen. “Martxelo, bi galdera egingo ditiat”... baina orduan Martxelo zen ezin zue-na hitz egin, emozionatuta zegoen. “Bueno, aizue, Martxeloren adierazpenik gabe bidaliko dugu Iruñera, baina testua moldatu behar duenak, moldatu”. Eta hala joan zen 5. *Egunero* hura. Baina ez. ETB2n *Teleberri*-n, 21:35ean, Julio Ibarra aurkezleak esan baitzuen ETBko kazetariak ondoan zuela Martxelo eta elkarrizketa egingo ziola. “Ez ba, Martxelo. Adarririk ez!”, esaten zen Tolosako erredakzioan. Huskeria esanda ere sartu beharra zegoen Martxelok esandakoa, eta Iruñera deitu behar, beraz. “Aizue, atzera bota bidali duguna. Hor izango duzue berriro, hamar minutu barru”. Gero, egundoko adierazpenak egin zituen zuzendariak, eta merezi izan zuen aldaketak.

Handik bi egunera azaldu zen Martxelo Tolosako erredakziora. Goizez. Eta langile gehienak falta. “Non daude?”, hark, harrিতuta. “Andoainen, batzarrean. Goizero egiten ditek”. Andoainera bidean berak ekarri zuen gogora Azpeitikoa: “Guardia Zibilaren autoan Madrilera neramatela akordatu ninduan Azpeitikoaz, Zaharretan atarian zeuden beste bi haiez eta”. Hari ere esan bai baitzitzaien orduan, otsailaren 19 hartan jende arraroa zebile-la Azpeitian. “Gero, Urrakin gora, atzetik izan nitian bi auto”.

Berria-ren zuzendari izendatu dute orain hura, baina lau hilabete hauetan apenas egin duen kazetari lanik. Harremanetan ibili da, hitzaldiak ematen, elkarrizketak... *Egunkaria*-ko jende asko ere gauza berriak egiten egon da *Berria* sortu baino egun bat lehenago arte: kazetariak harpideak lortzen, giza balia bideetakoak herri batzordeak sortzen eta gidatzen... *Berria*-ko erredakzioko buruetakoa batek, egunkari berriaren 1. zenbakia egiten ari zirenean zioena: “*Egunkaria* itxi zutenetik, *DV* ez diat ezta irakurri ere egin”. Bazen beste zeregi-nik. *Egunkaria* itxi zuten garaian erdarazko komunikabide bateko langile batek esan zuen: “Hauek balak dira!”. Arma bakar, hitza dutenak. ◀

Mikel Azkune eta Eneko Etxeberriari elkarrizketa

Idoia Mendizabal (kazetaria; 2003-azaroa, Uztarrria aldizkariaren 45. zenbakia)

Espainiako Estatuaren beste sarekada bat izan zen urriaren 16koa. Egunduko lehenago 34 euskal herritar atxilotu zituzten, ETArekin “harremana” dutelakoan –14 askatu dituzte–, eta urriaren 16an euskalgintzako zortzi lagun. Haien artean bi azpeitiar: Mikel Azkune, etxean, Errenterian; eta Eneko Etxeberria geroago, Madrilan, 20an. Azkune Egunkaria S.A.ren Ardatz enpresako administraria da eta Etxeberria Egunkaria S.A.ren lege

ordezkaria. 21ean irten zuten libre, baina inputatuta, eta Azkune 12.000 euroko fiantzarekin. Inpuntazioa, "iruzur" egitea. Hori guztia "lotsagarria eta asmakeria" dela diote.

Nolakoa izan zen zuen atxiloteta?

Mikel Azkune. Goizeko ordu biak aldera sartu ziren etxera guardia zibilak. Atxilotu nindutenean banekien Ardatz enpresagatik neramatela (*Egunkaria*-rako iragarkiak lortzen zituen enpresa da), administratzaile naizelako, eta pentsatu nuen sarekada izango zela, ez nintzela atxilotu bakarria izango.

Eneko Etxeberria. Madrilen, Entzutegi Nazionaleko gela batean nengoen, behean, zain, eta ordurako oso nekatuta, dagoeneko gaueko bederatzia zirelako eta goizetik nengoelako han, abokatu naizenez. Del Olmo epailea etorri zitzaidan, bere gelara igotzeko. "Proba dokumentalak daude, deklarazioetan egindako zure kontrako akusazioak ere bai, eta atxilotuta zaude eta inkomunikatuta", esan zidan. Aurretik deitu izan banindu joango nintzatekeen, baina eskertzen diot bera pertsonalki etorri izana atxilotzera...

Eta tratua, nolakoa izan zen?

Azkune. Infernu latza izan zen. Ez genuen inolako tratu txarrik jaso; ez fisikoki, ezta umiliaziorik ere. Tratua zuzena izan zen, komatxo artean. Baina beldurtuta nengoen, badakidalako nolako egurra eman ohi den inkomunikazio egun horietan [Mikel Azkune bost egun egon zen inkomunikatuta, bere abokaturik gabe. Madrilerako autoan eraman zuten, burua makurtuta eta estalita. Ziegan deklarazioa, hormara begira eta begiak estalita. Jatekoa, beti hotza; mortadela otartekoa. Azkeneko gaua marmolezko ohe baten gainean egin zuten].

Etxeberria. Nirea desberdina izan zen, gau bakarria egin nuelako, Guardia Zibilaren eskutik pasatu gabe, epaitegian bertan atxilotu nindutelako. Baina tratua izan zen. Urduri jarri nintzen Del Olmok hori esan zidanean. Tentsio jaitziera izan nuen. Epaitegiko ziegetara jaitsi ninduten eta hantxe pasatu nuen gaua, goiza arte.

Zer galdetzen edo akusatzen zizuten?

Etxeberria. Del Olmo epaileak teoria oso bat dauka erata, non *Egunkaria* S.A., Martin Ugalde Kultur Parkea eta abar ETAKo parte diren, diru zuriketak eta halakoak ikusten dituzte alde guztietatik, eta nik ba omen dut horren denaren berri. Nik segituan esan nion ez dagoela deliturik. Eta, era berean, esan nion ni ez naizela ETAKoa, *Egunkaria* S.A.ko lege ordezkaria naizela, eta inor inoiz ez zaidala etorri ETAKoa dela esanez eta zerbait aginduz.

Azkune. Inkomunikatuta egon nintzen bost egunetan Guardia Zibilak hiru aldiz intergatu ninduen; behin furgonetan, beste bietan kalabozoan. Beti izan naiz *Egunkaria*-ko sare komertzialeko langilea, zortzi urtean; eta Ardatzeko administraria ere banaiz, baina nik ez nuen horretan lan egiten. Fikziozko administradorea naiz, eta horregatik Ardatzeko funtzionamenduaren inguruan ezin nuen ezertxo ere esan, ez nekielako. Inolako funtsik gabeko akusazioak ziren. Lotsagarria.

Eneko, zeu zara *Egunkaria* S.A.ko lege ordezkaria eta, hala ere, atxilotu egin zintuen Del Olmok...

Etxeberria. Abokatu figurari barre egin zaio. *Egunkaria* S.A.ren eta inputatuen defentsa eskubidea hankaz gora bota zuela adierazi nion epaileari. Kazetariak geuk baino aukera gehiago dituzte defenditzea dagozkigun kasuak jarraitzeko.

Sumarioa sekretupetik altxatu dute.

Etxeberria. 2001etik zeukan sekretupean. Aztertu egin beharko da, 30.000 orrialde dira, baina erakutsi ahal izango dugu Egunkaria S.A. ez dela ETArena eta sumario hau asmakizuna eta aldrebeskeria baino ez dela. Sumarioa altxatuta, kartzelan dauden hiru pertsonen askatasuna eskatzea izango da lehentasuna. Epaileak ezarrita dituen neurri bereziak altxatzea izango da hurrengo pausoa; Egunkaria S.A.rekin lotura duten enpresen itxiera eta kontuen blokeoa altxatzea, alegia. ◀

Mikel eta Eneko etxean dira

Jose Luis Otamendi (idazlea; 2003-azaroa, Uztarría aldizkariaren 45. zenbakia)

Urriaren 21 ean libre geratu eta 24an egin zitzaien Mikel Azkune eta Eneko Etxeberria Egunkaria S.A.ko langile azpeitiarrei harrera Azpeitian, plazan, udaletxe azpian. Jende asko bildu zen, eta besteak beste, aurrekua, bertsoak... izan ziren. Jose Luis Otamendi idazle herritarrak poema bat prestatu zuen propio ekitaldi hartarako, eta omenaldian irakurri zuena da ondorengoa.

aspaldi honetan ni ere
aritmética ariketa zoroetan sartuta nabil:
zenbat auzokide, herritar
ezagun –gogaide zein etsai kuttun–
zenbat lagun kendu dizkidaten bistatik
kontuak egiten ditut

eta horrelakoetan jabetzen naiz
gu ere
paisajearen bazterreko osagai garela
soslaiak urruneko argazki batean
etorkizun zabal eta helgaitzari
ertz lausotu batetik begira

gure baitaren deshabitate
antolatua salatu nahi nuen
baina ez nekien zein bulegotara jo
nondik ekin
nola galarazi isuri gera ezin hori:
jendea indarrean daramate
era txarrean ari zaizkigu

ateratzen kirioetatik, barrenetik
azaleko usainetik kentzen
hezurretatik itzal arrastoak ezabatzen
kendu eta kendu ari zaizkigu
ari gara
aurpegiak keinuak ahotsak kentzen
eta izendegi amaiezin bat ondoren...

eta lotsatu egiten naiz
jendeak igarri egingo baitigu barren hustu hori
geure begietako putzuan igeri

gure baitaren deshabitatzeko sistematikoa
salatzen dut
beste inon hoberik ez eta
arkupe hauetan egitea otu zait
zuen guztion aurrean

ez dut onartu nahi ekaitzen mende bizitze hau
ekaitzaldi bakoitzak zer lapurtuko
eta gero hondakinen artean bilduko
dugunaren itxaropenez ibili beharra beti

lotsa ematen dit
jendeak eguna joan eguna etorri
batera eta bestera
barrena hutsik gabiltzala antzematea begietan
edo ibileran edo hitz egiteko doinuan

jendea ari zaizkigu barrutik ateratzen
su hartutako hotelak bagina bezala
oldar batean
eta ez gara larrialdiko eskailerak
ez gara meatze abandonatuak
ikatza bezala gure barrutik pertsonak ateratzeko
geure urratu eta zauri trakets guztiekin
nahi dugu bizi
eta inor barrutik kentzen digutenerako kontuak egin
banan-banan
alerik ere oharkabea
joan ez dakigun gehiago

gure barruak hustutzeko
 joera makurra salatzen etorri naiz
 eta badakit neurri handi batean
 kaltea egina dagoela
 berandu izan litekeela
 aspaldi hustutzen hasitako arimak
 bere onera ekartzeko
 galdutako asko ez dela itzuliko sekula
 nahiz eta halako batean, akaso, batek daki,
 gu, edo beste batzuk, nonbaiten, inoiz zorientsu izan
 eta hainbeste daukagu konpontzeko osatzeko
 gure barru zartatu hauetan bere tokian jartzeko

baina kontatzen ahazten bazaigu galduak gara
 –gure etsairik gabe gure lagunik gabe zer gara ba–
 hor dago gure indarra
 horretan da geure izatea bera
 esan dezadan, aritmetika humano bat:
 nor bizi da eroso gaur egun bere sasoiari

horregatik sarritan
 aritmetika ariketa zoroetan sartuta ibiltzen gara
 zenbat auzokide, herritar
 zenbat lagun kendu dizkiguten bistatik
 kontuak egiten ditugu
 eta bueltan datozenak
 –gaur bezala–
 azkar hartzen ditugu berriro
 gure kaleetan
 geure ametsen abaroan
 festa giroan ospatzen dugu
 eta maitemindu adiskidetu berrien antzera
 besarkada artean
 elkarri agintzen diogu
 ez gaituztela gehiago
 bata bestearen ondotik aldentuko
 eta pozak txoratzen gaude
 baina ez gaude konforme:
 izan ere oraindik ez zaizkigu kontuak ateratzen
 eta ekaitzen mende
 bizi behar honekin ez dugu etsiko ◀

Euskalgintzak azpeitiarrei

Azpeitiko euskalgintza (2003-11-24, Mikel Azkune eta Eneko Etxeberriaren harreran)

Egunkaria itxi zutenean, Euskal Herriko *Egunero* sortu zuten langileek egun batetik bestera, herrietan mugimendu handia zegoen, bilerak egiten ziren, manifestazioa egin zen, kontzentrazioak... Baina halako batean zera entzun genuen irratian, Euskal Herriko idazle euskaldun ospetsu batek: "Zer egin dugu gaizki Ebrotik behera euskaldunok hain gaizki ikusiak izateko?"

Euskarak egundoko erasoak jaso eta gu Espainiari kontuak eskatzen hasi beharrean, geure buruari harrika bakarren bat. Galanta da. Horixe jarrera ezkorra. Eta horrela jai dago.

Euskalgintzak, behintzat, garbi du hori. Begiratu, bestela, otsaileko manifestazioko leloa: *Egunkaria aurrera*.

Baina euskalgintzak ez ditu gauzak zoro-zoro egiten. Baina bai gauzak garbi edukita. Eta garbi daukana hau da: euskararen lurralde bizi garela eta nazio ikuspegiarekin jokatu behar dugula. Eta hala jokatu du, eta aitzindari izan da: Euskaltzaindiak iazko mende hasieran, gero ikastolak, gero AEK-k, EHEk, 1990ean *Egunkaria*-k, gero Kontseiluak...

Eta eragina izan du politikan, hor ere hasiak direlako nazio ikuspegia ere edukitzen eta hala jokatzeko, batzuk gehiago, besteak gutxiago, baina hasi dira; hor dago 1999an Udalbiltzaren sorrera.

Ordurako makina bat ekimen eginak zituen nazio ikuspegiarekin euskalgintzak. Trabak traba. Ez gara memorian oinarritu behar geroa eraikitzeko, baina ez dugu memoria galdu behar. Espero dugu *Egunkaria* sortu zenean bezala, edo Uztarrria sortu zenean bezala, edo Baite sortu zenean bezala ez aritza agintari abertzaleak euskalgintzarekiko berriro.

Euskal Herri kulturala da oinarria, eta orain Euskal Herri politikora pasatu beharra daukagu, eta euskalgintzak beti lagunduko du nazio izaera zabaltzen eta sendotzen.

Baina bi gauza behar ditu, eskatzen ditugu: baliabideak eta babesak.

► **Baliabideak.** Euskalgintzak demostratua du kapaz dela proiektuak sortzeko eta aurrera ateratzeko. Nahiz eta, beste edozein enpresak ez bezala, egiteko bikoitza eduki: gauzak egitea batetik, eta gauzak zergatik egiten dituen azaldu eta defenditu beharra bestetik. Energia bikoitza galtzen da, beraz.

Betidanik urriak izan ditu bitartekoak: azpiegiturak eta dirua. Pentsa noiz hasi zen euskarazko prentsa enpresa egitura hartzen: 1980ko hamarkadaren erdialdera Joxemi Zumalabe zena hasi zen *Argia*-tik aparteko beste enpresa batzuk sortu beharraz hitz egiten: inprimategi bat, informatikako enpresa bat... Euskalgintzak beste diru-iturri batzuk ere behar zituela zioen.

Euskal erakundeek ez dute sobera lagundu, eta lan bikoitza egin beharra.

Baina aurrera egin du, eta hor *Egunkaria* eta *Berria*, hor Kontseilua, eta hor Martin Ugalde Kultur Parkea; euskalgintzako 25 enpresa eta alor estrategikoa da parkea. Joan Mari Torrealdai: "Martin Ugalde Kultur Parkea izan ordez, Parque Cultural Menendez Pelayo

balitz, eta Andoainen kokatu partez Teruelen balego, sortzaileei, Buruntzapeko bazkideei, dominak jartzen egongo ginatke une honetan. Baina ez, parke hori martxan jartzeagatik, hain zuzen, zaldi zaharren oinetara bota dituzte sortzaileak, eta Buruntzaperen kontuak blokeatu egin dituzte, parkea ixteko bidean jarriz".

Horrek denak min egiten die Madrilen, gauzak txukun samar egin direlako eta euskalgintzaren proiektua hazten ari delako. Horregatik jo dute. Gauzak gaizki egiten ariko bagina ez zuketen joko.

► **Babesa.** Aurten bigarren eraso jaso du euskalgintzak, eta babesa eskatzen dugu. Izan ere, eraso gehiago jasotzeko arriskua dugu, nahiz eta berriz ere 100.000 laguneko manifestazioa egin. Beraz, erakundeei babesa eskatzen diegu. Babes gaitzate! gu ere, babes ditzate! gure enpresak ere. Ez dugu uste bigarren mailakoak garenik. Babes hori behar dugu Euskal Herri mailan; eta Azpeitian ere bai.

► **Dakiguna egin.** Ez gaitzen salaketan geratu. Aurrera begira dezagun. Guk, dakiguna egiten segituko dugu: lana.

Jendeak euskarazko produktuak erosteko, euskaraz hitz egiteko, euskaraz ikasteko, euskaraz pentsatzeko, euskara sustatzeko, euskararen aldeko proiektuak sortzeko, euskararen inbertitzeko, euskararen alde egiteko, borrokatzeko euskaragatik... Hori da bidea.

Bide hori dena egin dute Mikelek eta Enekok, baita beste zazpi lagunek ere, eta oraindik kartzelan bahituta dituzten Iñaki Uriak, Xabier Alegriak eta Xabier Oleagak ere bai. Hori gauzak gaizki egitea al da?

Denon ardura da Azpeitia euskalduna eta euskaltzalea bihurtzea, eta gure herrian euskaraz bizitzeko aukera lortzea, eta denon ardura da horrelako eraso gehiago, ahal dela, saihestea.

Ongi-etorriak herrira Eneko eta Mikel, eta eutsi goiari! ◀

‘El Diario Vasco’-ren editorialetan

(2003-azaroa, Baite Azpeitiko Euskara Elkartearen aldizkariaren 18. zenbakia)

El hecho de que decenas de miles de manifestantes decidieran secundar la convocatoria solidaria con Egunkaria, (...) refleja una disposición victimista" (2003-02-23an, *El Diario Vasco*-k editorialean, *Egunkaria*-ren itxiera zela-eta egin zen manifestazio jendetsuaren hurrengo egunean).

"...Desafortunada denominación activista de euskalgintza" (2003-10-19an, *El Diario Vasco*-k editorialean, euskalgintzaren kontrako operazio polizial-judiziala zela-eta egin zen manifestazio jendetsuaren hurrengo egunean).

► **Baite Euskara Elkartearen oharrak.**

► Azpeitian %87k euskaraz jakin arren eta %83k euskaraz hitz egin arren, *El Diario Vasco* gaztelerazko egunkaria da salduena: egunero ia 1.400 ale erosten dira; *Berria* euskarazko egunkariaren 220 bat ale saltzen dira.

► *DV* egunero erosten duen azpeitiarrak, urtean 330 euro (55.000 pezeta) ematen dizkio egunkari horri.

► Egunero ia 1.400 ale saltzen direnez, *DV*-k egunkari salmentatik Azpeitian urtean 470.000 euro biltzen ditu (78 milioi pezeta). ◀

Zer berri?

2003ko ekainaren 21ean sortu zen 'Berria' egunkaria, 'Egunkaria' itxi eta lau hilabetera. 'Berria' sortzeko, ordea, makina bat lan egin zen Euskal Herrian; Azpeitian ere bai, beraz. Erronka handia zegoen herrian, 59.000 euro lortu behar zirelako akziotan.

Enekoitz Esnaola (kazetaria; 2003-ekaina, Uztarría aldizkariaren 41. zenbakia)

Orain urte batzuk, atentatu baten ostean, egunkari bateko kazetariak, albistean, Euskal Batasuna Iparraldeko alderdiak ekintza kritikatu zuela zioen, ñabardura honekin: "EBk frantsesez bidali du prentsa oharra". Kazetariak espainolez idatzi zuen albistea.

Orain aste batzuk, euskal futbol talde batek partida kanpoan zuenean, egunkari bateko kazetaria pozik zegoen, estadioan hango hizkuntzan zeudelako oharrak eta idatziak, ez espainolez. Kazetariak espainolez idatzi zuen albistea.

Orain egun batzuk, hautagai gehienak euskaldunak ez zirela salatu zuen EHEk, eta irratia bateko kazetariak horixe nabarmendu zuen. Kazetariak espainolez eman zuen albistea.

Aipatutako egunkariak eta irratia, euskaltzaleak dira. Teorian. Azpeitiarrok ere bai. Teorian. Orain daukagu erronka. Berria berri edo zaharra berri? ◀

Dirua lortzen ez bada, porrota

Uztarría Kultur Koordinadora (2003-ekaina, Uztarría aldizkariaren 41. zenbakia)

Euskaldunak bai, baina euskaltzaleak ere ba al gara azpeitiarrok? Orain ikusiko da garen edo ez garen. 59.000 euro. Horixe da Azpeitiak duen erronka. Egunkari berria jaioko bada, horixe da Azpeitiak bildu beharreko diru kopurua. Dirurik ezean, euskarazko egunkaririk ere ez.

Azpeitiarrok (ere) gogor erantzun genuen *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenean.

Donostiako manifestaziora joan egin ginen, eta martxoaren 13an herria gelditu egin genuen. *Egunkaria*-ren alde, itxieraren kontra kalera atera ginen azpeitiarrok (ere).

Baina *Egunkaria*-ren alde egotetik *Egunkaria*-ren alde egitera pasatu behar dugu. Euskarazko prentsaren alde egitera. Eta horrek jarrera argiak eskatzen ditu, ekintza argiak: bakoitzak ahal duen neurrian, eros ditzala egunkari berrirako akzioak; bakoitza, ahal duen neurrian, egin dadila harpidedun. Irakurri euskaraz. Egin publizitatea euskal prentsan. Lagundu, instituzioetatik, egunkari berria.

Egunkaria zelako, eta datorren egunkari berria izango delako euskarazko egunkari nazional bakarra. Independentea. Zabala. Baterakoa. Euskaltzalea. Behar genuena eta behar duguna. Azpeitiak erronka handia du, erronka handia dugu azpeitiarrok esku artean: 59.000 euro. Ez lortzea porrota litzateke. Eta orain ikusiko da garen edo ez garen. ◀

Herritarren aletxo

Oihana Elduaian (kazetaria; 2003-ekaina, Uztarría aldizkariaren 41. zenbakia)

Azpeitiarrek laguntza ematen ari dira euskarazko egunkari berria egiteko. Batzuek akzioak erosi dituzte, banaka edo taldean; besteak harpidedun egin dira. Bakoitzak berea eman du.

Mallaseko langileak ▶ Mallas-eko langileek 300 euroko bi akzio erosi dituzte, “elkartasuna adierazteko eta egunkari euskaldun bat esku artean edukitzeko gure ekarpen txikia egiteko”. Euskal Herrian lanuztea egin zen martxoaren 13an, *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxiera salatzeko. Azpeitian ere jarraipen handia izan zuen lanuzteak industria munduan, eta Mallaseko langileek beraien makinak gelditu zituzten ordubetez. Hala ere, lanuztea ez zuten langile guztiek egin. Erreleboetako lan sistema dela-eta goizeko taldeari baino ez baitzion eragin 11:00etatik 12:00etarako lanuzteak. “Batzuek lanuztearekin adierazi zuten elkartasuna, baina bakoitzak bere ekarpena egin behar zuela uste genuen”. Guztiak bere aldetik zerbait emateko sistema baten bila hasi ziren. “Ordubeteko lanuzteak hamar bat euroko kostu ekonomikoa du gutxi gora-behera”, langileek diotenez. Beraz, “lanuzterik egin ez zutenek hamarna euroko ekarpena egitea adostu genuen”. Halaxe egin zuten. [Aldizkariko] Argazkiko hiru langileek bildu zuten dirua, eta bildu ondoren *Egunkaria*-ren aldeko herri batzordearekin harremanetan jarri ziren, 600 euroko balioa duten akzioak erosteko. Orain, lantegiko kortxoan daude akzioak. “Dirua biltzeko modu egokia izan daiteke lantegietakoa, eta gurean bezala beste lantegietako kortxoetan ere akzioak egotea ona litzateke”.

Kepa Peñagarikano pilotaria ▶ *Egunkaria*-ren itxierak berari ere eragin ziola dio Kepa Peñagarikanok, eta “laguntzeko aukerarik baldin badugu, zer gutxiago!”, dio. Harpidedun egin zen hasieran, geroago akzioak ere erosi ditu. “Nik ere nire alea jarri nahi izan dut”, dio;

“horregatik egin nintzen harpidedun”. “Euskarari eta Euskal Herriari egin diotena egiteko ez dago eskubiderik, eta euskarazko egunkari berriaren alde egin dezakedana egiteko prest nago”, dio Bigarren Mailako buruz buruko txapeldun berriak, ziurtasun osoz. “Harpidedun egitea erabaki dut, eta beste zerbait egin behar bada ere egingo dut”.

Eduardo Berasategi harakina ▶ Euskararen alde dagoela dio Eduardo Berasategik, eta euskaraz zegoen egunkari bakarra kentzen saiatu izana ez du onartzen. Denon laguntzarekin egunkari berria argitaratzeko aukera dagoenez, bere alea ematea erabaki du, eta 300 euroko akzioa erosi du. “Euskara gure hizkuntza da, eta ahal den heinean lagundu nahi izan diot, sentimentu guztiarekin”. Euskarazko egunkari bakarra ixtea “gogorra” dela dio. “Espainiatik denak kontra izan arren, gure hizkuntza salbatzeko zerbait egin beharra” dagoela uste du, eta horretarako bakoitzak berea aportatzea “garrantzikoa” ikusten du. “Denontzako izango da ona euskarazko egunkariarentzat emandako laguntza”.

Iñigo Agirre dendaria ▶ *Euskaldunon Egunkaria*-k argia ikusi zuenean “bezero” egin ziren, eta orain ere beraien laguntza eman nahi izan diote kazeta euskaldunari, akzioak erositaz eta harpidedun eginez. Hala ere, *Egunero* “bigarren egunkaria” da beraien etxean, *El Diario Vasco* baita “erreferentzia” betidanik, ohituraz edo. Otsailaren 22ko Donostiako manifestazioa ekarri du gogora “erabaki nazkante horren aurrean”, eta manifestazioko erantzuna “han bakarrik ez dadila geratu, ahal den mailan” akzioak hartzera animatuz, “banaka ezin bada binaka, edo familiaren artean, koadrilan...”.

Joxe Agirre bertsolaria eta baserritarra ▶ Pena handia hartu zuen Joxe Agirrek *Egunkaria* itxi zutenean. “Zergatik itxi behar dute ba egunkari euskaldun bakarra? Guk ez al dugu bada eskubiderik?”. *El Diario Vasco* eta *Egunero* daude haien etxean ordutik. “Ordu arte ez nuen sekula *Egunkaria*-rik hartu”, dio, baina, premiak behartuta, biak erosten dituzte orain; “egunkari erdia” ere bai. Agirrek berak ez du irakurtzeko zaletasunik, baina irakurtzen hasita nahiago du *Egunero* irakurri, “gure hizkuntzan” delako. “Euskaldunok zergatik ez dugu eduki behar egunkari euskaldun bat?”, galdera egiten du, eta denak harpidedun egitera animatu nahi ditu. Akzioak ere “erosi behar” direla dio.

Ima Epelde udaletxeko langilea ▶ Ima Epeldek udaletxean egiten du lan, eta *Egunkaria* itxi zutenean harpidedun egin zen *Egunero*-n, itxierak eragin zion “amorrugatik”. Lehen, tartean behin erosten zuen *Egunkaria*. “Lehen *El Diario Vasco* erosten nuen, igandeetan-eta, baina *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenetik euskarazkoa erostea erabaki nuen”. Euskal prentsa lagundu beharra azpimarratzen du: “Euskal prentsa izan nahi badugu laguntza ekonomikoa beharrezkoa da, eta onena harpidedun egitea da”. Akzioak erostea ere beharrezkoa eta ondo dagoela dio, baina, “egunerokoa da benetako laguntza”.

Koadrilak ▶ Bakoitzak bere ekarpena egin eta 50 euroko bost akzio erosi dituzte [aldizkari argazkiko] koadrila osoaren artean, “Euskal Herrian euskarazko egunkari bat behar

delako". Horretarako, "diru asko behar da", eta "bakoitzak bere apurra jartzen ez badu...". Horrela bada, egin zezaketen "gutxiena" akzioak erostea dela iritzi diote. "Lehenbailehen ikusi nahi dugu euskarazko egunkaria kalean", diote, eta hori dela medio, herriko koadrila guztiak "animatu" nahi dituzte akzioak erostera, "bakoitzak ahal duen moduan". Gainera, sortuko den egunkaria "guztiona eta guztiontzat" izango dela diote. ◀

Euskalgintzako erakundeen inplikazioa

(2003-uztaila, Baite Euskara Elkartearen aldizkariaren 15. zenbakia)

Azpeitiko euskalgintzako erakundeek prentsurrekoa eman zuten 2003ko ekainaren 7an, Aitonena I-en, *Berria*-ren aldeko akzio kanpainan euren inplikazioaren berri emateko, eta azpeitiarrak animatzeko akzioak erostera. Hona hemen orduan esan zituztenak.

Eniarraitz Bertsozale Elkartea ▶ "Bertsolaritzaren lekuko eta plaza da euskarazko prentsa, eta euskarazko egunkari berriaren aldeko akzioak erosi ditugu".

Euskal Herrian Euskaraz ▶ "Euskara hutsean egiten den egunkari bakarra izango da eta lagundu egin behar dugu".

Uztarria Kultur Koordinadora ▶ "*Egunkaria*-k asko lagundu zion Uztarriari, eta Uztarriak *Berria* behar du".

Baite Euskara Elkartea ▶ "Ezinbestekoa da euskarazko egunkaria, eta ezinbestekoa horren aldeko akzioak erostea".

AEK ▶ "Euskalduntze prozesuan garrantzitsua zen *Egunkaria*, baita egunkari berria ere".

Ikasberri Azpeitiko Ikastola ▶ "Euskal eskola nazionalaren alde gaude eta euskarazko prentsa izatea ezinbestekoa da".

Zutarri Guraso Elkartea (Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai) ▶ "Guk ere aportazio ekonomikoa egin dugu, baina hori ez da nahikoa".

Zutoin Guraso Elkartea (Urola Ikastola Azkoitia-Azpeitia BHI) ▶ "Euskarazko egunkariak gure seme-alaben heziketarako tresna izan behar du".

Iraurgi Ikastetxea ▶ "Euskararekiko konpromisoa dugu eta egunkari berriaren akzioak erosi ale txikia jarri dugu". ◀

‘Berria’ eta berria

Alaitz Olaizola (idazlea; 2003-uztaila, Uztarría aldizkariaren 42. zenbakia)

Udan sartzearekin batera, etorri zaigu berria. *Berria* eta berria. Pozez hartu dut egunkari berria esku artean. *Egunkaria* dakarkit gogora eta berriak berri, poztu egiten nau horrek. Gogoko nuen *Egunkaria* eta saiatuko naiz hutsik ez egiten berriari. Orain egunkari berriari kontatuko dizkiogu gure penak eta pozak. Bazuen lehengoak herritar soilentzat tokia eta izango ote du datorrenak ere...

Jaso ditzala eta izan dadila lekuko fin, lehenago zen moduan, gure gizartean eta besteenetan gertatzen denaz. Pena bakarra daukat: astearteko *Berria*-k esango digu nola Realak ezin izan duen Liga lortu... Ez da hasiera makala, baina azken batean, hori hobe, beste notizia okerragoren esperoan. Hauek ez baitira, orokorrean, Euskal Herriarentzat garairik hoberenak.

Baina gatozen ari ginenera... Kultur munduko hainbati entzuna nien *Egunkaria*-k zekarela euskal kultur giroetako informaziorik eguneratu eta zabalena. Eta hala zen. Lakrikun antzerki taldeko kide bezala esan dezaket gure taldeari buruzko erreferentzia gehien ematea ahalbideratu digun idatzizko komunikabidea izan zela.

Gay eta lesbianen mugimendukoei entzuna diet gai horren inguruko informazio gehien zabaldu duen egunkaria izan dela. Eta *Berria*-ren lehen zenbakia horren lekuko. Ekainaren 28a bitartean ere ez dut dudarik egiten hala izango ez denik, eta zorionez, gutxik bezala, urte guztian zehar.

Betiko egunkaria esku artean dugun susmo atsegina sentitzen dut, eta ez da seinale txarra.

Ez da seinale txarra, halaber, 1. zenbakiaren 50.000 aleak agortu izana –Azpeitian, goizeko hamaiketan, hirugarren saltokian erosi ahal izan nuen–. Baina estreinaldiak beti izaten dira horrela. Eta uste dut badakidala zertaz ari naizen; *Egunero*-ri berdin gertatu zitzaion. Gero emanaldiz emanaldi jendearen babesa mantentzea kostatu egiten da, eta horixe da gure erronkarik handiena. Azpeitiarrontzat, gure burua hain euskalduntzat dugun gehienontzat, erronka polita da esku artean duguna. Demostratzea baino ez zaigu falta. Dirua daukanak, diruarekin; ez daukanak, borondatearekin. Orain egiten ari naizen hau ere, borondatezko ariketa xume bat baino ez da, besteen merituak errekonozitu eta esku artean izandako produktua baloratzea. Bakoitzaren baitan dago erabakitzea, zer egin dezakeen halako egoera bitxi eta sinestezin baten aurrean. Kanpaina egiteko batzuk prestatu dira, eta ez da nire kasua. Bakoitzak ditu bere helburu militanteak eta ahal duenari ahal duena eskaintzea baino ez zaigu geratzen. Azken batean, patuak sartuko gaitu denok zaku berean. Bidearen bukaera ez zaigu hain desberdina izango.

Azken batean, desberdinen arteko ariketa edo saiakera bat baino ez da, bidearen amaieran, denok, topo egiteko (azken esaldi horrek transzendental itxura nazkagarria hartu du, ezta?). Alegia, proposatutako helburura iritsiz gero, berdin dela zertan militante izan, zeure buru eta sineskeriekin bat badator, behintzat! (Horrela argiago, ezta? Eskerrak!)

Lehenago ere nonbait idatzia utzi nuen eta gauza bera diot orain. Azpeitiarrok ederki esaten dugun moduan, kristorena gertatu dela. Bata hil eta berria jaio! Duela bi mila urte ez zuten espero eta nork espero behar zuen orain? Fededunak baino ez. Asko. Bi mila urte eta gero, hura gogoan bada, zaila izango da hau ahaztea, euskaraz idatzi, hitz egin eta irakurtzea maite dugunontzat... (Badakit euskaraz beste mila gauza egin daitezkeela, baina kontestu pornografikoetan ez sartzeagatik, ondo geratzeko moduan adierazi dut).

Nork dio zaharretik ezin dela berririk jaio? Euskaldunok ez, behintzat! Ez ahaztu, guraso zaharretetik ere, umerik berriena jaiotzea posible dela. Zer esanik ez, beraz, gazte baten eskutik!

Berri usaina nabari dezaket. Inprentatik atera berri den liburuaren orrien usaina konparazina da. Ederra, asko irauten ez badu ere. Talde lanaren emaitza oparoak, erre gaitzala norbaitek hala nahi badu infernuko garretan, baina, erre ahal ditzagula, denbora luzez, *Berria*-ren orriak, datozen neguetan, hainbat etxeetako ekonomiketan (ekonomikaririk ez baduzu, ur-berogailua edo sukaldea piztean).

Zorionak, *Berria*-ren alde lanean aritu diren guztiontzat eta, bereziki, Azpeitian osatu den eta lanean ari den batzordearentzat. ◀

Euskarazko prentsaren kontsumoaz webean

(2003-ekaina, www.uztarria.com-en eztabaida)

Azpeitian zergatik irakurtzen da hain gutxi euskarazko prentsa? Galdera horixe jarri zuten uztarria.com-ek 2003ko ekainean, *Berria* sortu zen garaian. Parte-hartze handia egon zen, eta erantzun haietako batzuk daude ondoren.

Koldo Izagirrerena ▶ "Aurreko batean Koldo Izagirreren hitzaldia ikusi nuen Kaito Telebistan (hitzaldien orduan Euskal Herria aurrera ateratzen egoten naizenetakoa naiz). Eta han gauza bat aitatu zuen, orain aitatzeko modukoa: prentsa irakurleen estatistikak egiten dituztenean tranpa txiki bat egiten dutela, alegia. *Egunkaria* %5ek (ez dakit ziur zein kopuru zen) irakurtzen omen dutela esaten dutenean ez dute euskaldunen kopurua kontuan hartzen, erdaldunak ere horren barruan sartzan dituzte. Horrela, egunkariaren irakurleen kopurua euskaldunak bakarrik kontuan hartu beharko litzateke. Eta hara non orain Uztarran agertu den esaldi polit goxo eta panpoxa: Azpeitian 11.000 lagunek dakite euskaraz. Esaldi hori hor jartzea ez al da tranpa egitea? Ez al da, gutxienez, estatistikalariek egiten dutenaren antzekoa egitea? Askoz interesgarriagoa da esaldi hori hor jarrita esaten dena baino esaten ez dena irakurtzea (gai honen inguruan interesgarria da Iñigo Aranbarri *zakelaren Hitzak eta giltzak*; komunikabideetan esaten ez denaren inguruan, alegia): 11.000 lagunek irakurtzen dute, 14.000 gara; beraz, %85-90ek euskarazko prentsa irakurri behar dute. Eta jartzen ez duena eta esaten duena zera da: Azpeitian 3.000 erdaldun daudenez, *Gara*,

Deia, DV eta gainerantzekoen pastel zatiak 3.000 horien artean zatitu beharko liratekeela. Eta esaten ez dena eta ezkututzen dena zera da: Azpeitian, gutxienez, 12.000 edo 13.000 kastellanodun gaudela”.

Marca ▶ “Aurreko batean batek esan zidan hizkera jantziegia erabiltzen zuelako; gero esan zidan egunero *Gara* irakurtzen zuela, eta bietan informazio bera agertzen dela; ondoren esan zidan kirol informazio gutxi zekarrelako; eta amaieran bota zidan txikia zela. Denak aitzakiak dira. Alferkeria da arrazoi nagusia, eta informazio falta. Zenbat azpeitiarrek zuten *Egunkaria* itxi aurretik haren berri (nolakoa zen, zenbat atal zituen, bere gehigarriak, gaien trataera eta abar)? Nola da posible pluralagoa izatea eskatzen ibiltzea, aurretik nolakoa zen ezagutzen ez bagenuen? Euskaldunok askotan lotsaren arrastorik ez dugu”.

Altza porru ▶ “Azpeitian ez dago leitzeko ohitura handirik. Jende gehienak *DV* ohituragatik erosten du, eta erdiek baino gehiago egunkari horren hiru atali bakarrik begiratzen diete: Azpeitiko karta, eskelak eta Realak”.

Erantzuna ▶ “Igual, jakiteko bideei uko egin diogulako eta denbora-pasa arrunt bat bihurtu dugulako bizi. Ardua txikiko giza multzo kontsumista eta *eskakeatzaileak* garelako. Beti gaineoari botatzen diogu errua, eta irakurtzeko berari eskatu. Geuk irakurtzearekin nahikoa izan beharko luke”.

Flash ▶ “Herri bakoitzeko euskalkian ez dagoelako egunkaririk, eta batuaz ulertzea kostatu egiten zaiolako jendeari. Eta zergatik erosten den hainbeste *El Diario Vasco*? Telebistaren gida oso ona daukalako, eta Azpeitiko kartagatik, horregatik. Euskarazko egunkari bat jendeak irakurtzeko, ipini telebistan programazio on bat, Azpeitiko karta on bat eta, batez ere, txutxumutxuen atal handia, eta utzi halako intelektual eta artikulua sakonzaleen irakurle itxura egiteari, Gipuzkoa delako Espainiako Estatu osoan *Hola* aldizkaria proportzioan gehien saltzen den lurraldea”.

Itziar ▶ “Batueraz irakurtzea kostatzen zaion jende guztiak erraztasuna al dauka ba gaztekeraz irakurtzeko? Ez dut uste! Uste dut gehiago dela olatuarekin ibiltzea, bakoitzak kontzienteki nahi dugun lekura igeri egitea baino. Edo horrelako zerbait!”.

Van Halen ▶ “Bakoitzak bere aldetik ez duelako gehiegi jartzen, alde batetik; eta, bestalde, euskara berriegia delako irakurketa mundu honetan, nolabait esateko. Uste dut, hala ere, euskaraz gero eta gehiago irakurtzen hasiko dela jendea, ikastetxetan euskaraz idatzi eta irakurtzen asko ikasten ari direlako gure gazteek”.

Johni (I) ▶ “Nik ez daukat arazorik euskaraz irakurtzeko (uztarria.com bisitatzen dut noizean behin, eta hori ulertuz gero, beste guztia aise uler liteke!). Baina, hala ere, erdarazko prentsa, aldizkariak eta liburuak irakurtzen ditut normalean. Euskarazkoak ere bai batzuetan, bai

na gutxiagotan. Zergatik? Gehiago gustatzen zaizkidalako besteak. Niretzat produktu gehiago eta hobeak daudelako erdaraz. Delitua al da hori? Gogoz kontra irakurri behar al dugu euskaraz, militantziagatik? Noiz arte?”.

Johniri ▶ “Euskararen sinesten baduk, bai, militantziagatik ere irakurri behar duk. Orain dela 35 bat urte ikastolek ez zuten ematen hezkuntzarik onena. Orain bai. Zergatik? Jendeak ikastolen aldeko apustua egin zuelako, nahiz eta hezkuntza kaskarragoa jaso orduan, nahiz eta poltsikotik dirua jarri behar izan, nahiz eta gurasoek ere beraien lanetik kanpo lana egin behar... Gauza bera gertatzen duk prentsarekin. Aukera zabalena eta onena igual espainolezkoan daukak, baina euskarazkoa ona izatea nahi baduk, euskarazko horiek erosi eta leitu egin behar dituk. Ah!, eta gauza bat: euskarazko prentsa gero eta hobeak duk (lehen *Egunkaria*, larunbatetik *Berria*, *Argia*, *Uztarria*...). Eta nik uste besteek baino ahalegin handiagoa egiten dutela, beraien neurrian, hobetzeko”.

Kalitatea ▶ “Euskararen militanteak euskarazko prentsa ere erosi behar du, bai, horretan ni ere ados nago. Baina Johnik ere badu arrazoiaren parte bat. Euskarazko prentsak ere kalitatearen alde egin behar du, gero eta gehiago. Horretan eredugarri dugu Uztarria herri aldizkaria, nire ustez. Eta *Egunkaria* ere ari zen bidea egiten. Jakina da *El Diario Vasco*-k eta *Berria*-k ez dutela berdintasunean jokutzen, urtean milioika euro irabazten dituelako lehenengoak. Horregatik, euskararen militanteak behar ditu euskarazko prentsak, baina honek ere, ahal duen neurrian, kalitatea eskaini behar die euskararen militanteei eta irakurleei. Militantzia agortu ere egiten delako”.

Jonhi (II) ▶ “Euskararen sinesten baduk, bai, militantziagatik ere irakurri behar duk’. Halaxe diozu. Bale. *Berria* eta *Uztarria*, Euskadi Irratia, ETB1, *Argia*, *Nabarra*, *Ostiela* eta *Putz*, *Jakin*, *Herria*, *Elhuyar*, Susako liburuak, *Idatz*... Denak militantziagatik? Nire ustez, denak dira garrantzitsuak euskararentzako, bakoitza bere esparruan. Baina batzuk ez ditut kontsumitzen; nire ustez, txarrak direlako. Zuk orain arte beti erabili dugun diskurtsoa erabiltzen duzu: militantzia eskatuz gero, kalitatea izan dezagun. Nik uste badela garaia tortilla horri buelta emateko: kalitatea lortuz gero, etorriko dira militanteak. Eta ez dut uste hori zirkulu biziosoa denik. Kalitatea behar da militantzirako; eta militanteak kalitaterako. Zer da lehenago, arrautza edo oiloa? Nik uste denbora asko pasatu dugula militantziarekin, eta orain kalitatearen garaia dela”.

Paxi ▶ “Nik neuk ez zaituztet engainatuko: egunkari bakarra irakurtzen dut. Baina dagoen aberasgarriena denak irakurtzea dela iruditzen zat. Eta kontuz! Ez dut esan denekin ados egotea, baizik eta bakoitza irakurtzea, eta orduan kritikatzeta. Nik lepoa jokatuko nuke hemen idazten ari diren askok eta askok *Gara* eta *Egunkaria* ez diren beste egunkaririk ez dutela inoiz irakurri, ideiarik ez dutela nola funtzionatzen duten. Eta jo eta ke, txarrerako kritikatzeta ari dira, gaizki zer iruditzen zaien eta jakin gabe. Nik neuk egiten ez dudana gauza da, baina hemen denetik irakurri behar dela uste dut”.

Jon ▶ “Ados, Patxi, baina bi gauza ezberdini buruz ari gara. Batetik, jakina ona dela denetik irakurtzea, ahal den egunkari gehien irakurtzea, eta gero norberak bere iritzia propioa izatea. Jakina ona dela hori. Baina beste kontu bat da zer finantzatzen duzun, zer proiekturi, zer enpresari ari zaren egunero dirua ematen, zer helburu laguntzen dituzun horrekin. Alegia: nik *El Diario Vasco* irakurtzen dut tabernatan-eta, eta ez dut ohitura horren kontra egingo. Baina kontuz: ni ez naiz *El Diario Vasco*-ren eroslea, ez naiz inoiz izango, *El Diario Vasco*-ren helburuekin ez dudalako bat egiten, *El Diario Vasco*-ren proiektuarekin ez dudalako bat egiten, eta haren enpresa argitaratzaileak dauzkan asmoak ez ditudalako onartzen. Eta bukatzeko, Patxi: izango da *Gara* eta *Berria* irakurri eta *El Diario Vasco* sekula irakurtzen ez duenik, bai; baina apustu egingo nuke alderantzizkoak askoz gehiago direla gure herrian: *El Diario Vasco* egunero-egunero erosten dutenak eta *Berria*-ri eta *Gara*-ri bistadizo bakar bat bera ere ematen ez diotenak, ezta tabernatan ere”.

Hobetzen ▶ “Gauza batzuk hobetuko balitu (edo espazio gehiago eskaini), jende gehiagok irakurriko luke. Azpeitiko solasaldian Martxelo Otamendik oso ondo esplikatzeko zuten: *DV* eta beste egunkariak jende xumearentzat eginda daude, kirolekin, txumutxuekin eta hala-koekin dezente beteta. *Egunkaria* (zena) pixka bat intelektualagoa bezala zen, elkarrizketa eta erreportai onez beteta. Asmo horiek pixka bat jaitea eta ‘herri xumera’ jaitea falta zen. Kirol tarte hobea eginda –batik bat, futbolari leku gehiago eginda– aldaketa sumatuko litzateke. Eta azkenik, ohitura falta esaten dutenei aitzaki hori kentzeko, Tolosaldean eta Oarsoaldean bezala Urolaldeko egunkari bat sortzea ere ona litzateke”.

Aurrera ▶ “Arazoaren muina ohituran egon daiteke, edo euskaraz irakurtzeko erraztasun eza ere izan daiteke horren arrazoi. Baina salatu nahi dudana ez da hori zehazki, nire salaketaren ildo beste norabide batera doa. Zergatik erosten ditugu egunkari espainolak erdaraz irakurtzeko? Ez al daude egunkari erdaldunak geure herrian? Gutxienez, gure hizkuntza albo batera uzten dugunean, ez dezagun herria ere berekin baztertu”.

Ratata ▶ “Arrazoi du azkenak. Erdaraz irakurtzea nahiago badugu eta erosoago egiten bazaigu, erosi *Gara* edo *Deia*, baina inola ere ez PPrenak eta PSOErenak diren *El Diario Vasco* bezalako ‘inkomunikabideak’. Beraien ideologia ederki sartzen dute egunkari horiek, nahiz eta irakurtzen duenak ez hori uste izan”.

Euskaraz ▶ “Kalitateaz hitz egin du hemen jende batek. Bi galdera: 1. *Berria*-k ez al du nahikoa kalitate zuen ustez? 2. *Gara*-k edota *Deia*-k, esate baterako, euskarazko egunkari nazionalak baino kalitate handiagoa al dute? Nire ustez, *Gara* eta *Deia* baino egunkari hobea da *Berria*. Eta kito. Gero, euskaraz dela eta horrek zabalkundea mugatu egiten duela? Ados. Baina kalitatearena...”.

Hankak lurrean ▶ “Nik uste ohiturak pisu handia duela hemen. Izan ere, 20-30 urteko gazte euskaraz alfabetatuek *El Diario Vasco* erosten duten herrian adinean aurrera doazen hel-

du euskaraz alfabetatugabeek euskaraz irakurtzea erronka handia da. Zer egin behar den? Helmuga errealak ezarri eta gazte horiek ipini jomugan. Helduei dagokienean, horien kontzientziazioa beharrezkoa bada ere, horiegan ohiturak pisu handiagoa duenez, zailagoa da. Aniztasunari dagokionez, nik uste lehengoan mantendu beharko litzatekeela, bera baitzen "pluralena" eta ez "pluralenetakoa". Hori da beldurra daukaguna hitzak esateko orduan!". ◀

5 AZPEITIAZ HITZA, EGUNERO

Kalitateko produktu erreferentziala helburu

2002an hasi zen Uztarría eguneroko bat sortzeko lehen pausoak ematen. Arrazoiak: euskararen normalizazioan askoz gehiago eragiteko eta informazioaren erreferentzialtasuna lortzeko. 2004ko otsailean sortu zuen 'Urola-Kostako Hitza', beste bazkide batzuekin batera.

Uztarría Kultur Koordinadora (2002-martxoan, Eusko Ikaskuntzaren 'Euskonews' aldizkari elektronikoa)

► **1. Globalizazioaren aroan lokalismoak indarra.** Hitzetik hortzera dabilen hitza da globalizazioa. Mundua globalizatzen ari da, batik bat ekonomia arloan. Informazioaren atala ere prozesu horretan murgildua dago, eta, hala, gaur egun noiznahi lor daiteke urruneko zer-baiten (ez edozeren) berri teknologiaren aurrerapenari esker. Baina globalizazioaren aro honetan sekulako garrantzia du lokalismoak, eta hor egundoko zeresana eta zerikusia dute, esate baterako, herri komunikabideek.

Izan ere, edozein eratako informazioa nahikoa eskura dagoen honetan, herritarrek gero eta estimu handiagoa diote gertuko albisteei. Baliteke haxe izatea horren arrazoietakoa bat: informazioaren uholdearen garaian, herritarrak ez dira gehiegi fio kanpotik jasotzen dituzten zenbait albistez, informazio-enpresa erraldoien bidez manipulatuak direlakoan, eta, horrela, urrutitik iristen diren albisteekin informazio hartzaillea defentsarik gabe geratzen da, nolabait esanda, ezin kontrastatuz bezala. Aldiz, herri komunikabideei sinesgarritasun handiagoa ematen diete herritarrek beraiek, albistek gertuko zaizkielako, eta horrek, azken batean, informazio hori haientzat interesgarriagoa izatea ere ahalbidetzen du.

Euskal Herrian 1980ko hamarkadaren azkenaldera hasi ziren euskarazko herri aldizkariak sortzen, eta urte hauetan guztietan garbi geratu da estimua dutena. Euskarazko herri komunikabideak ugartuz joan dira, ez molde bakarrekoak gainera (adibidez, Azpeitian 1999ko azaroan sortu zen Uztarría herri aldizkaria eta 2002ko urtarrilean www.uztarría.com web orria), eta aurrera begira ere badago zereginik.

► **2. Euskarazkoa ez ezik, kalitatekoa ere behar da.** Euskal Herrian, aldizkarien alorrean, hein handi batean, euskarak bereganatu du informazio lokalaren esparrua, euskalgintzaren lanari esker, eta, beraz, euskalgintzak izan du abileziarik horretan. Hori dela eta, lehen euskaraz irakurtzera ohituta ez zegoen jendeak badaki zer den euskaraz leitzea, eta euskarazko aldizkarien hartzaille bihurtu da. Euskararen militanteak dira beste hartzailleak, euskarazko ekimen oro bultzatzea beharrezkoa delako haientzat. Horrek guztiak euskarazko herri aldizkariak –norberak bere tokian– milaka irakurle izatea ahalbidetu du, baita ehundaka bazkide eta hamaika bezero izatea ere.

Dena dela, lehen, batik bat, helburua herri informazioa euskaraz ematea baldin bazen, iritsi da garaia herri informazioa, euskaraz ez ezik, kalitatez emateko ere. Eta hor euskarazko herri aldizkariak atzean geratzen ari dira, kalitate aldetik gutxi aurreratu delako oro har; jokabidean inertzia handiegia dute.

Hortaz, hausnarketa egin beharra dago, eta orain dela 10-15 urteko garaia eta gaur

egungoa desberdinak direla ikusi beharra. Alegia, batetik, gaur egun euskarazko egitasmoak ezin dira hartzaileen euskararekiko militantzian soilik oinarritu, militantzia, zoritxarrez, beheraka baitoa. Eta, bestetik, herritarrek gertuko albisteei garrantzia handia ematen badiete ere, herri aldizkariak ezin dira lo gelditu, kontuan hartu behar delako erdarazko enpresa handiak hasiak direla informazio lokalaren esparruan sartzen –beren baliabide ugarekin–, eta, halaber, kontuan hartu behar da herritarrek gaur egun bestelako informazio gehiago ere badutela –argitalpen espezialduak eta aisiakoak, batik bat–, zein baino zein apainagoak. Horrenbestez, hartzaile kopurua eta merkatua murrizteko arriskua areagotzen ari da, eta, beraz, euskarazko herri aldizkarien eraginkortasuna txikitzeko arriskua ere bai. Eta garrantzitsua da eraginkortasuna aipatzea, aldizkariok helburu jakin bat behar dutelako: euskara zabaltzea eta hizkuntzari prestigioa ematea, herriari protagonismoa ematea, eta gertuko informazio hori modu zabal baina nortasuneko ikuspegi batetik ematea.

Arrisku horiek kontuan hartuta, herritarrei euskarazko produktu bat ezin zaie eskaini euskarazkoa delako soilik; kalitatekoa ere eskaini behar zaie, eta gaur egun herri aldizkariak, oro har, pauso hori emateke dute. Eta bada garaia emateko.

► **3. Kalitateko produktuaren zutabeak.** Herri aldizkari bakoitzak ezagutzen du ondoen bere eremua, eta, beraz, herri aldizkari bakoitzak daki ondoen produktua zertan eta nola hobetu behar duen. Dena dela, ez legoke gaizki ildo horretan euskarazko herri aldizkarien elkarteak –Topaguneak– laguntza eskaintzea. Kontuak kontu, Uztarría Azpeitiko herri aldizkariaren ustez, hauek dira, labur azalduta, kalitatearen urrats hori egiteko zenbait zutabe:

► 3.1. Edukia. Herri aldizkaria horixe da, aldizkaria, eta, beraz, edukiaren tratamenduak aldizkariari dagokiona izan behar du. Orduan, betiere aktualitatean oinarrituta, gaien aukeraketan selektiboa izan behar du, gai propio gehiago landu behar ditu, eta produktuari nortasuna emango dioten atal txikiak sartu (elkartearen helburuekin bat egiten duten edukiak, edota herriko historiaren atalak...).

► 3.2. Diseinua. Herri aldizkariak gero eta apainagoa, erakargarriagoa izan behar du. Edukia da garrantzitsuena, baina oso garrantzitsua da edukia edertzea.

► 3.3. Kazetarien trebakuntza. Aldizkariko kazetariak, langile militantea izan behar du; hori, lehendabizi. Behin profil horretako kazetaria izan ostean, kazetariak etengabeko trebakuntzan jardun behar du: maketazioan, argazkigintzan, euskarari, idazkerari, kazetari-tzan... Aldizkariaren produkzio osoa inola ere kazetariaren esku utzi gabe –aldizkaria ez baita kazetariarena, elkartearena baizik–, hein handi batean kazetariak hasi eta bukatuko du aldizkaria bera, eta, ondorioz, kazetaritzako atal guztiak dominatu egin behar ditu. Adibide bat jartzearren: kazetariak izan behar du berak egindako erreportai baten maketatzailea, berak baita ondoen informazioa nola aletu. Gainera, herri aldizkariak dirua sobera ez dutenez –ez dira jaio enpresa izateko, eta euskara elkarteak beraiek ez dira inoiz izango enpresa, azkenaldian batzuek iradoki bezala–, kazetari balioanizdunak lortuz gero, dirua aurrez daiteke, eta aurrezten den diru hori beste inbertsioetarako erabili.

► 3.4. Iritzia eta zerbitzuak. Herri aldizkariak produktu erreferentziala izan behar du, eta, bide horretan, garrantzitsua da iritziaren atala (aniztasunean oinarrituz eztabaidak planteat-

tuz, inkestak, hausnarketak...) eta zerbitzuarena (etxegintza agentzien eskaintzak, bestelako eskaintzak, telefono zenbaki ugari...) ondo eta zabal lantzea, merezi duten hedadura emanaz.

► **4. ...eta eguneroko hutsunea nola bete?** Euskarazko herri aldizkariak oso funtzio garrantzitsua bete dute orain arte, baina ez dira gai izan eguneroko herri informazioa jorratzeko eta hutsune hori betetzeko. Eta ez dirudi aldizkariak beraiek bakarrik gai direnik edo izango direnik hutsune hori betetzeko. Baina galdera da: euskarazko herri aldizkariak bete behar al dute hutsune hori?

Gaur egun Euskal Herrian gaztelaniazko prentsa espainola da eguneroko herri informazioaren jaun eta jabe, eta atal hori ondo jorratzen dutenez, irakurleak bereganatu egiten dituzte (milaka eta milaka abertzale haien artean), bezeroak ere bai (ehundaka bezero eta enpresa abertzale haien artean) eta, horrela, abertzaleak proiektu espainolak finantzatzen ari dira *oharkabe*an; adibidez, euskarari laguntzen ez dioten proiektuak. Gaztelaniazko, frantsesezko eta euskarazko egunkari abertzaleak ez dira gai izan eguneroko herri informazioaren eremu hori ondo lantzeko eta eremu horretaz jabetzeko, eta ez dirudi bide horretan doazenik. Egoera kezkarria da, bistan denez.

Hortaz, euskarazko herri aldizkariaren garaia iritsi al da esparru horretan zerbait egiteko? Herri aldizkariaren terrenoa al da hori? Edo egunkari abertzaleekin elkarlanean jardun behar dute?... Galderak. Eta eredu bat: Tolosaldea eskualdean Galtzaundi Tolosaldeko aldizkariaren eta *Euskaldunon Egunkaria*-ren artean –hirugarren bazkide bat ere lortu nahi dute: gizarte eragileen ordezkaria–, *Tolosaldean Egunero* egunkaria argitaratzen hasi berri dira: euskarazkoa, egunerokoa –astelehenetan izan ezik–, zortzi orrialdekoa, “zabala”, “partehartzailea”, “berria eta berritzailea”, “praktikoa”...

Horra hor galderak, beraz, eta horra hor eredu bat. Uztarrria Azpeitiko herri aldizkariaren ustez, aurrera begira erabakigarria baldin bada aldizkariok kalitatean jauzi bat ematea, euskaraz eman daitekeen eguneroko herri informazioaren terrenoaz hausnartzea ere garrantzitsua da. Uztarriak ez du uste *Eguneroek* kalterik sortuko liekeenik herri aldizkariak. Globalizazioaren garaian, euskarazko komunikabideen artean informazio lokalaren arloa modu globalean aztertzea litzateke kontua –egunerokoa eta aldikakoa–, eta gero inplikatuaren artean proiektuei batasuna ematea. Azken batean, euskarazko kalitateko produktuak izateko herri informazioaren erreferentzia. ◀

Gurea da hitza eta erabakia

Uztarrria Kultur Koordinadora (2004-otsaila, Uztarrria aldizkariaren 48. zenbakia)

Uztarriak 1998ko apirilaren 4an egin zuen jendaurreko aurkezpen-jaialdian hauxe zioen idatzian: “Atxagak, *Behi euskaldun baten memoriak* liburuan dio ez dagoela behi

makala baino makalagorik. Ez dakigu Atxagak zer ote dioen azpeitiarroi buruz, baina, orokorrean ezagutuko bagintu, seguru esango lukeela behi makalen antz handia dugula euskara eta kultur arloetan. Hau da, zaila izango dela, bi arlo horietan, azpeitiarrok baino euskaldun makalagorik aurkitzea. (...) Lan mundua, zerbitzu mundua, komunikabideen mundua eta gizarteko beste hainbat arlo aurrera doaz, abiada bizian aurrera joan ere. Gure herria atzean geratzen ari da (euskara, kultura eta komunikazioa arloetan). Makalak izan gara. Baina hemendik aurrera ez dugu makalak izan behar. Hemendik aurrera ezin dugu trena ziztu bizian aurretik pasatzen ari zaion behia bezala gelditu. Mugitu beharra dago, parte hartu beharra dago, elkarlana bilatu beharra dago, betiere Azpeitiaren eta, azken batean, Euskal Herriaren mesederako izango baita”.

Sei urte pasatu dira, eta Uztarriaren ustez, euskara, kultura eta komunikazioa arloetan gaur ez gara hain makalak. Aurretik egin zen eta geroztik denon artean egin den lanari esker, pauso handiak eman ditugu. Eta handienetakoa orain dator: *Urola-Kostako Hitza*. Euskarazko egunkari horrek urratsak sendo eta azkar egin ditzan, jaialdi hartako esaldi bat aipatu behar berriro: “Hemendik aurrera ezin dugu trena ziztu bizian aurretik pasatzen ari zaion behia bezala gelditu. Mugitu beharra dago, parte hartu beharra dago, elkarlana bilatu beharra dago, betiere Azpeitiaren eta, azken batean, Euskal Herriaren mesederako izango baita”.

Gurea da hitza... eta erabakia. ◀

‘Hitza’-ren indarra

Iban Arregi eta Enekoitz Esnaola (Bertako Hedabideak; 2004-02-22, 'Urola-Kostako Hitza' egunkaria)

Euskarazko tokiko prentsak beste pauso bat eman du: ostiralean [otsailaren 20an] argitaratu zen *Urola-Kostako Hitza* egunkariaren 1. zenbakia. Horrela, 11 herrietako bizilagunek eskualdean gertatzen denaren berri egunero prentsan euskaraz jasotzeko aukera daukate. Lehen ere bazuten bertako berri, zazpi herri aldizkari daudelako, eta haiek egin duten (eta egiten ari diren) lan bikainari esker, Urola-Kostan euskarazko prentsa irakurtzeko zaletasuna handituz joan da. Aldizkarien bidearen jarraipena da *Hitza*, eta herritarrek, aldizkariak orain arte bezala aldiro izateaz gain, egunero bertako euskarazko egunkaria izango dute.

Herri informazioaren esparrua estrategikoa da (hala diote normalizazio planek: EBPNk, Bai Euskararik...), herritarrek estimu handia diete bertako albisteei, eta alde horretatik Urola-Kostan euskaraz eguneroko prentsan zegoen hutsunea betetzeko sortu da *Hitza*.

► **Elkarlanaren ondorioa.** Eskualdeko herri aldizkarien euskara elkartean, gizarte eragilean eta Euskarazko Komunikazio Taldeko (EKT) Bertako Hedabideak enpresaren arteko elkar-

lanaren ondorioa da *Urola-Kostako Hitza*. Halaxe sortu ziren Tolosaldean (2001eko abenduan), Oarsoaldean (2003ko ekainean) eta Lea-Artibai eta Mutrikun (2003ko azaroan) bertako euskarazko egunkariak. Horrela sortu nahi ditugu hurrengoak ere, eta horretan ari gara [hain zuzen, horrela sortu da 2004ko urrian *Goierriko Hitza* ere]. Gaur egun, proiektua gauzaturata edo gauzatzeko bidean den lekuetan, 18 euskara elkarte daude, eta Bertako Hedabideak 16 ari da aurrera egiten. Oso handia da, beraz, toki horietan herri aldizkarien sektorearen eta Bertakoren arteko adostasun maila.

lñaki Uriari maiz entzun izan diogu "aurrera eta batera", eta gure asmoa hori izan da beti. *Egunkaria* itxi zutenean, eskualde edo hirietako euskarazko egunkarien proiektua utzi beharrean, aurrera segitu eta, Tolosaldean *Hitza*-k *Tolosaldean Egunero*-ren lekua hartzeaz gain, beste hiru *Hitza* sortu ditugu. Euskara elkarteekin eta gizarte eragileekin sortu ere, batera. Aurrera egiteko. Elkarlana, posible izateaz gain, beharrezkoa dela erakusten du proiektu komunikatibo berri horrek.

► **Kalitateko egunkari pluralak.** Garbi dugu zein den helburua: tokian-tokian kalitateko egunkari plural erreferentziala izatea *Hitza*.

► Kalitatekoa. Irakurle euskaldunak ez du *Hitza* jaso behar euskarazkoa delako (hori ere oso garrantzitsua den arren), baizik eta bere herriko eta inguruko berri ondoen, azkarren eta gehien berak ematen diolako. Eduki eta diseinu aldetik kalitatearekin lotu beharra dago euskarazko prentsa, jakin baitakigu nolakoa den militantziaren grafikoa: hasieran goraka doa, euskarazkoa delako kontsumitzen da, baina grafikoa gero beheraka doa produktua ez bada kalitatekoa.

► Plurala. "Zein bezain plurala?", zioen *Berria berri* kanpainak. *Hitza*-k ere halakoa izan nahi du: plurala; pluralena. Ezinbestean. Sentsibilitate guztien berri eman behar du. Euskaldun guztiena izateko.

► Erreferentziala. Kalitatekoa eta plurala izateagatik bihurtuko da *Hitza* tokian tokiko egunkari erreferentea. Tolosaldean [eta 2004ko maiatzetik Leitza eta Areson ere bai] hango *Hitza* da egunkaririk irakurriena: 7.500 aleko tirada du. Oarsoaldean dagoeneko 5.500 aleko tirada dauka, eta Lea-Artibain eta Mutrikun oraindik 100. zenbakira iritsi ez den arren 4.300ekoa; azken bi horietan, beraz, oso-oso gertu dago eskualdeko egunkari erreferente izatetik. Urola-Kostan ere hori nahi dugu: gutxienez, 10.000 aleko tirada lortzea eta bertako egunkaririk irakurriena izatea.

► **Hiru ondorio.**

► Euskararen normalizazioa. Kalitatekoa eta plurala delako irakurriko dute herritarrek euskaraz, horrela lortuko du euskarazko hedabide horrek tirada handia, eta orduan bihurtuko da hizkuntzaren normalizaziorako tresna eraginkor. Hori lortu nahi du *Hitza*-k; egunero, gainera. Euskaraz irakurtzen ohitu gabe zegoen Tolosaldeko baserritar edadetu batek esan zuen: "Hasieran *Egunero* [orain *Hitza*] nahi nuen, orain [hirugarren hilabeterako] behar dut". Adierazgarria.

► Iragarkiak. Halaber, lehen aipatutako guztiarekin izango dira *Hitza*-k euskarri erakar-

garri iragarleentzat. Urola-Kostakoak hilabete gutxiren buruan lor dezake 10.000 aleko tirada, eta, beraz, lau Hitzen artean 27.000 aleko tirada edukiko dute (egunkaria jasotzeko ize-na eman behar da, eta horri balioa ematen diogu). Tokian tokiko iragarleentzat dagoeneko euskarri errentagarria da bere eskualdeko *Hitza*, bertan jarritako publizitatea, edo eskela, edo iragarki laburra delako inguruan ikusiena. Iragarle etxe handiak ere hasi dira errentagarritasunarekin lotzen *Hitza* denak; are gehiago lotuko dituzte horrelako egunkari gehiago sortzen ditugunean. *Berria* ere kontuan hartzen badute, lau Hitzen eta haren artean 50.000 aleko tirada izango dute Urola-Kostakoak lortzen duenean helburua, euskarazko egunero-ko prentsak inoiz izan duen zabalkunderik handiena hain zuzen, eta publizitate etxe handiek hasi beharko lukete garbiago ikusten zabalkunde horrek errentagarritasuna bermatzen duela.

► Erakunde publikoen laguntza. Herritarrei egunero kalitateko zerbitzu informatiboa etxeraino eramateaz (buzoietara banatzen da) eta euskararen normalizatorako tresna eraginkor izateaz gain, proiektu hau osoa ere bada, euskararen aldeko eragileen elkarlana dagoelako eta egunkariak sentsibilitate guztietako informazioa ematen duelako; gauza asko uztartzen du, hain zaitua dagoen gizartea honetan. *Hitza* bakoitzak autofinantzazioan goraka joateko helburua du, baina eskualdean hasieratik errotzeko eta indarra izateko, eta lehen aipatutako guztiagatik, beharrezkoa du erakunde publikoen laguntza ere. ◀

Beste Hitzen esperientzi interesgarria

Idoia Mendizabal (kazetaria; 2004-otsaila, Uztarría aldizkariaren 48. zenbakia)

Urola-Kostako aurreneko euskarazko egunkaria izango da *Hitza*, baina dagoeneko horrelako hiru egunkari daude Euskal Herrian: Tolosaldean (2001-12-18tik; hasieran *Egunero* zen, eta *Egunkaria*-ren itxierarekin *Hitza* sortu zen), Oarsoaldean (2003-06-24tik), eta Lea-Artibai eta Mutrikun (2003-11-11tik). Hirurek ere “oso harrera ona” izan dute herritarren artean,; hala kontatu diote Uztarriari, behintzat, hiru zuzendariek.

“Tolosaldekoa izanik proiektuko aurrena, ez zen hasiera erraza izan, lan egiteko moduan dena berria zelako: ezagutzera eman, publizitatea, informazioa lortu, zorion agurrak... Baina jendeak oso harrera ona eman zion eta gustura hartu zuen. Gaur egun, 7.500 ale banatzen ditugu egunero”, dio Joxemi Saizar, *Tolosaldeko Hitza*-ko zuzendariak. “Oarsoaldean, berriz, 5.000 harpidedunetik gora ditugu dagoeneko, eta harpidetza egin nahi duten herritarren eskariak ez du etenik”, dio Arantxa Iraola, *Oarsoaldeko Hitza*-ko zuzendariak (azpeitiarra du ama: Mari Karmen Alkorta, *Xumaia* familiakoa). “Lea-Artibai eta Mutrikun ere oso harrera ona izan du. Hasi eta berehala konturatu ginen zelako oihartzuna hartzen hasi zen. Umeen erreakzioa da horren lekuko, kazetariren bat zerbait buruz idaztera joan eta argazkiak ateratzen hasi orduko ‘*Hitza*-koa, *Hitza*-koa!’ hasten zirenean”, esan du Lore Bengoetxea, *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza*-ko zuzendariak.

Herri informazioan prentsan eta euskaraz esperientzia berriak dira Hitzenak (Hernanin ere bada egunkari bat, bi orrialdekoa: *Kronika*), eta hiru zuzendariak diote beharra zegoela horrelako produktua sortzeko. "Oarsoaldea oso eskualde bizia da, baina, hein handi batean, zatitua, hainbat lubakitan sakabanatua. Alde horretatik, herriko elkarte eta eragileek elkarren berri izateko tresna aparta da egunerokoa. Zer esanik ez, informazio emate hori, gainera, euskaraz egitea oso garrantzitsua da. Batetik, euskaraz irakurtzeko ohitura, oro har, oso ahula delako oraindik euskaldunen artean. Gehienek, erdarazko hedabideetara jotzen dute. *Hitza* eskura izateak, ordea, ate berri bat ireki die", dio Iraolak.

► **Erreferentziala.** Saizarrek esaten duenez, euskarazko egunkariak "informazioaren erreferentzialtasunean pauso handia" eman du: "*Tolosaldeko Hitza* da erreferentzia eskualdean. Gure egunkarian eskualdeari buruz kaleratzen den informazio bolumena ez da beste inon kaleratzen. Horregatik Tolosaldeko gizarte eragileentzat garrantzitsua da *Hitza*-n agertzea: informazioa, iritziak, publizitatea...". Besteak beste, "kazetaritza bizia" egiten dutelako, Iraolak uste duenez: "Hemen, herriko kontuen berri izateko, hilabetekariak zeuden orain arte eskura, edo egunkari jakin batzuek argitaratzen dituzten albiste solteak. Orain egunkari bat dute egunero kalean, zortzi orrialdekoa, euskaraz. Eta kazetaritza bizia egiten saiatzen gara: erreportaiak, elkarrizketak, kronikak... Albisteak bertatik bertara kontatzeko ahalegina egiten dugu. Eta jendeak benetan eskertzen du hori".

Lea-Artibain uxatu dituzte beldurrak. Bengoetxea: "Hasieran, denok bertigoaren antzeko zeozer sentitu genuen, eta uste dut gauza bera pasatuko zela gainerakoetan, baina behin hasita ikusi da gurea bezalako eskualde txikietan ere badagoela zer kontatu, eta jendeak beharrezkoa ikusten duela. Bakoitzari berri batzuk beste batzuk baino gehiago interesatzen zaizkion arren, denentzako lekua dago. Albiste batzuen inguruan esan izan digute, adibidez, konturatzen direla *Hitza*-n agertu izan ez balira ez zituztela sekula jakingo".

Herri bakoitza ez ezik (Tolosaldean 28 herri dituzte, Oarsoaldean 4, eta Lea-Artibai eta Mutrikun 12; Urola-Kostan 11), eskualdea "uztartzen" ere laguntzen du *Hitza*-k, "informazio asko ematen duelako, eta, gure ustez, kalitatez eta pluraltasunez".

Eta euskaraz. "Ekarpen nagusietakoa euskararen normalizazioan eman dela iruditzen zait –dio Saizarrek–. Egunero eskualdeko 7.500 etxetan euskaraz irakurtzea aurrerapauso handia da. Orain arte herri aldizkariak lan handia egin dute, baina gure eskualdean sekula ez genuen euskarazko irakurle kopuru hori lortu. Eta egunero, gainera". Iraola: "Oarsoaldean euskararen presentzia oso urria da, %25 gara euskaldunak, baina euskara ikasten ari diren haur, gazte eta helduak oso ugariak. Horientzat ere tresna egokia da *Hitza*; eta bat egin dute egunerokoarekin. Maiz etortzen zaizkigu, esaterako, guraso erdaldunak euren umeentzako zorion agurrak jartzera, ez dute guk kontatzen dugun guztia ulertzen, baina haintzat ez gara arrotzak...; hori oso garrantzitsua da".

► **"Arrakasta".** Kazetariak egunero daude harremanetan jendearekin eta, jakina, anekdota ugari dute kontatzeko. Saizar: "Orendaingo baserriar batek gure kazetariari esandakoa: 'Lehen senarra eta biok gosalduta eta ukulura joaten ginen lanera. Orain, *Hitza* dagoenetik,

gosaldu eta *Hitza* irakurtzen gelditzen naiz eta gero joaten naiz!”. Iraola: “Hasieran, batez ere hainbat erdalduni, arrotza eta arraroa egiten zitzaien; egunero Oarsoaldeko egunkaria etxera euskaraz! Behin emakume batek telefonoz hotsegin zuen erredakziora, ea periodiko ‘klandestino’ ote ginen galdetuz...”. Bengoetxea: “*Hitza* sortu eta berehala, markinar bat erredakziora etorri zitzaigun eta armonikarekin bertoko neskei saioa eskaini zigun”.

Eta orain *Urola-Kostako Hitza*. Laugarrena. Iraolak dio “arrakasta handia” izan dezakeela, “eskualde bizia delako, eta oso euskalduna. Ekarpene handia egingo du”. ◀

Gari Berasaluzeri elkarrizketa

Idoia Mendizabal (kazetaria; 2004-otsaila, Uztarrria aldizkariaren 48. zenbakia)

Hitzalditik hitzaldira dabil Gari Berasaluze zarauztarra, eskualdean *Urola-Kostako Hitza* egunkaria aurkeztean, bera izango baita zuzendaria.

Zergatik sartu zara proiektu honetan?

Dudarik gabe, eskualdea euskalduntzeko proiektu giltzarria iruditzen zaidalako. Lehen aldiz izango dugu Urola-Kostako biztanleok gure herrietan sortzen diren albisteei buruzko informazioa prentsan egunero eta gure hizkuntzan jasotzeko aukera. Uste ez badugu ere, horrek gure eguneroko bizitza eta irakurtzeko ohiturak aldatu egingo ditu, eta ohorea da horrelako lan batean aritzea.

Editore bezala ibili zara azken lau urteetan; orain kazetaritzara saltoa. Alde handia al da? Aurretik, non eta nola aritu izan zara kazetaritzan?

Egia esan, lehendik ere zerbait ezagutzen dut kazetaritza mundua. *Egin* egunkarian Zarauzko kronikagile aritu nintzen hainbat hilabetez, egunkari hura itxi zuten arte. Irratigintzan ere aritu naiz Herri Irratian eta Egin Irratian. *Egunkaria*-n, berriz, asteburuetakoa literatura gehigarria kudeatzen nuen, eta gazteen *Barkatu Ama* gehigarriko *Azken Portuko taberna* atalaren ardura izan nuen sasoi batean. Gero, Txalaparta argitaletxean editore lanean hasi ondoren, zutabegile moduan aritu naiz *Gara*-n eta *Berrria*-n. Aldea? Kazetaritza askoz bizkorragoa da, eroagoa, baina gustukoa izanez gero, kateatu egiten zaitu lanak. Gustura itzuli naiz berriro prentsa idatzira.

Urola-Kostan zergatik behar da bertako euskarazko egunkaria?

Nik, behintzat, ezin dut imajinatu italiarazko egunkaririk gabeko Italiarik. Zergatik iruditu behar zaigu normala euskarazko egunkaririk gabeko Euskal Herria? *Urola-Kostako Hitza*-ren bitartez, inguruko berri gure hizkuntzan jasoko dugu, besterik gabe. Baina hain oinarritzkoa dirudien hori ez genuen orain arte.

Uste al duzu *Hitza*-k ondo funtziona dezakeela eskualdean?

Ez dugu inolako zalantzarik. Biztanleen %76 inguru euskalduna da Urola-Kostan. Gure helburua lortzen badugu –egunero kalitateko egunkari plurala argitaratzea–, laster lor dezakegu *Hitza* gure herrietan eta etxeetan erreferente bihurtzea. Egin beharreko lana ondo egi-

tearekin nahikoa dugu: batetik, irakurleek nahi dutena eskaintzeko eta, bestetik, irakurle berriak sortzen hasteko.

Egunkaria itxi zutenean, mugimendu handia egon zen eskualdean...

Eta seinale ona da. Nabarmena da eguneroko prentsa euskaraz irakurtzeko gogoia duen eskualdea dela gurea. Horregatik, gogo eta behar horren arabera egituratu eta plazaratuko dugu *Urola-Kostako Hitza*. ◀

Kasualitatea

Iban Arregi (kazetaria; 2004-otsaila, Uztarrria aldizkariaren 48. zenbakia)

Uztarrriak lau orrialdeko agenda argitaratu zuen 1998ko martxoan, hilerokoa; handik gutxira, *Azpeitian zer?* hilean behin argitaratzen hasi zen Udala. Uztarrriak herri aldizkaria argitaratu zuen 1999ko azaroan; pixka bat lehenago, herri aldizkariarena herrian jakina zenean, *Azpeitian zer?* orrialde gehiago egiten hasi zen, eta editorial batean azpeitiar denen herri aldizkari moduan aurkeztu zen; Uztarrriak aldizkaria berri egin zuen 2002ko urtarrilean, eta web orria aurkeztu; *Azpeitian zer?*-ek orri kopurua gehitu zuen orduan. Uztarrriak *Hitza*-ren sorreran parte hartu du orain, eta *Azpeitian zer?* koloretan... Kasualitatea ala kausalitatea? (...). ◀

‘Hitza’ egunkaria

Leire Ostolaza (bertsolaria; 2004-otsaila, Uztarrria aldizkariaren 48. zenbakia)

Zorionez, *Urola-Kostako Hitza* euskarazko egunkari berria aterako da. Gurean gehien-gehoak euskaraz hitz egiten duen arren, ez da erraza gertatzen jendeari betiko *Diario*-a erosteko ohitura kentzea. Sarri esan izan dugu adineko jendeak euskaraz irakurtzeko dituen zailtasunengatik dela. Baina konturatzen ari naiz gazte ugari eusten diola etxeko ohiturari; eta, tabernaren batean egunkari bati kolpe egiterako orduan, betiko Azpeitiko karta eta Realaren berri ematen duten kirol orrialde amaigabeak bilatzen dituztela. Beste hainbat gauza bezala, automatikoki egiten den zerbait da, eta pixka bat pentsatzen jarrita, ez du uste gehingoak bere dirua ematen dion publikazio horri emango ziokeenik. Geure buruari harrika egitea da, eta beste egunkarien hurbiltasunik eza aitzakiatzat zutenek orain badute egunero herriari dagokion orrialde bat, bertatik bertara egina, euskaraz emana.

Kontzientzia kontua da, beraz, egiten dugunaz konturatzea. Alegia, beste mila gauzatan bezala, bi aldiz pentsatuko bagenu gure dirua zertan xahutzen dugun, gero zertan erabiliko den jakinda, ez luke gure hizkuntzak izango prentsa idatzian gaur egun duen leku apala. ◀

‘Hitza’-ren aurkezpen festan

Laxaro Azkune (Uztarriako lehendakaria; 2004-02-19, ‘Urola-Kostako Hitza’ barruan dauden euskara elkarteen izenean, egunkariaren 1. zenbakiaren aurkezpen festan, Zarautzen)

Eskerrik asko, gaur, hemen, hitz egiteko aukera emateagatik. Ohore bat da niretzat (euskara elkarteen izenean hitz egiten ari naiz, gainera) eta estimatzen dut eman didaten aukera; lotsa pixka bat ere ematen dit, baina.

Denok gara zorioneko. Zorionak denoi! Zorionak *Txaparro*, *Artzape*, *Baleike*, *Danbolin*, Uztarria... eta herri aldizkari horien inguruan dabiltzan euskara elkarteei; euskaltzaleei, azken batean.

Lan asko, bilera ugari eta beste hainbeste buruhauste. Horiei esker lortu baitira herri aldizkariak, euskaraz herriko kontuak ezagutzeko ohiturak, beste hainbat ekimenen artean. Hilean behin edo hamabostero berriak jasotzen ohiturik geunden baina orain prentsan urrats handi bat egin dugu, egunero gure herriko kontuak euskaraz ezagutzeko aukera paregabea dugu bailara honetan ere.

Argi dugu euskarak ez duela lortzen ezer ere debalde, dena kostatuta eta ongi frogatu ondoren ematen zaio euskarazko edozeri onespena. Hemen ere ez da desberdin izango.

Herri honetan, zenbaiten ustez, naturala erdaraz irakurtzea dela sinestarazi digute. Euskararen gaitasunak beti jarri izan dira zalantzan, balioa frogatu egin behar izan du eta, hala ere, kontuz. Hori *Euskaldunon Egunkaria*-k frogatu zuen egunero orain urtebete arte eta geroztik *Berria*-k jarraitzen du Euskal Herri mailan, lan horretan. Prentsan egunerokoan herri bakoitzeko albisteak falta ziren, ordea. Hemen dugun *Urola-Kostako Hitza*.

Ahalegin handia eskatu du honek, herri desberdinak eta zenbaitetan ikuspegi desberdinak elkartzea ez da erraza izan, hemen bezala beste lekuetan ere. Abiatzea lortu dugu eta orain bidean ikusiko dugu aurrera nola egin, ibilian egiten omen da-eta bidea, elkarlanean betiere. Hala ere, eskari txiki bat tokian tokiko herri agintariei: neurri honetako proiektuek merezi eta behar duten babesa eskatzen diet, eta etor daitezkeen proiektu berriei ere eman diezaieten. ◀

‘Hitza’, diru laguntzak

Iban Arregi (kazetaria; 2004-martxo, Uztarria aldizkariaren 49. zenbakia)

Euskarazko prentsaren sektorea aurreraka doa; proiektu komunikatibo sendoak ari da esortzen, herri ikuspegia duten komunikazio enpresak. *Hitza*-k prentsa irakurtzeko azpeitiarron ohitura aldatuko duen, horixe galdetu du uztarria.com-ek. Batzuek baietz diote eta beste batzuek ezetz; denetik, azokan bezala. Kontua da orain Herri bezala errekonozitzen ez gaituen erdarazko egunkaria erosteko arrazoi (edo aitzakia) bat gutxiago daukagula, eta

ez da gutxi. “Neurri honetako proiektuek merezi eta behar duten babeseta laguntza eskatzen diet herri agintariei”, esan zuen Laxaro Azkune Uztarriako lehendakariak Zarautzen, *Hitza*-ren aurkezpenean. Badaezpada jarri dut hemen, elurragatik-edo azpeitiar asko falta zelako otsailaren 19ko iluntze hartan. ◀

‘Hitza’-ko Azpeitiko gizarte eragileak

Ihintza Agirretxe (kazetaria; 2004-martxoa, Uztarría aldizkariaren 49. zenbakia)

Azken hilabete honetan egunkari berri bat jaio da. *Hitza* da egunkariaren izena, eta Urola-Kostako etxe guztietan sartu da dagoeneko. Egunkaria otsailaren 19an aurkeztu zuten, Zarautzen, eta hurrengo egunean, *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutela urtebete bete zen egunean, Azkoititik Oriora bitarteko etxeetara iritsi zen. Proiektu hori aurrera eramatea hiru zutabe nagusik ahalbideratu dute: alde batetik, Euskarazko Komunikazio Taldea dago, Bertako Hedabideen eskutik; bestetik, eskualdeko herri aldizkariaren euskara elkarteak; eta, haiez gain, hain garrantzitsuak diren gizarte eragileak daude. Azpeitian hasieratik lau gizarte eragile sartu dira proiektuan: Lagun Onak Mendi Bazkuna, Ikasberri Azpeitiko Ikastola, eta Zutoin (Urola Ikastola Azkoitia-Azpeitia BHI) eta Zutarri (Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai) guraso elkarteak.

▶ **“Tresna egokia”.** Maje Larañaga (Lagun Onak M.B.), Josu Galarraga (Zutarri), Luxio Galarraga (Ikasberri) eta Agustin Lizarralde (Zutoin) gurean izan dira, eta proiektu berri honetan parte hartzerat nolatan animatu diren galdetzean, ez du inork zalantzarik izan. “Euskarazko tresna egokia dela eta, garai batean *Euskaldunon Egunkaria*, orain urte erdi bat *Berria* eta orain *Urola-Kostako Hitza* ere bultzatu behar genuela pentsatu genuen. Gainera, oraindik eta gehiago gure eskualdeari buruz informatuko gaituen euskarazko prentsa izanda”, esan du Luxio Galarragak.

“Euskara eta euskal kultura suspertzerat dator *Hitza*, eta gu ikastola bat garenez, gure bultzada eman beharrean izan gara. Urola eskualde euskalduna da, baina euskara idatzia nahiko urria da, eta prentsa idatzia bultzatzea beharrezkoa iruditu zitzaigun”, dio Josu Galarragak.

“Babesa”; guztiek aho batez erantzun dute beraiek egunkari berri honi zer eskaintzen dioten galdetzean. Lau gizarte eragileek jende ugari dute atzetik, eta proiektuak pertsona horien guztien babeseta bultzada duela esan dute. Horretaz gain, behar dutenean laguntzeko prest ere azaldu dira. Beraz, hain garrantzitsuak diren laguntza eta babeseta eskaintzen dituzte, gehienbat.

Gaur egun, oraindik herriko lau eragile baino ez daude proiektu honetan sartuta, baina laster kopuruak gora egitea espero dute, *Tolosaldeko Hitza*-n-eta gertatu den bezala (Tolosaldean ia 80 gizarte eragile daude sartuta enpresan, eragileen kultur elkartearen

bitartez). “Euskararen alde egiteko aukera egokia da oraingoa; ez da askotan izaten euskararen alde horrelako gauza garrantzitsua egiteko aukera eta, horretaz gain, inguruko informazioa lortzeko dugun hutsunea beteko du *Hitza*‑k”, dio Maje Larrañagak.

► **“Bidelagunak behar”**. “Euskara indartzea guztion lana da, eta bidean aurrera jarraitzeko bidelagunak behar dira, eta guk aurrera egin nahi duenari eskua luzatzen diogu”, gaineratu du Josu Galarragak. Luxio Galarragak uste du “tresna bera ezagutu” eta bakoitzak ikusiko duela “nola den beharrezkoa” egunkari berria: “Azpeitian tresna natural bihur daiteke, gaur egun *El Diario Vasco* den moduan, eta horrek euskarazko prentsa naturala bihurtuko du. Gainera, herriko taldeen ekitaldien berri emateko tresna egokia da *Hitza*, eta talde guztion beharra da hori”.

“Horrelako komunikabide batean beharrezkoa da eragileen babesa, eta gizarte eragilearen batek euskararen alde zerbait egin nahi badu, hemen dauka aukera”, dio Agustin Lizarraldeak.

Oraindik pare bat aste baino ez daramatza *Urola-Kostako Hitza*-k kalean, eta espero da jendea eta taldeak produktua ezagutzen doazen heinean, herriko enpresak, sindikatuak, elkarteak, ikastetxeak... hurbiltzen hastea; hala ere, *Hitza*-k berak laster hasiko du bazkide berriak lortzeko kanpaina, eta orduan joko du eragileengana. ◀

Zorionak!

Aitor Aranguren (Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Saileko zuzendaria eta EAko zinegotzi ohia Azpeitian; 2004-maiatza, Uztarría aldizkariaren 51. zenbakia)

Komunikabideek izugarritzko eragina dute gizartearengan eta Uztarría ez da salbuespena. Dagoeneko 50 zenbaki kaleratu ditu, web orria martxan ipini, liburuxkak, *Literatuzta*, *Hitza* bultzatu... eta proiektu aberats honek sendotuta eta bizirik dirau. Uste dut denok ados egongo garela esatean herri mailako aldizkari bat irekia, plurala, parte-hartzaileria eta kritikoa ere izan behar dela. Nik, gainera, beste aditz bat. behintzat. ez nioke erantsiko: politikoa. Lehen 50 zenbaki horiei begirada bat emanez gero, noizbehinka nabari zaio Uztarríari ‘tik’ politiko bat, eta, gainera, herrena beti hanka berekoa da. Jakina, sentipen hori guztiz pertsonala da, baina nire ustez, arazo hori saihesten asmatu beharko luke.

Zerbaitek egiten bagaitu herri, hori euskara da. Euskararik gabe ez gara ezer. Euskara da gure altxorrik preziatuena eta abertzaleok batzen gaituen bakarrenetakoa (batzuetan). Alor horretan, eta Azpeitian, Uztarríak bete-betea asmatu du, izugarritzko lana burutzen ari baita. Herriko eguneroko albisteek duten indarrak baliatuta euskara idatzia jendeari hurbildu dio eta ‘derrigortu’ euskaraz irakurtzera. Azpeitiarrok hitzetik hortzera darabilkigu gure euskaltasuna, azpeitiarrez hitz eginda euskaldun oso imajinatzen gara, baina azpeitiarrez hitz egitea ez da nahikoa, euskararen etsairik handiena euskaldunok baikara. Euskaraz bizi

beharra daukagu. Oso ondo dago Donostiako Kontxako pasealekua jendez betetzea euskararen alde, baina urrats handienak eguneroko urrats txikietan egiten dira, euskaraz irakurtzeko ahaleginak egitean, notatxoak idaztean, NANaren edo telefono zenbakia esatean, Donostiako denda batean sartzean, lanean, kiroletan, taberna eta dendetan...

Nigan, behintzat, Uztarriak eragina izan du. Zorionak! ◀

‘Hitza’-ren sorreran webean eztabaida

(2003-ekaina, www.uztarria.com-en eztabaida)

Hitza-ren sorrerak prentsa irakurtzeko azpeitiarren ohitura aldatuko duela uste al duzu? Galdera horixe jarri zuen uztarria.com-ek 2004ko otsailean, *Urola-Kostako Hitza* euskarazko egunkaria sortu zen garaian. Parte-hartze handia egon zen orduan ere, eta erantzun haietako batzuk daude ondoren.

Aintzane ▶ “Gure herrian *DV* ‘enkrastatuegia’ dagoela iruditzen zait, lotsagarria bide batez esateko. Egoera hori aldatzerik izango genuke, eskelak eta herriko kronikak beste egunkari batzuetan argitaratuko balira, baina zail samarra ematen du horrek ere”.

Saturdei jirou ▶ “Nire ama, horrenbeste urtean *El Diario Vasco* irakurtzen jardun eta gero (euskaraz ez omen zuen-eta ia ezer ulertzen), gutxienez, euskaraz irakurtzen hasi da. Jende gehiago hasiko balitz, euskaraz irakurtzen ohituz gero *El Diario Vasco* utzi eta euskal prentsa gehiago irakurriko litzatekeela iruditzen zait”.

Pixkanaka ▶ “Nire ustez, pixkanaka baldin bada ere, batzuk joango dira ohiturak aldatzen. Orain, oso poliki, zeren eta jendeak Azpeitian *El Diario Vasco*-rekiko duen lotura hori urte askoan hartutakoa delako”.

Apunteak ▶ “1. Guk, euskaldunok ere, eraginkorrak izan behar dugu, eta eguneroko batek lor dezake hori, eta, errespetu guztiarekin esanda, astekari batek ez. Egun batetik bestera eman behar ditu euskarazko komunikabide batek berriak, baita herrikoak ere, bestela kadukatuta geratzen gara. Zabaltasunez beti, baina bere erara, euskaltzale izanda, hemengo gaiak sustatuz. Gizarte hau oso azkar bizi da, eta ezin gara atzean geratu, ezin dugu astean behin bizi informatzerakoan. Eta gauza landuagoak ere egin behar dituzte komunikabide euskaldunek. Azpeitian hor dago Uztarria, hilerokoa. 2. *DV* oso errotua dago gure herrian ere, baina *Hitza*-ren mugimendu honek trasalantikoa mugitu egin nahi duela uste dut. Baldintzak betetzen ditu: egunkari txukuna, egunerokoa, etxera banatuta, tirada handia, herriek espazio finkoa eta Azpeitiak zabala... Trasalantikoak jira-buelta ez du azkar ematen. Baina Azpeitian ere hasiko da mugitzen. Nik ez dut dudarik”.

Aranguren ▶ “*Hitza* oso positiboa izango da eskualdeko berriak egunero jasotzeko. Hala ere, ez dut ulertzen zergatik esaten den beti *DV* erdarazko egunkaria denik. Nik *DV* erosten duenari *Hitza* ere hartzeko esango nioke, eta egunkari bat erosteak ez du esan nahi bere ildo editorialarekin bat zatozenik. Denok dakigu *DV* eskelengatik, herriko berriengatik eta Realagatik erosten duela jendeak. Gainera, *Hitza* bazetorrela ikusirik, herriko kartei toki handiagoa eman diote orain, eta, Azpeitiko kasuan, behintzat, euskaraz irakurtzen ditut nik albiste asko *DV*-n”.

Tristea ▶ “Tristea da eskelengatik erostea *DV*, edota Realagatik. Eskelarena 'erraza' da kontpontzea: azpeitiar bat zer dago, euskarazko prentsaren alde baina gero eskelarik ekartzen ez duelako geratzen al da erosi gabe? Hasi norbera, hala tokatzen zaionean, eskelak euskarazko prentsan ere jartzen. Ez da hasiko *Berria*, ez da hasiko *Hitza* baimendu gabeko eskelak jartzen, ezta? Eta Realarena ba... Dena dela, ez dut uste horiek direnik arrazoiak, kontzientzia falta baizik. Eta euskarazko prentsaren kalitate falta ere ez da: nik denbora gehien, dudarik gabe, *Berria* irakurtzen pasatzen dut”.

Eman hitza ▶ “*DV* eskelengatik erosten duela jendeak? Atera dezagun euskarazko eskelen egunkari bat; *Eskelik* asko, adibidez. *DV* Azpeitiko kartagatik erosten duela jendeak? Dagoeneko ez dago aitzakiarik, *Hitza* eskuan edukita; gure herriko informazioa egunero, eta, gainera, euskaraz. *DV* Realagatik erosten duela jendeak? Lasai, laster Bigarren Mailara jaisten denean, ez zaio Reala eta futbola inori interesatuko. Gure kirolak ea indartzen ditugun denon artean”.

Hirugarren aldiz ▶ “Zergatik hartzen duzue hain gaizki jendeak *DV* erostea? Nik *DV*, *Gara*, *Berria*, *La Razón*, *ABC*, *El Mundo*... denak erosi eta irakurtzea nahiko nuke, baina ez astirik eta ez dirurik ez daukadanez, *Berria*-ko harpideduna naiz, horietatik euskaraz argitaratzen den bakarra delako (eta gaur egun esan dezaket niretzat egunkari onena ere badela). *Hitza* edozeinek jaso dezake, eta etxeko buzoian jasoko dugu. Horrek oraindik euskarazko produktuak saltzeko zailtasuna erakusten du; doan izan ez balitz, jendeak berdin-berdin erosiko al zukeen? Askok ez”.

Mikel ▶ “Ondo egongo litzateke medio honen garrantzia herriko merkataritzan eta udaletan era batera (irakurtzen) edo bestera (adierazten) azalduko bagenu; era horretara, publizitatea lortzeko aukera handitu egingo litzateke, eta, bide batez, proiektua sendotuko”.

Solidarioekin solidario (I) ▶ “Zergatik hartzen den hain gaizki *DV* erostea? Oso erraza: gure herria eta gure hizkuntza zapaltzearen aldeko estrategian guztiz txertatuta dagoen enpresa bat delako, eta haiei dirua ematea estrategia hori indartzea delako. Alegia, jendeak erosten duena zer den jakin behar duela. Gero, erosten jarraitu nahi duela? Oso ondo, baina garbi izan dezala zer estrategia ari den indartzen. Beste gauza bat da irakurtzea. Nik *DV* ez dut sekula erosiko, baina irakurri, ahal dudan guztietan irakurtzen dut, hori aberas-

garria dela iruditzen baitzait. Orain, nahiena berau aurkitzeko egundoko zailtasunak izango banitu. Beraz, *Hitza*-k, nire ustez, bi indargune nagusi ditu: bata, euskara normalizatzeke ezinbesteko tresna dela, jendea egunero euskaraz irakurtzera animatuz. Bestea, *DV*-ren aurrean alternatiba bat dela (*Berria*-rekin konbinatuz, adibidez), modu horretara prentsa faxistaren indarra gutxituz”.

DV (I) ▶ “Aranguren bezala, nik ere ez dut ulertzen jendeak *DV* erostea hain gaizki hartzea. Hori konplexua dutena! Sintomatikoa da, ezta? ‘Gure printzipioen kontrako’ periodikoa erosten dugu. Pentsa ezazue ‘gure printzipiok defenditzen’ dituzten egunkariak zein txarrak izango diren! Txarrak benetan, nahi ez dugun beste egunkari bat erostera eraman bagaituzte. Nahi duzuen esan, baina egunkari abertzaleak, orokorrean, txarrak dira, eta horregatik jendeak ez ditu erosten. *Berria* baino ez dut ikusten bide onean, eta oraindik ez da besteen mailara iristen. Siplea da: nik produkturik onena erosiko dut. Produkturik onena neurtzeko orduan, produktu horrek defenditzen duen ideologia puntu bat da, baina ez bakarra. Horrexegatik, *Hitza* ardura dadila egunkari ona egiteaz, eta jendeak gustura leituko du. Ez euskaraz dagoelako (euskara=militantzia fasea gaindituta dago Azpeitian, behingoz!), ona delako baizik. Eta orduan, beharbada, aldatuko dira jendearen prentsa ohiturak. Bukatzeko, esan bide onetik hasi dela *Hitza*, nire ustez”.

Solidarioekin solidario (II) ▶ “Gaizki ari zara, nire ustez, euskarari dagokionez. Euskarazko prentsa irakurtzeko nik ditudan argudioak bi dira: bata, zuk aipatu bezala, produktu ona izatea; bestea, militantzia edo politika edo herri-mina edo konpromisoa, edo nahi duzun bezala deitu. Euskal Herria herri bezala zerbait axola dion guztientzat, euskaraz irakurtzea garrantzitsua da, euskara bizirik mantentzen laguntzen duelako. Euskal Herria herri bezala zerbait axola dion guztientzat, *DV* ez irakurtzea garrantzitsua da, honek herri bezala ez gaituelako ikusi ere egin nahi. Gero, ondo ari zara egunkari on bat egin behar dela diozunean. Baina, nire iritiz, *Berria* oso egunkari ona da. Eta *Hitza*-rekin uztartuz (ez dut uste inork nahi duenik hau bakarrik izatea bere egunkari), kategorikoa. *DV* hobea dela? Agian, bai. *El País* ere *DV* baino hobea da, baina Reala eta gure herriko eskelak agertzen ez direnez, ez duzu erosten. Beraz, ez esan produkturik onena erosiko duzula, gezurra da eta. Eta *DV*-k *Berria* baino kalitate hobea izan arren, niretzako, euskaldun eta abertzale bezala, *Berria* hobea da. Zuretzako ere, seguru aski, gipuzkoar eta realzale bezala, *El País* baino hobea izango den bezalaxe *DV*...”.

Euskara ▶ “Euskarak oraindik eskatzen du ahalegin bat. Frankismo garaian-eta ikastetxe publikoak ikastolak baino hobea izan ziren, baina jende abertzaleak ikastolen alde egin zuen eta, inbertsio hari esker, gaur egun ikastetxe euskaldun onak ditugu. Euskarazko prentsarekin ere horixe gertatu behar dela uste dut. Izan ere, *DV*-k zergatik egiten du egunkari ona? Egundoko bitartekoak dituelako. *Berria*-k ere edukiko balitu...”.

Euskara eta kalitatea ▶ “Euskara kalitatearekin lotu behar dela esan zuten *Hitza*-ren aur-

kezpenean zaraustar zuzendariak eta Uztarriakoek, eta ni ere ados nago horrekin. Egunkari ona egin dezatela, eta horrek engantxatuko du jendea. Baina kalitatekoa delako bakarrik erostea ere produktua bat... Bakoitzak ikus dezala zer laguntzen duen egunero-egunero *DV* erosten duenean”.

DV ona? ▶ “Beno, *DV* ona, zer irakurtzen denaren arabera: gertuko informazioa ondo lantzen du, Gipuzkoako politika ere bai, Gipuzkoako gertaerak (istripuak eta abar), Reala eta kito. Konparatu, esaterako, *Berria*-ren nazioarte saila eta *DV*-rena; konparaziorik ez!”.

DV (II) ▶ “Egunkari txarrak direla kategorikoki esan dut, eta galdetu didate ea zer irizpide ditudan. Nik ez daukat formula magikorik, eta nire iritzi apala baino ez dut ematen. Baina badituzte hiru irizpide nagusi, gutxienez: 1. Neuk egunkari horiek irakurtzean sentitzen dudana; eta irakurtzeko denbora gehien *Berria* eta *DV*-k eskatzen didate. 2. Inguruko jendeari entzuten diodana. Jende askori entzuten diot: irakurri al duk hau *DV*-n edo hori *Berria*-n esaten, hango erreferentzia eginez. Eta oso gutxi beste egunkari batzuei erreferentzia eginez. Agian, nire ingurunea den bezalako delako izango da. 3. Hirugarren irizpidea. Merkatua. Hor produkturik txarrena ez du inork erosten; txarragoa erosi nahi duenak, edo masoka hutsa delako edo dirua bota nahi duelako erosten du. Eta jendeak badakigu zer erosten duen. *Gara*-k, *Deia*-k eta *DV*-k merkatu bera dute, eta merkatu hori badakigu nork irabazi duen. Zerbaitegatik izango da, nik badakit-eta jendea ez dela tontoa. Eta norbaitek *DV* fatxa dela esan badu, arrazoi gehiago nire alde, jendea ez baita fatxa. Pentsatzen dugunaren kontrako egunkaria erosten badugu, zerbait ona izango du, ezta? Eta *Berria* libratzen da, askoz merkatu txikiagoa duelako beretzat, eta merkatu horretan bidea egiten ari delako, ondo, lehen esan dudana bezala”.

DV (III) ▶ “Azpeitiko egoera hau da: %87a da euskalduna. Eta euskaldun horietatik %77, alfabetatua da. Beste batzuk, ia-euskaldun omen direnak. Ondorioz: azpeitiar denon %68a euskaldun alfabetua da: euskalduna, eta euskaraz irakurtzeko-idazteko zailtasun berezirik ez duena. Ni ere ikastola kumea naiz, eta nik berdin irakurtzen dut bi edo hiru hizkuntzatan. %68 horiek ez dute arazorik euskaraz irakurtzeko, teorikoki. Edo arazo berdinak ditu gaztelaniaz eta euskaraz, nahi bada. Eta euskal irakurleak ez dira %68 horiek. Zergatik? Gure produktuak nori zuzendu behar dizkiogu? %68 horiei, edo alfabetatu gabeko %32 edo euskaldun ez diren %13 horiei? Zuek lasai: *Hitza*-k lortzen badu *DV*-k baino hobeto tratatzea herriko berriak, %68 horiek *Hitza* kontsumituko dute. Eta orduan erreferentzia bihurtuko da. Eta orduan, akaso, alfabetatu gabeak eta ez euskaldunak ere saiaturiko dira *Hitza* ulertzen. Eta orduan, akaso, aldatuko da Azpeitian prentsa kontsumitzeko dugun ohitura. Bestela, ez”.

Mikelek DVri ▶ “Ikusten dut zuk ere, azken batean, nik bezala jokatzeko duzula: gehien gusatzeko zaizuna erosi, eta puntu. Bestalde, gehien saltzeko dena kalitate hobekoa dela esatea hanka sartzea dela iruditzen zait; hori horrela baldin bada, hemengo egunkaririk onenak

kirola bakarrik lantzen dutenak direla ondoriozta dezakegu (*Marca, El Mundo Deportivo, AS...*)”.

Dvk Mikeli ▶ “Nik ez dut esan gehien saltzen dena onena denik. Hiru irizpide aipatu ditut, nireztat onena eta txarrena neurtzeko balio dutenak, eta merkatuarena hiru horietako bat da. Nire irizpideak dira, jakina: gustatzen zaidan edo ez, ingurukoek aipatzen didaten edo ez, merkatuan saltzen den edo ez. Beste batzuk egongo dira. Baina merkatuarena bada ona eta txarra neurtzeko orduan kontuan hartu behar den gauza bat”.

Lotsagarria ▶ “Niri lotsagarria iruditzen zaidana: *DV* erosi eta *Egunkaria*-ren aldeko manifa-ra joatea! Zenbatek egin zuten hori Azpeitian? Nik, behintzat, gauza bat garbi daukat: ez dut *DV* erosiko, ezta beste denak ixten badituzte ere! Herrian gehien *DV* erosteak zeozer baino gehiago esan nahi du...”.

Solidarioekin solidario (III) ▶ “Jende asko harrituko litzateke jende korrientea garenontzat *Berria* bezalako egunkari batek zenbat balio duen. Esaterako, *Tartea* gehigarrian datozen gai arruntek izugarri bete dezakete ni bezalako jende korrientea (*Berria* ez da intelektua-lentzat). Baina, jakina, *DV* irakurtzen uzteak ahalegina eskatzen du, militantzia. Eta denak ez d(z)aude(te) prest pauso hori emateko”.

Historia ▶ “Hauxe esan da aurretik: ‘Norbaitek bota du *DV* hobea dela baliabide gehiago dituelako. Ba, baliabideak ere lortu egin behar dira, jakin egin behar da industria hori osatzen. Jakin beste egunkariekin harremanak lantzen, talde indartsuagoa osatzen’. Eta nik hauxe irakurri nuen Uztarrarian, lehengo urtean: “*DV*: sorrera eta 1978. urtea. Espainiako bigarren Errepublikako garaian hasi zen *El Diario Vasco* argitaratzen, Donostian. 1934a zen, eta Joxean Elozegi historiagilearen artikulua batean aipatzen den bezala, ‘Madrilgo agintari eskuindarrek, bihurtzen hasia zen euskal lurraldeko bihotzean’ sortu zuten *DV*, ‘Espainia handia, bakarra eta santua zazpi zeruetara goitituko zuen matxinada faxista eraginkorra prestatzeko’. 1936ko uztailaren 18an, ‘Gaur da eguna’ esanez zabaldu zituen bere orriak. 1978a arte, ordea, ez zen oso egunkari handia izan. *La Voz de España* kazeta zuen lehiakide Gipuzkoan; hain zuzen, *La Voz* zen herrialdeko egunkaririk irakurriena. Baina Espainiako Gobernuari ez zitzaion askorik gustatzen eta oraingotxe sistema bera erabili zuen: Polizia bidali egunkaria ixtera; langileen artean ‘iraultzaile independentistak’ zeudelako. *DV*-ri mesede ederra egin zion itxiera hark, 30.000 aleko tiradatik 60.000kora pasatu zelako, eta publizitate guztia ere eraman zuen. Azpeitiarrak ere *DV*-ren erreinuan ‘sartu’ ziren operazio ‘demokratiko’ haren ondoren. Alegia, nolabait esanda, zilegitasuna eman zio-tela ixteko erabaki hari”. Hau da, egunkari denek ez dituztela baldintza beraiek baliabide gehiago lortzekol Portzierto, Jaime Mayor Oreja izan zen 1978ko erabaki haren sustatzaile-etako bat. Eta begiratu *DV* erosten dutenek zer laguntzen duten (hau ere iaz Uztarrarian irakurri nuen ba!): “*ABC*-ren anaia lehengo urtetik. Correo Taldeko 19 egunkarietako bat da azpeitiarron kazeta –*DV*, alegia–, eta 2002ko urtarillaren 1etik *ABC* egunkariaren anaia,

Correok eta ABC-ren enpresak bat egin zutelako. Zertarako? Negozioa egiten segitzeko –ABC-rekin Correo Taldeak egunkari nazionala bazuen jada–, ‘askatasun zibilei lotua, ezinbesteko zerbitzu publikoa’ emateko, eta, nola ez, Espainiaren batasuna defenditzeko. Honatx zer zioen bat egitearen berri eman zuten eguneko DV-ren editoriak: ‘*Todos nuestros medios se han constituido en referencia y soporte del ordenamiento constitucional, en adalides de la conciliación de la gran y rica pluralidad autonómica con la unidad de España y en leales servidores de la Corona, verdadero símbolo y depósito de los valores morales en que se funda nuestra convivencia en paz.*’ Harrezkero, Correo Prensa Españolak –lehenago astetik, Vocento– 100 milioi euro inguruko irabaziak ditu urtean. Azpeitiarrei esker, besteak beste. Izan ere, azpeitiarrek urtean 470 mila euro ematen dizkiote ABC-ren anaia DV-ri (78 milioi pezeta), egunero *El Diario Vasco*-ren ia 1.400 ale saltzen direlako gure herrian”. Aurrera euskal prentsa! Edo ez?”.

Beharrezkoa ▶ “Nire ustez *Hitza*-k zeresan handia izango du herrian eta horrelako egitasmoek ekarriko dute azpeitiarren ohituraren aldatzea; edo, hobeto esanda, ohituraren berriztatzea. Orain artean sekula ez da herriko gertaerak egunero euskaraz irakurtzeko modurik egon. Amaitzeko, esan beharrezkoa dela *Hitza* bezalako egitasmoak sendotzea eta herrian errotzea, horrela lortuko baitugu gizarte alor guztietan euskaraz bizitzea”.

Uztarriari ▶ “Zorionak. Halako eztabaidekin eta zenbait albisteren erantzunekin Azpeitian elkarrizketa sortzea lortu duzue, askotan kalean bertan ez dagoena. Zorionak, beraz, Uztarriari”. ◀

‘Hitza’ zergatik lagundu behar den

Enekoitz Esnaola (Urola-Kostako Hedabideak S.L.-ren izenean; 2004-09-12, ‘Urola-Kostako Hitza’ eta www.uztarria.com)

Otsailean sortu genuen *Urola-Kostako Hitza*, eta, normala den bezala, hilabete batzuk lehenago hasi ginen proiektua mamitzen eta eskualdean azaltzen. Udalei, esaterako, iazko urte bukaeran hasi ginen azalpenak ematen, eta proiektuaren idatzia emanez, bideragarritasun plana ere bai, edozer zalantza-edo zutela deitzeko esanez... Orduan ona izan zen udalen harrera.

Proiektu hau komunikatiboki oso garrantzitsua da. Gainera, euskararen normalizazio planetan bete-betean txertatzen da, gero ikusiko dugun bezala. Urola-Kostako udal gehienak –zazpi herri handienetakoak– Eusko Jaurlaritzaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzen ari dira, norbere herrira egokituta (Azkoitia, Azpeitia [Eusko Jaurlaritzak 1998an onartu zuen EBPN; Azpeitiko Udalak, berriz, 2001eko azaroaren 27an jarri zuen abian, eta 2003 bukaeran onartu zituen 2004-2007ko Plan Estrategikoa eta 2004ko Kudeaketa

Plana], Zestoa, Zumaia, Zarautz, Getaria eta Orio), baina iritsi da *Hitza*-ren diru laguntza eskaerari erantzuteko garaia, eta orain arte jaso ditugun erantzunen arabera, Zestoako eta Getariako udalek ez diote eurorik emango *Hitza*-ri; Aizarnazabalgoak bai, eskatutakoa. Ikusi egin behar aste hauetan beste udalek zer dioten...

Zazpi hilabete dira euskarazko egunkari hau sortu genuenetik, baina oraindik ere batzuen aurrean proiektu honen izaera, ezaugarriak eta garrantzia azpimarratu beharrean gaude.

▶ **‘Urola-Kostako Hitza’ egunkaria.** 2004ko otsailaren 20an sortu zen *Urola-Kostako Hitza*, eskualdeko herri aldizkarien euskara elkarteen [besteak beste, Uztarria Azpeitiko Kultur Koordinadoraren], Bertako Hedabideen (Euskarazko Komunikazio Taldekoa) eta Urola-Kostako gizarte eragileen artean [horietatik lau Azpeitikoak], eta honatx egunkariak harrezkero 163 zenbakietan egin edota lortu duena:

▶ Eskualdeari buruz informatzen du. [Normalean, Azpeitiak orrialde bat du egunero]

▶ Euskarazkoa da.

▶ Astean sei aldiz banatzen da, eskatzen duenari.

▶ Eskualdean egunero 7.000 ale banatzen ditu *Hitza*-k; tirada goraka doa. [Azpeitian egunero 2.200 ale banatzen dira, eta helburua 2.300 banatzea da]

▶ 8 orrialdekoa da. Batzuetan 12koa. Herri informazioa euskaraz egunero prentsan ematean eskualdean zegoen hutsunea betetzeko sortu zen *Hitza*.

▶ Bere oinarriak: euskaltzalea, plurala eta orekatua, baterakoaia, parte-hartzailea, independentea, eta konprometitua eta profesionala.

▶ Egunkariaren 100. zenbakian *Hitza*-ren harpidedunen artean inkesta egin zen:

– %76k diote *Hitza* egunkari “ona” dela. %23k “oso ona” dela.

– %87k diote “erraz edo oso erraz ulertzen” dutela.

– %75ek diote “eskualdeko aniztasuna ondo errespetatzen” duela (%21ek diote ez dakitela edo ez dute erantzun). %4k baino ez diote “ez” duela “ondo errespetatzen”.

– %85ek diote “erakundeen diru laguntza behar” duela. Ezezkoa, %2k.

▶ **EBPN eta ‘Urola-Kostako Hitza’.** Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren “helburu nagusia, euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea da. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea”.

Hauek dira EBPNren “Plan Estrategikoaren hiru helburu estrategikoak:

▶ 1. Euskara ondorengoetaratzea (...).

▶ 2. Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza (...).

▶ 3. Euskararen elikadura: hedabideak...”.

▶ **EBPN eta hedabideak.**

▶ Hauxe dio EBPNk: “Komunikabideen garrantzia gero eta handiagoa denez, euska-

razko komunikabideak hizkuntza normalizazioaren arlo estrategikotzat jo behar ditu administrazioak". EBPnren hirugarren ardatz estrategikoak dio euskarazko komunikabideek "lehentasun altua" dutela eta "toki mailako euskarazko komunikabideak sustatu eta landu" egin behar direla.

Hauek dira *Urola-Kostako Hitza*-ren helburuak, proiektuan jartzen duen bezala:

- "Euskara, euskararen inguruko mugimenduak eta euskaltzaletasuna sustatzea eta laguntzea.

- Euskararen normalizazioa eta garapena lortzeko baliagarri izatea.

- Herritarrei eta taldeei hitza ematea.

- Urola-Kostako euskarazko komunikabideen elkarten eta Euskal Herri mailako euskarazko egunkariaren erakundearen artean elkar ezagutza handiagoa lortzea, guztien artean eskualdeko informaziorako Urola-Kostan erakunde bakarra eta sendoa sortzea, proiektu berrietarako akordioak lortzeko eta elkarrekin lan egiteko.

- Euskarazko komunikabideen erreferenzialtasuna lortzea".

Beraz, guk uste Urola-Kostan euskara zabaltzeko eta indartzeko, eta euskararen normalizazioa lortzeko bidean, helburu egokiak direla *Hitza* egunkariarenak.

► EBPn 1998an zioen "euskarazko herri aldizkariak baino ez" direla iritsi "irakurleria zabal batengana", eta "euskarazko prentsa erdarazkoaren mendekoa" dela.

Urola-Kostako Hedabideen ustez, gure eskualdeko euskarazko herri aldizkariak (beste eskualdeetakoek bezala) oso lan ona egin dute eta egiten dute. EBPn 1998an hori esan zuenean, Euskal Herrian ez zegoen eguneroko euskarazko herri/eskualde egunkaririk, eta logikoa zen hori esatea. Harrezkero, ordea, errealitatea bestelakoa da, gaur egun badaudelako eguneroko euskarazko herri/eskualde egunkariak: *Hernaniko Kronika* eta lau *Hitza* [urritik aurrera bost, Goierri sortu delako]. Gure eskualdeari gagozkiola, *Urola-Kostako Hitza*-ren sorreraz geroztik, *Hitza* bera ez da "erdarazko prentsaren mendekoa". Arrazoiak:

- Dagoeneko eskualdean gehien banatzen den egunkariaren pareko tirada du *Hitza*-k, eta laster lortuko du egunkaririk zabalduena izatea [Azpeitian lortua du, 2.200 banatzen dituelako, eta *El Diario Vasco* egunkari erdaldunak 1.300]. Beste Hitzekin gertatzen den bezala, euskarazko eguneroko prentsak inoiz lortu ez duena da hori.

- Urola-Kostan *Hitza* da eskualdeari buruz gehien informatzen duen egunkaria, eta irakurleen ustez, "egunkari ona da".

► EBPn: "Jokaera enpresarial egokiaren aldeko apustua egin behar du prentsak. Produktu desberdinak eta merkatuan lehiatzeko modukoak eskaintzea ezinbestekoa da. Gobernuak [Eusko Jaurlaritzak] sektore ekonomiko bat dela onartu eta enpresa-trataera eman behar dio".

Urola-Kostako Hedabideak ados dago: egitura eta produktu sendoen beharra du euskarazko prentsak, eta, beraz, *Urola-Kostako Hitza*-k ere bai. Baina horretarako, baliabide ekonomikoak behar dira. Salmenta (harpidedunei borondateko diru laguntza eskatzeko asmoa dugu: 40-50 euro urtean, egunkaria 285 aldiz etxean jasotzeagatik; seguru gaude babes handia jasoko dugula), publizitatea (goraka goaz) eta diru laguntzak dira euskarazko prentsaren hiru diru baliabide garrantzitsuenak.

Diru laguntzen kasuan, ordea, gure ustez gaur egungo politika ez da egitura enpresariala sendotzeko egokiena. Oro har, ideia nagusi bat dute oinarrian laguntza horiek guztiek: euskarazko produktuak ez dira errentagarriak, urtero defizita sortzen dute, eta horri aurre egiteko gehienez ere defizita estaltzeko adinako laguntza emango da (kasu batzuetan ezta hori ere, *Hitza*-k urtean biztanleko hiru euroko laguntza eskatua duelako eta, oraingoz, udal batzuek ez dutelako batere lagunduko). Defizita estaltzeko politika horrek ez du bide ona eskaintzen enpresa egitura sendotzeko, urteroko diru-sarrerak, jarduerari aurre egiteko baino gehiago ez duelako eskaintzen.

Beste era bateko planteamendua beharko litzateke; proiektu berriak, bideragarriak diren neurrian, enpresa sendotzera begirako laguntza jaso beharko luke lehen urteetan, eta bere bidea egin ahala defizita* estaltzera bakarrik bideratu, laguntza publikoak urteko aurrekontuan gero eta pisu txikiagoa izateko modua jarritz, baldin eta proiektu berririk ez badu enpresak (*'defizita' diogu, kontuan hartu behar baita euskara ez dagoela normalizatua: prentsan, adibidez, euskaldunen gehiengoak ez du euskarazko produktuak erosteko ohiturarik...). Gure planteamendu hori sektorearen eta instituzioen artean landu eta adostu beharreko gaia da, bestela beti ibiliko baikara urtero itota horrela dabilen egiturarekin.

Urola-Kostan Hitza-k bide ona eta garrantzitsua zabaldu du, eta bada garaia eskualdeko erakunde publikoekin diru laguntzen kasuan behar bezalako adostasunera iristeko (*Urola-Kostako Hitza*-k 2004an 631.000 euroko aurrekontua du).

▶ **Udal diru laguntzak.** Eskualdeko udal bakoitzari urtean biztanleko hiru euroko diru laguntza eskaera egin diogu [Azpeitiko Udalari, beraz, 41.200 eurokoa]. Proiektu honek, hasieratik sendotasuna izateko, behar duen laguntza da, arrazoi hauegatik:

▶ Euskararen normalizazioari ekarpen handia egiten dio *Hitza*-k.

▶ Gaurko gizartean komunikabideen alorra estrategikoa da, Euskal Herriak euskarazko komunikabide indartsuak behar ditu, eta bide horretan eta euskarazko komunikabideen erreferentzialtasuna lortzeko bidean, pauso handia da *Hitza*.

▶ Herritarrei zerbitzu informatibo handia ematen die *Hitza*-k.

▶ Herriko eta eskualdeko plaza da *Hitza*, elkar ezagutzarako eta integrazioarako bide ematen du; betiere egunkaria bera pluraltasunean oinarrituta. ◀

'Yr Herald'

Enekoitz Esnaola (kazetaria; 2004-09-11, www.uztarria.com)

Galesen bada astekari zahar bat, 149 urtekoa, galestarrez idatzia: *Yr Herald*. Trinity Mirror enpresa argitaratzaileak esan du itxi egingo duela, "salmenta eskasak" dituelako.

Urola-Kostan badugu egunkari berri bat, aurten otsailaren 20an sortua, euskaraz idatzia: *Urola-Kostako Hitza*. Urola-Kostako Hedabideak enpresa argitaratzaileak ez du esan

egunkaria itxi egingo duenik, egunero 7.000 ale banatzen dituelako, eta, beraz, *Yr Herald*-ek ez bezala, harrera ona du herritarren artean.

Estatu gabeako nazioak dira Gales eta Euskal Herria, eta era honetako nazioek euren hizkuntzan egindako komunikabideak (ere) behar dituzte, inoiz estatu direnean estatuok nortasunekoak izan daitezten, beren hizkuntzan oinarrituak.

Galesen, *Yr Herald* astekariko kazetari batzuk hura salbatzeko kanpaina egitea aztertzen ari dira. Urola-Kostan, *Hitza*-ren aldekoek (irakurleek, eragileek...) egunkaria aurrera ateratzeko eta sendotzeko kanpaina egitea aztertu ez, baizik eta zuzenean egin egin behar dute udalek ez badute diruz behar bezala laguntzen. Eta kasu horretan berriro galdetuko genuke: zein da arazoa herri honek bere hizkuntza indartsu izan ez dezan? ◀

Egunkarien zabalkundea Azpeitian

Uztarrria Kultur Koordinadora (2004-urria)

iturria: Uztarrria ▶ aleak igandean

▀ ▶ 2002ko urtarrila

▀ ▶ 2004ko urria

2002-2004-KO IGANDEETAKO ALDEA ▶

El Diario Vasco ▶ - 127 ale

Gara ▶ + 158 ale


Egunkaria / Berria ▶ + 236 ale

Deia ▶ + 58 ale

UZTARRIA HERRI ALDIZKARIA ▶

2002ko urtarrila ▶ 1.800 ale hilero

2004ko urria ▶ 2.400 ale hilero



Azpeitiar euskaldun bakoitzak atera ditzala bere ondorioak... ◀

6 KONPROMISOA, IRUDIETAN



1923: Iñaki Goenaga 'Euzkadi'-n. Oso gazterik hasi zen Iñaki Goenaga Sistiya euskaraz idazten. Goian dagoen artikulua, 1923ko irailaren 12ko Euzkadi egunkariaren zenbakia da, eta hantxe ageri da Goenegaren idatzia, Oñaz-Mendi ezizenez, Azpeiti izenburukoa, eta Udalaz, futbolariez, istripuez... idatzi zuen. 18 urte zituen orduan Goenagak; gaur egun 99 urte ditu (ezkerrean, aurtengo uztailean). Euzkadi gaztelaz idazten zen, baina Euskel Atala zuen eta hortxe idazten zen euskaraz. JOSE LUIS OTAMENDIK UTZIA - UZTARRIA

Revista "UROLA"
AZPEITIA -- 31 de Julio de 1923. -- Núm. I

NUESTRO PRIMER DEBER

Necesos a la vida es un día simbólico. En la fecha en que todo corazón guipuzcoano siente infinitamente, en su céntrica emoción, revivir su sangre ante el recuerdo de aquel pasado insieme que si fué heroico y fué santo, ócarino visiblemente el triunfo de la voluntad que tanto pesaron, inutilidad de los valores y a predomínanos no viela en significar esa, y dilido ni fortuna, ó peccúnito poderosamente la potencia que caracteriza la verdadera hombría y la lleva indudablemente, en medio de azaros, en lucha constante con pasiones muy humanas, al triunfo de nobles ideales y saludables romanticismos. Y en este día inolvidable para todos los que hemos sido entre nosotros de una que de cariño de una madre imprescindible, el momento del Urola que pasa luminoso lamelidemente los firmes fundamentos del cómpio. Itzarritz con toda su alvia desmold, vivios la luz pública sin tonos y sin rosidos, pues nuestros padres han sido la juventud con sus optimistas y el optimismo es su resistencia.

Qué finalidad es la nuestra? Por una nota académica que la vida desenvuella en sus márgenes de nosotros, con sus métodos de habitantes y sus industrias y actividades varias interesen crear expuestas en forma asequible al público que nos comosa y nos interesen, estableciendo entre los mediros ojetos. Luzo el intercambio intelectual y material y obtener al fin la realización de lo que nos proponemos; clara como nuestra espíritu, sus alares de ninguna especie, la vida propia de una zona de nuestra querida Guipúzcoa que hoy por hoy por su fertilidad y por su fertilidad material, es buena y posee de la región vascoanada.

En la modesta esfera de nuestras profesiones, amoroso de interio, el doctor en nuestras convencionales gúndas defendiendole que toda vale en medio, las de defender por exigirlo es su angustioa histórica y su peculiar forma de ser; la dignidad y la moral más estricta encuentran en nosotros defensores a carta cabal.

En las otras esferas de la vida social, nuestra norma ser estimular todo factor positivo en la lucha del vicio individual y colectivo, siempre que sean compatibles con el anterior planteamiento.

Estos son nuestros propósitos y como ejemplo a todo hombre que es título educado, "UROLA" se luda a sus favorores; extendiéndolo muy cordalmente a la Prensa de la Provincia a toda que en nosotros verá un modesto colaborador en la obra de enlazar el progreso de Guipúzcoa.

ELORTZA JAUNAREN ITZAK

Gure el hitaite gorazteko igailu Azpeiti n auzlari ten dan aditugiloin nik ere zerbait idatzi nai det; bestela ekergerabeokoz izango nitzaake.

Nalzeu guzira nere eñan naí diot: Azpeiti n hau nuztaun, berlan nere hitz-tokio hitz- onenak igaritu ditut, berlan it nai nuke; nere aritri biatuleok, Diputazioa ja nanduhen, bereztagatik. Jua nitut ezin eñan atako begiraman la gaitutak.

Qingogatik berri eñan oidei, ez dala berlan Azpeiti berdaitako tokiorik.

Etta nolá ez melatitu txulo edei az Azpeiti n badin Ezustal-Eñaron esen zintuonak eta Etira Ama Santaren esen futeiduenak?

Etta nolá ez jafi auzen- auzereaz jateri ometu nai, Azpeiti n Izena San Ignazio Loyolaaren eñara deteoz bada?

Iz angaitzen bada, ulkeran leingure guraoen antrea kristau la ezukalioan biltzaik, berri zutik berri etimil, fedearen eta antziltako lege eta onuren, goriozale talra eta berroak.

Eñatimik: (Gora Azpeiti)

ELORTZA JAUNAREN ITZAK

EUZKERARAKO ZALETAZUNA

Azpeitiko eñan, gure jaiogikari n, aldiriki edo "lebizia" bat antzeriz emen ditua gure bularitzu batuzek, zãbaduago ezukiderik aldizkingi ofelataro edo ingelatan ezalitzeko tokioz labur bat, bazteritxo bat, zuzkeraz zuzkeraz zuzkeraz zuzkeraz zuzkeraz Batetz edo degu, eta bereazaz jarduera bat gure gure ikuraz biletzeko ometen, gure ama mintzatu edo hitz egin zigun zuzkeraz onetán opletara.

Etzuzkerarako zaletazuna bai aldago eñan aitan geur dan egunian? Batek edo bertetik ikuziaz, pozez edo lauzunaz, eman leike etranzura.

"Euzkeraz" ez digu ibarzarako baliyo? Dute baliyo, etta deñda baliyo? Bati aldirite juañ orok noiz eta noia eñan itention "hu" oretatik ez def- eñango? Galera, ezukerik ez balen idagu horietako baliyo, nituru dezagun orri nai bokete berak; Batiñ eñan aldirion izango da ere etan batiñ batiñ duenduan, it dan berezia, ama edo aita nai zar batzuzkutuzko, zimufu egogoez joz laryar ez bicia, gertuoz, aldiritok dute, diyoago, ama edo

ala otek ez duala bere larotik etranzuz ezalifik kalitatez azuntuz berezik, ez batak ez bertatik ez dute ezertore baliyo; orail, naike luke seme edo alaba otek berezia edo ama kuta batanzar- tura zoz detiaz? Batek etranzuz, Ba izuank au bere bera beriazuz zuzki euzkererik, ez digu ba- liyo, eta eñan zuzkerak berlan hali edo ingelatoz bati- zuzkeraz juañ, diñta baretiaz arit bai deñ- gure antzirik eñan gendun itkeri, izuridu deñ- deñan honetako, itentitko ondoren, eta akeron- gititko, antzuz- benteko?

"Rajin garfiko euzkera, ambitze hitz berberik ezin hitze alerita edo otzigidit." Az zuzi zuzkita etranzuz dazuz; edo zet gaitzen alerita edo et- fanzuzteko kaslan etranzuz, jaldun egun luor du.

Zet etranzuz zuzki baliyo hitz "eztanen" edo "japonen" hitz beraz zuzkitzen edo hitz egin- zu adela, azuko bariñ zuki, gogoz eta zuzi tra- tika ezazuz zuzi edo hitz egiten deñan "japan" edo "japonetez"? Kopeta pikat baduz, andu- renan jaldun egogoz nai zuzkitko nik ete ditian alerit egotako ikuztiz hitz egiten; eta jaldun bai zuzi deñan ez dakitza, zet baliyo du zuzkitko nere itatu aguten berezitunak?

Ludiko edo munduko hitzok (akaziki berkin) ometzen eta amonizatu berri beryak.


Zerbait-ek ezkerre bikiñ itelari edo ezkeritro it zuzi. Nik euzkerre ingeleske beste ambitze, Schopenhauer, Goethe, Corneille, Bossuet eta arko etia zuzi eñan ikuzkitzen, gaur eñan gure azoko orientat beren zuzker, jardunaldi bat, nai euzker- nai euzkeren atzeriko eñan. Gaurko amonizuzen izenak berak emango ometen gaituz. Zet jure jure itez, etranzuz edo hitze ambitze hitz berber- itz berak ez daktitza it, oñan gure azuloen azuloen esplikazioz.

Gaitera hitzazko etezker, etn garfiko hitzak bidate barenen it beryak "jaldun" eñan bate- rik, hitz itzeritza gibe, zuzitazko, egadikizite nullo? Juañ emen Bi zuzitran edozeñ "lezi" ba- tiaz. "Jone" hitzek, gure ikuzkitzak gaitiaz. Gaur euzkeraz, batuz eñan edo badite ere, badira jaldun azulo, ez biletzoz gabe gure azulo zat- zuzi zuzker, bereziki ometi ai leake itzerk ere "lezi" it "jone" hitz zuzitazura, eñara delaz euzkeraz "lezi" hitz "jone" hitz, zuzi eñan nai badu ere adunak dalgit itzeritza dala etia beraz iz- kido (lezi arko leuzko) egitza, onela ita berri bat zuzita; nor ete gaiterian "uzitazita" deñan di- gonia "lezi" amonizara et hitz berri orri.

Eñan gure ber eztan gaiteraz, eta adonak "pe- litzik" alde batiñ itezaz, itazi euzkeraz; zuzi- uzkerre gite zuzite zuzite barenenaz euzker- arko hitz gaiteritza.

EUZKALDUN SENDAGILEENA

1923: 'Urola' aldizkariako orrialdea. 1923an sortu zen Urola aldizkaria, eta orrialde bat zekarren euskaraz. 1. zenbakian, Julian Elorzak eta Euzkaldun Sendagile'ena delako batek idatzi zuten hortxe euskaraz, eta azken horrek galdetu zuen ea ba al zuten "eskubiderik" euskaraz "tokitxo" batean idatzeko. "Baietz" zioen berak, eta "euzkererako zaletazuna"-z eta euskararen beharraz idatzi zuten. JOSE LUIS OTAMENDI



1982: Pako Aristi. Pako Aristi urrestildarra 1982rako hasi zen prentsan idazten, *Egin*-eko *Egunon*-en. Hainbat hedabidetan idatzi ditu erreportaiak, elkarrizketak, iritziak... euskaraz: *Egin*-en, *El Diario Vasco*-n, *Egunkaria*-n, *Berria*-n, *Uztarrian*... Ezkerrean goi-goiko argazkian, Aristi –eskubikoa da– Ramon Etxezarreta urrestildarrari 1983an *Egin*-en egin zion elkarrizketan. Ezkerrean, behean, Andoainen, 1993an Rikardo Arregi Saria jaso zuenean; harekin, ezkerretik hasita, Ion Arano, Mikel Albisu, Mikel Elorza eta Hasier Etxeberria beste saridunak. Eskubikoan, 1992ko Rikardo Arregi Saria jaso zuenean. ANDOAINGO UDALA - EMILIO TRUCHELO



1986: Joxean Agirre 'Hemen'-en arduradun. Joxean Agirre oñaztarrak prentsan *Egin*-en eta *Gara*-n jardun izan du batik bat, batez ere euskaraz idazten (*Gara*-n dihardu). Ondo, gainera; hala, 1990ean Argia Saria eta Rikardo Arregi Saria irabazi zituen. Aurretik, 1986an *Egin*-en enpresak *Hemen* euskarazko astekaria atera zuen eta hango arduraduna izan zen. Ezkerreko argazkian, *Hemen*-en zegoenean, *Argia*-k 1986ko urriaren 5eko zenbakian elkarrizketa egin zionean; erdikoan, *Hemen*-en 2. zenbakia. Eskubikoan, Martin Ugalde, 1990eko azaroaren 22an, Donostian, Joxean Agirreri II. Argia Saria ematen, prentsa idatzikoa. ARGIA




1983-1987: 'Azpeitian zer?'. Udalak 1983-1987 legealdi hasieran *Azpeitian zer?* aldizkaria sortu zuen. Hasieran dena ez zegoen euskaraz, espainolez ere bazegoelako. Gaur egun euskaraz da dena. Argazkian, 1. edo 2. zenbakia. IMANOL ELIAS



1996: 'Azpeitia eginez'. Azpeitiko ezker abertzalea bere aldizkaria ateratzen hasi zen 1996an, martxoan: *Azpeitia eginez*. Beti euskaraz egin izan du. Ez du maiztasun finkorik izan. Argazkian, aurreneko zenbakia. UZTARRIA




1990: 'Egunkaria'-ren hasieratik. Azpeitiarrak *Euskaldunon Egunkaria*-ren alde eta bertan lanean hasieratik egon izan dira. *Egunkaria*-k 1990eko uztailaren 15ean atera zuen zero zenbakia eta Joxe Luis Aizpuru kazetaria han zen, Gizartea sailean (ezkerreko argazkian, lan taldea zero zenbakia egiten). Eskubiko argazkian, Xabier Euzkitze –ezkerretik bigarrena– eta Xebaxtian Lizaso –laugarrena– bertsolariak, 1991ko abenduaren 15ean, Donostian, Belodromoan, Andoni Egaña, Mikel Mendizabal, Xabier Amuriza eta Anjel Mari Peñagarikanoarekin, *Egunkaria*-ren lehen urteurreneko festan. UZTARRIA



1998: Uztartia Kultur Koordinadorearen sorrera, agendarekin. 1998ko martxoan sortu zen Uztartia Kultur Koordinadora, eta sorreratik kultur agenda ateratzen hasi zen. Argazkian, 1998ko martxoaren 3an, Joxe Ramon Larrañaga eta Enekoitz Esnaola Uztartiaiko ordezkariak, aurkezpeneko prentsaurrekoan. UZTARRIA



1999: Uztartia herri aldizkariaren sorrera. Urtebete egin zuen Uztartia agendak, eta elkarteak bitartean herri aldizkariaren proiektua egin zuen. 1999ko azaroaren 5ean atera zuen 1. zenbakia. Argazkian, Iban Arregieta Jaione Unanue, aldizkariaren 1. zenbakia aurkezten komunikabideen aurrean. UZTARRIA



Uztarrria aldizkariaren harrera. 1999ko urrian egin eta azaroan banatu zen aldizkariaren 1. zenbakia. Goi-goian, mahainguruan Laxaro Azkune, Maria Jesus Aranburu, Xabier Alday eta Joxe Luis Aizpuru kulturaz hitz egiten; Iban Arregi kazetari lanetan. Erdikoan, aleak buzoietan, lehen aldiz. Hementxe goian, Mikel Aranburu futbolaria eta Ruper Ordorika musikaria –aurkezpen kontzertura etorri zen– 1. zenbakiarekin. UZTARRRIA



2000: Durangoko Azokan. Uztarrria 2000. urtetik Durangoko Liburu eta Disko Azoka garrantzitsuan present egon izan da, herri aldizkariaren aleekin. 2001etik aurrera biografiak ere eraman izan ditu: *Joxe Takolo, Angel Otaegi...* UZTARRIA




2000: Udalarekin hitzarmena. Uztarririk eta Udalak Komunikazio hitzarmena sinatu zuten 2000ko ekainaren 27an (2004an ere bai). Argazkian, Jose Mari Bastida orduko alkatea eta Iban Arregi Uztarrriako orduko lehendakaria, sinatzen. UZTARRIA




2002: www.uztarrria.com. Uztarririk komunikazio esparuan beste pauso bat eman zuen 2002ko urtarriean: www.uztarrria.com sortu zuen. Euskaraz informazioa irakurtzeko eta idazteko beste aukera bat. Hasieratik oso harrera ona izan du. Argazkian, Josu Azpillaga Uztarrriako kidea 2002ko azaroan, Eibarren, Udako Euskal Unibertsitateak Software Librearen II. Mintegian, uztarrria.com- ez hitzaldia ematen. UZTARRIA



2003: 'Egunkaria'-ren itxieraren bezpera hura... 2003ko otsailaren 20an itxi zuen Espainiako Estatuak *Egunkaria*, eta bezperan Martxelo Otamendi *Egunkaria*-ko zuzendaria Azpeitian izan zen, Baite Euskara Elkarteak antolatuta hitzaldia ematen, euskarazko prentsa eta prentsa kioskoaren egoeraz. Ordu gutxira atxilotu egin zuen Guardia Zibilak. Bermepean irten zuen Otamendik egun batzuetara, eta inputatuta. UZTARRIA



Lehen bilerak. Otsailaren 20an bertan hasita, makina bat bilera egin ziren *Egunkaria* itxi zenean Martin Ugalde Kultur Parkean, *Egunkaria*-ren egoitza zegoen parkean hain zuzen. Argazkian, behean jarrita daudenen artean, ezkerretik aurrera Iban Arregi azpeitiarra ageri da, langileen bileretako batean. EGUNERO



‘Egunkaria’-n. Hainbat azpeitiarrek egin zuten lan *Egunkaria*-n, bai kazetari, bai komertzial, bai sustapenean... Argazkian, 2002. urtean, Ion Aranburu kazetaria, *Egunkaria*-ren erredakzioan. UZTARRIA




Manifestaziora. Aspaldian izan den manifestaziorik handiena egin zen 2003ko otsailaren 22an Donostian, *Egunkaria*-ren itxieraren kontra. Ehunka azpeitiar izan zen. Goi-goiko argazkian, herritik abiatu ziren autobusak –zortzi; beste lagun asko kotxez joan ziren–. Erdikoan, Imanol Lazkano pankarta nagusian. Azken argazkian, *Egunkaria*-ko langileen pankarta eramaten, Estitxu Elduairen eta Mikel Arregi. UZTARRIA-EGUNERO



'Egunero'-n. *Egunkaria* itxi eta hurrengo egunean *Egunero*-k irten zuen. Argazkia, 2003ko otsailaren 20koa da, eta aurrez aurre Enekoitz Esnaola ageri da, *Egunero*-ren erredakzioan.



Bartzelonan. Makina bat buelta egin zituzten *Egunkaria*-ko langileek Kataluniara, han elkartasun handia sortu zelako. Argazkia, 2003ko irailaren 28koa da: Bartzelonan *Egunkaria*-ren aldeko eguna antolatu zuten kataluniarrek, eta oholtzan ageri dira Mikel eta Iban Arregi —ezkerretik hirugarrena eta bosgarrena—.



Eneko Etxeberria abokatu. Eneko Etxeberria abokatu azpeitiarra zen *Egunkaria* S.A. ren lege ordezkaria, eta egunkariaren itxieraren ondoren, buelta asko eman behar izan zituen Madrilera, Entzutegi Nazionalera. Komunikabideen aurrean ere maiz hitz egin zuen. Bi argazkietan, Martin Ugalde Kultur Parkean ageri da; eskubikoan, atzean *Euskaldunon Egunkaria*-ren egoitza zena ikusten da. EGUNERO-UZTARRIA



Karnabaletan. *Egunkaria* itxi eta hamar egunera izan ziren karnabalak, eta orduan ere herrian izan zen *Egunkaria*-rekiko elkartasunik. Hala, Uztarriak mozorro egunean, gauetz (martxoaren 3an) udaletxe azpiko arkupeetan erredakzio berezia jarri zuen —behe-behekoan, eskubian—, eta *Egunkaria*-ren aldeko azalak egiten zituen, herritarrei argazkiak aterata. Mozorroen sari berezia eman zion Uztarriari Udalak. UZTARRIA



Erabateko lanuztea. Euskal Herriko sindikatu nagusiek antolatuta, ordubeteko lanuztea egin zen martxoaren 13an, *Egunkaria*-ren kontrako itxiera salatzeko. Azpeitian erabateko jarraipena izan zuen lanuzteak. Goi-goian, Aceraliako langileak. Ezkerrean, Karmelo Etxegarai ikastetxean pankarta bat. Argazki txikienetan, plazan eguerdian egin zen kontzentrazioa —700 lagun bildu ziren— eta denda bat itxita. UZTARRIA



'Egunkaria'-ko azpeitiar langileen hitzaldia. Guardia Zibilak indarrez itxi zuenean *Egunkaria*, hemen 13 azpeitiarrek egiten zuten lan, eta itxiera-eta azaltzeko, martxoaren 19an hitzaldia eman zuten Aitonena I-en. Mahaian, ezkerretik hasita, Laxaro Azkune aurkezlea, eta *Egunkaria*-ko langile Xebaxtian Lizaso komertziala, eta Enekoitz Esnaola eta Iban Arregi kazetariak. UZTARRIA



Korrika 13n. 2003ko apirilaren 6an pasatu zen Korrika 13 Azpeititik, eta azpeitiar askok jantzi zuten orduan ere *Egunkaria* aurrera elastikoa. Argazkian, Juanjo Lapeira eta Xanti Jimenez ageri dira, Lasao parean, aipatutako elastikoarekin, Korrika noiz iritsiko beroketa ariketak egiten. UZTARRIA




'Berria' sortzeko Azpeitiko taldea. Azpeitian ere sortu zen *Egunkaria*-ren aldeko taldea, gero *Berria* sortzeko balio izan zuena. Hasieran bonoak eta ondoren akzioak saltzeaz gain, elastikoak, metxeroak... saldu zituzten, dirua lortzeko. Herrian akziotan 59.000 euro lortzea zen helburua, eta 61.520 lortu ziren. Ezkerretik, Leire Aramendi, Oihana Elduairen, Estitxu Elduairen, Ion Aranburu, Dorleta Odriozola eta Juanjo Iturrioz taldekideak, 2003ko martxoaren 30ean plazan. UZTARRIA




Kazetaritzakoak. Uztarrria aldizkariak prentsari buruz mahaingurua antolatu zuen kazetaritzarekin harremana duten herritarrekin: Xabier Euzkitze (ETBko aurkezlea), Amagoia Iban (*Egunkaria*-ko langilea) eta Patxi Azpillagarekin (EHUko irakaslea Informazio Zientzietan). Hirurak, Zarautzen. UZTARRIA



Hezkuntzakoak. 2003ko martxoaren 30ean Azpeitian Euskal Eskola Nazionalaren II. festa ospatu zen, Ikasberri Azpeitiko Ikastolak antolatuta, eta ekitaldian bertan *Egunkaria*-ko atxilotuen senitartekoei eta egunkariko 13 langile azpeitiarrei aitorten berezia egin zieten, oroigarriak emanez. Argazkian, Ikasberrikoak ekitaldian, plazan, eta *Egunkaria*-ren ale batekin Xabier Oleaga Ikastolen Federazioko langile eta *Egunkaria* kasuan atxilotutakoaren alaba; Xabierren idatzi bat irakurri zuen alabak berak. UZTARRIA



Herritar ezagunak. Herritar ezagunak ere euskarazko prentsaren alde agertu ziren, euskarazko egunkari nazional berriaren aldeko kanpainan. Argazkian, ezkerrean, Joxe Agirre bertsolaria, eskuarte *Egunero* egunkaria duela. Eskubikoan, Kepa Peñagarikano pilotaria, hori ere *Egunero*-rekin. UZTARRIA



Beste herritarrak. *Berria* egunkaria sortzeko kanpainan, herritarrek izan ziren protagonista, milaka euro erosi zituztelako akziotan. Argazkietan, ezkerrean, Eduardo Berasategi harakina, akzioa betetzen. Eskubian goi-goian, koadrila bat akzioarekin, eta beste argazkian, Iñigo Agirre dendaria ere akzioa betetzen. UZTARRIA



Euskalgintzakoak. 2003ko ekainaren 7an Azpeitiko euskalgintzako erakundeek prentsaurrekoa eman zuten euskarazko egunkari nazional berriaren alde. Erniarraitz Bertsozale Elkartea, EHE, Uztarría, Baite Euskara Elkartea, AEK, Ikasberri Azpeitiko Ikastola, Zutarri Guraso Elkartea (Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai), Zutoin Guraso Elkartea (Urola Ikastola BHI) eta Iraurgi Ikastetxeko ordezkariak izan ziren. UZTARRIA



2003: bigarren operazioan bi azpeitiar atxilotuta. 2003ko urriaren 16an Espainiako Estatuak euskalgintzaren kontrako bigarren operazioa egin zuen, eta egun hartan azpeitiar bat atxilotu zuen Guardia Zibilak, Erreterian, bere etxean: Mikel Azkune, Egunkaria S.A.ren Ardatz enpresako administrazioailea. Eneko Etxeberria Egunkaria S.A.ren lege ordezkaria, berriz, Madrilén atxilotu zuten, Entzutegi Nazionalean, 20an. Denera bederatzi euskaltzale atxilotu zituzten. Denak libre geratu ziren urriaren 21ean, inportatuta ordea, eta, gainera, batzuk bermepean —Azkunek 12.000 eurokoa—. Ezkerreko argazkian, Mikel Azkune, Madrilén, senideekin, libre geratu eta gutxira. Eskubikoan, Eneko Etxeberria, bera ere Madrilén, libre geratu ondoren.



Harrera herrian. Urriaren 24an egin zitzaizen herrian harrera eta omenaldia Eneko Etxeberria eta Mikel Azkunereri, udaletxeko arkupeetan. Jende ugari azaldu zen, eta omenaldian dantzariak, bertsolariak... izan ziren. Argazkian, Azkune bera atxilotetako egunak herritarrei azaltzen. UZTARRIA



2004: 'Urola-Kostako Hitza'-ren zero zenbakia. Uztarriak helburuak betetzeko herri aldizkaria ez zuen nahikoa (euskararen normalizazioa eta informazioaren erreferentzialtasuna, batik bat), eta eskualdeko herri aldizkarien euskara elkarteekin (Txaparro-Zarautz, Artzape-Getaria, Baleike-Zumaia eta Danbolinzulo-Zestoa), Bertako Hedabideekin (Euskarazko Komunikazio Taldekoa) eta gizarte eragileekin *Urola-Kostako Hitza* euskarazko egunkaria sortzea erabaki zuen. Argazkian, herrian *Hitza*-ren zero zenbakia irakurtzen azpeitiar batzuk; 2004ko urtarrilaren 17an banatu zen, denek ezagutu zezaten. UZTARRIA



'Hitza'-ren aurkezpen festan. 2004ko otsailaren 20an banatu zen *Urola-Kostako Hitza*-ren 1. zenbakia, eta bezperan, Zarautzen, egunkariaren aurkezpen festa egin zen. Argazkian, Laxaro Azkune Uztarriako lehendakaria elkarteen izenean hitz egiten festan. Haren atzean, Joxe Joan Gonzalez Txabari Gipuzkoako ahaldu nagusia, Joanmari Larrarte EKTko idazkaria eta Gari Berasaluze *Hitza*-ko zuzendaria. HITZA



'Hitza'-ko Azpeitiko gizarte eragileak. Euskararen alde dauden gizarte eragileek osatzen dute *Urola-Kostako Hitza*-ren enpresako zutabeetako bat, eta Azpeitiak hasieratik du eragileen ordezkaritza. Izan ere, sortze berean enpresan sartu ziren Lagun Onak Mendi Bazkuna, Ikasberri Azpeitiko Ikastola, eta Zutoin (Urola Ikastola Azkoitia-Azpeitia BHI) eta Zutarri (Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai) guraso elkarteak. Argazkian, Josu Galarraga (Zutarri), Maje Larrañaga (Lagun Onak M.B.), Luxio Galarraga (Ikasberri) eta Agustín Lizarralde (Zutoin) ordezkariak Uztarriaren eta *Hitza*-ren egoitza kanpoan, *Hitza* irakurtzen. UZTARRIA



'Hitza' eta Uztarría batera. *Urola-Kostako Hitza*-ren egoitza nagusia Zarautzen dago, baina Azpeitian badu lokalik, eta, hain zuzen, Uztarría eta biak batera daude herrian: Julian Elorza Hiribidea 4, behea eskubia. Argazkian, erredakzioa. UZTARRIA



'Hitza' buzoira. Astean sei egunez banatzen da *Hitza*, Azpeitian 2.200 buzoitara, eta Mila Bergara da banatzaileetako bat. UZTARRIA



Noiz aldatuko dugu kioskoetako egoera? 2004an gaude, Azpeitian ia denok dakigu euskaraz, ia denok egiten dugu euskaraz, milaka gara euskaraz irakurtzeko gauza, baina prentsa erostean erdarazkoetara jotzen dugu, batik bat. Noiz aldatuko dugu kioskoetako egoera? 1910ekoa da argazkia, Joxe Inazio Zudupek herrian San Agustingo azken arkuak zeukan kioskoa ageri da, egunkariak dituela; erdarazkoak denak. Ia mende bat pasatu da harrezkero. Orain badago euskara hutseko egunkaririk, baina gure kontsumoak antzera segitzen du. Denon esku dago egoera aldatzea; beraz, zure esku ere bai. IMANOL ELIASEK UTZIA

Babesleak



AZPEITIKO UDALA

berria

Irribarri

hitza



CONSTRUCCIONES
ANTZIBAR
SERVICIOS

damufo



kutxa

gizarte ekintza



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



CONSTRUCCIONES
LAZKANO
SERVICIOS

Biele

Automatización de procesos

APARTE

Maiatzaren 27an izan zen Arbolita-Asperria
marialdi erdia eta ham izan zen Xabier Humalde,
hain aurretik eta ondoren segitu ziren Uztarriak



▲ GAZTEAK, TIROBATAI
...
...

ke bizitzeko eskubidea

Gazteak eta lur-pitoez

**Uztarriak eta Uztarriak
akordioa sinatu dute
ouskara normalizatzeko**

ISBN-84-609-2669-9



9 788460 926696